

ETXERIK GABEKO EUSKAL ESTRATEGIA

2018-2021

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

AURKIBIDEA

1. AURREKARIAK, HELBURUAK ETA METODOLOGIA	3
2. ETXEGABETASUNA: KONTZEPTUALIZAZIOA ETA KAUSAK	6
2.1. Etxegabetasuna kontzeptualizatzea eta mugatzea	6
2.2. Etxegabetasunaren kausak eta faktoreak.....	8
2.3. ¿Egoitza-bazterkeria, gizarte-bazterkeria edo etxegabetasuna?	10
3. ETXERIK GABEKO PERTSONEN ARRETA EUROPAN: EREDUAK IKUSPEGIAK ETA EDUKIAK .	14
3.1. Sarrera	14
3.2. Gizarte-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonak artatzeko paradigma berriak	15
3.3. Gure inguruko herrialdeetan etxegabetasuna desagerrarazteko estrategiak: ikuspegiak eta edukiak	23
4. EUSKADIKO ETXERIK GABEKO PERTSONEN EGOERARI ETA BEHARREI BURUZKO DIAGNOSTIKOA.....	41
4.1. Etxegabetasunaren intzidentzia eta bilakaera Euskadin	41
4.2. Etixerik gabeko pertsonen ezaugarriak eta profil berriak	47
4.3. Etixerik gabeko pertsonen beharrian nagusiak.....	52
4.4. Egoitza-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen ikuspegia	63
4.4.1. Sarrera eta aldez aurreko gogoetak	63
4.4.2. Eginiko dinamikak eta ekarpenak	64
5. ETXERIK GABEKO PERTSONENTZAKO ARRETA-EREDUA EUSKADIN: INDARGUNEAK ETA AHULGUNEAK	66
5.1. Euskadin etxerik gabeko pertsonentzako arreta arautzen duen araudi-esparrua.....	66
5.2. Etixerik gabeko pertsonentzako Euskadiko arreta-sarearen oinarritzko ezaugarriak	75
5.3. Etixerik gabeko pertsonentzako Euskadiko gaur egungo arreta-eredua: ahulgune nagusiak eta hobetzeko arloak.....	84
6. EGOITZA-BAZTERKERIA LARRIKO EGOERAK PREBENITZEKO ETA MURRIZTEKO EUSKAL ESTRATEGIA BATERAKO PROPOSAMENA.....	97
6.1. Sarrera	97
6.2. Estrategiaren oinarritzko ezaugarriak eta jarraipen-tresna	98
6.3. Oinarri orokorrak eta helburuak	101
6.4. Oinarritzko jarduketak eta ardatzak	104
6.5. Gidalerroak.....	104
7. BIBLIOGRAFIA	115

1. AURREKARIAK, HELBURUAK ETA METODOLOGIA

2014ko urtarrilaren 16an, Europako Parlamentuak adierazpen¹ bat onetsi zuen; horren bitartez Europako Batzordeari eskatzen zion gehiago itxaron gabe estrategia europar bat presta zezala etxerik gabeko pertsonentzat. Onetsitako adierazpenak honako hau du abiapuntu:

- a) Etxerik ez izatea giza duintasunaren eta giza eskubideen urraketa da, eta pobrezia nahiz ga-beziaren formarik larriena da.
- b) Etxebizitza gizakion funtsezko beharra da, eta ezinbestekoa da bizitza duina izateko eta gi-zarteko parte sentitzeko.
- c) Azken urteotan, etxebizitza-faltaren arazoa larriagotu egin da ia estatu kide guztietan.
- d) Krisi ekonomiko eta finantzarioa gogorren jasan duten estatuetan inoiz ikusi gabeko moduan ari da hazten etxerik gabeko pertsonen kopurua.

Besteak beste ideia horietatik abiatuz, Parlamentuak kide diren estatuei eskatu die garrantzi handi-goia eman diezaiotela etxerik gabeko pertsonen arazoa nazio-mailako beren erreforma-programetan txertatzeari. Gainera, Batzordeari eskatu dio honako alderdi hauetan arreta jar dezala, etxerik ga-beko pertsonentzako EBren estrategia bat garatzeko:

- Etxebizitzara bideratutako ikuspegia hartzea eta etxerik gabeko pertsonen arazoari aurre egiteko ikuspegi horri lehentasuna ematea.
- Mugaz gaindiko etxebizitza-faltaren fenomenoak.
- Etxerik gabeko pertsonen zuzenduriko zerbitzuen kalitatea.
- Etxerik gabeko pertsonen arazoaren prebentzioa.
- Etxerik gabeko gazteak.

¹P7_TA(2014)0043

Ildo beretik, 2016ko otsailaren 19an, Eusko Legebiltzarrak legez besteko proposamen bat onetsi zuen; horren bitartez, honako hau eskatzen zion Eusko Jaurlaritzari “eskumena duten erakundeekin, gizarte-eragileekin eta hirugarren sektoreko erakundeekin elkarlanean, hiru hilabeteko epean, estrategia integral bat gauza dezala eta Legebiltzarrari bidal diezaiola, etxerik gabeko pertsonen egoera errotik aldatzeko, etxerik gabeko pertsonen gizarteratze-prozesuak eta arreta integrala bermatzeko bizitzako esparru guztietan, modu koordinatuan eta bikoizketarik gabe”. Proposamen horrek 2014ko azaroaren 7ko osoko bilkura monografikoan, Gobernuak langabeziari eta pobrezari aurre egiteko garatu beharreko estrategia integralari buruzkoan, eskatzen zuen onetsitako 21. eta 23. ebazpenak, etxerik gabeko pertsonen egoera errotik aldatzeko estrategia integral bat sortzeari buruzkoak, bete zitezela.

Hauk izan ziren Euskadin etxerik gabeko pertsonentzako estrategia integral hori egiteko eman ziren lehen urratsak:

- Erakunde arteko negoziazioak burutzea eta behin betiko onestea urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa. Horri esker, posible zen gizarte-bazterkeria egoeran dauden edo horretarako arriskuan dauden pertsonen zuzenduriko zerbitzu eta prestazioen edukia nahiz erabiltzaileen profila zehaztea.
- 2014ko urrian egoitza-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen bigarren topaketa egitea, EAEko hamar udalerritan, eta topaketa horren emaitzei buruzko txostena argitaratzea, 2015eko urrian.
- 2015eko urrian EAEko Egoitza Bazterkeria Larriari buruzko II. Jardunaldiak egitea. Bertan, gogo aitapatutako txostenaren emaitzak aurkeztu ziren eta hainbat hitzaldi nahiz mahai-inguru egin ziren Euskadin etxerik gabeko pertsonen arreta emateko etorkizuneko estrategia baten edukia zein izan behar zen aztertzeko.

Etxerik gabeko pertsonen zenbaketa egiten zuen txostena nahiz jardunaldiak Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak sustatu eta finantzatu zituen, foru-aldundien, EUDEL-en eta Donostia, Bilbo eta Vitoria-Gasteizeko udalen lankidetzarekin.

Zorroaren Dekretua onetsi eta EAEko egoitza-bazterkeria larriari buruzko bigarren txostena egin ondoren, 2016 hasieran, Euskadin etxegabetasuna prebenitzeko eta arazo horri aurre egiteko estrategia bat egiteko prozesua abiarazi zen. Estrategia hori egia bihurtze aldera, dokumentu honek, lehenik eta behin, EAEn etxerik ez duten pertsonen dituzten ezaugarri eta beharrei buruz, eta egun indarrean dagoen arreta-ereduaren ahulgune eta indarguneei buruz egin den txosten teknikoa jasotzen du. Horrez gain, EBren esparruan etxegabetasuna prebenitzeko eta jorrazteko politikak zuzentzen dituzten joeren eta orientabideen azterketa ere jasotzen du. Dokumentu honek, gainera, Estrategia definitzen duten oinarriko ezaugarriak ere jasotzen ditu (xede horretarako sortutako Erakunde Arteko Lantaldeak egindako bileretan adostu ziren), baita Estrategia osatzen duten ekintza-ardatzak, helburuak eta gidalerroak ere.

Diagnostikoari dagokionez, dokumentuak honako eduki hauek jasotzen ditu:

- Etxegabetasuna kontzeptualizatzea eta mugatzea.
- Europan etxegabetasuna prebenitzeko eta murrizteko gauzatu diren estrategien eredu, ikuspegi eta edukiak deskribatzea.
- Euskadiko etxerik gabeko pertsonen egoerari eta beharrei buruzko diagnostikoa egitea.
- Euskadiko etxerik gabeko pertsonentzako arreta-ereduaren indarguneak eta ahulgu-neak: araudi-esparrua, arreta-sarearen ezaugarriak eta hobetzeko alderdi nagusiak.

Metodologiari dagokionez, diagnostikoaren edukiak iturri hauetatik jaso dira:

- 2012, 2014 eta 2016an EAEn egindako etxerik gabeko pertsonen zenbaketetan jasotako informazio kuantitatiboa, baita Estatistika Institutu Nazionalak (EIN) eta Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTAT) egindako etxerik gabeko pertsonentzako gizarte-zerbitzu eta arreta-

zerbitzuei buruzko estatistiketatik ateratako informazio kuantitatiboa ere, 2005 eta 2016 arteko datuekin.

- Europar etxerik gabeko pertsonen arreta emateko dauden ereduak buruzko literaturaren azterketa, zehatzago EBko herrialdeetan gauzatzen ari diren eta etxegabetasuna prebenitzeari eta ezabatzeari dagokionez emaitzarik onenak lortzen ari diren ikuspegi eta joerei buruzko literaturarena.
- Gizarte-bazterkeria egoera larriak dauden pertsonen arreta emateko gizarte-zerbitzuetan zuzenean lan egiten duten pertsonen (bereziki toki-administrazioetako eta hirugarren sektoreko erakundeetako teknikariak) elkarrizketak. Horri dagokionez, 2016ko urtarrilean eta otsailean hiru eztabaida-talde egin ziren zenbait profesionalekin, gizarte-bazterkeria egoera larriak dauden pertsonen beharrezkoak eta arreta-sarearen ahulguneak nahiz indarguneak aztertze aldera.
- Horrez gain, BesteBi plataformarekin eta EAPN Euskadirekin elkarlanean, diagnostikoari egoitza-bazterkeria egoera larriak dauden pertsonen ikuspegia gehitu zaio; horretarako, parte-hartze prozesu bat gauzatu zen erakunde horiek eskaintzen dituzten zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonekin.

Estrategia osatzen duten ardatz, helburu eta gidalerroei dagokienez, xede horretarako sortutako Erakunde Arteko Lantaldeak prestatu eta adostu ditu, 2016ko irailaren 13an, 2017ko martxoaren 29an eta urriaren 11n egindako bileretan, baita esku-hartze esparru zehatzetan, besteak beste osasunari edo etxebizitzari buruzkoetan, egin diren bileren esparruan ere.

Honako erakunde hauek hartu dute parte lantaldean:

- Barakaldoko Udala
- Bilboko Udala
- Donostiako Udala
- Getxoko Udala
- Irungo Udala
- Laudioko Udala
- Portugaleteko Udala
- Santurtziko Udala
- Gasteizko Udala
- EUDEL Euskadiko Udalen Elkarte
- Gizarte Zerbitzuen Saila. Arabako Foru Aldundia
- Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna sustatzeko Saila. Bizkaiko Foru Aldundia
- Gizarte Gaietako Saila. Gipuzkoako Foru Aldundia
- Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza
- Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza.
- Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eusko Jaurlaritza.
- Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza.

2. ETXEGABETASUNA: KONTZEPTUALIZAZIOA ETA KAUSAK

2.1. Etxegabetasuna kontzeptualizatzea eta mugatzea.

Etixerik gabeko pertsonak, gaua eta eguna hirietako kaleetan ematen dutenak, egoitza-bazterkeriaren islarik ikusgarri eta gordinena dira. Beren egoeraren gordintasuna **milaka pertsonak etxebizitza duin bat izateko eskubidean jasaten dituzten urraketen izebergaren punta dira, asko baitira infraetxeetan edo egoitza-zaugarritasun handian bizi diren** eta etxebizitza bat eraikitzeko itxaropenik ez duten pertsonak (Sales, 2016).

Etxegabetasuna gizarte garatu guztietan gehiago edo gutxiago aurki daitekeen gizarte-arazo bat da. Hiri-inguruneekin lotuta egon ohi da, batez ere hiri handietan, eta gizarte-bazterkeriaren adierazpenik muturrenakoetako bat da. Etxegabetasuna -pertsona bat etxerik ez izatera eramaten duen prozesu gisa ulertuta- errealitate konplexua da, alde batetik, egoera horren atzean egitura, erakunde, harreman eta pertsonekin zerikusia duten arrisku-faktoreak eta faktore eragileak daudelako, eta beste alde batetik, fenomeno bereziki dinamiko eta aldakorra delako. Hori dela eta, etxerik gabeko pertsonen fenomeno kuantifikatzeko eta ezaugarritzeko zailenetakoa da gizarte-politiken esparruan.

Europar Batasunaren esparruan ez dago etxegabetasunaren definiziorik, eta estatu kide guztiek ez dute definizio bateraturik; hala ere, adostasun handia dago –ez soilik politikoa, baizik eta baita zientifikoa ere– FEANTSAK garatutako kontzeptu-esparrua onartzeko. Kontzeptu-esparru horren oinarrian joan den mendeko 90eko hamarkadaren erdialdetik hona Europako Etixerik gabeko Pertsonen Behatokiak egindako ikerketa-lanak daude. Kontzeptu-esparru hori Dragana Avramov soziologoak proposatutako definizioetan oinarrituta dago; soziologo hori, hain zuzen ere, Etixerik gabeko Pertsonen buruzko Europako Behatokiko ikerketen koordinatzaile izan zen 1994 eta 1998 artean. Avramoven proposamenaren arabera, etxegabetasuna «modu etengabeen bizitzeko toki egoki bat ez izatea» izango litzateke, eta etxerik gabeko pertsona, berriz, *“modu etengabeen bizitzeko toki egoki bat eskuratu ezin duten pertsona guztiak, izan arrazoi ekonomikoak edota bestelako gizarte-oztopoak direla-eta etxebizitza hori mantendu ezin dutelako, izan modu autonomoan bizitzeko arazoak dituztelako eta beste batzuen arreta eta laguntza behar dutelako, baina instituzionalizatu gabe”* (Avramov, 1996: 71).

Definizio hori ordurarte etxegabetasunak zuen definizioa aldatzeko eta arazo horri erantzuteko politika publikoak diseinatzea helburu zuen ikuspegi bat sortzeko sortu zen. Definizioa are gehiago zehazteko, FEANTSAk babesten duen Etixerik gabeko Pertsonen buruzko Europako Behatokiak etxerik gabeko pertsonen tipologia bat egin zuen, arazo hori prebenitzeko eta konpontzeko politikak hobetzeko, integratzeko eta koherentzia areagotzeko (Cabrera eta Rubio, 2008). Tipologia hau ETHOS (European Typology of Homelessness and Housing Exclusion) siglaz ezagutzen da; 2005ean formulatu zen lehen aldiz, eta 2006an eta 2007an berrikusi zen. Tipologia horrek lau kategoria kontzeptual bereizten ditu, eta horiek, beren aldetik, hamahiru kategoria operatibotan banatzen dira; hala, guztira 24 azpikategoria daude, eta azpikategoria horiek egoitza-bazterkeriaren arazoa islatzen duten askotariko egoitza-egoerak biltzen dituzte.

1. taula. Etxegabetasunari eta egoitza-bazterkeriari buruzko Europako tipologia (ETHOS). 2007ko berrikusketa

	Kategoria kontzeptuala		Kategoria operatiboa	Kodea	Egoitza-egoera
ETXEGABETASUNA	Aterperik gabe	1	Espazio publiko batean bizi dira (aire zabalean)	1. 1	Espazio publikoa eta kanpoaldea
		2	Gaueko aterpe batean bizi dira eta/edo eguneko ordu ugari espazio publiko batean eman behar dituzte.	2. 1	Aterpea edo gaueko aterpea
	Etxerik gabe	3	Aterpeetan eta etxerik gabeko pertsonentzako zentroetan/aldi baterako ostatueta bizi direnak	3. 1	Aterpeak eta ostatu-zentroak
				3. 2	Aldi baterako eta igarotzako ostatua
				3. 3	Laguntzadun ostatuak
		4	Emakumeentzako ostatueta dauden pertsonak	4. 1	Emakumeentzako aterpeak (bakarrik edo seme-alabekin)
		5	Asilo-eskatzaile eta etorkinentzako ostatu-zentroetan dauden pertsonak	5. 1	Aldi baterako ostatua / Harrera-zentroak
				5. 2	Sasoiko langileentzako ostatuak
		6	Epe mugatu batean egoitza- edo barneratze-erakundeetatik kanporatuko dituzten pertsonak	6. 1	Erakunde penalak (kartzelak)
	6. 2			Osasun-erakundeak (ospitaleak etab.)	
	7	Etxerik gabeko pertsonak direlako etengabeko laguntzadun ostatua jasotzen duten pertsonak	6. 3	Adingabeentzako zentroak	
			7. 1	Etxerik gabeko adineko pertsonentzako egoitza	
	7. 2	Tutoretzapeko epe luzeko laguntzadun etxebizitza, aurretik etxerik ez zuten pertsonentzat			
EGOITZA-BAZTERKERIA	Etxebizitza ez-segurua	8	Jabetza ez-seguruko erregimenean bizi direnak	8. 1	Senide edo lagunak etxean bizi direnak
				8. 2	Legezko jabetzarik gabe (adb.: azpialokairuan)
				8. 3	Legez kanpoko okupazioa
	9	Kaleratze-mehatxupean bizi diren pertsonak	9. 1	Alokairu-erregimenean	
			9. 2	Etxea jabetzan dutela	
	10	Bikotekidearen edo familiaren indarkeria pairatzeko mehatxupean daudenak	10. 1	Poliziaren aurrean salaketak jarri dituztenak	
	Etxebizitza desegokia	11	Aldi baterako egituretan eta konbentzionalak ez diren bizi diren pertsonak	11. 1	Karabanak eta antzekoak
				11. 2	Konbentzionalak ez diren eta jendea bizitzeko pentsatuta ez dauden eraikuntzak
				11. 3	Aldi baterako egiturak
		12	Ostatu desegokia	12. 1	Eraikin okupatua, bizitzeko egokia ez dena
13	Muturreko metatzea	13. 1	Metatzea markatzen duten ohiko estandarren oso gainerik		

Iturria:geuk egina, Cabrera (2008: 192-193) eta Pleace et al. (2013: 21) oinarri hartuta.

ETHOS tipologiaren azpian dagoen eredu kontzeptuala Bill Edgar, Joe Doherty eta Hank Meert iker-tzaileek garatu zuten 2003 eta 2009 artean. Eredu horrek **etxea hainbat dimentsiotako kontzeptu gisa ulertzen du; horren arabera, etxebizitza bat izatea lau horma eta sabai bat izatea baino askoz ere gehiago da**. Ikuspegi horren arabera, etxe batek hiru arlo edo esparru ditu, eta horiek honako hauek hartzen dituzte barne: pertsona baten eta bere familiaren beharrezko erantzuteko egokia den etxebizitza (edo leku) bat izatea (alderdi fisikoa); pribatutasuna izatea eta gizarte-harremanez gozatu ahal izatea (alderdi soziala), eta jabetza eskusiboa, okupazio-segurtasuna eta legezko titulua izatea (lege-alderdia) (Edgar, 2009: 16). Hiru alderdi horiek konbinatuta, lau kategoria arrunt eratzen dira (egoitza-bazterkeria larrietik ez hain larria den egoerara), eta horiek dira ETHOS tipologiaren oinarriko lau kategoriak: aterperik gabe, etxerik gabe, etxebizitza ez-segurua eta etxebizitza desegokia.

Aurreko taulan ikus daitekeen moduan, lau kategoria kontzeptual horietatik hamahiru kategoria operatibo sortzen dira, eta kategoria horien barruan, **hainbat egoera barne hartzen dituen etengabeko lerro bat dago, literalki kalean dauden eta lotarako espazio publikoa erabiltzen duten pertsonetatik hasi eta etxebizitza bat izan arren bizigarritasun-baldintza egokiak ez dituzten pertsonenganaino**. Horri dagokionez, ETHOS tipologiak askotariko egoerak hartzen ditu aintzat; hala ere, biztanleria orokorra hiru talde handitan bereizten du: etxebizitza egokia duten biztanleak, egoitza-bazterkeriaren egoerak pairatzen dituzten biztanleak eta etxerik gabeko biztanleak (azken hori da egoitza-bazterkeriaren egoerarik muturrekoena). Jarraian adierazten diren arrazoiak direla eta, estrategia hau azken kategoria horretan dauden pertsonen zuzenduko zaie.

2.2. Etxegabetasunaren kausak eta faktoreak

Egoitza-bazterkeriaren etengabeko espektro horretan tipologia zehatz batzuk zehaztea baino garrantzitsuagoa da etxegabetasunari loturiko kausei edo faktoreei buruz hausnartzea; izan ere, muturreko egoitza-bazterkeria eragiten duten faktoreak zenbat eta hobeto ulertu, orduan eta hobeto hausnartu ahal izango dugu fenomeno hori prebenitzeko eta lantzeko artikulatu beharreko politiken gainean. Alde horretatik, normalean ulertzen da **etxegabetasuna lau kausa talde handien (egiturazkoak, erakundeenak, harremanenak eta pertsonalak) elkarreragin dinamikoaren ondorioz sorturiko prozesu bat dela eta kausa horiek oro har aldi berean edo modu konbinatuan agertzen direla**.

2. taulak kausa bakoitzari lotu ahal zaizkion kalteberatasun-faktoreak jasotzen ditu, baita faktore horiek aktibatu ohi dituzten eragile arruntenak ere.

2. taula. Etxegabetasunaren kalteberatasun- eta arrisku-kausak eta -faktoreak

Arrazoiak	Kalteberatasun-faktorea	Eragileak
Egiturazkoak	Prozesu ekonomikoak (lan-merkatuko aldaketak, eragina diru-sarreretan...)	Lana galtzea, hipoteka edo alokairua ordaintzen atzeratzea
	Higiezin merkatuari loturiko prozesuak (etxebizitza soziale-rako sarbidea)	Alokairuko edo jabetzako etxebizitza galtzea (kaleratzea)
	Migrazio-prozesuak (etorkinek bazterkeria eta gizarte-babeseko sistemetan sartzeko zailtasunak pairatzea)	Lan-egoera erregularizatzeko zailtasunak (etorkinak)
Erakundee-nak	Herritar guztiei zuzenduriko zerbitzuen estaldura	Laguntza edo prestazio bat bukatzea, edo desegokia den laguntza, beharrian bat agertuz gero
	Zenbait zerbitzu edo prestazio esleitzeko mekanismo desegokiak	
	Zerbitzuen arteko koordinaziorik eza	Zaintzen jarraitutasunean etenak
	Erakunde batean egotea (adingabeak babesteko zentroak, kartzelak, ospitaleak)	Erakunde batetik ateratzea, irtetean etxebizitzarik izan gabe
Harremanen arlokoak	Familia- eta gizarte-egoera (gizarte- eta/edo familia-sareak ahulak direnean edo ez daudenean, kalteberatasuna handiago da)	Familiaren etxetik alde egitea nora jo izan gabe
	Bikote- eta/edo familia-harremanetako indarkeria	Etxeko indarkeria
	Bikotea eta/edo familia modu traumatikoan apurtzea	Heriotza, dibortzioa, banaketa
Pertsonaren arlokoak	Desgaitasuna eta/edo epe luzeko gaixotasuna (buruko osasunari eta desgaitasun intelektualari loturiko arazoak barne)	Gaixotasun edo desgaitasun bat agertzea edo larriagotzea
	Hezkuntza-maila baxua	--
	Mendekotasunak (alkohola, drogak, jokia...)	Substantzien abusua eta/edo mendekotasun-jokabideak
	Banakako zenbait ezaugarri izatea, adina, generoa edo jatorria, esaterako.	--

Iturria:geuk egina, hau oinarri hartuta: Edgar. B. (2009) *European Review of Statistics on Homelessness*. Brusela: FEANTSA.

Azterketa teorikoetatik harago, gure testuinguru hurbilenean identifikatutako etxerik gabeko pertsonen buruz eskura dugun informazioa oinarri hartuta, posible da egoitza-bazterkeriaren egoera larrienak eragiten dituzten edo horiekin lotura duten faktoreak zein diren aztertzea. Hala, 2016an EAEko hogeit bat udalerritan gaueko zenbaketa bat egin zen, eta etxerik gabeko herritarrei galdetu zitzairen ea zergatik galdu zuten etxebizitza; erantzundako herritarren % 40k baino ez zuten arazo bakarra aipatu, eta gehienek bi arazo edo gehiago aipatu zituzten.

Galdera horri erantzun zioten 1. 268 pertsonen artean, **hamarretik hiruk arazo ekonomikoak aipatu zituzten egungo egoeraren eragile nagusi gisa; horrez gain, hamarretik bik laneko arazoak ere aipatu zituzten, eta ia hirutik batek familiako eta/edo bikoteko arazoak.** Kausa ohikoenen artean daude, era berean, egoitza-egoera erregulatzeari loturiko administrazio-arazoak, etorkinen kasuan (% 11), baita alkoholak edo beste droga batzuek eragindako arazoak ere (hamar pertsonatik bik aipatu zuten kausa hori). Kontsultatutako herritarren % 6 inguruk honako hauek ere aipatu zituzten: etxebizitza mantentzeari loturiko arazoak, osasun-arazo edo desgaitasunen bat izatea, erakunde batetik ateratzea eta familia-sarerik ez izatea.

3. taula. Etixerik gabeko herritarren banaketa, sexuaren eta aipatutako etxegabetasun-kausen arabera banatuta. 2016ko urriaren 26tik 27rako gaua

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Egiturazko faktoreak	48,4	58,5	56,3
- Laneko arazoak	16,8	24,7	23,0
- Arazo ekonomikoak	29,3	32,8	32,0
- Etxebizitza mantentzeari loturiko arazoak (kaleratzeak, alokairu-kontratua bukatzea edo garestitzea, etab.)	12,8	6,4	7,8
- "Paperik" ez izateari loturiko arazoak	6,2	13,2	11,7
- Migrazio-prozesuei loturiko beste arazo batzuk	1,8	8,2	6,9
Erakundeei loturiko faktoreak	2,2	7,0	6,0
- Erakunde batetik irtetea eta familia-sarerik ez izatea	2,2	5,5	4,8
- Arazoak harrera-sareetan (zigorrek, kaleratzeak, ordutegi zurrinak...)	0,0	1,5	1,2
Harremani buruzko faktoreak	45,1	25,9	30,0
- Familiako arazoak eta/edo bikotea apurtzea (etxeko indarkeria barne)	45,1	25,9	30,0
Faktore pertsonalak	20,5	29,8	27,8
- Alkohola edo beste droga batzuen kontsumoak eragindako arazoak	12,8	19,6	18,1
- Norberak nahi izatea	3,3	5,9	5,4
- Osasun-arazoak (gaitz kronikoak, desgaitasuna, ospitaleratzea...)	7,7	6,8	7,0
- Jokoaekin lotutako arazoak	0,4	1,5	1,3
N	273	995	1.268

Oharra: Oharra:taula honetan ageri diren datuak kalkulatzeko, galdetegiari erantzun zioten pertsonak (1.268) hartu dira oinarri; horiek gaueko zenbaketan zenbatu ziren heldu guztien (1.816) % 70 dira.

Iturria: 2016ko EAEko egoitza-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen buruzko III. ikerketa. Datuen aurrerapena

Galdetegiari erantzun dioten pertsonen erantzunak generoaren arabera interpretatzen baditugu, ikus daiteke **alde nabarmenak daudela emakumeen eta gizonen artean egoera hori azaltzeko faktore edo kausei dagokienez**. Gizonek emakumeek baino gehiago aipatzen dituzte faktore estrukturalak, bereziki lanari, ekonomiari edo paperen faltari loturikoak; emakumeen artean, aldiz, bereziki altua da harreman-faktoreen aipamena (% 45,1, gizonen % 29,8ren aldean), familiako arazoak eta/edo bikotearen haustura oinarri dutenak, baita indarkeria matxistaren egoera espezifikokoak ere.

2.3. Egoitza-bazterkeria, gizarte-bazterkeria edo etxegabetasuna?

Ikusi berri dugun moduan, etxegabetasunaren arazoa ulertzeko eredu teorikoen oinarrian egoitza-bazterkeriaren fenomenoaren ulermen zabala dago, eta horrek etengabeko espektru luzea hartzen du aintzat, kalean bizi direnengandik etxebizitza desagokiak dituztenenganaino. Egoitza-bazterkeriaren intentsitate-graduak identifikatzearen xedea da etxebizitza duten herritar "integratuen" eta kalean nahiz aterpeetan lo egiten duten eta etxerik ez duten (Sales, 2016) pertsonen arteko bereizketa apurtzea. Horrez gain, aurreko epigrafean etxegabetasun-egoerei loturiko arrisku-faktore edo kausa nagusiak ere ikusi dira.

Baina, arazo horri aurre egiteko neurriak planifikatzerakoan, zein kausa edo arrisku-faktoretan eragin behar dugu? ETHOS tipologiako zein kategoriatan egin beharko genuke ahalegin berezia? Horrelako estrategia bat egoitza-bazterkeria egoerak eragiten dituzten faktoreetan zentratu beharko litzateke, etxerik gabeko pertsonak ezaugarritzen dituzten gizarte-bazterkeria arazoan abstrakzioa eginez? edo, alderantziz, gizarte-bazterkeria egoerarik larrienak konpontzeko plan gisa aurkeztu behar da?

Interes teorikoaz harago, **edozein estrategia egiteko, funtsezkoa da esku hartuko den esparruari, fenomenoari edo kolektiboari buruzko definizio adostu bat izatea; izan ere, definizio horren mendekoa izango da politika edo arreta-unitate batzuk ala besteak aukeratzea.** Ikuspegi horretatik, estrategiaren lehen elementu gisa, beharrezkoa da zehaztea zein neurritan zentratuko den egoitza-bazterkeria egoeretan (eta zein egoeratan zentratuko den), gizarte-bazterkeria egoera larrietan zentratuko den eta/edo etxegabetasunaren esparru espezifikoan arituko den. Galdera horri erantzuteko, bi planteamendu ditugu, nahiko kontrajarriak, gainera.

Lehenengo planteamenduak, agian tradizionalenak, defendatzen du **etxegabetasuna egiturazko, erakundeen, harremanen eta norbanakoaren kausen konbinazio baten emaitza dela, eta lotura estuagoa duela eragindako pertsonen gabezia ekonomiko, psikosozial eta harreman-gabeziekin etxebizitza ez izatearekin baino, zehatz hitz eginda.** Ikuspegi horren arabera, gorago adierazitako tipologiez harago, egoitza-bazterkeria larria edo etxegabetasuna eta gizarte-bazterkeria larria parekoak dira.

Lehenago egin den etxegabetasunaren kausei buruzko azterketa laburrak argi adierazten du egoitza-bazterkeria ez dela soilik aterperik, etxerik edo etxebizitzarik ez izatea. Ikuspegi horretatik, pentsa liteke etxegabetasunaren esparruko esku-hartze bat ez litzatekeela muturreko egoitza-bazterkeriara mugatu beharko, egoera hori eragiten duten faktoreak ibilbide eta baldintzatzaile askoz ere zabala goei loturik baitaude (bai egiturazkoak, bai norberarenak). Oro har, ikuspegi honen arabera, etxegabetasun-egoeran dauden pertsonak hiru arrazoi hauetatik gutxienez bi arrazoiengatik daude egoera horretan:

- Ez dute etxebizitza batean mantentzeko autonomiarik, eta horretarako laguntza behar dute.
- Ez dute behar bezalako gizarte-, harreman- edo babes-sarerik.
- Ez dute baliabide ekonomiko nahikorik modu autonomoan etxebizitza batean egoteko.

Ikuspegi horren oinarrian, beraz, ideia hau dago: etxebizitza autonomo bat lortzeko ezintasuna ekonomia-, lan-, harreman-, lege- edo osasun-arazoen eragin dute, hau da, gizarte-bazterkeriaren oinarrian dauden arazoen. Horren ondorioz, proposatzen da esku-hartzea funtsean gizarte-bazterkeria prebenitzeko edo konpontzeko mekanismoetatik egitea, hau da, Gizarte Zerbitzuetatik, tradizionalki ulertu izan diren moduan.

Bigarren planteamendua berritzaileagoa da, gutxienez gure inguruan², eta itxuraz bistakoa den zerbait onartzea du abiapuntu:**etxegabetasuna etxebizitza bat eskuratzeko ezintasunaren ondorioz sortzen den egoera bat da.** Etxerik gabeko pertsonak partekatzen duten ezaugarria da etxerik ez dutela. Planteamendu hau defendatzen dutenen ustez, etxegabetasuna konpontzeko etxebizitza bat eskuratzeko ardatz gisa hartzen badugu, beharrezkoa da osasun-sistemaren funtzionamenduan inpiratutako politika tradizionalen gainean hausnartzea, funtsean Gizarte Zerbitzuetatik garatuta baitaude. Hau diote ikuspegi hori defendatzen dutenek: *“etxerik ez duten pertsonak tratamendua behar duen patologia sozial bat duten gaixo gisa tratatzen baditugu, ontzat emango dira arazoa bide publikotik larrialdiko egoitza-zentroetara eramaten duten konponbideak. Aterpeetan aldi baterako harrera eskaintzea une egokia izan daiteke gizarte-zerbitzuekin lotura bat sortzeko eta babesbaurkitzeko, artatzen diren pertsona batzuen kasuan; alabaina, porrotak eta frustrazioak metatzen direnean, autonomia pertsonala berreskuratzeko prozesuak gauzatzeko aukera gero eta txikiagoa bihurtzen da. Etxebizitza bat eskuratzeko aukera-faltak eragiten du mendebaldeko hirietan aterperik ez duten herritarren zati*

²Aurrerago ikusiko den moduan, hori da Europako hainbat herrialdetan garatzen ari diren eta Europako erakunde komunek sustatzen dituzten strategiak definitzen dituen ikuspegia. Hain zuzen ere, gorago esan den moduan, Europako Parlamentuak estatu kideei eskatu die etxerik gabeko pertsonen arazoa jorratzerakoan lehentasuna eman diezaiotela etxebizitza eskuratzeari.

baten egoera kronifikatzea: denboraldi batzuk kalean ematen dituzte eta beste batzuk aterpe eta egoitza-zentroetan” (Sales, 2016).

Planteamendu horretatik erator daiteke etxegabetasunari aurre egiteko beharrezkoa dela etxebizitzaren merkatutik kanpo gelditzen diren pertsonen jarioa geldiaraztea; horretarako, egoitza-bazterkeriaren hiru faktore nagusietan eragin beharko da: etxebizitza merkerik ez egotea, diru-sarrerak bermatzeko sistemaren gabeziak eta jatorri atzerritarra duten etorkin askok bizi duten administrazio-bazterkeria. Ikuspegi honen defendatzaileen esanetan, egiturazko faktore horietan eragiten ez badugu, gizarte-zerbitzuak izango dira pobreak suntsitutako familiei larrialdiko erantzun partzialak ematera bideratutako azken kontentzio-sarea. Etxegabetasunari aurre egiteko estrategia etxebizitza-politiketan zentratuz gero, eta ez gizarte-zerbitzuetan, Gizarte Zerbitzuak konpondu ezin duten arazo baten erantzule egiteari utziko diogu (Pleace et al., 2015)

Dokumentu honetan jasotzen den diagnostikoa eta estrategia-proposamena etxegabetasunaren kausen bi ikuspegi horien tartean kokatzen dira. Ikusi dugun moduan, bi planteamenduek aukera desberdinak proposatzen dituzte garatu behar diren neurriek eta horiek ezartzeko erabili behar diren politika publikoen esparruei dagokienez:

- Alde batetik, bistakoa da etxegabetasunak erreferentzia egiten diola nagusiki etxerik ez izateari; horregatik, **azpimarratu behar da etxebizitza-politikek izan behar duten garrantzia, bai prebentzioan, bai arazoari aurre egiteko ukan.**
- Ikuspegi horren defendatzaileek esaten dute etxebizitzari loturik ez dauden beste mekanismo batzuetan ere eragin behar dela –esate baterako diru-sarreraren bermea edo atzerritarren administrazio-erregulazioa- etxegabetasuna desagerrarazteko, horiek ere etxebizitzarik eskuratu ezin izatea eragiten dutelako. Testuinguru horretan, aipatutako bi horiez gain, **bistakoa da, baita ere, askotan beste gabezia edo zailtasun batzuk daudela (funtzionalak, harremanenak) etxegabetasun-egoeren sorreran, eta horiei Gizarte Zerbitzuen bidez erantzun ohi zaie.** Beste alde batetik, ezin ahaztu daiteke etxegabetasuna konpontzea xede duen edozein estrategia (jada aipatu ditugun egiturazko elementuez gain) gizarte-bazterkeria egoeran daudelako lo egiteko tokirik ez duten pertsonen zuzenduriko larrialdiko unitateak hobetzea izan behar duela ardatz, baita Gizarte Zerbitzuek zehazki gizarte-bazterkeriari aurre egiteko gauzatzen dituzten gizartean eta hezkuntzan nahiz arlo psikosozialean esku hartzeko prozesuak ere.

Hortik erortzen da estrategia honetan (bai diagnostikoan, bai proposatutako neurrietan) Gizarte Zerbitzuei ematen zaion pisua; izan ere, arazoa etxebizitza-falta huts gisa soilik definituko balitz, proposatutako neurri gehienak etxebizitzaren esparruan hartu beharko liriteke. Dena den, horrek ez du inolaz ere eragozten azterketak eta proposamenak etxebizitza-politiketan eta etxegabetasun-egoeran eragiten dute gainerako alorretan –enplegua, justizia, diru-sarreraren bermea...- zentratzea, bai egoera horiek sorrazten dituztelako, bai egoera hori bizi dutenei bereziki eragiten dietelako.

Ildo horretatik, **datozen orrietan aurkezten den diagnostikoa eta horretatik erortzen diren neurrien proposamena egoitza-bazterkeriaren kontzeptuaren kontzeptualizazio mugatu batetik abiatzen dira, eta kontzeptualizazio horren funtsean etxegabetasuna dago,** hau da, “aterperik gabeko pertsonak” eta “etxerik gabeko pertsonak” ETHOS tipologiaren arabera. Hala ere, etxegabetasunaren kontzeptuari jarritako muga horiek ez dute esan nahi estrategia honen esparruan ETHOS tipologiaren espektroko beste egoera batzuk ere aintzat hartu ez direnik, batez ere egoitza-egoera bereziki kalteberak identifikatzeko eta prebentzio-ekintza ildoak ezartzeko.

Etxegabetasunaren fenomenoaren kontzeptualizatzeari dagokionez, proposatutako strategiak oinarri hauek ere baditu:

- Etxegabetasun egoerak, ia-ia definizioz, dinamikoak dira. Zehatz hitz eginez gero, ez dago etxerik gabeko pertsonarik, baizik eta epe labur edo luzeago batean eta askotan etenen etxerik gabe dauden pertsonak. Hori dela eta, hau ez da kolektibo zehatz bati zuzenduriko estrategia bat; horren ordez, egoera batzuk prebenitzea eta behar zehatz batzuei erantzutea du xede.

- Etxegabetasun egoerak, ia-ia definizioz, askotarikoak ere badira. Hain zuzen ere, egoitza-bazterkeria egoera arinenetatik hasi eta kalean bizi behar izatera doazen egoeretara iristeko bideak asko eta askotarikoak dira; ondorioz, etxerik gabeko pertsonen buruz hitz egitea, ezaugarri berak dituzten kolektibo bat balitz bezala, sinplifikazio estigmatizatzaile bat baino ez da (Sales, 2016).

Aurreko hori kontuan hartuta, aurkezten den estrategia ez ditu erakundeek gizarte-inklusioren, diru-sarrerak bermatzearen, osasunaren, justiziaren, gizarte-zerbitzuen edo etxebizitza eskuratzearen arloak martxa jar ditzaketen plan edo estrategia zabalagoak ordezkatzeko, baizik eta EAEn etxegabetasun-egoerak desagerraraztera edo, gutxienez, murriztera bideratutako prebentzio-neurriak eta zuzeneko esku-hartze neurriak artikulatzea du xede.

3. ETXERIK GABEKO PERTSONEN ARRETA EUROPAN: ERE- DUAK, IKUSPEGIAK ETA EDUKIAK

3.1. Sarrera

EAEEn etxegabetasuna desagerrarazteko edozein estrategia definitzeko, etxerik gabeko pertsonen profila eta arreta-ereduaren indarguneak nahiz ahulguneak aztertzeaz gain, beharrezkoa da **gure inguruko herrialdeetan dauden joerak eta orientabideak ezagutzea, egoitza-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen arreta emateko politikei dagokienez**. Horretarako, kapitulu honetan labur-labur aztertuko dira Europan eta Ipar Amerikan gizarte-bazterkeriari eta/edo egoitza-bazterkeriari aurre egiteko erabili diren ereduak eta ikuspegiak. Lehenik eta behin azken urteotan gizarte-bazterkeriaren eta etxegabetasunaren arloko politika publikoei buruz argitaratu den literatura berrikusiko dugu. Berrikuspen horren helburua da gure inguruan garatzen ari diren ikuspegiak, orientabideak eta joerak identifikatzea, gero, egokitzat jotzen badira, dokumentu honen azken kapituluan proposatzen diren helburu eta neurrietan txertatzeko.

Kapitulua bi zati hauetan banatzen da: txostenaren egileek aurretik EAeko beste eragile eta erakunde batzuentzat egindako hausnarketak abiapuntu hartuta, **lehen zatian Europan gizarte-bazterkeriari aurre egiteko politiketan txertatzen ari diren ikuspegi eta orientabide berriak jasotzen dira**, joera eta orientabide horiek modu argian eragiten baitute azken urteotan ikusi ditugun etxegabetasunari aurre egiteko politiken birformulazioan³. Bigarren zatian, berriz, arreta handiagoa jarriko zaio etxegabetasunari eta **gure inguruko herrialdeetan etxegabetasunari aurre egiteko estrategien ezaugarri nagusiei, printzipio, xede, formatu edo edukiei dagokienez**.

³Atal honetan jasotzen diren planteamenduak, funtsean, SIISein egindako bi lan hauek dituzte oinarri: 'Modelo INCLÚE. Fundamentación teórica, buenas prácticas y selección de herramientas de medición de los procesos de inclusión social', Emaús Fundazioarekin elkarlanean egina, eta 'Estudio para la reordenación de la red de recursos y programas para la inclusión social de Gipuzkoa', Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarteratze Zerbitzuarekin elkarlanean egina. Hausnarketa horiek oinarri izan dira, baita ere, Bizkaiko Foru Aldundiak SIISein lankidetzan egin duen gizarteratzeko gizarte-zerbitzuen plangintza-prozesuan.

3.2. Gizarte-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonak artatzeko paradigma berriak

EAEren testuinguruan gizarteratzeko gizarte-zerbitzuen antolaketa aldatzeko beharra planteatzean, adierazi da **beharrezkoa dela bazterkeria-egoeran dauden edo horretarako arriskua duten pertsonen arreta-eredua zuzentzen duen kontzeptu-esparrua eguneratzea.**

Zergatik da beharrezkoa eguneratze hori?

Alde batetik, esan daiteke gizarte-bazterkeria artatzeko ereduak **gehiegizko garrantzia ematen diola laneratzeari eta funtsean “aldaketa egiteko motibazioa” duten pertsonen zuzentzen zaiela, hau da, esku-hartze finalista eta errehabilitatzaile batean inplikatzeko gai diren pertsonen**; oro har, esku-hartze hori gizarteratze eta normalizazio maila altuagoen bila joaten da modu progresiboan. Horrek esan nahi du, oro har, eskakizun-maila altua aplikatzen dela eta esku-hartze finalista eta linealak garatu ohi direla; esku-hartze horiek, baina, ez daude ondo egokituta bazterkeria-ibilbideen espiralizaerara. Esparru horretan, kritikatu izan da gizarte-bazterkeriari aurre egiteko egungo ereduak ez zaiola beti behar besteko garrantzia ematen tarteko helburuak erdiesteko beharrari, eta kalteak kontrolatu eta murrizteko beharrari. Horren ondorioz, praktikan, eskakizun-maila altua eskatzen duten esku-hartzeetara egokitu ezin duten edo nahi ez duten pertsonak zerbitzu ugariatik kanpo gelditzen dira; gainera, ezin dira emaitza onak lortu pertsona askorentzat irrealak diren helburuak planteatzen dituzten esku-hartzeetan. Gainera, egungo ereduak gizarteratze-zerbitzuetan baldintzakotasun-irizpideak sartzea dakar, moralari loturikoak, alegia. Irizpide horiek “merezimendu” mailak sartzen dituzte, norbanakoen portaeren arabera, eta hori ez dator beti bat azken urteotan Gizarte Zerbitzuen esparruan sustatu diren lege gehienek ezartzen duten eskubide subjektiboaren esparruarekin (berezi EAEko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea).

EAEko gizarte-bazterkeria artatzeko ereduak beste gabezia batzuk ere hauteman dira, besteak beste benetan norbanakoari zuzenduriko arreta eskaintzeko zailtasunak, komunitatean integratuta ez dauden edo integrazio txarra duten egoitza-zentroak gehiegi erabiltzeko joera, edo emakumeen behar espezifikoetara egokitutako zerbitzuak eskaintzeko mugak, genero-ikuspegia kontuan hartuta.

Gabezia horiek oinarri hartuta, pentsa liteke gizarteratzearen arloko arreta-ereduak behar duen aldaketa egiteko kontuan hartu beharko litzatekeela gure inguruko herrialdeek garatu dituzten paradigma berriak, gizarte-zerbitzuen arloan esku hartzekoak, hain zuzen ere, paradigma horiek adierazitako gabezia eta muga batzuei erantzun egokia ematen saiatzen baitira. Hauek dira horri dagokionez eredu edo ikuspegi interesgarrienak:

a) Bizi-kalitatea eta pertsonak ardatz dituen arreta (PAA)

Adineko pertsonen edo desgaitasunen bat duten pertsonen esparruan, azken urteotan bizi-kalitatea eta pertsonak ardatz dituen arreta (PAA) asko garatu dira, gutxienez teoriarik, eta erreferentziako paradigma bilakatu dira pertsona horiei zuzenduriko gizarte-zerbitzuen norabidea berbideratzeari dagokionez. Zalantzarik gabe, eredu horrek arreta handiagoa jartzen dio norbanakoari, eta gizarte-zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen beharrezko eta espektatibetara egokitzen da; hori gizarteratze-zerbitzuetan txertatzea interesgarria izan daiteke.

Berariaz adineko pertsoneri zuzenduta ez badago ere, pertsona ardatz duen ereduari lehentasuna eman zaio gure eskualdean, arreta gerontologikoaren esparruan. Martínezen esanetan (2011). “*persona ardatz duten eredu tradizionalki zerbitzuen ikuspegitik diseinatuta dauden beste eredu batzuegandik bereizten duen ezaugarria da eredu horrek **erabiltzaileak bere arretan duen funtsezko rola airtortzen duela eta, ondorioz, estrategiak proposatzen zaizkiola berak kontrola ditzan eragiten dioten gaiak**. Hori da eredu horren ekarpen nagusia, eta benetan berritzailea dena, zerbitzuetara bideratutako ereduaren aldean; izan ere, eredu horietan, banakako arreta helburuetako bat bada ere, subjektuak rol pasiboagoa du, eta zerbitzuen hartzailea da, profesionalek, adituak diren heinean, erabakitzen baitute bere zer behar duen”.*

Autore horren ustez, PAA ereduak guztiz bestelako ikuspegia ematen du, banakako arreta bilatzen duten beste eredu klasikoago batzuen aldean: “*Alde nagusia da PAA ereduak erabiltzaileei ematen dien rola eta horrek laguntzan eta esku hartzeko moduan dituen ondorioak. Banakako arretak pertsonaren beharriari erantzun diezaieke, pertsonak prozesuan parte hartzeko beharrik gabe. Hala gertatzen da praktika paternalistetan, zeinetan profesionalek erabakitzen baitute pertsonen eguneroko bizitzari buruzko guztia, sinetsiz haiek adituak direnez hobeto jakingo dutela pertsonak zer behar duen. PAA ereduak arreta pertsonalizatu nahi du, ulertuz norbanakoak pertsona gisa eraikitzen direla besteengana irekiz eta besteekin komunikatuz. Helburu du pertsona guztiek (baita autonomia murriztua dutenek ere) eragile nagusiaren rola hartzea eta, ahal den neurrian, aktiboak izatea. Helburua ez da soilik arreta individualizatzea, baizik eta pertsona ahaldu nahi da, gizarte-harremanetatik hasita, pertsonak bere gaitasun eta nahien arabera kudeatu dezan bizitza, eta erabakiak har ditzan” (Martínez, T, 2013).*

Eredu hori gizarteratze-zerbitzuetara ekartzeak bi ondorio garrantzitsu ditu, gutxienez:

- Alde batetik, **bizi kalitatea –artatutako pertsonen bizi eta definitzen duten moduan- bilakatzeko da esku-hartzeen urrezko arau,** gizarteratzeko helburuarekin batera.
- Beste alde batetik, **babesen eredu** –arretaren individualizazioari estuki lotua– ezartzeak esan nahi du aldatu egin behar dela profesionalek esku-hartzeak ulertzeko duten modua; hala, euren egiteko nagusia artatutako pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta pertsona horiek gizarteratzeko babesak eskaintzea izango da.

Eredu hau aztertzea beharrezkoa da gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsoneri zuzenduriko baliabideak kontzeptualizatze aldera; izan ere, ezartzen du bizi-kalitatea hobetzea izan beharko litzatekeela gizarte-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonak artatzeko zentzuen eta zerbitzuen xede nagusia, gizarte esku-hartzearen ulermen “normalizatzaileagoen” gaineratik. Ikuspegi horretatik, gizarteratzea bizi-kalitatearen beste dimentsio bat balitz bezala ulertzen da, funtsezkoak diren beste alderdi batzuekin batera, esaterako ongizate emozionala, pertsonen arteko harremanak, ongizate materiala, ongizate fisikoa, garapen pertsonala edo burujabetza.

4. taula. Bizi-kalitatearen dimentsioak eta beharrezko babesak

Dimentsioa	Deskribapena
Ongizate emozionala (OE)	Pertsona lasai eta kezkarik gabe egotea, urduri ez egotea. Adierazle hauen bidez ebaluatzen da:gogobetetasuna, autokontzeptua eta estresik edo sentipen negatiborik ez izatea.
Pertsonen arteko harremanak (PH)	Pertsonekin harremanetan egotea, adiskideak izatea eta pertsonekin tratu ona izatea (auzokideak, lankideak etab.)Adierazle hauen bidez ebaluatzen da:gizarte-harremanak, adiskide argiak izatea, familia-harremanak, gizarte-harreman positibo eta gogobetetzailak, bikote-harremanak eta sexualitatea.
Ongizate materiala (OM)	Behar eta nahi dena erosteko beste diru izatea, eta etxebizitza nahiz lantoki egokia izatea. Adierazle hauek ebaluatzen dira:etxebizitza, lantokia, soldata (pentsioa eta diru-sarrerak), jabetzak (ondasun materialak) eta aurrezkiak (edo gutziak erosteko gaitasuna).
Garapen pertsonala (GP)	Gauzak ikasteko, ezagutzak izateko eta norberaren helburuak erdiesteko gaitasuna da. Adierazle hauekin neurtzen da:mugak/gaitasunak, teknologia berriak erabili ahal izatea, ikasteko aukerak, lanari (edo beste jarduera batzuei) loturiko trebetasunak eta trebetasun funtzionalak (gaitasun pertsonala, egokitze gaitasuna eta komunikazioa).
Ongizate fisikoa (OF)	Osasuna izatea, fisikoki ondo sentitzea, elikadura-ohitura osasungarriak izatea. Adierazle hauek hartzen dira aintzat:osasun-arreta, loa, osasuna eta osasunaren gorabeherak, eguneroko jarduerak, laguntza teknikoa eskuratu ahal izatea eta elikadura.
Burujabetza (BU)	Erabakiak hartzeko gaitasuna, eta norberak nahi duena aukeratzeko ahalmena (bizitza, lana, aisialdia, bizitokia, inguruko jendea). Adierazle hauek ebaluatzen dira:helburu eta lehentasun pertsonalak, erabakiak, autonomia eta hautuak.
Gizarteratzea (GI)	Beste pertsona batzuk dauden hiriko edo auzoko tokietara joatea eta beste edonork bezala parte hartu ahal izatea. Gizartearen parte sentitzea, integratuta sentitzea eta beste pertsona batzuen babesa izatea. Adierazle hauek ebaluatzen dira:gizarteratzea, parte-hartzea, irisgarritasuna eta euskarriak.
Eskubideak (ES)	Besteen parekoa izatea, besteek jasotzen duten tratua jasotzea, eta izateko modua, iritziak, desioak, intimitatea eta eskubideak errespetatzea. Dimentsio hau adierazle hauen bidez ebaluatzen da:intimitatea, errespetua, ezagutza eta eskubideen erabilerak.

Iturria: Verdugo *et al.* (2013).

b) Indibidualizazioa, burujabetza eta kontrola

Bizi-kalitatearen ikuspegia eta pertsona ardatz duen arretari estuki lotuta, **arretaren indibidualizazioa ere funtsezko elementua da gaur egungo gizarteko esku-hartzeetan**. *Social Care Institute for Excellence* (SCIE) izenekoaren arabera, indibidualizazioak edo pertsonalizazioak eskatzen du gizarterbitzuetako erabiltzaileak indarguneak, gaitasunak eta lehentasunak dituzten banakako gisa ikustea, eta hori jartzea ematen zaizkien zaintzen eta zerbitzuen erdigunean. Zerbitzuak ardatz dituen ikuspegi tradizionalaren eraginez, askotan pertsonak ez dituzte behar edo nahi dituzten babesak jaso; alderantziz, ikuspegi pertsonalizatuetan, uste da pertsonak beraiek identifika ditzaketela euren beharrak, eta jaso nahi dituzten laguntzei buruzko erabakiak har ditzaketela. Horretarako, beharrezkoa da pertsonak informazioa eta aholkua jasotzea, erabaki egokiak hartu ahal izan ditzaten. Laburbilduz, xedea da pertsona jartzea sistemen, prozesuen, ekipoen eta zerbitzuen erdigunean (Carr, 2008).

Hainbat arrazoi daude indibidualizazioari hainbesteko garrantzia emateko:alde batetik, uste da ikuspegi indibidualizatua dela erabiltzaile bakoitzaren behar, desio eta espektatiba partikularrei erantzuteko modu bakarra, baita eskaintzen zaizkion zerbitzuak eta prestazioak bere egoerara egokitzeko modurik onena ere, unitatearen (gizartekoa, osasunekoa nahiz hezkuntzakoa) aukerak erabiltzaileen beharrezko gaitasunak gainetik jartzen dituzten eskema generalistetatik ihes eginez. Halaber, uste da era horretako ikuspegiak eraginkorrak direla, artatutako pertsonen motibazioa hobetzen dutela eta, batez ere, gizarte- edo lan-bazterkeria egoerei erantzuteko ezinbestekoa den gizarte-laguntzako lana egiteko aukera ematen duela. Ikuspegia are gehiago indibidualizatzeko hautua gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen burujabetza-eskaeran eta jasotako arreta gehiago kontrolatzeko nahian egondako gorakadaren ondorioa da; izan ere, erabiltzaileak askotan ez dira ados egoten gizarteko esku-hartzeko eredu konbentzionalen gehiegizko zorrotzasunarekin, ezta izaera paternalistarekin ere.

Ikuspegi horretatik abiatuta, azken urteetan, adineko pertsonen eta desgaitasunen bat duten pertsonen arretaren arloan, indibidualizazioan oinarritutako ereduak garatu dira; eredu horiek estuki loturiko bi helburu hauek erdiesteko nahia partekatzen dute: alde batetik, **arreta indibidualagoa eta integralagoa izatea nahi dute**, lehenago ere aipatu ditugun bizi-kalitatea, laguntza pertsonalizatua eta pertsona ardatz duen arreta aintzat hartzen dituzten ikuspegi ildotik; beste alde batetik, **gizarte-zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonak ahalduntzea, erabakitze gaitasuna ematea, burujabetza-eskubidea aitortzea eta, azken batean, euren bizitza kontrolatu dezaten ahalbidetzea nahi da**. Hasiera batean bereziki desgaitasunen esparruan garatu zen ‘bizitza independentearen’ mugimendua da filosofia horren adierazle nagusietako bat:

c) Kalteak murriztea eta eskakizun baxua

Azken urteetan gizarte-politikan eta, zehatzago, osasun publikoaren eta droga-mendekotasunen arretaren arloan, joera edo paradigma-aldaketa bat hau izan da: **arriskuak eta kalteak murrizteko programen hedapena, eta horren ondorioz eskakizun baxuko⁴ edo atalase baxuko programak garatzea**. Eskakizun baxuaren kontzeptua estuki lotuta dago kalteak murrizteari, eta 80ko hamarkada bukaeran eta 90ko hamarkada hasieran agertu zen Europan, droga-mendekotasunaren arloko eskuhartze eredu berriekin. Ideia hau du abiapuntu: drogak utzi nahi dituen pertsonari horretarako baliabideak eskaini behar zaizkio; hala ere, drogak utzi nahi ez dituen edo ezin dituen pertsonak beharrezko mekanismoak izan behar dituzte bizirik jarraitzeko eta, horretarako, beharrezkoa da eskakizun baxuko (atalase baxuko) baliabideak sortzea, arreta medikuarekin eta oinarritzko gizarte-arretarekin (Bilboko Cáritas Diocesanas / Munduko Medikuek, 2013).

Eskakizun baxuaren kontzeptua gizarte-eragileek sortu zuten, ikusita gizarte-bazterkeria egoeran zeuden zenbait pertsonen artean etengabe egiten zutela porrot toxikomaniak tratatzeko programek eta askotariko profilak zituzten erabiltzaileak gizarteratzeko prozesuek. Gizarteratze-prozesuetatik kanpo inor ez uzteko beharrak bultzatuta sortu zen; izan ere, ikusten dugu pertsona batzuek behin eta berriro hasten dituztela euren profilerak egokitzen ez diren programak. Ordura arte, programen hezkuntzaren arloko edukien zati handi bat arauak zorrotasunez betetzean eta etapa batzuk epe jakin batean betetzean zetzan. Arau horiek erreferentzia egiten zieten ordutegiak betetzeari, drogarik ez kontsumitzeari, agindutako tratamenduak jarraitzeari, jardueretan parte hartzeari eta baliabidearen barruan elkarbizitzako jokabide egokiak izateari (Zubietxe Elkarte / EDE Fundazioa, 2013).

⁴Aurrerago ikusiko den moduan, eskakizun-mailen kontuan funtsezkoa da etxerik gabeko pertsonentzako zerbitzuen sarea definitzeko unean.

Mendekotasunen aplikazio espezifikotik harago, kalteak murriztearen kontzeptua (kasu batzuetan gizarte-lan paliatibo⁵ gisa ulertu da) zuzenean aplika daiteke gizartetik at dauden pertsonen arreta emateko esparruan, honako hau kontuan hartuta: a) Aukera ematen du **eskakizun altuko programe-tara egokitzeko zailtasun handiak dituzten pertsonekin lan egiteko**; gainera, bermatzen du pertsona horiek oinarritzko arreta jasotzen dutela, euren egoera pertsonalak okerrera egin ez dezan. b) **Esku-hartze mailakatu edo linealaren kontzeptua zalantzan jartzen du**; izan ere, horien esanetan, gizarteratze-prozesua erabiltzailea aldaketa-prozesu baterako prest dagoenean baino ezin da hasi, eta gizarteratzea lortu arte progresiboki aurrera egiteko diseinatuta dago.

Eskakizun baxuaren kontzeptuak, bestalde, aurre egiten die merezimenduan eta kontraprestazioan oinarritutako gizarteko esku-hartzeen ereduari, bai diru-sarrerak bermatzeko errenten alorrean (Ipar Amerikako *workfare* izenekoan oinarritutako planteamenduekin), bai gizarteratzeko gainerako zerbitzuetan. Ikuspegi horretatik, eskakizun baxuaren kontzeptuak (esaten duena pertsonak izateagatik bakarrik eskubidea dugula arreta jasotzeko eta ez dugula horren truke ezer egin behar) aurka egiten dio gizartean nagusi den beste ideia honi: gizarte-babesa jasotzeko, jasotzaileak nolabaiteko kontraprestazioa eskaini behar du (Ruiz eta Beteta, 2016).

d) **Aktibazio inklusiboa eta herritar aktiboak**

Beste alde batetik, egungo gizarteratze-politikek oinarrian duten gizarteratze aktiboaren paradigman aurrean, adierazi da beharrezkoa dela aktibazio inklusiboaren edo herritar aktiboaren eredu bat ezartzea, aktibazio-eredu klasikoak dituen zehartasunak eta gabeziak gainditzeko (SIIS, 2012). Era horretako eredu batek, lehenik eta behin, **normalizazioaren gainetik inklusioaren aldeko apustua egin behar du, eredu errehabilitatzailetik gizarte-eredura⁶ igarota**; bigarrenik, inklusioaren askotariko dimentsioak eta horien inplikazioak ere aitortu behar ditu.

Gizarte-bazterkeriaren definizioa nahiko adostua dago: pertsonaren bizitzaren hainbat arlotan (hezkuntza, etxebizitza, osasuna, enplegua, eskubide politikoak, harreman pertsonalak, diru-sarrerak) desabantailak metatzea. Hala ere, bazterkeria ulertzeko kausa eta dimentsio ugari modu hori ez dator bat zenbait aktibazio-modurekin; izan ere, gizarte-bazterkeria laneratzearekin bakarrik lotzen dute eta, ondorioz, ez dute gizarteratze-prozesuen dimentsio aniztasuna kontuan hartzen. Horri dagokionez, bistakoa da lan ordaindu bat lortzea funtsezko faktorea dela gizarteratzeko; alabaina, ez da ahaztu behar **enplegua ez dela berez nahikoa gizarteratzea bermatzeko**; are gehiago, pentsa daiteke kasu edo egoera batzuetan gizarteratze-prozesuek ez dutela nahitaz laneraterik behar, eta lehentasuna duten beste bizi-dimentsio batzuk egon daitezkeela⁷.

⁵Souleten esanetan (2007), gizarte-lan paliatiboaren helburua da gizarteratzeko aukerarik ez dagoenean erabiltzaileen desafiliazioa saihestea, eta arriskuak murrizteko politiken luzapen bat da, bazterkeria-egoerak okerragotzea ekiditen baitu. Ruiz eta Beteta (2016) gure testuinguruan egiten duten planteamendua bat dator arrazoiketa horrekin: exigentzia baxuko testuinguruetan eskaintzen diren oinarritzko prestazioak baliabide horiek erabiltzen dituzten pertsonen bizirauteko duten bermerik handiena dira. Horiek gabe, euren bizitza arriskuan egon liteke. Hori dela eta, exigentzia baxuko baliabideek arretaren bitartez egoitza-bazterkeria egoera larriarri dauden pertsonen kolektiboari oinarritzko beharrezkoak estaltzen laguntzen diete.

⁶Gure inguruan, zalantzarik gabe, gizarteratze terminoa funtsean integrazioaren sinonimo gisa erabili da, eta oso gutxitan (egon badaude ere) egin da baterean eta bestearen arteko bereizketa argi eta argumentuduna. Hala, gizarteratze kontzeptua integrazioaren edo normalizazioaren sinonimo gisa erabili da, nahiz eta kontzeptu horiek zenbait kritika jaso dituzten, esate baterako desgaitasunaren arloan, desgaitasunaren eredu medikua edo birgaitzailearekin identifikatzen baitira. Horregatik, gizarteratzea batzuetan aurrerapausotzat hartu da normalizazio/integrazio-ereduaren aurrean. Ikuspuntu horretatik, eta gauzak sinplifikatuta, integrazioaren ideien aurrean, gizarteratzearen kontzeptua nolabait lotu liteke desgaitasunaren eredu sozialarekin, garrantzirik handiena norbanakoen ezaugarriari emateari utzi eta gizarte-inguruneen izaera bazterteratzaileari ematen hasten baita.

⁷Hain zuzen ere, Pérez Eransusek (2006) azaltzen duen moduan, "gizarteratzea autonomia eta independentzia areagotzeko gaitasunak eskuratzeko prozesu gisa ulertzen badugu, ez da komeni prozesu hori laneko edo prestakuntzako jardura bat egitera mugatzea. Gizarteratzea gizarte-laguntzako prozesu jarraitua da, eta baliabideen sinergia batek hartu beharko luke parte bertan; hala, jarduerak egiteaz gain, gaitasunak eskuratzeko, gizarte-arazoak konpontzea, babes-sistemak atzitzea eta beste arlo batzuk ere barne hartu beharko lituzke". Autore berak idatzitako beste artikuluko batean (Pérez Eransus, 2009) esaten zen bezala, azken urteotan "aktibazioa terminoaren ulermen zabalago bat defendatzen da, lanaren esparrutik harago doana, eta gizarteko parte-hartzea, gizarte-harremanak eta aisialdia ere aintzat hartzen dituena. Ulermen horren barruan, aktibazio-politiken xedea baztertuta dauden pertsonen gizartean parte hartze handiagoa izatea izango litzateke. Aktibazioaren definizio hori hurbilago dago egoera zailen dauden herritarrekin gizarteko esku-hartzean gauzatzeko esparruan tradizio handiagoa duten beste kontzeptu batzuegandik, esaterako gizarteratze edo gizarte-txertaketatik. Bi kasu horietan erreferentzia egiten zaie pertsonen autonomia sustatzea xede duten gizarteko laguntza-prozesuekin, horretarako pertsona horien bizi-baldintzak eta gaitasunak hobetuta".

Horrek dakarrena da **gizarte-inklusioaren eredu bat eraiki behar dela, eta eredu horren ardatza enplegu normalizatua izan behar bada ere, gizartearen onespena duten beste jarduera batzuk ere izan behar ditu kontuan.** Lanak pertsonen asebetetzean eta gogobetetasunean duen rolari garrantzirik kendu gabe, egia da lanaren balioa ikuspegi pragmatikoagoetatik baloratu beharko litzatekeela eta, askotan esan den bezala, gizartearen onespena duten jarduera guztiak hartu beharko litzatekeela barne. Ildo horretatik, autore askok goraiatu dute soldatapeko lana ardatz ez duen aktibazio-kontzeptu bat, gizarteari egindako bestelako ekarpenak ere aintzat hartzen dituen, batez ere familia-zaintzaren eta komunitateko ekintzaren arloan, baina ez soilik horietan. Hausnarketa horrek beste behar hau ere sortzen du: gizarteratze-programek, enplegu-aukerez gain, beste bizi-dimentsio batzuk ere hartu behar dituzte kontuan, esaterako aisialdia, kultura-jarduerak, boluntariora, komunitateko jarduerak edo gizarte- interesa duten beste jarduera batzuk.

e) Genero-ikuspegia

Aurreko epigrafeetan adierazitako orientabide eta paradigma batzuek, zehazki genero-desberdinkeriak aipatzen ez badituzte ere, erakusten dute beharrezkoa dela gizarteratzeko zerbitzu eta zentroetan genero-ikuspegia modu estrukturalagoan aintzat hartzea. Horrela, esate baterako, **pertsona ardatz duen arretatik abiatuta, esku-hartzeen benetako indibidualizazioa funtsezkoa da genero-ikuspegia aintzat hartzen bada.** Esku-hartze estandarizatuak saihestea eta artatutako pertsona bakoitzaren beharrak, espektatibak, gaitasunak eta lehentasunak oinarri dituen ikuspegi bat sustatzea funtsezkoa da genero-desberdinkeria-aren ikuspegitik, eta era horretako baliabideetan artatutako emakumeen baldintza espezifikoak kontuan hartzea ahalbidetzen du.

Halaber, **gizarteratzea hainbat dimentsiotako zerbaiten gisa ulertzearen aldeko apustua egiteak interseksionalitateari buruz hitz egitea dakar, hau da, pertsona batek jasaten dituen bazterkeriek eta zapalkuntzek nola eragiten duten aldi berean, pertsonaren izaera eratzean.** Interseksionalitatearen kontzeptuaren arabera, bazterkeria-egoera eragiten duten egoerek (baliabide ekonomikorik ez izatea, gaixotasunak, desgaitasunak, harremanik ez izatea, gutxiengo etniko bateko kidea izatea, drogamendekotasuna, kartzelatzea...) eta sexuagatiko desberdinkeriek elkarri eragiten diote. Indibidualizazio, burujabetza eta kontrolaren printzipioak ere interseksionalitatearen kontzeptuari lotuta daude. Kasu honetan, genero-ikuspegia hiru ikuspuntu hauek kontuan hartuta aplikatu behar da:

- Lehenik eta behin, beharrezkoa da sexua, adina eta jatorrizko herrialdea aipatzea bazterkeria areagotzen duten baldintza gisa.
- Gainera, pertsonen ibilbidea kontuan hartuta, jakinik askotariko pertsonak eta testuinguruak daudela, beharrezkoa da berriz ere azpimarratzea bazterkeria eragiten duten kausak aldatu egiten direla sexuaren arabera.
- Bukatzeko aurreko bi horien ondorioz, genero-ikuspegia kontuan izan behar da gizarteratze- eta laguntza-jarduketetan emakumeen eta gizonen bilakaera soziala kulturalki bereizita da-goelako.

Hala, onartu ondoren bazterkeriaren mota edo larritasuna hainbat faktoreen arabera alda daitekeela –eta faktore garrantzitsuenetako bat generoa dela–, ondorioztatu beharra dago tresnak diseinatze-rakoan genero-ikuspegia aplikatuko dela, egingo diren jarduketetan indibidualizazioa eta laguntza bilatzen diren heinean pertsona bakoitzaren zailtasunak aintzat hartuko diren moduan, ezin direlako ahaztu gizon edo emakume izateak eragindako baldintza bereziak.

Edonola ere, emakume eta gizonen artean berdintasun handiagoa lortzeko, beharrezkoa da gizarteratze-neurriak eta jarduketak zeharkako ikuspegi batekin egitea; hala, saihestu egingo da emakume-entzako soilik den gizarteratze-eredu bat egitea. Gainera, azpimarratu egin beharko da emakume edo gizon izateak dakartzan bizi-testuinguru desberdinak. Hala, emakumeen eta gizonen errealitateen artean dauden aldeak kontuan hartuta, gizarteko esku-hartzeen alorreko proiektuetan genero-ikuspegia ezartzeari buruzko literatura berezituak adierazten du programak egin aurreko diagnosti-koetan androzentrismoetik eta estandarizaziotik urrundu behar garela, gizarteratze-jarduketetan egi-ten den bezalaxe; gainera, esaten dute oso garrantzitsua dela bi sexuen gizarte-desberdinkeria-aren errealitatea eta bakoitzaren behar espezifikoak identifikatzea. Beraz, jarduketak diseinatzeko egiten

den diagnostiko orok, bakarkakoa nahiz kolektiboa izan, genero-azterketa bat izan behar du, jarduketa horien edukiak artatutako pertsona guztien beharretara egokitzeko, eta ez soilik gizonezkoen beharretara edo lehenetsunetara.

Ondorioz, bazterkeria-egoeran dauden pertsonen zuzenduriko eredu bat eraikitzeko, hau behar da:

- Laneko egiturak eta prozesuak berriz diseinatu beharko dira, zerbitzuak erabiltzen dituzten emakumeen beharretara, nahiak, espektatibak, baldintzatzaileak eta lehenetsunak kontuan har ditzaten.
- Jarduketa guztiak genero-ikuspuntuen ikuspegitik ebaluatu beharko dira; horretarako, emakumeen eta gizonen bizi-testuinguruetan dauden desberdintasunak eta desberdinkeriak aztertu beharko dira.

f) Desinstituzionalizazioa, laguntzadun etxebizitzak eta komunitateko arreta

Komunitatean Oinarritutako Errehabilitazioa bezalako ereduak edo erreforma psikiatrikoa oinarri hartuta, gizarte-ekintzako zenbait alorretan (batez ere desgaitasunaren arloan, baina baita haurren eta adineko pertsonen arretan ere), ia aho batez onartu da pixkanaka egoitza-erakunde handiak alde batera uztea eta horren ordean erabiltzailearen etxea oinarri duten zerbitzuak edo egoitza-soluzio banakatu eta txikiak erabiltzea, kalteberatasun-egoeran dauden pertsonak komunitatean bizi ahal izan daitezen, berme guztiekin.

*European Social Network*ek esandakoaren arabera, desinstituzionalizazioak edo komunitatean oinarritutako laguntzaren alde egiteak pertsona kalteberei eskaintzen zaien arreta aldatzea dakar. Erabiltzaileak errespetatu egin behar dira, eta galdetu egin behar zaie; **ekipamendu instituzional handien alternatibak diren espazioetan artatu behar dira, eta espazio horiek erabiltzaileen beharrian eta lehentasunetara egokitu behar dira, baita beharrezko babesak eskaini ere**. Ez dira ezohiko aldaketa batzuk, baizik eta inoiz amaitzen ez den prozesu bat: helburua ez da jendea instituzio izeneko eraikin batzuetatik ateratzea, baizik eta pertsonen euren bizitza kontrolatzen edo kontrola berreskuratzen eta gizartearen integrazioan laguntzea (*European Social Network*, 2011).

Ikuspegi hau desgaitasunaren arloan txertatu eta onartu da gehien; horregatik, Espainiak ere sinatu duen Nazio Batuen Desgaitasunak dituzten Pertsonen Eskubideei buruzko Hitzarmenean ere jasotzen da ikuspegi hori. Hitzarmenak, 18. artikuluan, esaten du **desgaitasunaren bat duten pertsonen eskubidea dutela "etxeetan, egoitzetan eta beste komunitate-zerbitzu batzuen bidez hainbat laguntza-zerbitzu jasotzeko, baita biziari eusteko laguntza pertsonala eta komunitatean txertatzeko laguntza ere, isolamendua eta segregazioa saihesteko"**. Hitzarmen horrek estatuak behartzen ditu erakunde bidezko arreta ordezkatzeko duten komunitate-zerbitzuak garatzera, prozesu progresibo baten bitartez. Horretarako, estatuak neurriak hartu behar dituzte, haien baliabideak ahalik eta gehien erabiliz, pixkanaka eskubide horiek guztiz gauzatu ahal izateko (Mansell, 2011).

Komunitate-arretaren helburua da desgaitasun intelektualak dituzten pertsonen gainerako herritarrek erabiltzen dituzten ostatu-aukerak, elkarbizitza-neurriak eta bizimoduak erabili ahal izatea, bizikaltate ona izatea eta eskubide osoko herritar gisa parte hartzea gizarte-, kultura- eta ekonomia-jardueretan, pertsona bakoitzak erabakitzen duen neurri eta moduan. Komunitate-arreta honetan datza:

- Gainerako herritarren etxeak dauden tokian dagoen ostatu egoki eta irisgarria erabili ahal izatea.
- Herritar arruntentzat eskuragarri dauden ostatu-aukerak erabili ahal izatea.
- Pertsonen, ahal den neurrian, erabakitzen uztea non, norekin eta nola bizi nahi duten.
- Behar den laguntza guztia ematea, pertsonen komunitatean parte hartu ahal izan dezaten.

Ikuspegi horren gorpuzterik argiena elkarbizitza-unitateen, laguntzadun egoitzen eta tutoretzapeko egoitzen garapena da, **baita neurri txikia izatea, sakabanatuta egotea eta intentsitate aldakorreko zerbitzu indibidualizatuak eskaintzea ezaugarri dituzten beste egoitza-soluzio batzuk ere**. Desgaitasunaren eta buruko gaixotasunen alorrean, azken urteetan nabarmen garatu dira era horretako egoitza-soluzioak, eta askotan bereizi egin dira gizarte-laguntzako zerbitzuak eta ostatu-zerbitzuak (lehenengo arduraren gizarte-zerbitzuek dute, eta bigarrenena, aldiz, etxebizitzaren alorrean eskumena duten zerbitzuek). Kasu horietan, arrakastaren gakoa laguntza-plan indibidualizatuak egitean datza; plan horiek pertsonen aukera ematen diete modu independentean bizitzeko eta,aldi berean, behar duten laguntza profesionala izateko. Horrez gain, funtsezkoa da inguruak berak eskaintzen dituen komunitate-baliabide informalek ere aprobetxatzea, artatutako pertsonen kultura-, prestakuntza-, aisialdi- eta denbora libreko jardueretan parte hartu ahal izan dezaten (Duff, C. et al., 2013).

Halaber, adineko pertsonen arloan, elkarbizitza-unitateak sortu dira, eta honela definitu dira: *"mendekotasun-egoeran dauden adineko pertsonen talde bat bizi den tokia; pertsona horiei behar dituzten laguntzak eskaintzen zaizkie eguneroko bizitza gauzatu ahal izan dezaten. Unitate horietan, bermatuta dago osasun-zaintzen kalitatea eta bertan bizi direnen gaixotasun- eta/edo mendekotasun-prozesuen kontrola, frogaz zientifikoak oinarri hartuta, baina beste urrats bat ematen da kalitatearen arretari da-*

gokionez. Pertsonen bizi-kalitate integrala lortzea da xedea eta, horretarako, duintasuna babestea eta pertsoneri erabakitze aukera ematea garrantzitsua da, bakoitzaren lehentasunak, gustuak eta eguneroko bizitzako erritmoak kontuan hartuta” (Diaz Veiga, P., 2011).

Aurrerago ikusiko dugun moduan, hau da Europako hainbat herrialdeetan etxerik gabeko pertsoneri zuzenduriko arreta errotik aldatzen ari den aldaketa kontzeptual nagusia: **komunitatean sakabanatutako etxebizitza arruntan baliabide egonkor eta epe luzerakoaren aldeko apustua, baita arreta indibidualizatzea eta eskakizun baxuko baliabideak garatzea ere, horien intentsitatea eta epea edozein delarik ere.**

3.3. Gure inguruko herrialdeetan etxegabetasuna desagerrarazteko estrategiak: ikuspegiak eta edukiak

Sarreran adierazi den moduan, epigrafe honetan Europako eta Amerikako herrialde batzuetan etxerik gabeko pertsonen arazoari erantzuteko zenbait estrategia integralen ezaugarri nagusiak bildu dira. Politika horien oinarrian dauden joerak eta orientabideak aztertuta, ikus dezakegu nola egituratu diren aurreko orrietan aipatu ditugun etxegabetasunari buruzko ikuspegiak eta paradigmak. Horrez gain, esperientzia horietatik gauza interesgarriak ikas daitezke estrategia horiek izan duten eraginari, euren formatuei, gobernantza-moduei, koordinazioari, oinarritzko printzipioei edota edukirik garrantzitsuenei buruz.

Hauk dira nabarmendu beharreko elementu nagusiak:

Gero eta herrialde eta eskualde gehiagok dituzte etxegabetasunari aurre egiteko estrategia integralak, eta oro har emaitza positiboak lortzen ari dira.

Dokumentu honen sarreran esan den moduan, Europako gero eta herrialde eta eskualde gehiagok dituzte etxegabetasunari aurre egiteko estrategia integralak; are gehiago, **fenomeno horri aurre egiteko nazio- eta eskualde-estrategiak izatea da Europar Batasunak gizarte-politiken alorrean egin dituen eskaeretako bat**⁸.

Hurrengo orrietan ikus daitekeenez, inguruko herrialdeetan martxan jarri diren estrategiek eduki, formatu eta printzipio ezberdinak dituzte; alabaina, elementu ugari partekatzen dituzte eta, funtsean, adierazten dute arazo honi aurre egiteko estrategia integral eta partekatu bat izanez gero modu askoz ere eraginkorragoan erantzun dakiokoela arazo honi.

Zein herrialdeetan eman dira aurrerapauso gehien era honetako estrategiak planifikatzeari dagokionez? Kontsultatutako dokumentuek adierazten dute aurrerapauso gehien Danimarkan, Finlandian, Frantzian, Irlandan, Herbehereetan, Erresuma Batuan eta Portugalen eman direla, besteak beste. Bestalde, Espainian, 2015ean, etxerik gabeko pertsonentzako estrategia integral bat onetsi zen⁹.

Edonola ere, ziurrenik herrialde anglosaxoietan eta Europa iparraldean garatu dira gehien estrategia horiek eta han izan dute eraginik handiena: Finlandian, esaterako, aterpeetan oinarritutako eredu batetik etxebizitza indibidualetan oinarritutako batera aldatu dute apustua, eta 80ko hamarkadatik aurrera hainbat plan jarri dituzte martxan etxegabetasunari aurre egiteko; horri esker, aterpeak eta larrialdiko ostatuak erabiltzen dituzten kopurua hamar milatik bi milara jaitsi da. Bestalde, Erresuma Batuan, 80ko eta 90eko hamarkadetan garatutako estrategia integralek emaitza kuantitatibo garrantzitsuak lortu zituzten, eta % 75 egin zuen behera aterperik gabeko pertsonen kopuruak (FEANTSA, 2010).

⁸Ikusi Europako Parlamentuaren 2010eko abenduaren 16ko ([P7_DCL\(2010\)0061](#)), 2011ko irailaren 14ko ([P7_TA\(2011\)0383](#)) eta 2014ko urtarrilaren 16ko ([P7_TA\(2014\)0043](#)) ebazpenak, Europar Batasunak etxerik gabeko pertsonen arloan duen estrategiari buruzkoak.

⁹Etxerik gabeko pertsonentzako 2015.-2020. urteetarako estrategia nazionala, Ministroen Kontseiluak 2015eko azaroaren 6an onetsia.

Etixerik gabeko pertsonen zuzenduriko estrategien xedea: etxegabetasuna kudeatzea edo desagerraraztea?

Etixerik gabeko pertsonen eskubideen defentsan lan gehien egiten duten erakundeek adierazi dute **etxerik gabeko pertsonen zuzenduriko estrategien xedea, edo, behintzat, xede gorena, arazoa desagerraraztea izan behar dela, eta ez soilik kudeatzea**. Etxegabetasuna desagerraraztera bideratutako planteamendu horrek lotura du erakundeen aldeko erantzun partzialak saihesteko beharrezkin, erantzun horiek larrialdi-egoerentarako baino ez baitute balio, eta gizarte-zerbitzuen esparruari baino ez baitiote eragiten. Etxegabetasunaren arazorik premiazkoenari ematen zaizkion erantzun horiek eraginkorrak dira, zalantzarik gabe, arazoaren sintomarik larrienei aurre egiteko eta rol garrantzitsua dute arazoak epe laburrean konpontzeko. Hala ere, kalean lo egiten duten pertsonen laguntzeko premiazko erantzunak eta baliabideak beti beharrezkoak badira ere, ezinbestekoa da urratsak ematea luzera begirako politika estrategikoetan, etxegabetasuna desagerrarazteko¹⁰.

Europar Batasuneko erakundeek ere erabaki dute etxegabetasuna desagerrarazteak izan behar duela esparru horretako estrategia nazionalen azken xedea, herrialde bakoitzaren berezitasunak, abiapuntuak eta ezaugarriak kontuan hartuta. Ildo horretatik, 2010ean egin zen Etxegabetasunari buruzko Adostasunaren Konferentzian¹¹ ezarri zen **beharrezkoa zela paradigma aldatzea, etxegabetasuna kudeatzeko egungo eredu tradizionaletik fenomeno hori desagerraraztea xede duen beste batera igarota**. Adostasunaren Konferentzian parte hartu zuten adituen esanetan, etxegabetasuna kudeatzek esan nahi du esku-hartze erreaktiboak erabiltzen jarraitzea eta, funtsean, aldi baterako eta larrialdiko baliabideetara baino bideratzen ez den zerbitzuen eredu bat garatzen jarraitzea, baina esku-hartze horiek etxegabetasunaren adierazlerik ikusgarri eta muturrenekoei baino ez diete erantzuten, eta horrek erabiltzaileak kronifikatu egiten ditu etxerik gabeko pertsonentzako arreta-sistema espezifiko batean. Adituen esanetan, ikuspegi horiek askotan ez dira egokiak, ez baitira gai etxegabetasuna prebenitzeko, ez eta egoera horretatik modu jasangarrian ateratzeko irteerak emateko ere.

Ikuspegi horien aurrean, **etxegabetasuna desagerraraztea helburu errealista eta erdietsigarria dela uste da, etxebizitza eskuratzea xede duten prebentzio eta esku-hartze politikak konbinatuz gero; ikuspegi horretan, aldi baterako eta larrialdiko (kalitatezko) baliabideak epe onargarri batean behin betiko ostatu lortzeko sarbide dira**. Hausnarketa horietatik ondoriozta daiteke beharrezkoa dela orain arte etxerik ez duten pertsonen zuzenduriko politikak izan duten ikuspegia aldatzea, alde batera utzita etxegabetasuna desagerraraztea posible den ala ez; hala, etxerik gabeko pertsonen arreta emateari utzi behar diogu, eta pertsona horiei *etxebizitza bat eskuratzen lagundu* behar diegu.

Hausnarketa horretatik abiatuta, Adostasunaren Konferentziako gomendioek azpimarratzen dute urratsak eman behar direla etxegabetasuna murrizteko, arazo hori desagerrarazte aldera. Horretarako, Adostasunaren Konferentziak honako helburu hauek erdiestea xede duen ekintza-esparru bat onartzea proposatu zuen:

- Etxegabetasuna prebenitzea.
- Iraupena murriztea.
- Etxegabetasunaren adierazpenik muturrekoenak murriztea.
- Etixerik gabeko pertsonen zuzenduriko zerbitzuen kalitatea hobetzea.
- Etxebizitza merkeak eskaintzea.

Adostasunaren Konferentziarekin bat, estatuen eta eskualdeen estrategiek bost helburu horiek izan behar dituzte, baita Europako Parlamentuak 2010eko abenduan onetsitako Etxegabetasunaren aurkako Europako Estrategiak planteatutako helburuak ere. Hauek dira Parlamentuak proposatutako helburuak:

- Inork ez dezala kalean lo egin: inork ez da kalean lo egitera behartuta egongo bere beharretara egokitutako kalitatezko zerbitzurik ez dagoelako.

¹⁰ FEANTSA (2010). *Ending Homelessness. A handbook for policy makers*.

¹¹ *European Consensus Conference on Homelessness. Policy Recommendations of the Jury*.

- Inor ez dadila larrialdiko ostatu batean bizi beharrezkoa den baino denbora luzeagoz. Aterpetxeak ezingo dira inolaz ere benetako etxeen ordezkioak izan.
- Inor ez dadila aldi baterako ostatuetan bizi, beharrezkoa den baino denbora luzeagoz. Aterpeak, harrera-zentroak eta tutoretzapeko etxebizitzek epe labur eta ertaineko konponbideak izan behar dute, ostatu-soluzio egonkor bat eskuratzeko bidean.
- Inork ez dezala erakunde bat utzi bizitzeko beste toki bat izan gabe. Tutoretzapetik atera diren gazteak, ospitaletik atera diren gaixoak eta kartzelako zigorra bukatu duten pertsonak dira kolektiborik kalteberenak, eta laguntza jaso behar dute erakundeen tutoretzapean egotetik kalean bizitzera eta berriz tutoretzapera itzultzea dakarren prozesu zirkularrean ez sartzeko.
- Gazteak etxetik gabe ez gelditzea bizitza independentea izateko trantsizioaren eraginez. Ahalegin handiagoa egin behar da gazteei emantzipatzen laguntzeko eta etxebizitza bat eskuratu ahal izatea ahalbidetzeko.

Estrategien gobernantza, formatua eta inplikaturako eragileak

Gure inguruko herrialdeetan gauzatu diren estrategiak ez datoz bat gobernantza-moduei, estrategien formatuari eta inplikaturako eragileei dagokionez, herrialde bakoitzean indarrean dagoen erakunde- eta eskumen-esparrua dela eta. Edonola ere, zenbait elementu komun aipatu behar dira, ikuspegi batzuk eta besteak argien bereizten dituztenak baitira:

- Aztertu diren ikuspegieta errepikatzen den alderdietako bat **tokiko erakundeek duten rol garrantzitsua da**, etxegabetasunari loturiko estrategiak ezartzei dagokionez¹². Are gehiago, kasu batzuetan (Herbehereetan edo Finlandian, esaterako), estrategiek hiri handiak baino ez dituzte kontuan hartzen, bigarren planoan utziz udalerrri txikiagoak eta landa-eremuak. Tokiko erakundeen izaerari eta Europako herrialdeetako udalerrien tamainari buruzko eztabaidak alde batera utzita¹³, bistakoa da aztertutako estrategia guztietan tokiko erakundeek protagonismo handiagoa hartzen dutela esku-hartze politikak praktikan jartzeko, gizarteko hirugarren sektorearekin lankidetzan –neurri handiago edo txikiagoan. Horretarako, kasu batzuetan, estrategia nazionalak jasotzen dute udalerrri bakoitzak plan espezifikoa bat gauzatu behar duela, nazio-mailan ezarritako gidalerroekin bat.
- Testuinguru horretan, erakunde komunak (nazioko, estatuko edo eskualdeko gobernuak, deszentralizaziorik handiena duten herrialdeetan) eginkizuna da **esparru orokor bat ezartzea eta planetan ageri diren neurriak sustatzea, neurrien kostu gehigarria finantzatzea (hala dagokionean) eta, kasu batzuetan, egoera horien eta/edo zerbitzu horiek emateko moduen eragina jaso dezaketen pertsonen eskubideak erregulatzea**. Inplikaturako administrazio motei dagokionez, gizarte-zerbitzuetan, hirigintza-politikez eta etxebizitzaren arduratzen diren sailek (baita ingurumenaz arduratzen direnak ere) egiten dituzte bere arlo honetako ardura nagusiak. Administrazioaren hainbat instantzien esku-hartzeak koordinatzeko, zenbait herrialdek –esaterako Frantziak, Irlandak edo Portugalek– koordinaziorako organo zentralizatuak sortzea erabaki dute; horien ardura da politika horiek sustatzea, ezartzea eta ebaluatzea.
- Esparru horretan, bereizgarri argienetako bat da estrategia bakoitzak elementu honi ematen dion garrantzia: **esparru horretako legeria espezifiko bat sustatzea, oro har etxebizitza edo egoitza-alternatiba bat eskubide subjektibo gisa aitortzeko**. Horri dagokionez, bereziki aipagarriak dira Erresuma Batuen eta, neurri txikiagoan, Frantziaren kasuak: Erresuma Batuan, etxegabetasunari erantzuteko, legez ezarri dute zenbait baldintza betetzen dituzten pertsonen etxebizitza bat eskaintzeko betebeharrak¹⁴. Halaber, 2007an, Frantziara araudi bat onetsi zen zenbait baldintza betetzen dituzten pertsonen etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatzeko¹⁵ (etxebizitzarik ez izatea edo beste pertsona baten etxean bizitzea, kalera-terako mehatxua izatea eta nora joan ez izatea, aldi baterako egitura batean egotea eta behin betiko etxebizitza baten zain egotea, desegokia, osasungaitza edo arriskutsua den etxe batean bizitzea...).
- Etxegabetasunari aurre egiteko estrategia bakoitzak etxebizitzaren eskubide subjektiboa arautzen duen araudiari ematen dion garrantzia gorabehera, **aldatu egiten da, baita ere, estrategia horiek aplikatzeko erakundeek duten betebeharraren zorrotasun-maila**. Kasu batzuetan –esaterako, Herbehereetan–, estrategiek herrialdeko hiri handiek sinatutako borondatezko hitzarmen bat dute oinarri; hala ere, kasu gehienetan, erakunde komunek bultzatu-

¹²Gugandik hurbil ere tokiko administrazioaren garrantzia azpimarratu da etxerik gabeko pertsonen sarea egituratzeko orduan. Ildo horretatik, *Etterik gabeko pertsonen gizarte-zerbitzuen sistema publikoan integraturako tokiko arreta-sare bat eratzeke 100 proposamen dokumentuan*, esaten da etxerik gabeko pertsonen arreta ematea tokiko korporazioen ardura dela, tradizioa eta hurbiltasuna kontuan hartuta, “nahiz eta gaur egun askok ez duten erantzukizun hori beren gain hartzen, eta horren ordez irabazi asmorik gabeko erakundeen esku uzten dute”. Edonola ere, txosten horren arabera, beharrezkoa da arlo horretan erantzukizun publikoa berreskuratzea eta tokiko erakundeek garrantzia ematea.

¹³Erresuma Batuko tokiko erakundeek 152. 680 biztanlerentzat gobernatzan dute. Irlandan, udalerrien batezbesteko neurria 39. 260 biztanlekoa da; Suedian 32. 340koa; Grezian, 34. 780koa, eta Herbehereetan 39. 740koa. EAEn, berriz, udalerrien batezbesteko neurria 8. 000 biztanle ingurukoa da.

¹⁴Erresuma Batuan, araudi hori osatzeko estrategia espezifikoak ezarri dira (oro har, arrakasta izan dutela uste da), eta horien helburua da etxebizitzaren eskubide subjektiboa erabiltzeko baldintzak betetzen ez dituzten etxerik gabeko pertsonen behar duten erantzuna ematea.

¹⁵Loi n° 2007-290 du 5 mars 2007 instituant le droit au logement opposable et portant diverses mesures en faveur de la cohésion sociale.

tako estrategiak dira, eta tokiko erakundeek nahitaez bete beharreko xedapenak eta neurriak ezartzen dituzte¹⁶. Aztertutako dokumentuen arabera, arau horren salbuespena Estatu Batuetan aurki dezakegu; bertan, administrazio zentralaren egiteko nagusia printzipio orokor batzuen inguruan eraikitako tokiko planak gauza daitezten dinamizatzea, erraztea eta sustatzea izan da, nahiz eta gerora bete beharreko zenbait arauk gidalerro nagusiak ordeztu zituzten¹⁷.

- Neurriak finantzatzeari dagokionez ere, planteamenduak desberdinak dira; hala ere, kasu gehienetan, **estrategiak ezohiko izaera duten funts ekonomikoak artikulatzean oinarritzen dira (oro har, erakunde komunek gaitzen dituzte), eta funts horiek erakundeek etxebizitzaren edo gizarte-zerbitzuen arloko politiketara bideratzen dituzten funtsei gehitzen zaizkie**. Hala, esate baterako, Danimarkako Gobernuak 67 milioi euro bideratu zituen 2009 eta 2012 artean estrategia ezartzera, eta zenbateko hori larrialdiko zerbitzu arruntetara bideratutako udal-funtsei gehitu zitzairen. Finlandian, Gobernu zentralak 170 milioi bideratu zituen 2011 eta 2015 artean garatutako lau urteko strategiara; udalek, berriz, 10 milioi. Herbehereetan, 2011n, esaterako, 700 milioi euro baino gehiago bideratu ziren (hainbat iturritatik) etxerik gabeko pertsonen arreta emateko estrategia garatzeko¹⁸.
- Bukatzeko, esan beharra dago kasu gehienetan garatutako estrategiek hasiera-hasieratik **helburu argi eta neurgarriak** proposatzen dituztela, bai neurrien eraginari dagokionez (helburu nagusia etxegabetasuna ehuneko zehatz batean murriztea izan ohi da), bai garatuko diren zerbitzuen, baliabideen edo plazen kopuruari dagokienez.

¹⁶Danimarkaren kasuan, esaterako, Estatuaren estrategia herrialdeko hiri nagusiekin sinatutako hitzarmenen bidez ezartzen da; horien arabera, udalerriek hitz ematen dute estrategian ageri diren zenbait neurri ezarriko dituzte eta strategiaren eragina ebaluatzeko eta jarraipena egiteko mekanismoak garatuko dituztela.

¹⁷Hala, esate baterako, 2000. urtetik aurrera ezarri zen etxebizitzaren arloko aurrekontu federalen heren bat gutxienez aldi baterako etxebizitzetara bideratu behar zela, eta ez larrialdiko etxebizitzetara, aterpeetako babes-zerbitzuetara eta antzekoetara. Ildo beretik, etxerik gabeko pertsonen zuzenduriko tokiko planak behin betiko etxebizitzaren eskemak sendotzera bideratu ziren, eta aurrekontu gehiago jarri ziren kolektibo kronifikatuenei arreta emateko.

¹⁸EAEko biztanleriara ekarrita, gastu hori 240 milioi eurokoa izango litzateke.

Estrategien oinarrizko printzipioak: prebentzio selektiboa eta etxebizitza ardatz duen ikuspegia (housing led policies)

Europar, etxerik gabeko pertsonen alorrean gauzatu diren politikak eta estrategiak aztertu eta gero, atera daitekeen ondorio nagusia da estrategia gehienek bi oinarrizko helburu partekatzen dituztela, eta helburu horiek artikulatzen eta zehazten dituztela politika guztiak. Hauek dira: alde batetik, estrategia guztiak nabarmentzen dute **prebentzioaren garrantzia**, eta bereziki, prebentzio selektiboa, arriskurik handiena duten kolektiboetara zuzendua. **Bigarren elementu komuna, urte gutxi batzuetan Europar etxerik gabeko pertsonetara ematen zitzaizkien arretaren paradigma goitik behera aldatu duena, etxebizitza egonkorra eskuratzea ardatz duten politikaren aldeko apustua da (housing led policies)**. Ikuspegi horretan, larrialdiko baliabideak edo aldi baterakoak ez dira zerbitzuen mapatik desagertuko, baina garai batean zuten garrantzia galduko dute, argi eta garbi, eta bigarren mailako sare bilakatuko dira, egoera bereziki erantzunez edo etxebizitza-sistemarako sarbide gisa funtzionatuz. Hala, aztertu diren plan askotan, larrialdiko baliabideak ardatz dituzten neurriak behin betiko etxebizitzetara edo etxebizitzaren kalitatea hobetzera bideratuko dira, aipatu ditugun baldintza horietara egokitzeko.

Etixerik gabeko pertsonentzako arretaren estrategiak bi ardatz nagusi hauek ditu, beraz: prebentzio selektiboa eta etxebizitza ardatz duten politikak. Oinarrizko bi printzipio horiek garatzeko, aurretik azaldu den moduan, epe ertain eta luzeko hainbat helburu ezartzen dira. Taula honetan gure inguruko herrialdeetan garatu diren estrategien helburu nagusiak laburbiltzen dira:

5. taula. Etixerik gabeko pertsonentzako Europako hainbat herrialdeetako estrategietako helburu estrategikoak

Helburu estrategikoak	Helburu hauek barne hartzen dituzten estrategiak
Inork kalean lo egin behar ez duela bermatzea (gau batez baino gehiagoz)	Danimarka, Irlanda, Suedia, Ipar Irlanda, Portugal, Ingalaterra
Kolektibo kalteberenei zuzenduriko esku-hartze espezifikoko eskaintza, besteak beste gazteei, buruko gaixotasunen bat dutenei edo erakundeetatik atera direnei.	Danimarka, Irlanda, Frantzia, Norvegia, Herbehereak, Portugal, Suedia, Ingalaterra, Ipar Irlanda.
Etxegabetasun-egoerak murriztea eta etxegabetasun kronikoa desagerraraztea	Danimarka, Irlanda, Finlandia, Norvegia, Ipar Irlanda
Prebentzio selektiboa hobetzea, etxegabetze- edo kaleratze-kasuetako esku-hartzeak barne	Irlanda, Ipar Renania – Westfalia, Finlandia, Gales, Norvegia, Suedia, Ipar Irlanda
Behin betiko etxebizitzetarako sarbideari lehentasuna ematea	Irlanda, Frantzia, Finlandia, Ingalaterra
Etixerik gabeko pertsonetara zuzenduriko zerbitzuen kalitatea hobetzea	Irlanda, Frantzia, Norvegia, Ingalaterra
Finantzaketa behin betiko soluzioetara bideratzea	Irlanda, Frantzia
Pertsona ardatz duten arreta-zerbitzuetarako sarbidea sustatzea	Herbehereak, Frantzia, Portugal
Fenomenoa hobeto aztertu eta ulertzea	Frantzia, Portugal
Legeria-esparrua hedatzea, etxerik gabeko pertsonen benetan etxebizitzarako eskubidea dutela bermatzeko	Eskozia

Iturria: FEANTSA (2012). On the way home? FEANTSA monitoring report on homelessness and homeless policies in Europe.

Ettebiritza ardatz duen ikuspegia

Adierazi berri den moduan, beraz, **Europar ettegabetasunari aurre egiteko politikek dakarten berri-tasun nagusia da ettebiritza jartzen dutela erdigunean, arreta-ereduaren funtsezko elementu gisa**¹⁹. Hala, europar erakundeek beraiek piztutako eta sustatuko paradigma-aldaketa bat dela esan deza-kegu:hala, 2010eko Ettegabetasunari buruzko Adostasun Konferentzian, ettegabetasunaren arloko eskualde eta estatuetako politiken arduradunei eskatu zitzairen era horretako esku-hartzeak gara-tzeko eta euren estrategien abiapuntu gisa ikuspegi hori hartzeko²⁰. Pleace eta Brethertonek (2013) adierazitakoarekin bat, nahikoa froga dago esateko ettebiritza ardatz duen ikuspegia oso eraginko-rra dela babes gehien behar duten kolektiboen arteak ettegabetasuna murrizteko. Ikuspegi horrek nabarmentzen du babes handia behar duten etterik gabeko pertsonak errespetuz tratatu behar di-rela, aukerak eskaini behar zaizkiela eta euren biritza kontrolatzen utzi behar zaiela; hala, behar du-ten babesa eman behar zaie berriz gizarteratzeko, eta horretarako besteak beste ettebiritza bat eman behar zaie berehala²¹.

Ikuspegi horren oinarrian dagoen ideiak dokumentu honen hasieran aurkeztu den planteamendu bati erantzuten dio:**ettegabetasuna ettebiritza bat eskuratzeko ezintasunaren ondorioz sortzen den egoera bat da. Etterik gabeko pertsonak partekatzen duten ezaugarria da etterik ez dutela** (Sales, 2016). Horrek adineko pertsonen edo desgaitasunen bat dutenen esparruan proposatzen den eta lehenago ere aipatu den erabiltzaileak instituzioetatik ateratzearen eta komunitate-arretari garrantzi handiagoa ematearen aldeko apustuari erantzuten dio²². Ettegabetasunari erantzuteko estrategia ororen funtsezko helburua, bakarra ez bada ere, pertsona horiei behin betiko etxe bat eskuratzeko aukera ematea da, ahalik eta bizkorren.

Nola defini daitezke ettebiritza ardatz duten politikak? 2010eko Ettegabetasunari buruzko Adosta-sun Konferentziaren arabera, **ettebiritza ardatz duten politikak dira ettegabetasuna prebenitzeko edo ettegabetasun-egoerak konpontzeko lehen urrats gisa ettebiritza egonkor bat izatea edo man-tenetzea duten politikak**²³. Ikuspegi horiek ettebiritza funtsezko eskubide gisa hartzen dute, baita gizar-teko, laneko edo osasunaren arloko beste arazo batzuk konpontzeko aurrebaldintza gisa ere. Ikuspegi horretatik:

¹⁹Dena den, ez da pentsatu behar Europako herrialde guztiek eredu hori bere egin dutenik. 2012an, FEANTSAk lau talde haue-tan banatu zituen Europako herrialde nagusiak:a) (Kasuan kasu behar den) laguntzadun ettebiritza berehala eskuratzeko estrategia zerbitzua emateko modu nagusia bilakatzen den herrialdeak (Finlandia, Danimarka, Eskozia). b) Printzipioz ettebiri-tza ardatz duen estrategia bat hartu duten baina hori oraindik errealitate operatibo bat ez den herrialdea (Irlanda, Portugal, Frantzia). c) Laguntzadun ettebiritza ugari dituzten herrialdeak, baina nagusiki ettebiritza gizarteratzeko trantsizio-elementu gisa ikusten duten herrialdeak, gutxienez etterik gabeko pertsona batzuentzat (Ingalaterra, Ipar Irlanda, Gales, Herbehereak, Suedia, Alemania). Testuinguru horietako batzuetan, esate baterako Ingalaterran, garrantzi handia eman zaio behin betiko ettebiritza lortzeko “eskala” laburtzeari, behin betiko ettebiritza bat eskuratzeko eta mantentzea errazte aldera. d) Ettebiritza ardatz duen ikuspegia oso hedatuta ez duten herrialdeak, nahiz eta tokiko ekimenak egon (Austria, Belgika, Espainia, Grezia, Hungaria, Eslovenia, Polonia, Errumania eta Txekiar Errepublika).

²⁰Ildo beretik, 2014n, Europako Parlamentuak adierazpen bat onetsi zuen; horren bitartez Europako Batzordeari eskatzen zion gehiago itxaron gabe estrategia europar bat presta zezala etterik gabeko pertsonentzat. Adierazpenean, esaten da frogatuta dagoela “etterik gabeko pertsonen arazoan, ettebiritza ardatz hartzen duten ikuspegiak eraginkoragoak direla”. Horregatik, Batzordeari eskatzen zaio besteak beste arreta jar dezala “ettebiritza ardatz duten ikuspegiak aplikazioan, eta horri lehenetsuna eman diezaiola etterik gabeko pertsonen arazoari aurre egitean”.

²¹Dena den, autore horiek beraiek ohartarazten dute ereduak mugak dituela:luzera begira horien kostu-eraginkortasun lotura laguntza-alternatiba tradizionalena baino hobea izan badaiteke ere, ez dira aukera merkeak, ez dute ettegabetasun-egoera guztiei erantzuteko balio eta egoera guztietan finantzatu ezin daitekeen ettebiritzen eta laguntza-zerbitzuen eskaintza zabal-a eskatzen dute.

²²Desinstituzionalizazioaren eta komunitate-arretari garrantzia ematearen aldeko apustua, gizarte-zerbitzu guztietan ikus daitekeena, ettebiritza ardatz duen ikuspegi horren garapenean artikulatzen da etterik gabeko pertsonen esparruan. Kasu honetan, ettebiritzaren garrantzia bitan azpimarratu behar da:alde batetik, ettebiritza arruntetan biritzea eskaintzen duten komunitate-formulen garrantziari egiten dio erreferentzia; beste alde batetik, aitortzen du pertsona horiek izan ditzaketen arazo espezifikoaren edo behar duten laguntza bereziaren gainetik, euren beharrezan nagusia ettebiritza bat izatea dela.

²³Ettebiritza ardatz duten zerbitzuen helburua da “segurtasun ontologikoa” izenekoa sustatzea, baita lotura sozial eta eko-nomikoa ere; horretarako, etterik gabeko pertsonari azkar eskaintzen zaio berarentzako etxe bat, non ahalik eta independen-tzia handienarekin bizi ahal izango den,“Segurtasun ontologikoa” erreferentzia egiten dio norberarena den toki bat izateko pertsonen ematen dien ezustekorik ez izatearen, segurtasunaren eta babesaren sentipenari. Eredu horretan, etxea toki seguru eta babestua da, eta gizar-tearekin berriz konektatzeko abiapuntua ere bada. Etxe bat izateak esan nahi du boto emateko erregistratu ahal izatea, mediku batekin izena ematea, bankuko kontu bat izatea eta enplegua nahiz prestakuntza jasotzea. Berehalako ettebiritzaren helburua da jendea ettegabetasunak eragiten duen saminetik urruntzea eta haien ongizatea hobe-tzea, berriz ere seguru sentiaraziz, ezustekoan beldurrik izan ez dezaten. Gainera, horrela, abiapuntu seguru bat izango dute biritza ekonomiko eta sozial arrunta izateko (Pleace eta Bretherton, 2015).

- **etxebizitza ardatz duten ikuspegiak apurtu egiten dute esku-hartze mailakatu edo linealaren ereduekin;** izan ere, eredu horien arabera, gizarteratzeko ibilbideak erabiltzailea aldatzeko prest dagoenean baino ezin dira hasi, eta etxerik gabeko pertsonen hainbat maila gainditu behar dituzte, egoitza-zerbitzu ugari, gizarte- eta osasun-arazoei loturikoak, *housing-ready* (etxebizitza bat izateko prest) egon arte. Ikuspegi hauek, berriz, lehenago aipatu den kalteak murrizteko filosofia txertatzen dute, eta eskakizun baxuko zerbitzuak eskaintzen dituzte.
- Gainera, goitik behera aldatzen da etxegabetasunari aurre egiteko politiken erdigunea, **batez ere aterpeak eta aldi baterako etxebizitzak izatetik etxebizitza independenteak eskaintzera eta laguntza-zerbitzu ibilgariak (*floating support*) eskaintzera igarotzen baitira.**

Etxebizitza ardatz duen ikuspegi horren adierazpen argi eta arrakastatsuenetarikoa bat *housing first*²⁴ metodologian txertatutako programak dira. *Housing first* ereduak **etxebizitzan esku-hartze goiztiar bat egitean datza; hala, behin betiko etxebizitza merkeak eskaintzen zaizkie kalean edo larrialdiko zerbitzuetan bizi diren pertsonen.** Gainera, intentsitate aldakorreko gizarte- eta osasun-laguntza ere eskaintzen zaie. Aurretik ere esan den moduan, *housing first* ikuspegiak kontra egiten dio aurretik tratamendua emateko beharrenden ideari, horren atzean etxerik ez duten pertsonen esku hartzeko dauden ikuspegi tradizionalak baitaude. Estrategia horrek izan duen arrakastaren eraginez, Europar Batasuneko hainbat herrialdek etxegabetasuna desagerrarazteko euren strategiaren ildo nagusi gisa txertatu dute (ikuspegi zabalagoarekin eta askotariko aldaerekin).

Housing first ereduak New Yorkeko *Pathways to Housing* elkarteak garatu zuen lehen aldiz goeko hamarkadan, eta helburu nagusi du pertsonen etxe bat eskaintzea ahalik eta lasterren. Hauek dira ezauzgarri nagusiak (EAPN Etxeratze Taldea, Madril, 2013):

²⁴Etixerik gabeko Pertsonentzako Espainiako Estrategiak *housing first* ereduak hedatu nahi du, etxebizitza ardatz duen ikuspegiak txertatzeko, eta eman dituen emaitza onak nabarmen dituzte. Hala, Estrategiaren testuaren arabera, duela gutxi hasi dira ikuspegi hori Espainian aplikatzen, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren babesarekin. Beste herrialde batzuetan urte luzez aplikatu ondoren, emaitzek erakusten dute hobekuntza kualitatiboak egon direla etxerik gabeko pertsonen etxebizitza batean bizitzea onartzeari dagokionez (erabiltzaileen % 80tik gora etxeetan zeuden programa hasi eta lau urtera); gainera, zerbitzu publikoen erabilera murriztu da (frogetan oinarritutako ikerketek adierazten dute *Housing First* programetan parte hartzen duten etxerik gabeko pertsonen artean % 83 jaisten dela osasun-larrialdien erabilera, % 80 anbulantzien erabilera, % 77 kartzelen erabilera, % 45 kartzelan ematen dituzten egunen kopurua, % 83 medikuari egindako bisitak, % 75 psikiatria-ospitaleratzeak, % 72 ospitaleko oheen erabilera, % 97 alkoholismo-zentroetara egindako bisitak eta % 65 poliziarekin izandako kontaktuak), baita bizi-kalitatea hobetu ere (lehen etxerik ez zutenen % 93 “oso gogobeteta” daudela adierazi dute, heren batean jaitsi da nork bere buruari ikusitako desgaitasun fisikoen hautematea, % 97ren buruko osasuna hobetu da eta substantzien nahiz alkoholaren kontsumoa % 57 jaitsi da). Bukatzeko, kostuak ere murriztu dira.

- Buruko gaixotasunak eta mendekotasun-nahasmenduak dituzten pertsonen bakarrizketa zuzentzen zaie.
- Berehalako sarbidea eskaintzen du behin betiko etxebizitza merke batera, kaletik edo larrialdiko zerbitzuetatik zuzenean.
- Erabiltzaileei buruko osasuna hobetzeko edo drogen nahiz alkoholaren kontsumoa murrizteko tratamendu batean parte hartzeko gomendatzen zaie, nahiz eta hori ez den beharrezkoa etxebizitza eskuratzeko, bertan jarraitzeko edo gizarte-laguntza jasotzeko.
- Esku-hartze integral bat egiten da, komunitateko baieztapen-tratamendu ekipoen (ACT) bitartez. Gizarte eta osasunaren arloko diziplina anitzeko profesionalek osaturiko taldea da: toxikomaniaren arloko adituak, erizainak, psikiatrak, gizarte-langileak, elkar laguntzeko langileak eta laneko orientatzaileak. Ekipoak etxebizitzatik kanpo daude, baina erabiltzaileak telefonoz jar daitezke haiekin harremanetan, eguneko 24 orduetan, asteko zazpi egunetan. Zerbitzu horiek erabiltzea borondatezkoa da, baina erabiltzaileak parte hartzera gonbidatzen dituzte, eta taldearen gutxienez astean behin elkartzeko eskatzen zaie. Ekonomia-aholkularitza eskaintzen zaie, alokairua eta beste faktura batzuk ordaintzen dituztela bermatzeko.
- Etxebizitza denbora-mugarik gabeko alokairu kontratu baten bidez ematen zaie, eta zerbitzua behar duteneraino dute eskuragarri. Etxebizitza eta gizarte-laguntza independenteak dira elkarrekiko.
- Hautuaren garrantzia azpimarratzen da, *housing first* ikuspegiaren funtsezko elementua baita. Parte-hartzaileek zerbitzu motak, maiztasuna eta sekuentzia hauta ditzakete. Auzoa eta apartamentua aukera ditzakete, eskuragarritasunaren arabera, baita altzariak eta etxeko tresneria ere.
- Horrez gain, sakabanatutako etxebizitzak erabiltzearen garrantzia azpimarratzen da, hau da, eraikin batean era horretako etxebizitza-kopuru mugatua (% 15) egon behar da, gizarteratzea sustatzeko.

Lehen esan bezala, esku-hartze lineala edo mailakatua zalantzan jartzeaz gain, **housing first ereduak kalteen murrizketa eta eskakizun baxua ere baditu oinarri**. Lehenago ere esan den moduan, kalteen murrizketa *housing first* ereduaren funtsezko elementua da, mendekotasunei “eskaeren arabera” erantzuten saiatzen baita; horren arabera, erabiltzaileak ez daude tratamenduetan parte hartzera behartuta, eta etxebizitza eskuratzeko ez da programa horietan parte hartzearen araberakoa. Ikuspegi horrek esan nahi du programa hauetan parte hartzen duten pertsonen kontsumitzen jarrai dezaketela –horrek beste pertsona batzuei eragozten ez badie-, etxebizitza-eskaintza kalteak murrizteko gizarte eta osasunaren arloko baliabideekin osatu behar dela (zaintzadun kontsumo-gelak edo xiringak banatzeko programak) eta antolakuntzan aldaketak egin behar direla etxebizitzako laguntza-zerbitzuak eta kalteak murrizteko zerbitzuak konbinatu ahal izateko (Pauly *et al.*, 2013).

Housing first ereduak oinarritzko hainbat ezaugarri partekatzen ditu etxebizitza ardatz duten gaineko ikuspegiekin; hauek dira ezaugarri horiek: arretaren indibidualizazioa, hainbat intentsitateko laguntzak eskaintzea, etxegabetasuna gainditzeko edozein prozesuren abiapuntuan etxebizitza egonkorra jartzea, erabiltzaileek kontrola eta burujabetza izateari garrantzia ematea, eta kalteen murrizketari nahiz eskakizun-maila baxuari protagonismoa ematea.

Edonola ere, **etxebizitza ardatz duen ikuspegia ez dago soilik housing first metodologian**. *Housing first* ikuspegiak, beraz, askotariko zerbitzuak eskaintzen ditu, eta horien ezaugarri nagusia da banakakoek hautatzeko aukera gehiago dituztela, independentzia eta kalteen murrizketa sustatzen dituztela eta egoera kalteberenetan dauden eta laguntza gehien behar duten pertsonen etxebizitasunetik ateratzeko irteera iraunkor bat eskaintzeko diseinatuta dagoen esparru batean kokatzen dela (Pleace eta Bretherton, 2015). Ikuspegi horretatik, Etxegabetasunari buruzko Adostasun Konferentziako gomendioei jarraikiz, *housing first* kontzeptua oso espezifikoak denez, **komenigarria da housing led terminoa erabiltzea horren ordez**, etxebizitasun modu guztiei aurre egiteko lehen urrats gisa etxebizitza bat eta beharrezko laguntzak eskaintzea xede duten ikuspegi guztiak barne hartzen dituen kontzeptu bat irudikatzen baitu. *Housing led* kontzeptuak, beraz, barne hartzen du *housing first* eredua, baina etxebizitasuna prebenitzeko, egoera horien eragina jasaten duten edo horretarako arriskua duten pertsonen bizi-baldintzak normalizatzeko eta gerora gizarteratu ahal izateko behin betiko etxebizitza bat bermatzeko politiken eskaintza zabalago bat hartzen du kontuan²⁵.

Hala, **etxebizitza ardatz duen ikuspegiaren erabilera generikoaren alde egiteak ahalbidetzen du housing first ereduari egotz dakizkiokeen zenbait kritika edo mugari erantzutea**. Eredu horien aplikazioa etxerik gabeko pertsonen kolektibo zehatz batzuetan (buruko gaixotasunak dituzten pertsonak eta/edo substantziak kontsumitzen dituztenak) zentratzen dira, eta garrantzi berezia ematen diote komunitatean sakabanatutako etxebizitza indibidualak erabiltzeari; horrek hainbat zailtasun arrisku dakartza antolakuntzari eta logistikari dagokienez, eta, gainera, baliteke desegokiak izatea etxerik gabeko pertsona batzuentzat, era horretako programetan isolatuta egoteko arriskua baitute. Ildo horretatik, kontsultatutako literaturan, filosofia hori aplikatzeko hainbat eredu aipatzen dira, intentsitate desberdinekin, bai komunitatean sakabanatutako etxebizitza arruntetan, bai apartamentu-blokeetan edota egoitza-zentroetako banakako geletan (Pleace eta Bretherton, 2015).

Intentsitatea, eskakizun-maila eta epeak

Edonola ere, egon daitezkeen modalitateak gorabehera, etxebizitza ardatz duten ikuspegiak izen hori dute egiten den lehen gauza etxerik gabeko pertsona bati behin betiko etxebizitza bat edo etxebizitza egonkor bat ematea delako, eta pertsona horiei eskaintzen zaien laguntza funtsean etxebizitza horretan gertatzen delako. Baina, ingeles terminologia erabiliz, **housing led esateak ez du housing only esan nahi: ikuspegiaren ardatza etxebizitza izatea ez du esan nahi pertsonak etxebizitza batean jarri besterik egiten ez denik**.

Hala, aplikazio ohikoenetan, **etxebizitza ardatz duen ikuspegiaren ezaugarria da etxebizitzan laguntza eskaintzea, eta ez laguntzadun etxebizitza eskaintzea; horretarako, laguntza pertsonala eskaintzen duten zerbitzu ibiltariak ditu (floating support), edo kasuak kudeatzeko programak (case management)**. Izaera ibiltari horrekin batera, ekipoek eskaintzen duten laguntza psikosoziala nahiz gizarterako eta hezkuntzako laguntza oso malgua da, bai intentsitateari dagokionez, bai iraupenari dagokionez, eta burujabetza- eta kontrol-printzipioak errespetatzen ditu, kalteak murrizteko esparru orokorraren barruan. Ondorioz, beharrezkoa da ikuspegi horren oinarrian dauden intentsitatearen eta eskakizunaren kontzeptuei buruz hausnartzea.

Eskakizun-mailei dagokienez, etxebizitza ardatz duten zerbitzuek kalteak murriztea dute xede, eta errehabilitaziora bideratuta daude: Hau da, drogen kontsumoa murriztea edo geldiaraztea bilatzen dute, baita erabiltzaileei tratamenduarekin jarraitzen laguntzea ere, baina erabiltzaileen esku utziz erabiltzen dituzten zerbitzuei eta horiek erabiltzeko uneari buruzko hautua eta kontrola, tratamendua erraztuz eta sustatuz, baina inposatu edo exijitu gabe (Pleace eta Bretherton, 2015). Horrez gain, ulertzekoa denez, ikuspegi hauek uko egiten diote gizarteratze-prozesuetan inplikatzeko betebeharrak jartzeari, arazoaren kontzientzia izateko beharrari eta aldatzeko motibazioa eskatzeari, besteak beste. Ildo horretatik, aztertutako estrategia batzuek argi uzten dute beharrezkoa dela ulertzea kasu gehienetan etxebizitasuna ezin dela norbanakoaren portaera aldatzeari lehentasuna ematen dioten zerbitzuen bitartez konpondu eta horren ordez beste ikuspegi bat behar dela, gutxieneko segurtasuna eta bizi-kalitatea bermatzeko dituen (Pleace et al., 2015)²⁶.

²⁵European Consensus Conference on Homelessness. Policy Recommendations of the Jury.

²⁶Autore horien esanetan, nazioarteko esperientziak erakusten du etxerik ez duten pertsonen aukera ematen zaienean euren bizitza kontrolatzeko eta burujabeak izateko, gehienek ez dute euren buruei edo besteek kalte egiten dieten portaerarik izaten.

Eskakizun-maila baxuak ez du esan nahi aldaketa-prozesuak eta gizarteratze-ibilbideak sustatzen ez direnik. Kontrara, eskakizun-maila baxuko mekanismoak motibatzen aukera gisa egituratu behar dira, eta ahal den guztietan erabiltzaileen egoera hobetzeko prozesuak abiarazi behar dira, baita pertsona horiei gizarte-arretako sare normalizatuko baliabideak erabiltzeko aukera eman ere. Hala, **eskakizun-maila baxuak ez du inolaz ere esan nahi pertsona horiek euren egoera gainditzeko zentro edo zerbitzuetan sartzeko ahaleginei uko egiten zaienik, baizik eta zerbitzua pertsona guztiei eskaini behar zaiela, gizarteratze-ibilbide bat abiatzea erabaki duten ala ez kontuan hartu gabe.** Ildo horretatik, eskakizun-maila baxuak etxebizitzaren, elikaduraren, jantzien, higienearen, laguntzaren eta loturen gutxieneko beharrak estali behar ditu, eta hori eskuratzeko baldintza bakarra izan behar da onuradunentzat, beste erabiltzaileentzat, profesionalentzat edo ingurukoentzat mehatxua edo arriskua ez izatea. Hori dela eta, sarbidea berehalakoa izan behar da, hau da, ezin da pertsona izapide burokratikoetan eta sarbidea zailduko duten administrazio-eskakizunetan murgildu; horren ordez, eman beharreko urratsak azkarrak eta sinpleak izan behar dira, eta erakunde publiko nahiz pribatuek ondo kudeatu behar dituzte (Ruiz y Beteta, 2016).

Zerbitzuen intentsitateari dagokionez, baita horien behin betiko izaerari dagokionez ere, hiru maila edo ikuspegi bereiz daitezke:

- **Housing first eredu, hasiera batean Estatu Batuetan garatu zena.** Bereziki buruko gaixotasunak dituzten eta/edo drogak kontsumitzen dituzten pertsonei zuzentzen zaie bereziki, eta, lehen esan bezala, komunitateko baieztapen-tratamendu ekipoetan (ACT²⁷) oinarrituta dago, baita kasuak kudeatzeko formula intentsiboetan ere. Etxebizitzak eskuratzeko, funtsean, arlo pribatuko alokairuak erabiltzen dira, komunitatean sakabanatutako etxebizitza indibidualetan. Zerbitzua eskakizun-maila baxuaren eta kalteen murrizketaren ideian oinarritzen da; hala ere, erabiltzaileei oinarritzko hiru betekizun edo baldintza hauek jartzen zaizkie: euren diru-sarreraren zati bat alokairua ordaintzeko erabiltzea, laguntza-taldearen bisita onartzea asetan behin gutxienez, eta alokairu edo azpialokairu kontratu bat sinatzea, zeinetan alokairuan bizi den pertsonaren eskubideak eta betebeharrak ezartzen diren. Froga zientifiko sendoak daude ikuspegi horrek lortzen dituen emaitza onak frogatzeko, beharizan handienak dituzten etxerik gabeko pertsonen beharrei erantzuteari dagokionez (euste-tasa handiagoak, esku-hartzeen kostu-eraginkortasun harreman ona...); hala ere, muga batzuk ere agerian jarri dira: besteak beste, banakako etxebizitzetan bizi diren pertsonak isolatzeko arriskua dago, osasun- edo kontsumo-arazoak kontrolatzea baina konpondu ezin izatea eta pertsona batzuek behar duten intentsitateko laguntza eskaini ahal ezin izatea.

²⁷Arretaren ratioei dagokionez, kalkulatu da 10 profesionalak osaturiko talde batek 70 kasu arta ditzakeela, hau da, 0,14 profesional behar dira kasu bakoitzeko.

- **Housing first eredu kongregatuak.** Aurretik azaldutako ereduaren bide berari jarraitzen dio, nahiz eta baliabide komun edo kongregatuetan bizitzeko aukera ematen duen (logela partekatua dituzten egoitza-zentroetan edo apartamentu-blokeetan, esaterako) eta langileak *in situ* dituen. Egoitza-izaera nabariagoa duten eredu horiek komenigarriak izan litezke laguntza intentsoagoa behar duten pertsonentzat, baita harreman-lotura indartsuagoak ezartzeko beharra duten pertsonentzat ere. Muga hauek ditu: aukera honek izaera segregatua du, baita estigmatizatzailea ere, eta hori ez dator bat erabiltzaileak erakundeetatik ateratzearen aldekoek defendatzen duten ikuspegi komunitarioarekin. Edonola ere, Finlandiako esperientzia arrakastatsuen azterketak²⁸ argi adierazten du *housing first* ereduari egotzen zaizkion emaitza positiboan funtsa ez dela eredu zehatz baten aplikazio mimetikoa, baizik eta kalteak murriztean, ez exijitzean eta erabiltzaileen autonomia errespetatzean oinarritutako filosofia baten aplikazio koherentean (Pleace et al, 2015).
- **Intentsitate baxuko housing first ereduak** *housing first* eredu arrunten antzekoak dira, baina laguntza profesionalaren intentsitatea txikiagoa da. Kasu horietan, etxebizitza arruntak eskaintzen dira, bai alokairu pribatuetan, bai sustapen publikoko etxebizitzetan. Kasu batzuetan intentsitate baxuko zerbitzu bat eskaintzea baliagarria izan badaiteke ere, horri buruz argitaratutako literaturak adierazten du etxerik gabeko pertsona gehienek nolabaiteko intentsitatea duten kasuak kudeatzeko zerbitzuak eta/edo esku-hartze psikosozialak nahiz gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeak behar dituztela (Pleace et al., 2015).

Aipatu beharra dago eredu horietan **baliabideen erabilera beti behin betiko baldintzetan proposatzen dela**, betiere erabiltzaileak gorago adierazitako baldintzak betetzen baditu (besteak beste alokairu osoa edo zati bat ordaintzea) eta beharizan-egoeran jarraitzen badu²⁹. Hala, **baliabide horien erabilera ez da aldi baterako eta/edo beste zerbitzu batean hasi aurreko urratsa, gutxienez ez berariaz; horrez gain, ez da autonomia eskuratzearen eta gizarteratze osoa erdiestearen aurreko fasea**. Behin betiko izaera hori ahalbidetzen duen elementuetako bat da zerbitzu horiek ez direla *egoitza-plaza gisa* aurkezten (gaur EAEn edo gizarte-zerbitzuetako beste arlo batzuetan egiten den moduan), hau da, ez dago langilerik tokian bertan, eguneko 24 orduetan, eta ez daude Gizarte Segurantzak guztiz finantzatuta. Alderantziz, pertsona horiek era horretako baliabide egonkorretan jarraitzea hainbat babes-sistemen elkarlanaren emaitza dela ulertzen da:

- Etxebizitza-sistema. Sustapen publikoko etxebizitzak eskaintzen ditu alokairuan, eta/edo alokairua ordaintzeko laguntzak eskaintzen ditu (kasu batzuetan etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatzen duten araudien esparruan), etxebizitza behar duten pertsonentzat, baita etxerik ez dutenentzat ere.
- Diru-sarrerak bermatzeko sistemak –kasu batzuetan, aurreko horrekin koordinatuta– pertsona horiek oinarrizko baliabide ekonomikoak dituztela bermatzen du.
- Gizarte-zerbitzuen sistema, berriz, pertsona horiek behar duten gizarteko, osasuneko eta hezkuntzako laguntza, baita laguntza psikosoziala ere, eskaintzeaz arduratuko da, kasu batzuetan osasun-sistemarekin elkarlanean. Esan denez, era horretako laguntzaren intentsitatea aldakorra eta ibiltaria da, kasu gehienetan; hala ere, batzuetan komenigarria da egoitza-izaera izan dezaketen zentroetan etengabeko laguntza-zerbitzuak erabiltzea, langile egonkorragoekin; aukera hori hurbilago dago bazterkeria-egoera larriarri dauden pertsonen arreta emateko eredu tradizioaletik (gutxienez, laguntzako langileen egonkortasunari eta eskaintzen den ostatu motari dagokienez).

Bukatzeko, adierazi beharra dago **arreta ibiltaria eskaintzen duen sistema horri esker pertsona bakoitzari esleitzen zaion esku-hartzearen ezaugarriak (eskakizun-maila, intentsitatea, denbora...)** pertsona horrek unean-unean duen egoeraren arabera direla, **eta ez zentro bateko plaza guztien arabera**; horrek, argi eta garbi, arreta ematen jarraitzea errazten du. Testuinguru horretan, ereduaren helburua da pertsona bakoitzari behar duen laguntza eskaintzea –beharrezko eduki eta intentsitatearekin–, edozein tokitan bizi delarik ere; hala, parametro horiek aldatzen direnean, erabiltzailea

²⁸Finlandiak asko erabili du modalitate hau, eta sakabanatutako etxebizitzaren bidez nahiz etxebizitza komun edo kongregatuen bidez garatu du *housing first* eredu.

²⁹Eredu batzuetan, laguntza aktibatu edo berriz aktibatu egiten da pertsonen beharren arabera; hala, onartu egiten da gizarte-bazterkeria egoren espiral-izaera eta gizarte-bazterkeria edo egoitza-bazterkeria larrietan sarri ohikoa den berriz erortzeko arriskua (Pleace et al., 2015).

ez da etxez aldatu beharko (ez eta, batzuetan, arreta-sistema edo –maila batetik bestera igaro behar izango).

Aterpeen, harrera-zentroen eta aldi baterako edo larrialdietako beste baliabide batzuen eginkizuna

Testuinguru horretan, zer eginkizun dute eguneko edo gaueko harrera-zentroek eta aldi baterako edo larrialdietako gainerako baliabideek? Etxebizitza arrunten eta laguntzako talde ibiltarien aldeko apustu argia egiten badute ere, aztertutako estrategiek onartu egiten dute harrera-zentroek eta/edo larrialdietako zentroek rol garrantzitsua izan dezaketela, eta bi gauza hauek nabarmentzen dituzte:

- **Zentro horien kalitatea** bermatzeko beharra (bai instalazioei dagokienez, bai eskaintzen dituzten zerbitzuei dagokienez).
- Zerbitzu horien erabilera egonkorra edo behin betikoa ez bilakatzeko beharra (hau da, ezingo da izan etxebizitza arrunten alternatiba), baizik eta **etxebizitza ardatz duten zerbitzuen sarera sartzeko atea**.

Ildo horretatik, **estrategia horietan, zerbitzu horiek saltagailutzat hartzen dira**, ez berariaz aldaketa edo gizarteratzea lortzeko, baina bai behin betiko etxebizitza seguruak lortzeko, non pertsona horiek behar duten laguntza jaso ahal izango duten. Horri dagokionez, etxegabetasuna desagerraraztearen eta ez kudeatzearen ideia lotuta dago aldi baterako edo larrialdiko baliabideen zirkuituaren erabilera ez kronifikatzeari, zirkuitu hori, gainera, ez baitago behar bezala hornituta³⁰.

³⁰Ikuspegi horren adibide gisa, etxerik gabeko pertsonen zuzenduriko Ingalaterrako estrategiak 90 milioi euroko funts bat zuen aterpeen (*hostels*) sarea berritzeko, “aldaketarako gune” bihurtzeko. Programa hori txertatzearen arrazoia izan zen hainbat ikerketatan esaten zela aterpeen erabilera kronifikatu egiten zela eta era horretako baliabideen baldintzak txarrek etxegabetasunaren zikloa indartzen zutela. Programaren helburua da erabiltzaileek helburu horiek lortzea eta aldaketa positiboa lortzeko prozesu bat abiarazten duten pertsonen kopurua areagotzea. Programak aterpeetan, eguneko zentroetan eta prestakuntza nahiz lan-esperientzia eskaintzen duten beste proiektu batzuetan berrikuntza sustatzen du, etxegabetasunetik ateratzeko. “Aldaketarako guneek” banakako logelak eskaintzen dituzte, logela kolektiboen ordez, eta garrantzi handia ematen diote pertsonak behar duen laguntza eskaintzeari (osasun-zerbitzuak, musika, kirola, hezkuntza eta prestakuntza), aterpeak luzaroan erabiltzeak dakarren gizarte-bazterkeriaren zikloa apurtzeko. Nabarmendu egiten da pertsonen eta zerbitzuen arteko lotura indartzeko beharra; horretarako, egoitza atseginak eta motibazio altua duten langileak eskaintzen zaizkie.

Planteamendu horien oinarrian ideia hau dago: gaueko harrera-baliabideen lehentasuna larrialdi-egoerak dira eta, definizioz, egoera horiek ezin dira behin betikoak izan. Planteamendu horietatik abiatuta, aztertu diren estrategia batzuek mugak jartzen dizkiote era horretako baliabideen erabilerrari, eta zerbitzuen sarrerak hartzen du pertsona horiei etxebizitza egonkor bat eskaintzeko ardua, larrialdiko baliabideak erabiltzeko epea gaintzen dutenerako. Beste alde batetik, adierazi beharra dago aztertutako estrategia gehienek era horretako zentroetan eskaintzen diren zerbitzuen kalitatea hobetzeko neurriak proposatzen dituztela, langileen prestakuntzari, arreta-ratioei eta zentroek bete behar dituzten betekizun funtzional eta materialei dagokienez (FEANTSA, 2010).

Zailtasun handiak dituzten pertsonen arreta ematea

Gure inguruko herrialdeek garatu dituzten estrategien gakoetako batek erreferentzia egiten dio **beharrizan konplexuagoak dituzten arazo anitzeko profileri erantzuna emateko** beharrari. Horri dagokionez, estrategia gehienek azpimarratzen dute beharrezkoa dela zailtasun handienak dituzten pertsonen baliabideak eskuratzeko oztopo bilaka daitezkeen baldintzarik ez jartzea; hori, azken finean, bazterkeria areagotzea litzateke eta. Hala, batez ere eskakizun-maila baxuko zerbitzuak garatzeko beharrari buruz hitz egiten denean, esaten da funtsezkoa dela osasun-arazoak eta, batez ere, buruko osasun-arazoak dituzten pertsonen eskaintzen zaizkien zerbitzuek etxerik gabeko adinekoei, desgaitasunen bat dutenei eta abarrei egokitzea.

Lehentasuna etxegabetasuna prebenitzeari ematea

Esan den moduan, etxebizitza ardatz duen lanerako ikuspegi bat hartzeaz gain, **etxegabetasuna murrizteko edo desagerrarazteko estrategiak ezaugarritzen dituen beste elementu bat prebentzio-estrategiei ematen zaien garrantzia da**, batez ere, etxegabetasun-arrisku handiena duten kolektiboek zuzenduriko estrategia selektiboek ematen zaiena. Ikuspuntu horretatik, aztertutako estrategia ugariaren helburua da hasierako faseetan etxegabetasuna ondorio izan dezaketen bazterkeria-prozesu larriak hautematea, eta egoera horiei erantzun proaktiboa ematea.

Esparru horretan garatu diren esku-hartzeak hiru talde handi hauek sailka daitezke, selektibotasun edo fokalizazio txikiarekin duenetik hasita:

- Bitartekaritza- eta aholkularitza-estrategiak. Herrialde askotan, etxegabetasuna prebenitzeko modurik ohikoena modu autonomoan euren etxebizitzetan jarraitzeko zailtasunak dituzten pertsonen aholkularitza-zerbitzuak eskaintzea da, baita bitartekaritza-zerbitzuak eskaintzea ere, etxebizitza galtzea eragin dezaketen arazoak sortzen direnean³¹. Europako herrialde guztietan eta, batez ere, etxebizitza bat eskuratzeko zortzapek handiena egon denean, neurri hauen helburu nagusia etxe-kaleratzeak prebenitzea da. Horretarako, etxebizitzaren egoiliarren eta alokatzaileen arteko bitartekaritza (alokairuetan), eta bankuen eta hipotekak ordaindu ezin dituzten pertsonen arteko bitartekaritza (jabetza-kasuetan) eskaintzen dute³². Kasu batzuetan, etxegabetasun-egoeran erortzeko arriskuan dauden pertsonentzako

³¹Esparru horretako esperientzia interesgarri bat Etxebizitzaren arloan Gizarteratzeko Taldea (EISOVI) izan daiteke. Horiek Nafarroako Foru Erkidegoko gizarte-zerbitzuen katalogoan ageri dira, printzipioz eskualde-mailan, nahiz eta orain arte Iruñea aldean baino ez diren garatu. Horien helburua da egoitza-bazterkeriaren kontra borrokatzean aditua den gizarteratze-zerbitzu bat eskaintzea eta, horren bitartez, gizarte-bazterkeria egoeran dauden edo horretarako arriskuan dauden familien gizarteratzea eta autonomia pertsonala bermatzea, informazioaren, bitartekaritzaren, aholkularitzaren eta gizarte-laguntzaren arloko jarduketan bitartez, etxebizitza duin bat eskuratu edo mantendu ahal dezaten. Horrez gain, *housing options* izeneko eredu britaniarra ere aipatu behar da: leihatila bakar gisa funtzionatzen duten tokiko zerbitzuak dira, eta etxebizitza mantentzeari loturiko arazoak dituzten pertsonen bitartekaritza eta aholkularitza eskaintzen dizkiete.

³²Horri dagokionez, interesgarria da Bartzelonako Cáritas erakundeak garatutako Etxebizitzako Bitartekaritza Zerbitzua (SMV). Horren xedea da etxebizitzak ordaintzeko arazo larriak dituzten familiei laguntzea eta familia horien eta jabeen nahiz finantza-erakundearen arteko bitartekari-lanak egitea, kasu bakoitzari konponbiderik onena emateko. SMV zerbitzuak ohiko etxebizitzaren alokairuaren edo hipotekaren ordainketak atzerapena duten edo atzeratzeko arriskua duten pertsonen eta familiek egindako kontsultei erantzuten diete, eta bitartekari-lanak egiten dituzte familia horien eta jabeen edo maileguak eman dituzten finantza-erakundearen artean, konponbiderik proportzionalenak eta bidezkoenak lortzeko eta ahalik eta etxe-kaleratze gehien saihesteko. Hauek dira zerbitzuaren helburuak:

- Egoitza-bazterkeria larria prebenitzea; horretarako ordaintzeko zailtasun handiak dituzten familiei laguntza eskainiko zaie, etxebizitza gal ez dezaten.
- Etxebizitza ordaintzeko zailtasun handiak dituzten familiei laguntza eta aholkularitza ematea.

bitartekaritza- eta aholkularitza-zerbitzuak osagarriak izan daitezke aurreko puntuan adierazitako intentsitate baxuko kasuen kudeaketa-zerbitzuetan edo gizarte- eta hezkuntza-laguntzako nahiz laguntza psikosozialeko zerbitzuetan.

- Izaera kolektiboa duten erakundeetatik (kartzelak, ospitaleak, gizarte-zerbitzuen zentroak eta abar) atera diren pertsonen artean etxegabetasun-arriskua saihestera bideratutako estrategiak. Prebentzio-estrategia nagusiak, dena den, egoitza-zentroetan eta/edo barneratze-zentroetan³³ alta-prozesuak prestatzera bideratutako estrategiak dira, baita administrazioaren tutoretzapean dauden adingabeen emantzipazio-prozesuak ere, 18 urte betetzen dituztenean prest egon daitezten. Antzeko rola dute genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei berehalako edo premiazko erantzuna ematera bideratuta dauden zerbitzu guztiek.
- Lehen aldiz kalean lo egin behar duten pertsoneri erantzuteko estrategia espezifikokoak. Kasu batzuetan, esate baterako Erresuma Batuan edo Estatu Batuetan, jada etxerik gabe dauden pertsoneri zuzenduriko prebentzio-estrategiak abian jarri dira, egoera hori ahalik eta laburrena eta ezohikoena izan dadin saiartzeko. Esku-hartze plan azkarrak dira, pertsona kalean gelditu eta berehala aplikatzekoak, kalean ematen duen denbora ahalik eta laburrena izan dadin eta kronifikaziorik gertatu ez dadin³⁴. Horretarako, ezinbestekoa da bitarteko irekiko gizarte eta hezkuntzaren arloko esku-hartze taldeak erabili ahal izatea.

-
- Finantza-erakundeen eta etxeen jabeen aurrean bitartekari-lanak egitea, zordunaren eta hartzekodunaren arteko negoziazioetan berdintasuna bermatzeko, soluziorik proportzionatuena eta bidezkoena bideratzea eta ahalik eta etxe-kaleratze gehien saihestea.
 - Erositako etxebizitzak ordaindu ezin dituzten familien zorraren karga arintzea.
 - Alokairu-gastuak eta ur-, argi- eta gas-hornidura ordaintzen laguntzea.
 - Etxea galdu duten familiei etxebizitza bat lortzen laguntzea.

³³Hainbat herrialdetan era honetako esku-hartze espezifikokoak garatu dira (*Critical Time Intervention* izenekoak, kasurako), eta emaitza onak izan dituzte. CIT denboran mugatutako esku-hartze bat da; horren bitartez, komunitatera itzultzten ari den pertsona batek trantsizio hori zuzentzen duen taldearen laguntza jasoko du, bederatzi hilabetez, eta laguntza horren intentsitatea pixkanaka gutxituko da. Oro har, pertsonen intentsitate handiko laguntza jasotzen dute lehen 90 egunetan; hurrengo 90 egunetan intentsitatea murriztu egiten da; azken 90 egunetan, berriz, are gehiago murrizten da, gerora pertsona sistema arrunteko komunitate-laguntza edo -tratamendua jasotzera igarotzeko.

³⁴Horri dagokionez, Gobernuak nazio-mailan sustatutako “*No second night out*” estrategiak hautemate azkarreko zerbitzuak garatu nahi ditu; zerbitzu horiek etxebizitza alternatiboa eskaintzen diete kalean gau bat igaro behar duten pertsona guztiei. Estrategia hau hainbat mekanismoaren arteko koordinazioan oinarrituta dago (bitarteko irekiko esku-hartze ekipoak, larrialdi-telefonoak, aterpeak...), eta hainbat kritika jaso ditu helburu nagusia kaleko etxegabetasuna desagerraraztea delako eta praktikan ez delako pertsona horiei behar dituzten etxebizitzarako sarbidea eta gizarte-laguntzako zerbitzuak ematen. Ikuspegi horretatik, Erresuma Batuko estrategia hori urrundu egiten da lehenago aipatu ditugun etxebizitza ardatz duten ikuspegi horietatik; hala, etxerik gabeko pertsonen etxebizitza bat lortzeko dituzten zailtasunei arreta jarri beharrean, garrantzi handiagoa ematen die etxerik gabeko pertsonen dituzten behar bereziei (osasuna, drogen kontsumoak edo harremanetako gabeziak).

Dena den, esan beharra dago zenbait herrialdek, esaterako Erresuma Batuak, **etxegabetasuna prebenitzeko estrategia generikoak ezarri dituztela eta, funtsean, estrategia horiek edozein gizarte-bazterkeria mota prebenitzeko balio dutela**. Hala, *“Making every contact count”* strategiak egoitza-bazterkeria larriaren oinarrian dauden arazoak (osasunarekin, enpleguarekin, diru-sarrerekin, harremanekin eta abarrekin loturikoak) prebenitzea du xede. Ikuspegi horretatik, etxegabetasuna prebenitze aldera, haurren eta nerabeen portaera-nahasmenduak konpontzera bideratutako neurriak artikulatzen dira, baita etxerik gabeko pertsonen eskaintzen zaien osasun-arreta hobetzeko neurriak, kartzelatutako atzeratzen diren pertsonen etxebizitza bat lortzen laguntzeko neurriak edo etxerik gabeko pertsonen prestakuntza- eta enplegu-programetan sartzen laguntzeko neurriak ere.

Etxebizitza-politiketan eta -merkatuan esku hartzeko beharra

Orain arte esan den moduan, etxegabetasunari aurre egiteko estrategia gehienek hiru esparru handitan jartzen dute arreta, nahiz eta bakoitzak esparru bati ematen dion garrantzia gehien: prebentzioa, etxebizitza ardatz duen arreta-eredu bat sortzea, eta harrera-zentroen nahiz larrialdi-zentroen sarea hobetzea. Edonola ere, horrek ez du esan nahi ahaztu egin behar denik estrategia horiek merkatuan eta etxebizitza-politiketan eragitea xede duten neurrietan duten rola. Pleace et al. (2015) esandako eran, **etxegabetasunaren eta etxebizitza-politikaren arteko harremana ukalezina da, eta ezinezkoa da etxebizitzarako sarbidea aintzat hartzen ez duen etxegabetasunaren kontrako estrategia bat garatzea, etxebizitza arruntak nahiz sustapen publikokoak izan.**

Era horretako politikak izaera prebentiboa dutela pentsa daiteke edo, beste ikuspegi batetik begirata, etxebizitza ardatz duten estrategietan funtsezko tresnak direla pentsa liteke; dena den, hori gorabehera, aztertutako estrategia ugari etxebizitzaren merkatura bideratutako neurriak dituzte:

- Frantzia edo Erresuma Batuan, esaterako, baldintza zehatz batzuk betetzen dituzten pertsonen eskubide subjektiboa dutela ezartzen dute.
- Errenta baxuagoak dituzten pertsonen etxebizitzak alokairuan eskuratu ahal izateko prestazioen eredu bat garatzen dute.
- Gizarte-alkairuko etxebizitzak eskaintzen dituzte -izan sustapen publikokoak, izan eskaintza pribatuaren aprobetxamendu hobearen bitartez-; horrek, alde batetik, etxegabetasuna prebenitzen du eta, beste alde batetik, etxerik ez duten pertsonen etxebizitza bat emateko ere balio lezake. Horri dagokionez, etxebizitza merkea eskaintzeko zailtasuna eta horrek berekin dakarren pentsaera-aldaketa dira lehenago aipatu den ikuspegia, hau da, etxebizitza ardatz duen ikuspegia, aplikatzeko zailtasunik handienak.

Kaltetutako pertsonen parte hartzearen garrantzia eta kideen babesa jasotzearen garrantzia

Etxegabetasuna prebenitzeko eta desagerrarazteko martxan jarri diren estrategien azterketak honako hau ere erakusten du: beharrezkoa da politikak diseinatzerakoan arazo horren eragina jasaten duten pertsonak inplikatzeko, baita pertsona horiek zentroen eta zerbitzuen kudeaketan ahalik eta gehien parte hartzea ere. Navarrok (2013) esaten duenez, *“parte-hartzeak aldaketak dakartza arreta-unitateetan, eta horri esker pertsonen euren bizitzari eta erabiltzen dituzten zerbitzuei buruzko erabakiak hartu ahal izango dituzte. Erabakiak elkarrekin hartzea sustatu behar da, baita pertsonak zerbitzuaren funtzionamenduan benetan inplikatzeko ere, besteak beste zenbait zereginetan erantzukizunak emanez. Prozesu hori, askotan, mailen metaforaren bitartez azaltzen da; hauek dira maila horiek: informazioa, kontsulta, erabakiak elkarrekin hartzea, talde-lana eta, azkenik, ekimen independentea babestea”*.

Horrez gain, azpimarratu da beharrezkoa dela kideek egindako esku-hartzeak garatzea, baita, oro har, aurrerapausoak ematea ere elkar laguntzea xede duten ekimenen garapenean; horretarako, era horretako egoeretan egon diren (edo dauden) pertsonen esperientzia, ezagutza eta eskuragarritasuna aprobetxatu beharko da.

Ikerketa, frogetan oinarritutako praktika, datuen bilketa eta sentsibilizazioa

Aztertu diren estrategia gehienek partekatzen duten elementu bat da garrantzi handia ematen diotela ezagutzaren kudeaketari eta beharrezkotzat jotzen dutela frogetan oinarritutako politiken definizioan aurrerapausoak ematea. Horri dagokionez, aztertutako estrategia guztiek honako behar hauek aipatzen dituzte:

- Neurketa eta alerta goiztiar sistemak sortzea, arazo hori zenbat pertsonak duten eta pertsona horiek zer ezaugarri dituzten jakiteko.
- Sistemak ezartzea esku-hartzeek duten eragina ebaluatzeko, baita fenomeno horren gainean egiten diren jardunbide onen esperientziak hautematea eta ezagutaraztea ere.

Estrategien askotariko dimentsioak

Aztertutako estrategietan, prebentzioak eta etxebizitzari garrantzia emateak zentraltasun handia dute. Horrez gain, baina, beharrezkoa da aztertutako estrategiek askotariko dimentsioak dituztela nabarmentzea; izan ere, beste jarduketa-esparru batzuk ere kontuan hartzen dituzte, besteak beste osasun-zerbitzuak pertsona horien beharrezanetara egokitzea (batez ere buruko osasunaren zerbitzuak) edo enplegua edo diru-sarrerak bermatzeko sistemak atzitu ditzaten programak martxan jartzea.

Ondorioak: etxegabetasuna desagerrarazteko estrategia integral baterako hamar gako

Egindako azterketa abiapuntu hartuta, eta FEANTSAk proposatutako gidalerroei jarraikiz, esan daiteke etxegabetasuna desagerraraztea xede duen edozein estrategia integralen oinarrian honako ikuspegi edo norabide hauek egon behar direla:

- Frogetan oinarritutako ikuspegi bat izan behar da. Horretarako, aldi-aldi esku-hartzeak ebaluatu beharko dira, profilen aldaketak eta etxerik gabeko pertsonak dituzten beharrak aztertu beharko dira, eta etxegabetasunaren kausei eta konponbideei buruzko ikerketak egin beharko dira.
- Ikuspegi integrala izan beharko da, eta larrialdi-zerbitzuetan nahiz prebentzio-estrategietan eragin beharko du; prebentzio-estrategien barruan, prebentzio selektiboa (etxe-kaleratzeak, erakundeetako alden planifikazioa...) eta prebentzio orokorra landu beharko dira, arreta berezia emanez etxebizitza-politika sendoa diseinatzeari.
- Dimentsio anitzeko ikuspegia izan beharko da. Etxerik gabeko pertsonen bizi-beharrei (enplegua, hezkuntza, etxebizitza, osasuna, diru-sarrerak bermatzea...) erantzun beharko die eta erakundeen arteko koordinazioa erraztu beharko du.
- Eskubideetan oinarrituta egon beharko da. Pertsona guztiek euren oinarritzko beharrezanetan estalita izateko duten eskubidea aitortzen duten nazioarteko hitzarmenetan babestuko da, etxebizitza eskubide subjektiboa dela azpimarratuko du eta etxebizitza bat izateko eskubidearen eta beste giza eskubide batzuen (esaterako, osasunerako eskubidea) arteko lotura nabarmenduko du.
- Ikuspegi parte-hartzailea izango da; eragile ugari parte hartu ahal izango dute eta, beste inoren ginetik, arazoaren eragina jasaten duten pertsonak.
- Ikuspegi arautua izango da. Horri esker, esparru horretan administrazio publikoek hartzen dituzten erantzukizunak identifikatu ahal izango dira, baita beteko dituztela hitz ematen duten helburuak eta beharrezan-egoeran dauden herritarrei aitortzen dizkieten eskubideak ere.
- Ikuspegi iraunkorra izango da. Horren bidez, finantzaketa egokia, oinarritzko adostasun politikoa eta herritarren beharrezko babesa bermatuko dira.
- Beharrezanetan oinarrituta egongo da. Hala, ideia hau izango du oinarri: politikak pertsonen beharrezanetan oinarritu behar dira, eta ez mekanismoen edo erakundeen gaitasunetan.

- Ikuspegi pragmatikoa izango da. Helburu errealistak eta erdietsi daitezkeenak izango ditu, eta horiek erdiesteko epe errealista eta egingarriak ezarriko dira.
- Behetik gorako ikuspegi bat izango da. Lehenik eta behin tokian tokiko komunitateen beharrianak eta baliabideak identifikatuko dira, eta tokiko administrazioak duen funtzioa nabarmenduko da. Gainera, zerbitzuak hurbiltasun-irizpideekin ematea sustatuko da.

4. EUSKADIKO ETXERIK GABEKO PERTSONEN EGOERARI ETA BEHARREI BURUZKO DIAGNOSTIKOA

4.1. Etxegabetasunaren intzidentzia eta bilakaera Euskadin

Gure inguruko beste herrialde batzuetan garatu diren arreta-ereduak, orientabideak eta joerak azaldu ondoren, epigrafe honetan Euskadiko etxegabetasunaren intzidentziari eta bilakaerari buruz eskura ditugun datu nagusiak bildu ditugu. Sarrerako kapituluan adierazi den moduan, erabili dugun informazio gehiena Eustatek etxerik gabeko pertsonei buruz egindako bi inkesten ondoz ondoko edizioetatik dator –etxerik gabeko pertsonei buruzko inkesta (2005, 2012), eta etxerik gabeko pertsonentzako baliabideei buruzko inkesta (2014, 2016), baita 2012an, 2014an eta 2016an egindako gaueko hiru zenbaketetatik ere. Dena den, diagnostikoa egiteko, elkarriketatu diren pertsonek emandako informazio kualitatiboa ere erabili da.

Ikuspegi kuantitatibotik, hauek dira Euskadiko etxegabetasuna definitzen duten elementuak:

Euskadin ia bi mila pertsonak ez du etxerik

Gaueko azken zenbaketa 2016ko urriaren 26tik 27ra egin zen; kontaketa horretan, etxerik gabeko 2.009 pertsona aurkitu ziren Euskadin. Horietatik 274 (% 13,6) kontaketa egin zen hogeita lau udalerrietako toki publikoetan edo egitura desegokietan zeuden; 1.735, berriz, (% 86,4) etxerik gabeko pertsonentzako baliabideetan bizi ziren. 2.009 pertsona horietatik 504 (% 25,1) baino ez ziren emakumeak.

Termino erlatiboetan, 1. 000 biztanleko etxegabetasun-tasarik altuena Gipuzkoan dugu, bai kalean dauden pertsonen dagokienez (Irun, Pasaia eta Donostia dira tasarik altuena duten bost udalerrietatik hiru), bai ostatudun baliabideetan bizi diren pertsonen dagokienez.

6. taula. Etixerik gabeko pertsonen kopurua eta 1. 000 biztanleko tasa, lo egiteko tokiaren arabera, lurralde historikoka. 2016ko urriaren 26tik 27rako gaua

		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Pertsona kopurua	Kalea	30	155	89	274
	Baliabideak	279	811	645	1.735
	Guztira	309	966	734	2.009
1. 000 biztanleko tasa*	Kalea	0,114	0,206	0,222	0,194
	Baliabideak	0,861	0,707	0,899	0,792
	Guztira	0,953	0,842	1,023	0,918

* Kaleko etxegabetasunaren tasa kalkulatzeko, zenbaketa egin zen hogeita lau udalerrien biztanleria baino ez da kontuan hartu. Ostatudun baliabideen intzidentzia kalkulatzeko, berriz, EAEko biztanleria oso hartu da kontuan. Etxegabetasunaren intzidentziaren tasa osoak kalean eta ostatudun baliabideetan lokalizatutako pertsona guztiak hartzen ditu kontuan, eta hori kalkulatzeko kontuan hartu den biztanleria lurralde historiko bakoitzeko biztanleria osoa izan da. Iturriak: EAEko egoitza-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen buruzko III. ikerketa. 2016; Errolda Jarraituaren estatistika. EIN. 2016.

Eskura dugun ekimen osatu eta berriena bada ere, zenbaketa horren emaitzak kontu handiz interpretatu behar dira; izan ere, ziurrenik gutxietsi egiten dute etxerik ez duten pertsonen benetako kopurua. Hori iradokitzen dute azterketa honen harira hauteman ez diren etxerik gabeko pertsonen kasuak identifikatzeko erabili diren kontraste-metodoek. Emaitza horietatik abiatuta, ondoriozta daiteke kalean bizi diren 274 pertsonen kopurua % 78 handiagoa izan litekeela, hau da, 489 pertsona. Beste alde batetik, Eustatek etxerik gabeko pertsonentzako baliabideei buruzko inkestaren harira argitaratutako emaitzak ere aipatu behar dira. Estatistika horien arabera, 2016an, gizarte-zerbitzuetako ostatudun baliabideetan bizi diren etxerik gabeko pertsonak 2.342 (ekainaren 15ean) eta 2.401 (abenduaren 15an) artean izan ziren. Bi iturri horiek sakonago kontrastatu behar badira ere, zenbateko horiek esan nahi dute urte horretako gaueko zenbaketan, urriaren 26tik 27rako gauean, zenbatu ziren baino % 38 pertsona gehiago daudela egoera horretan.

Egun etxerik ez duten pertsonen kopurua duela 10 urte baino altuagoa da

Eskura dauden estatistikak nahiz kontsultatutako erakundeak eta profesionalak bat datoz honetan: azken urteetan, Euskadin gora egin du etxerik ez duten pertsonen kopuruak³⁵. Gorakada horren kausak askotarikoak dira; bi hauek dira kausa nagusiak:

- Alde batetik, eskura dagoen informazioak erakusten du etxerik gabeko pertsonen gorakada lotuta dagoela Euskadiko nazioarteko immigrazioaren bilakaerarekin, baita gizarte-bazterkeria egoeran dauden etorkinen gorakadarekin ere.
- Bigarrenik, azken krisi ekonomikoa eta horrek herritar zaugarrienengan izan duen eragina aipatu behar dugu etxegabetasun-egoera batzuk eragin dituen kausa gisa; dena den, era horretako kasuak migrazio-fluxuek eragindakoak baino askoz ere gutxiago dira.

³⁵Ondorio hori bera ateratu dute azken urteetan egin diren nazioarteko alderaketa-azterketek (Domergue et al., 2015).

Eustaten etxerik gabeko pertsonen buruzko inkestaren³⁶ emaitzak erreferentzia gisa hartuz gero (estatistika hori da Euskadin gizarte-arazo hori lehen aldiz kuantitatiboki aztertzen saiatu den ekimena), ikus daiteke etxerik ez duten pertsonen kopurua 1. 833 izatetik 2. 009 izatera igaro dela, hau da, % 14 igo dela. Gainera, epe horretan, etxerik gabeko atzerritarren kopuruak % 36 egin du gora; Estatuan jaiotakoak, berriz, % 8 egin du behera. Beste alde batetik, Eustaten datuekin jarraituz, etxerik gabeko pertsonentzako baliabideei buruzko inkestak eskaintzen dituen emaitzarik berrienak aztertuta, ikus daiteke 2014 eta 2016 artean etxerik gabeko pertsonentzako ostatudun baliabideetan okupatutako plaza-kopurua 2. 057 izatetik 2. 401 izatera igaro zela; hau da, soilik 2 urtean zenbatekoak % 16,7 egin du gora³⁷.

Zoritxarrez, ez dago krisi ekonomikoak etxegabetasun-egoera larrietan izan duen eragina ebaluatzeko datu kuantitatiborik. Dena den, kontsultatutako erakundeek eta profesionalak esaten dute krisi ekonomikoaren ondorioei loturiko etxegabetasun-egoeren gorakada nahiko neurritsua izan dela, une eta/edo zerbitzu zehatz batzuetan hautemandakoa gorabehera. Horri dagokionez, lan-aukeren galera, nahiz eta lan hori prekariora izan, kalteberatasun-faktore argia izan da; izan ere, krisiaren aurretik, elementu hori oso garrantzitsua zen pertsonen gizarteratzean. Edonola ere, adierazi beharra dago krisiak eragin duen langabeziaren gorakadak eta etxebizitza bat lortzeko zailtasunak ez du modu paraleloan eragin etxegabetasun-egoerak edo muturreko egoitza-bazterkeria areagotzea. Horri dagokionez, hona hemen etxegabetasunaren esparruan krisiaren eragina apaldu duten bi faktore:

- Alde batetik, moteldu egin dira EAE helburu duten migrazio-fluxuak eta pertsona batzuk beste herrialde batzuetara joan dira.
- Beste alde batetik, familien babes-sareek (oraindik ere) gaitasuna dute zailtasun ekonomikoaren eraginez etxebizitza independente bat (jabetzan nahiz alokairuan) mantentzea ezinezkoa zen kasuetan laguntza eskaintzeko. Ikuspegi horretatik, pentsa daiteke krisi ekonomikoaren eraginez gora egin dutela egoitza-bazterkeria kasu arinek (segurtasunik gabeko etxebizitza desegokiak, ETHOS tipologiaren terminoetan), baina ez hainbeste etxegabetasunarekin pareka daitezkeen kasuek.

Behera egin du kalean lo egiten duten pertsonen kopuruak

Etixerik gabeko pertsonentzako ostatudun baliabideetako okupazioa soilik zenbatzen denean hautemandakoaren kontrara, kalean lo egiten duten pertsonen buruz eskuragarri dagoen informazioa aztertuta ezin daiteke esan pertsona horien kopuruak gora egin duenik.

³⁶Etixerik gabeko pertsonen buruzko inkesta laginetan oinarritutako estatistika bat da. Eustatek egin du, 2005ean eta 2012an. Inkesta hori 18 urte edo gehiago dituzten, EAEko udalerriren batean bizi diren eta egoitza-zerbitzuak eta/edo otorduak eskaintzen dituzten zentroetara joaten diren pertsonen zuzentzen zaie. Esan beharra dago inkesta horrek zerbitzu horiek erabiltzen dituzten pertsonak baino ez dituela kontuan hartzen; ondorioz, gaueko zenbaketekin gertatzen ez den moduan, kanpoan uzten ditu gauean kalean lo egiten duten eta zerbitzu horiek erabiltzen ez dituzten pertsonak.

³⁷Etixerik gabeko pertsonentzako baliabideei buruzko estatistika errolda-inkesta bat da, bi urtero egiten da eta barne hartzen dituen biztanleak gizarte-zerbitzuen arloko jarduerak egiten dituzten etxerik gabeko pertsonentzako zentroetan daudenak dira. Ematen diren zenbatekoak abendukoak dira, bi urte horietan. Estatistika horrek ez ditu kalean lo egiten duten pertsonak zenbatzen. Etixerik gabeko pertsonen buruzko estatistikak eta gaueko zenbaketen bai zenbatzen dituzte pertsona horiek; horien bilakaera-datuak hurrengo epigrafean ageri dira.

Eskura dagoen informazio zaharrena aztertuta (Eustaten etxerik gabeko pertsonei buruzko inkestaren datuak), ikus dezakegu 2005-2012 aldian % 14,2 egin duela behera (261 pertsonatik 224 pertsonara) espazio publikoetan lo egiten duten pertsonen kopuruak. Joera hori bera ikus daiteke EINek estatu-mailan egindako inkestaren emaitzetan: aldi horretan, espazio publikoetan edo ezohiko ostatueta lo egiten zuten pertsonen kopurua % 22,6 jaitsi da.

Halaber, hiru euskal hiriburuetan egindako gaueko zenbaketen emaitzarik berriek erakusten dute Bilbon eta Donostian behintzat behera egin duela kalean lokalizatutako pertsonen kopuruak.

7. taula. Hiru euskal hiriburuetan kalean lokalizatu diren etxerik gabeko pertsonen kopuruaren bilakaera, 2010/11-2016 aldian

	2010/11*	2012	2014	2016	2016-2014 Aldea
Gasteiz	--	29	17	30	+13
Bilbo	205	148	141	112	-29
Donostia	45	66	89	48	-41
Guztira	--	243	247	190	-57

*Ez dago Gasteizi buruzko 2012a baino lehengoko daturik. Bilboko datuak 2010eko zenbaketaoak dira; Donostiakoak, berriz, 2011koak.

Iturriak: EAEko egoitza-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonei buruzko III. ikerketa. 2016; Errolda Jarraituaren estatistika. EIN. 2016.


Joera hori oso argia da Bilboko datuak aztertuz gero; hiri horretan, gaua kalean ematen duten pertsonen kopuruak etengabe egin du behera egindako lau zenbaketen (205 pertsona 2010ean; 148 2012an; 141 2014an, eta 112 2016an). Donostiari dagokionez, 2016ko datuek beherakada nabarmena adierazten dute 2014ren aldean, kalean lokalizatutako pertsonen kopuruari dagokionez. Hiri horretan 2012an (66 pertsona) eta 2014an (89 pertsona) egondako gorakaden ondoren, 2016ko datuek adierazten dute 50 pertsona baino gutxiago zeudela kalean, hau da, 2011an ikusitako mailatik oso gertu. Alderantziz, Bilbon eta Donostian ez bezala, Gasteizko datuek erakusten dute gora egin duela kalean lokalizatutako pertsonen kopuruak, 2014an 17 izatetik 2016an 30 izatera igaro baitziren. Udaltaldeak hilero egiten duten zenbaketek kontrasterako eskaintzen dituzten datuek, ordea, iradokitzen dute ez dela gorakadarik egon, eta bi urte horien arteko aldearen arrazoia 2014ko zenbaketan jasotako datuen ezohikotasuna dela (17 pertsona), kaleko taldeak lortutako emaitzen aldean. Urte honetan, talde horrek egindako gaueko hamabi zenbaketen arabera, batez beste 34 pertsona zeuden kalean, eta urteko sasoiaren arabera kalean lo egiten zuten pertsona-kopuruaren tarte 27 eta 45 pertsona-koa zen.

Kontsultatutako erakundeek eta pertsonek, baita gaueko zenbaketen harira *ad hoc* sortutako kontraste-tresnek ere, adierazten duten moduan, azpimarratu beharra dago etxegabetasun ezkutaren errealitate bat dagoela, eta egungo informazio-sistemek ez dutela hori zenbatzen. Etxegabetasun ezkutu hori etxabeetan, lonjetan edo abandonatutako eraikinetan lo egiten dutenena da.

Etixerik gabeko pertsonentzako ostatudun baliabideetan artatutako pertsonen kopuruak gora egin du

Lehenago ere esan den moduan, ostatudun gizarte-zerbitzuen baliabideak erabiltzen dituzten pertsonei buruzko datuek goranzko joera garbia erakusten dute. Euskadin gai horri buruz egin zen lehen inkestaren (Eustaten etxerik gabeko pertsonei buruzko inkesta) datuek adierazten dute 2005 eta 2012 artean EAEn 1. 429 pertsona izatetik 1. 725 izatera igaro zirela; beraz, artatutako pertsonen kopuruak ia % 21 egin zuen gora. Halaber, etxerik gabeko pertsonentzako baliabideei buruzko Eustaten estatistikak eskaintzen dituen datu berriek ere adierazten dute datu horrek gorantz jarraitu duela; izan ere, 2014 eta 2016 artean, etxerik gabeko pertsonentzako ostatudun zentroetan okupatutako plazak 2. 057 izatetik 2. 401 izatera igaro ziren. Aldi horretan, gainera, ikus daiteke plazen kopurua handitu bada ere (% 7,2), okupazioan izandako gorakada nabarmen handiagoa izan dela (% 16,7); beraz, ezin dakiok gorakada hori soilik egoitza-aukeren gorakadari egotzi.

1. grafikoa. EAEko etxerik gabeko ostatudun zentroetan, abenduaren 15ean, libre eta beteta zeuden plazen bilakera. 2014-2016




Iturria: Eustat. Etxerik gabeko pertsonentzako baliabideei buruzko estatistika.

Gure inguruko beste autonomia-erkidego batzuetan baino etxerik gabeko pertsona gehiago (artatu dira)

Datuak alderatuz gero, etxerik gabeko pertsonentzako harrera-zentroei buruzko 2016ko estatuko inkestak³⁸ eskaintzen dituen daturik berrienen arabera, Euskadiko etxerik gabeko pertsonen kopurua beste autonomia-erkidego batzuetakoa baino askoz ere handiagoa da. Emaitza horien arabera, gure erkidegoaren tasa 1,097 etxerik gabeko pertsona 1.000 biztanleko da, hau da, estatuko batezbestekoa (0,376) baino ia hiru aldiz altuagoa. Tasa horrek abenduaren 15ean etxerik gabeko pertsonentzako Estatu osoko ostatudun zentroetako plaza okupatuak hartzen ditu kontuan; horregatik, ez da etxegabetasunaren intzidentziaren neurketa gisa interpretatu behar, baizik eta, funtsean, estalduren adierazle gisa. Ikuspegi horretatik, ikus dezakegu Euskadi buru dela Estatuan, estaldura-tasarik altuena baitu (1,097). Atzetik ditu, baina ez gertuegi, Asturias (0,742), Aragoi, (0,656), Murtzia (0,517) eta Balearrak (0,496).

³⁸Etxerik gabeko pertsonen arreta emateko zentro eta zerbitzuei buruzko inkesta EINEk Eustatekin lankidetzan egiten duen estatistika bat da. Estatistika bera bada ere, Eustatenak "Etxerik gabeko pertsonentzako baliabideei buruzko inkesta" izena du, eta EINenak, berriz, "Etxerik gabeko pertsonen arreta emateko zentro eta zerbitzuei buruzko inkesta".

2. grafikoa. Tasa 1. 000 biztanleko eta etxerik gabeko pertsonentzako ostatu-zentroetan okupatutako plaza-kopurua, autonomia-erkidegoen arabera 2016



Oharra: datuek erreferentzia egiten diote abenduaren 15ean etxerik gabeko pertsonentzako ostatudun zentroetan okupatutako plaza-kopuruari. Grafikoan ez dira ageri Ceutako datuak (14,5 plaza okupatu 1. 000 biztanleko; 1. 224 plaza), ez eta Melillakoak ere (% 10,9, 941 plaza). Espainiako kopuru osoan, aldiz, kontuan hartu dira. Iturriak: EIN. 2016ko etxerik gabeko pertsonentzako arreta-zentro eta -zerbitzuei buruzko estatistika. Errolda Jarraituaren estatistika, 2016.

Euskadiko etxegabetasunaren intzidentzia eta, bereziki, kaleko egoerak, alderaketa bidez aztertzeke beste iturri bat aldiari aldiari hirietan antolatzen diren gaueko zenbaketak dira. Zenbaketa horien abantaila nagusia da horien bitartez hainbat arrazoi direla-eta etxerik gabeko pertsonen zuzentzen zaizkien zerbitzuen sarea erabiltzen ez duten pertsonak zenbatzeko aukera ematen dutela. 2016an gure inguruko hirietan egondako gaueko zenbaketen datuek erakusten dute hautatutako zazpi hiri-buruen artean egun Bartzelonan dagoela kalean lo egiten duten pertsonen tasarik altuena (0,585 pertsona mila biztanleko). Atzetik daude Bilbo (0,325), Sevilla (0,297) eta Donostia (0,258). Alderantziz, Zaragozan (0,191) eta Madril (0,166) tasa hori nabarmen txikiagoa da. Bukatzeko, Gasteiz da tasarik baxuena duen hiriburua, 1. 000 biztanleko 0,123 pertsonak egiten baitute lo kalean.

8. taula. Kalean lo egiten duten pertsonen kopurua eta 1. 000 biztanleko tasa, hainbat hiritan egindako gaueko zenbaketen emaitzen arabera. 2016

Hiria	Zenbakia	Biztanleria osoa	Tasa (%)
Bartzelona (2016)	941	1. 608. 746	0,585
Bilbo (2016)	112	345. 122	0,325
Sevilla (2016)	205	690. 566	0,297
Donostia (2016)	48	186. 064	0,258
Zaragoza (2016)	126	661. 108	0,191
Madril (2016)	524	3. 165. 541	0,166
Gasteiz (2016)	30	244. 634	0,123

Iturriak: Bartzelona (XAPSLL Etxerik gabeko Pertsonen Arreta emateko Sareak antolatutako etxerik gabeko pertsonen zenbaketa. 2016ko maiatzaren 18-19); Bilbo, Donostia eta Gasteiz (EAEko egoitza-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen buruzko III. ikerketa. 2016ko urriaren 26-27); Sevilla (Sevillako Udalak antolatutako etxerik gabeko pertsonen zenbaketa. 2016ko azaroak 2-3); Zaragoza (Gurutze Gorriak antolatutako etxerik gabeko pertsonen IV zenbaketa. 2016ko azaroak 17-18); Madril (Madrilgo Udalak antolatutako etxerik gabeko pertsonen gaueko VIII zenbaketa. 2016ko abenduaren 15-16); EIN. Errolda Jarraituaren Estatistika. 2016.


4.2. Etixerik gabeko pertsonen ezaugarriak eta profil berriak

Oraindik ere haien inguruko estereotipo asko badaude ere, etxerik gabeko pertsonak ez dute talde homogeneo bat osatzen, eta ez dituzte ezaugarri egonkorak denbora osoan zehar. Azken garaian, euren ezaugarrietan aldaketak eragin dituen faktore garrantzitsuenetariko bat mundu-mailako migrazio-fluxuak izan dira; gure kasuan, horren etorkin atzerritarren kopurua eta immigrazioari loturiko muturreko gizarte-bazterkeria areagotu dira. Hona hemen EAEko etxerik gabeko pertsonen ezaugarri eta profilik adierazgarrienak:

Atzerritarren kopuruak gora egin du

Azken hamar urteetan, nabarmen egin du gora atzerritik etorritako etxerik gabeko pertsonen kopuruak; horren ondorioz, aldatu egin da Euskadiko etxerik gabeko biztanleen profilik ohikoena. EGPIren (Etxerik Gabeko Pertsonen buruzko Inkesta) datuen arabera, 2005 eta 2012 artean herritar atzerritarren kopuruak % 36 egin zuen gora; espainiar herritartasuna dutenek, ordea, % 8 egin zuten behera. 2005 eta 2012 artean, beraz, etxerik gabeko pertsona atzerritarra joan den hamarkadaren erdialdean % 51 izatetik % 60 inguru izatera igaro dira. Horri buruzko daturik ez badago ere, pentsa liteke gorakada hori lehenago hasi izana (zehatzago, mende honetako lehen hamarkadan); izan ere, garai horretan hasi ziren igotzen Euskadiko immigrazio-tasak. Dena den, horrek ez du esan nahi bi fenomeno horiek modu berean areagotu direnik. 2005 eta 2012 artean, Euskadin bizi ziren atzerritarren kopurua bikoiztu egin zen³⁹; aldi berean, etxerik gabeko pertsonen hazkundea hiru aldiz txikiagoa izan zen, 2005ean 926 izatetik 2012an 1.256 izatera igaro baitziren.

3. grafikoa. Etxerik gabeko pertsonen kopuruaren bilakaera, herritartasunaren arabera. Zenbaki absolutuak eta pisu erlatiboa. EAE 2005-2012




Iturria: Eustat. Etxerik gabeko pertsonen buruzko inkesta. 2005-2012.

Gainera, kontsultatu diren pertsonen iritziek eta gaueko zenbaketa berriek ematen dituzten datuek joera hori egonkortu egin dela adierazten dute. Euskadin egindako azken hiru gaueko zenbaketen emaitzak kontuan hartzen baditugu, ikus daiteke etxerik gabeko pertsona guztien artetik atzerritarren ehunekoak 2012an % 64 izatetik 2014an eta 2016an % 57 izatera igaro dela. Halaber, jasotako datuek erakusten dute atzerritarrek kalean duten pisua gero eta txikiagoa dela (nahiz eta gehiengoak izaten jarraitzen duten), 2012an % 78 izatetik 2016an % 60 izatera igaro baitira.

³⁹Euskadin bizi diren atzerritarren kopurua 2005ean 72.894 izatetik 2012an 151.984 izatera igaro da, EInen Errolda Jarraituaren Estatistikaren arabera.

4. grafikoa. Gaueko zenbaketetan zenbatu diren etxerik gabeko pertsonen banaketaren bilakera, lo egiteko tokiaren arabera, herrialdeka. 2012-2016



Iturria: EAEko egoitza-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen buruzko III. ikerketa. 2016. Datuen aurrerapena.

Magrebeko herritarren nagusitasuna eta Saharaz hegoaldeko herrialdeetako biztanleen pisu erlatiboa areagotzea

Euskadin bizi diren atzerritarren artean, Afrikatik datozen pertsonak guztizkoaren % 24 dira. Etxerik gabeko atzerritarrei dagokienez, berriz, afrikarrak nagusi dira. 2012. urteari buruz eskura dauden informazio-iturriek, gaueko zenbaketek eta etxerik gabeko pertsonen buruzko inkestak adierazten zuten herrialde horietako pertsonak etxerik gabeko atzerritar guztien % 73-79 zirela, hurrenez hurren. Horien artean, Magrebetik etorritakoak gailentzen dira⁴⁰; 2012an, Afrikan jaiotako etxerik gabeko pertsona guztien bi heren baino zertxobait gehiago ziren. Ehuneko hori errepikatu egiten da Euskadiko jatorri afrikarreko atzerritarren artean. 2016ko azken gaueko zenbaketaren emaitzak aurreko bi urteetan lortutako emaitzen oso antzekoak dira, eta erakusten dute gaur egun atzerrian jaiotako etxerik gabeko pertsonetatik % 76 inguru afrikarrak direla.

Adierazi beharra dago azken hamarkadan etxerik gabeko pertsonen artean atzerritarrek izan duten gorakadak aldatetarako eragin dituela konposizioan. EGPIren esanetan, jatorri europarra zuten pertsonen kopurua, izan EBkoak, izan beste herrialde batzuetakoak, nabarmen egin du behera (% 56). Aldeantzean, jatorri afrikarreko herritarrek % 76 egin dute gora. Talde horren barruan herritar gehienak Magrebekoak badira ere, lehenago ere esan dugun moduan, Saharaz hegoaldeko herrialdeetatik datozen pertsonen taldeak izan du hazkunde erlatiborik handiena: 2005 eta 2012 artean, zenbatekoa ia laukoiztu egin da (74 pertsonatik 284 pertsonara); hala, gaur egun etxerik gabeko pertsona guztien % 14 dira, 2005ean % 4 baino ez ziren bitartean. Beste alde batetik, Amerikatik etorritako pertsonen zenbatekoa, batez ere Hego Amerikatik, Erdialdeko Amerikatik eta Karibetik etorritakoena, egonkor mantendu da (% 5-7 artean). Beste herrialde batzuetatik etorritakoen kopurua, aldiz, zertxobait igo da, nahiz eta oraindik ere oso gutxi diren, etxerik gabeko pertsona guztien % 3 baino gutxiago, edonola ere.

⁴⁰Magreb eskualdean beste herrialde batzuk ere badauden arren, kategoria honetan Marokoko eta Algeriako biztanleak baino ez dira sartu.

9. taula. Etixerik gabeko atzerritarren kopuruaren bilakaera, herritartasunaren arabera. Zenbaki absolutuak eta ehunekoen bidezko banaketa. EAE 2005-2012

Kontinentea	Herrialdea	Etixerik gabeko biztanleria				Biztanleria osoa
		2005		2012		2012
		Kop.	%	Kop.	%	%
Europa	Errumania	74	8,0	28	2,2	11,6
	Portugal	59	6,4	18	1,4	5,5
	Frantzia	22	2,4	5	0,4	1,5
	Gainerako herrialdeak	76	8,2	51	4,1	9,1
	Guztira	231	24,9	102	8,1	27,7
Afrika	Maroko	349	37,7	558	44,4	11,7
	Aljeria	139	15,0	149	11,9	3,9
	Kongo	22	2,4	13	1,0	0,2
	Gainerako herrialdeak	52	5,6	271	21,6	8,3
	Guztira	562	60,7	991	78,9	24,1
Amerika	Kolonbia	28	3,0	11	0,9	7,3
	Brasil	23	2,5	9	0,7	3,7
	Bolivia	30	3,2	8	0,6	7,7
	Gainerako herrialdeak	39	4,2	90	7,2	22,0
	Guztira	120	13,0	118	9,4	40,7
Beste batzuk	Beste herrialde batzuk	13	1,4	46	3,7	7,5
Guztira		926	100,0	1.256	100,0	100,0

Iturria: Eustat. Etixerik gabeko pertsonen buruzko inkesta. 2005-2012.

Beste alde batetik, gaueko azken bi zenbaketen emaitzek adierazten dute 2012tik ez dela aldaketa handiegirik egon etxerik gabeko pertsona atzerritarren jatorrian. Gaueko azken zenbaketaren datuek adierazten dute inkestari erantzun zioten eta haien jatorri-herrialdea zein zen esan zuten 701 pertsonetatik % 76 Afrikakoak zirela (% 51 Magrebekoak eta % 25 Saharaz hegoaldeko Afrikakoak), % 13,3 Europakoak, % 8,8 Amerikakoak eta gainerako % 2a Asiakoak.

Emakumeak dira kalean bizi ziren etxerik gabeko pertsonen % 8 eta ostatudun baliabideetan bizi direnen % 28

Etixerik gabeko emakumeen presentzia gizonena baino txikiagoa da, bai ostatua ematen duten zerbitzuetan bizi diren pertsonen artean, bai (batez ere) kalean lo egiten duten pertsonen artean. 2016ko urrian egindako gaueko azken zenbaketaren datuen arabera, kalean lokakizatutako 274 pertsonetatik % 7,9 baino ez ziren emakumeak. Halaber, ostatua duten zentroetako datuek erakusten dute era horretako zentroetan zeuden pertsonen ia % 28 emakumeak zirela.

10. taula. Etixerik gabeko pertsonen kopurua eta banaketa, sexuaren arabera. Lo egiteko tokiaren arabera. 2012-2016*

		2012		2014		2016	
		Kop.	%** bertikala	Kop.	%** bertikala	Kop.	%** bertikala
Kalea	Gizonak	220	% 92,1	256	% 86,5	245	% 92,1
	Emakumeak	16	% 6,7	40	% 13,5	21	% 7,9
	Zehaztu gabe	7	--	27	--	8	--
	Guztira	246	% 98,7	323	% 100,0	274	% 100,0
Ostatudun baliabideak	Gizonak	1. 157	% 79,2	1. 151	% 76,1	1. 252	% 72,2
	Emakumeak	304	% 20,8	362	% 23,9	483	% 27,8
	Guztira	1. 461	% 100,0	1. 513	% 100,0	1. 735	% 100,0
Guztira	Gizonak	1. 377	% 81,1	1. 407	% 77,8	1. 497	% 74,8
	Emakumeak	320	% 18,9	402	% 22,2	504	% 25,2
	Zehaztu gabe	7	--	27	--	8	--
	Guztira	1. 704	% 100,0	1. 836	% 100,0	2. 009	% 100,0

* Taula hau behar bezala interpretatzeko, kontuan hartu behar da ezin direla urte bakoitzari dagokion datuak guztiz alderatu. Kalean lokalizatutako pertsonen buruzko datuen kasuan, 2012ko datuak hiru udalerriri buruzkoak baino ez dira (hiru euskal hiribururak); 2014ko datuak 10 udalerritakoak dira, eta 2016koak 24 udalerritakoak. Beste alde batetik, zenbaketa gero eta udalerriri gehiago gehitzearen ondorioz, ostatudun baliabideen zenbaketa ikerketan parte hartu duten udaletako lehen mailako arretako ostatudun baliabideak ere zenbatu dira.

** Ehunekoak kalkulatzeko ez dira kontuan hartu kalean identifikatutako pertsonak, euren sexua zehaztu ezin izan zen kasuetan.

Iturria: EAEko egoitza-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen buruzko III. ikerketa. 2016. Datuen aurrerapena.

Kaleko egoeren bilakaerari dagokionez, gaueko azken zenbaketa datuek adierazten dute nabarmen egin duela behera kalean lokalizatutako emakumeen kopuruak: 2014ean 40 identifikatu ziren, baina soilik 21 2016an. Termino erlatiboetan, beherakada hori gizonen kasuan izandakoa baino nabarmen handiagoa izan da. Beherakada hori are handiagoa da kontuan hartzen badugu 2014an zenbaketa 10 udalerritan baino ez zela egin eta 2016an 24 udalerririk parte hartu zutela zenbaketa⁴¹.

Beste alde batetik, ostatudun zentroetako zenbaketa dagokionez, emakumeen kopuruak gora egin duela ikus daiteke. 2014an ostatuta duten baliabideetan 362 emakume artatu ziren; 2016an, berriz, 483; horrek esan nahi du % 33ko gorakada egon dela (gizonen artean, gorakada % 8koa baino ez da izan). Dena den, datu horietan zenbait ñabardura aipatu behar dira; izan ere, 2016ko zenbaketa kontuan hartu ziren ostatudun zentroen kopurua (325 zentro) 2014koak baino gehiago izan ziren (253), eta 2016an lehen aldiz zenbatu ziren zentroetako asko indarkeriaren biktima izan diren emakumei edo gizarte-larrialdi egoeran daudenei zuzenduriko udalen lehen mailako arreta-baliabideak ziren. Hala, 2016an 2014an zenbatu ziren zentroak bakarrik kontuan hartuz gero, ikus genezake emakumeen ehunekoak nahiko egonkor mantendu zela (% 23,9 2014an, eta % 25 2016an). Emaizta horiek ez datoz bat estatu-mailan EGPIk lortutakoekin, ez eta Europan egindako beste azterketa batzuekin ere; horietan ikus zitekeen etxegabetasun-egoeretan emakumeak gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari zirela (FEANTSA, 2012).

Zenbait zerbitzu edo zentro erabiltzeari buruzko datuek erakusten dutenez gain, kontsultatutako profesionalak ez zuten esan aterperik edo etxerik ez duten emakumeen presentzia hazten ari denik. Alabaina, aho batez esan dute etxerik gabeko emakume gutxiago badago ere horiek pairatzen duten gizarte-bazterkeria gizonena baino handiagoa dela, baita andeatze-maila larriagoa ere osasunaren eta giza harremanen arloan.

Gora egin du etxerik gabeko gazteen kopuruak

Eskuragarri dauden datuek adierazten dute 2005etik gora egin duela etxerik gabeko gazteen kopuruak. EGPIren esanetan, 2005etik 2012ra bitartean, 30 urtetik beherako etxerik gabeko pertsonen kopurua % 39 hazi zen (521etik 724ra); beraz, aise gainditu zuen etxerik gabeko biztanleetan izandako gorakada (% 14). Pertsona gazteen presentzia handiago horrek lotura estua du gizon gazteen migrazio-fluxuarekin, batez ere azken urteetan gure erkidegora iritsi diren Magrebeko herritarrei dagokionez. Etxerik gabeko pertsonen buruzko 2012ko inkestaren datuen arabera 30 urtetik beherako per-

⁴¹2014an zenbaketa parte hartu zuten udalerrien 2016ko datuak baino aztertzen ez badira (eta, beraz, ez badira kontuan hartzen 2016an bakarrik parte hartu zuten gainerako 14 udalerririk), kaleko emakumeen kopurua 40tik 19ra igaro zen.

tsona gehienak gizonak ziren (% 80), atzerritarrak (% 88) eta Magrebkoak (% 59), eta Euskadin denbora gutxi zeramaten (% 64 duela 3 urte baino gutxiago bizi zen Euskadin).

Gaueko azken zenbaketaren datuak bat datoz emaitza horiekin, eta pertsona horien askotariko profilak sakonago aztertzeke aukera ematen dute. 2016ko azken zenbaketaren arabera, zenbatutako heldu guztien % 30⁴² 30 urtetik beherako pertsonak ziren. Horietatik % 70 gizarteratzeko ostatu-baliabide batean zeuden, baina hamarretik hiru kalean (% 10) edo gaueko aterpeetan (% 20) lokalizatu ziren. Pertsona horien % 21k esan zuen etxerik gabe gelditu baino lehen adingabeentzako egoitza-harrerako zentroetan bizi zirela. Halaber, horietatik % 15 baino ez zen bere etxean bizi, eta kasu gehienak senideen edo lagunen etxean bizi ziren gazteei zegozkien (% 47).

Beste alde batetik, generoaren araberrako alde handiak ikus daitezke gazteen artean. Emakumeak 30 urtetik beherako etxerik gabeko pertsonen % 17 dira, eta gizonak baino neurri handiagoan datoz EAE-tik. Hala, emakume gazteen % 25 EAEn jaioak dira; gizonen kasuan, adin horretako % 9 dira EAEkoak. Halaber, jatorri atzerritarra duten pertsonen artean ere aldeak daude generoaren arabera. Gizon gazteen kasuan, gehienak (% 91) Afrikatik datoz; emakumeen kasuan, jatorri heterogeneoagoa dute: % 56 Afrikatik datoz, % 22 Amerikatik eta % 13 Europatik. Emakume eta gizonen arteko beste alde garrantzitsu bat seme-alaben presentzia da. 2016ko datuen arabera, etxerik gabeko 30 urtetik beherako emakumeen % 48k seme-alabaren bat zuten; gizonen kasuan, berriz, proportzio hori ez da % 8ra iristen.

Gora egin dute etxerik gabe denbora luzea daramaten pertsonak

Pertsona batek etxerik gabe zenbat eta denbora luzeagoa eman, orduan baliabide gehiago beharko ditu gizarteratzeko. Etxegabetasunari loturiko kronikotasun-prozesuei buruz eskura dauden datuek adierazten dute gora egin duela egoera horretan 3 urte baino gehiago daramaten pertsonen kopuruak. Etxerik gabeko pertsonen buruzko azken inkestaren arabera, 2005. urtearen aldean, etxerik ez duten eta 3 urtez baino gehiagoz euren etxerik gabe bizi izan diren pertsonen kopuruak gora egin du (722 pertsonatik 970ra); alderantziz, % 19 behera egin du etxerik gabe 6 hilabete baino gutxiago daramaten kopuruak.

11. taula. Etxerik gabeko pertsonen bilakaera, euren etxetat har dezaketen egoitzarik gabe daramaten denboraren arabera. EAE 2005-2012

	2005		2012		2005-2012
	Kop.	% bertikala	Kop.	% bertikala	Δ (%)
0-5 hilabete	440	24,0	356	17,0	-19,1
6-11 hilabete	192	10,5	236	11,3	22,9
1-3 urte	465	25,4	528	25,3	13,5
3 urtetik gora	722	39,4	970	46,4	34,3
Daturik ez	15	0,8	0	0,0	--
Guztira	1.833	100,0	2.090	100,0	14,0

Iturria: Eustat. Etxerik gabeko pertsonen buruzko inkesta. 2005-2012.

Datu horiek ez dute nahitaez esan nahi gero eta pertsona gutxiago ateratzen direla etxegabetasun-egoeretatik⁴³; hala ere, argi dago etxerik gabeko herritarrei zuzenduriko ostatu- eta jantokiz-erbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen artean kronikotasuna lehen baino ohikoagoa dela. Eskura dauden datuek ere erakusten dute kronikotasunaren prebalentziak gora egin duela adin-tarte guztietan, baita gazteen artean ere. Gora egin du espainiar herritartasuna dutenen artean, baina are ge-

⁴²Gaueko azken zenbaketan zenbatu ziren 2.009 pertsonetatik 1.816 helduak ziren, eta 193, berriz, adingabeak. Jarraian ageri diren ehunekoak kalkulatzeko, informazio pertsonalen bat eman zuten 18 urte edo gehiagoko pertsonak (1.563) hartu dira kontuan.

⁴³Pobreziarekin gertatzen den moduan, etxegabetasunaren sarrera- eta irteera-fluxuak ezagutzeko beharrezkoak dira eskura dauden informazio-iturrien ikuspegi estatikoa gainditzuten duten azterketa longitudinalak. Era horretako azterketarik ez dagoenez, etxerik gabeko pertsonen buruzko inkestan etxegabetasun-egoeran ikusten den aldaketa etxegabetasunetik ateratzeko zailtasun handiagoak egotearen emaitza izan daiteke, baina baita epe ertain eta luzeko ostatu-baliabideen aukera handitu izanaren emaitza ere.

hiago atzerritarren artean. Bukatzeko, joera hori gizonen kasuan hauteman daiteke, baina ez hala emakumeen kasuan.

2016ko gaueko azken zenbaketaren datuak 2012ko etxerik gabeko pertsonen buruzko inkestak emandakoen oso antzekoak dira; datu horien arabera, urriaren 26tik 27rako gauean zenbatu ziren heldu guztien % 43k 3 urte baino gehiago zeramatzen etxerik gabe⁴⁴. Bestalde, % 31k esan zuen urtebete baino gutxiago zeramatela, eta % 26k 1 eta 3 urte artean.

Agertzen ari diren beste profil batzuk

Aipatutako iturri estatistikoetatik ondoriozta daitekeen informazioaz gain, gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonen arreta emateko zerbitzuetan zuzenean lan egiten duten profesionalak eta erakundeek nagusi ez diren baina gero eta indar handiagoa hartzen ari diren profileen buruzko informazio interesgarria eskaintzen dute. Etxegabetasuna eragin dezaketen gero eta egoera gehiago dago, kontsultatutako erakundeek askotariko profilak artatzen dituzte eta udalerririk batetik bestera egoera asko aldatzen da; horregatik, zaila da indarra hartzen ari diren profileen buruzko diagnostiko komun bat egitea. Dena den, nolabaiteko adostasuna dago honako egoera hauek indarra hartzen ari direla baieztatzeko:

- Buruko osasun-arazoak eta nahasmendu kognitibo larriak dituzten pertsonak, gehienetan substantzia psikoaktibo gehiegi hartu izanak eragindakoak, euren portaera- edo jokabide-arazoak direla eta haiekin esku hartzea oso zaila denean.
- Bere garaian lagundu gabeko adingabe atzerritarrak ziren gazteak; babes-zentroetan bizi izan dira eta, hamazortzi urte betetzean, etxerik gabe gelditu dira.
- Etxegabetasun-ibilbidea duten pertsonak, egoera horretan behin eta berriro erortzen direnak eta etxerik gabeko pertsonentzako arreta-zirkuituaren barruan egoera kronikoan daudenak.
- Gero eta nagusiagoak diren pertsonak; pertsona horiek funtsean etxerik gabeko pertsonentzako arreta-sarearen bitartez jasotzen dute laguntza.
- Izatez bizileku bikoitza duten atzerritarrak, denboraldi batez Euskadin eta beste denboraldi batez haien jatorri-herrialdean bizi direnak.
- Euskaditik kanpokoak diren eta herritartasun atzerritarra duten seme-alabak familiak, batez ere amek eta seme-alaba oso gazteak osatutakoak.
- Euren herrialdeetako gatazketatik ihes datozen errefuxiatuak.

4.3. Etxerik gabeko pertsonen beharrez nagusiak

Etxerik gabeko biztanleriaren ezaugarri nagusiak deskribatu eta azken urteotan indarra hartzen ari diren zenbait talde edo kolektibo aipatu ondoren, atal honen erdigunea gaur egun etxerik ez duten pertsonen dituzten beharrez nagusiak identifikatzea izango da. Xede horretarako, eta egoitza-bazterkeria, bazterkeria orokorra bezalaxe, kausa ugari dituen fenomeno bat dela ulertuta, etxerik gabeko pertsonen dituzten beharrez honako hauei loturiko esparruen arabera sailkatu dira: lege- eta administrazio-egoera, etxebizitza, enplegua, osasuna, segurtasuna eta gizarte-harremanak.

⁴⁴Ehuneko horiek kalkulatzeko, informazio hori eman zuten pertsonak (1. 227) hartu dira kontuan; horiek 2017ko urriaren 26tik 27rako gauean zenbatu ziren heldu guztien % 68 ziren.

Etixerik gabeko pertsonen % 14 ez dago EAEn erroldatuta


Errolda funtsezko betekizuna zenbait gizarte-prestazio eta –laguntza jasotzeko, eta oinarrizko urratsa da atzerriko pertsonen gure lurraldean zenbat denbora daramaten frogatzeko, euren egoera erregularizatzeko nahiz bizitoki- zein lan-baimenak eskatzeko.

2016ko gaueko azken zenbaketatik ondorioztatzen denez, etxerik gabeko herritarren % 89 erroldatuta daude eta % 11k ez du errolda-agiririk. Errolda ezinbesteko betekizuna da osasun-sistema erabiltzeko, DSBE edo GLL bezalako laguntzak eta prestazioak jasotzeko nahiz Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Zorroko⁴⁵ zenbait zerbitzu eskuratzeko; horregatik, errolda izatea ezinbestekoa da edozein gizarteratze-prozesutan. 2016an egindako gaueko zenbaketaren emaitzek erakusten dute erroldatutako pertsonen % 3 inguru EAetik kanpoko udalerritan erroldatuta daudela. Horrez gain, ikusi zen atzerriarrak (% 15), zenbaketaren gauean aterpeetan lo egin zuten pertsonak (% 24) eta, batez ere, kalean lo egin zuten pertsonak (% 46) direla neurririk handienez errolda-agiririk ez dutenak. Horrez gain, baztertu beharra dago erroldarik ez duten pertsonetako asko iragaitzak izatea edo hemen sustrairik ez izatea; izan ere, EAEn erroldatuta ez zeuden hamar pertsonetatik zortzik baino gehiagok esan zuten hemen bizitzea gustatuko litzaiekeela.

Etixerik gabeko pertsonen erdiek esan dute aktibo daudela enpleguaren ikuspegitik, baina % 8k baino ez du lan erregular bat

Lanarekin duten harremanari dagokionez, hauek dira etxerik gabeko pertsonen egoera hobekien definitzen duten bi ezaugarriak: lanik egin gabe denbora luzea ematea eta langabeziaren intzidentzia altua. Horri dagokionez, gaueko azken zenbaketaren datuek iradokitzen dute etxerik gabeko pertsonen jarduera-tasa % 50 baino zerbait txikiagoa dela, biztanleria orokorraren tasa % 56,4 denean; horrek esan nahi du etxerik gabeko bi pertsonatik bat aktibo dagoela enpleguaren ikuspegitik. Halaber, datuek adierazten dute etxerik gabeko pertsonen % 8k baino ez duela modu egonkor edo erregularrean lan egiten. Bestalde, etxerik gabeko pertsonen langabezia-tasa (% 83,9) aldi horretan biztanleria orokorrak zuela (% 12,6) halako sei zen.

5. grafikoa. Etxerik gabeko biztanleen eta biztanleria orokorraren jarduera-, okupazio- eta langabezia-tasa. EAE 2016



* Jarduera-, langabezia- eta okupazio-tasak kalkulatzeko, EUSTATEk Biztanleriaren Jardueraren arabera sailkatzeko Inkesta egiteko metodologia bera erabili da.

Iturriak: EAEko egoitza-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen buruzko III. ikerketa. 2016. Datuen aurrerapena; EUSTAT. Biztanleriaren Jardueraren arabera sailkatzeko Inkesta. 2016ko IV. hiruhilekoa

Erakutsitako moduak argigarri gisa baino ezin hartu badaitezke ere (biztanleria aktiboari buruzko inkestetan, pertsona bat aktibo dagoen edo langabezian dagoen zehazteko irizpideak oso zorrotzak

⁴⁵Lehenago ere esan denez, DSBE eskuratzeko, gaur egun gutxienez hiru urtez erroldatuta egon izana eskatzen da. Gizarteratzeko beste gizarte-zerbitzu batzuetan, berriz, gutxienez errolda-aldia sei hilabetekoa da. Eguneko eta gaueko harrera-baliabideetan ez da gutxienez errolda-aldirik eskatzen. Duela gutxi onetsitako Etxebizitzari buruzko Legeak aitortzen duen etxebizitzarako eskubide subjektiboa eskuratu ahal izateko, beharrezkoa da Etxebideren etxebizitza-eskatzaileren erregistroan gutxienez lau urtez izena emanda egotea.

dira; kasu honetan, berriz, elkarrizketatutako pertsonen erantzun zuzena baino ez dugu), oso ondo adierazten dute etxerik gabeko pertsonen enpleguarekin duten harreman zaila.

Enpleguaren adierazle orokorrean buruzko panoramika bat eskaintzeaz gain, Euskadin egindako gaueko azken zenbaketak ikuspegi orokor bat izateko aintzat hartu behar diren beste datu batzuk ere ematen ditu. Emaitzetatik hau ondoriozta daiteke: etxerik gabeko pertsonen % 8k baino ez dute esaten lanpostu bat dutela hori euren jarduera nagusia dela; alabaina, % 16 inguruk esaten dute nolabaiteko lan-jarduera bat gauzatzen dutela, diru-sarrerak osatzeko. Halaber, lanaren esparruan aktibo dauden pertsonen artean (hau da, lanpostu bat dutenak edo lan bila ari direnak), gehienak zerbitzuen sektoretik datoz (& 61); hala ere, lehen sektorearen (% 13) eta eraikuntzaren sektorearen (% 19) pisu erlatiboa biztanleria aktibo osoan dutena baino handiagoa da. Oro har, inkestari erantzun zioten etxerik gabeko pertsonen lan-ibilbidean prekaritateak garrantzi handia izan du. Aktibo daudenen artean, % 40k izan zuten azken lana aldi baterako kontratu baten bidez izan zen; % 22k kontratu gabe izan zuten lan, eta % 14k bakarrik dute edo izan dute kontratu mugagabe bat euren azken lanean.

Etixerik gabeko hamar pertsonatik ia bik ez du diru-sarrerarik, eta % 64 pobrezia-egoera larrian daude

Etixerik gabeko pertsonen bizi duten gizarte-kalteberatasun larriaren adierazle argienetako bat da pertsona horietako askok inolako diru-sarrerarik ez izatea. 2016ko gaueko azken zenbaketaren arabera, inkestari erantzun zioten pertsonen % 18,8k ez zuten inolako diru-sarrerarik. Egoera horren intzidentzia handiagoa da gizonen artean (% 19,6; emakumeen artean, berriz, % 14,3) eta atzeritarren artean (% 25,8), eta arriskua handiagoa da inkestari erantzun zioten pertsonen adina zenbat eta txikiagoa izan.

Aurreko emaitza horietatik ondoriozta daiteke etxerik gabeko pertsonen % 81,2k nolabaiteko diru-sarrerak dituztela; alabaina, horren zenbatekoa aztertzen denean, ikus daiteke etxerik gabeko pertsonen artean baliabide horiek ez direla nahikoa izaten oinarrizko beharriari erantzun ahal izateko. Hala, etxerik gabeko pertsonen pobrezia-tasak kalkulatzeko badira 2016rako EAEko biztanleria orokorrarentzat ezarritako pobrezia larriaren atalasea kontuan hartuta⁴⁶, ikusten da etxerik gabeko hamar pertsonatik sei baino gehiago (% 63,9) pobrezia-egoera larrian daudela, biztanleria orokorraren kasuan tasa hori hamahiru aldiz txikiagoa den bitartean (% 4,9).

Diru-sarrera nagusiak prestazioak edo laguntza publikoak dira, eta etxerik gabeko pertsonen ia % 54k jasotzen dituzte halakoak

Etixerik gabeko pertsonen diru-sarrera nagusiak prestazioak edo diru-laguntza publikoak dira (% 53,8k jasotzen dituzte); ondoren, lana eginez lortutako diru-sarrerak daude. Etixerik gabeko biztanleen % 18,6k jasotzen dituzte era horretako diru-sarrerak, nahiz eta gehienetan enplegu marjinalen, irregularren eta/edo ezohikoen bidez lortzen dituzten; izan ere, % 8k baino ez du enplegu erregular bat. Diru-iturri horien artean, pertsona horien gizarte-sareak emandako laguntzak (% 14,7) eta hirugarren sektoreko erakundeek emandako laguntzak (% 14,7) daude. Edonola ere, oso gutxi dira eskean ibiltzetik dirua eskuratzen dutela esaten duten pertsonak (% 8,3). Aipatutako diru-iturri nagusietatik, pobrezia murrizteko benetan balio dutenak diru-laguntza publikoak dira: laguntza horiek jasotzen dituzten etxerik gabeko pertsonen artean, pobrezia larria % 67tik % 43,9ra jaisten da.

⁴⁶EAEko 2016ko Pobrezia-aren eta Gizarte Desberdintasunen Inkestaren arabera, pertsona bakarreko pobrezia larriaren atalasea hilean 572 eurokoa da. Tasa hori etxerik gabeko pertsonen artean aztertzeke, bi gauza hauek hartu behar dira kontuan: alde batetik, diru-sarrera gisa aipatzen dituzten zenbatekoen gutxi gorabeherako izaera, baita erantzunen tasa ere. Horri dagokionez, gogorarazi beharra dago kalean nahiz ostatudun baliabideren batean zenbatutako pertsona guztien artean (1. 816), 1. 268 pertsonak onartu zutela inkestari erantzutea, eta horietatik 1. 085 pertsonak (zenbatutako guztien % 60) erantzun ziotela diru-sarrerari buruzko galderari. Bigarrenik, aipatu beharra dago ostatuaren arabera zenbateko berak egoera oso desberdinak isla ditzakeela. Era horretan, mantentze- eta ostatu-gastuak estalita dauden epe ertain edo laburreko zerbitzuetan arreta jasotzen duten pertsonen kasuan, pobrezia ekonomikoaren egoerak kalean edo aterpeetan lo egiten duten pertsonenak ez bezalakoak izango dira, baita biztanle arrunten egoerak ez bezalakoak ere.

12. taula. Etixerik gabeko pertsonen banaketa, diru-iturrien, lo egiteko tokiaren eta herritartasunaren arabera. 2016ko urriaren 26tik 27rako gaua

	Lo egiteko lekua		Herritartasuna		Guztira
	Kalea edo aterpeak	Beste baliabide batzuk	Espainiarra	Atzerritarra	
Lana	16,4	19,7	19,8	17,8	18,6
Prestazioak edo laguntza publikoak	23,8	67,7	70,2	42,2	53,8
- DSBE	6,7	28,4	35,7	11,5	21,5
- Langabezia	4,7	4,9	8,7	2,0	4,8
- Desgaitasunaren edo erretiroaren pentsioa	10,2	19,4	35,9	2,7	16,5
- GLL edo beste udal-laguntza batzuk	5,0	11,9	8,4	10,6	9,7
- Beste batzuk (DSBL, GLL...)	1,0	19,4	4,6	19,9	13,6
Gizarte-sarearen laguntza	19,4	12,6	15,6	14,2	14,7
- Familia	8,4	9,0	12,2	6,5	8,8
- Lagunak	12,9	5,4	5,7	9,3	7,8
- Auzokideak	2,0	0,3	1,5	0,4	0,9
Hirugarren sektoreko erakundeak	10,4	16,6	9,1	18,6	14,7
Kalean eskatzea	21,3	2,2	9,9	7,1	8,3
Kop.	403	865	526	742	1. 268

Oharra:taula honetan ageri diren datuak kalkulatzeko, galdetegiari erantzun zioten pertsonak (1. 268) hartu dira oinarri; horiek gaueko zenbaketan zenbatu ziren heldu guztien (1. 816) % 70 dira.

Iturria: 2016ko EAEko egoitza-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen buruzko III. ikerketa. Datuen aurrerapena

Etixerik gabeko pertsonen ETHOS tipologian duten tokiak (aterperik edo etxerik gabe) eta pertsona horien herritartasunak alde handiak eragiten dituzte herritar horiengan, batez ere prestazioei edo diru-laguntza publikoei dagokienean. Etixerik gabeko pertsonen eta atzerritarren kasuan, prestazio edo diru-laguntza publiko bat jasotzeko aukera ia erdira murrizten da.

Etixerik gabeko pertsonen ia % 22k DSBE jasotzen dute, % 20k ez dute ezagutzen eta % 32k ezagutzen dute baina ez dute inoiz eskatu

Etixerik gabeko pertsonen % 21,5ek DSBE jasotzen dute, 2016ko gaueko azken zenbaketa arabera. Zenbateko hori % 6,7ra murrizten da aterperik gabeko pertsonen kasuan, eta % 28,4koa da etxerik ez duten pertsonen kasuan, hau da aterpeak ez beste ostatudun baliabideetan bizi diren pertsonen artean. Nahiz eta DSBE izan etxerik gabeko pertsonentzako prestazio publikorik eskuragarriena (bai behintzat langabeziagatik prestazioak edo diru-laguntzak eta desgaitasun- nahiz erretiro-pentsioak baino eskuragarriagoa), deigarria da tresna horren estaldura mugatua, nahiz eta etxerik gabeko pertsonen artean pobreziarik muturrekoena saihesteko eta gizarteratze-prozesuak artikulatzeko diseinatuta dagoen.

Eskura dugun informazioari esker, nabarmendu dezakegu etxerik gabeko pertsonen ehuneko handi batek ez duela inoiz prestazio hori eskatu (% 31,6), eta hamarretik ia bik ez dutela ezagutu ere egiten (% 20,8). Prestazio hori inoiz eskatu ez duten pertsonen artean (guztizkoaren % 31,6 dira), ez eskatzeko arrazoi nagusia hura eskuratzeko betekizunak ez betetzea da (% 74,8); % 18,1ek uste du beste diru-sarrera batzuk dituela eta/edo ez duela behar, eta % 2k adierazi du ez duela prestazio hori eskuratzeko prozedura ezagutzen.

13. taula. Etixerik gabeko pertsonak, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruz duten iritziaren arabera. 2016ko urriaren 26tik 27rako gaua

	Etixerik gabeko pertsonak		DSBE jasotzen ez duten etxerik gabeko pertsonak
	Kop.	%	%
DSBE jasotzen duten pertsonak	273	% 21,5	--
DSBE jasotzen ez duten pertsonak	984	% 77,6	% 100,0
+ DSBE ezagutzen dute	689	% 54,3	% 70,0
- DSBE jasotzen zuten, baina orain ez	139	% 11,0	% 14,1
- Eskatu dute, baina ez dute inoiz jaso	74	% 5,8	% 7,5
- Eskatu dute, eta ebazpenaren zain daude	63	% 5,0	% 6,4
- Ez dute inoiz eskatu	401	% 31,6	% 40,8
- Ez dago informaziorik	12	% 0,9	% 1,2
+ Ez dute DSBE ezagutzen	256	% 20,2	% 26,0
+ Ez dute erantzun	39	% 3,1	% 4,0
Ez dago informaziorik	11	% 0,9	--
Guztira	1.268	% 100,0	--

Oharra:taula honetan ageri diren datuak kalkulatzeko, galdetegiari erantzun zioten pertsonak (1.268) hartu dira oinarri; horiek gaueko zenbaketan zenbatu ziren heldu guztien (1.816) % 70 dira.
Iturria: EAEko egoitza-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen buruzko III. ikerketa, 2016.

Etixerik gabeko pertsonen osasuna hobea da orain, 2005. Urtearekin alderatuta, baina biztanleria orokorraren osasuna baino okerragoa da oraindik ere

Osasun fisikoa nahiz psikologikoa okertzea da etxegabetasunak sarri ekartzen duen ondorioetako bat, egoera horretan nabarmen areagotzen delako gaixotasunak edo nahasmenduak hartzeko arrisku-faktoreekiko kontaktua.

14. taula. Etixerik gabeko pertsonen hauteman duten osasunaren bilakaera. EAE 2005-2012

	Etixerik gabeko biztanleria					Biztanleria osoa
	2005		2012		2005-2014	2013
	Kop.	% bertikala	Kop.	% bertikala	Δ (%)	% bertikala
Oso ona/ona	1.017	55,5	1388	66,4	36,5	79,7
Hala-holakoa	507	27,7	514	24,6	1,4	16,4
Txarra/osoa txarra	309	16,9	188	9,0	-39,2	3,9
Guztira	1.833	100,0	2090	100,0	14,0	100,0

Iturriak: Eustat. Etixerik gabeko pertsonen buruzko inkesta. 2005-2012; Euskadiko Osasunari buruzko inkesta. 2013.

Osasunaren autoebaluazioari (biztanleen osasun-egoera deskribatzeko adierazle esanguratsua da) buruzko datuek erakusten dute etxerik gabeko herritarren osasun-egoera biztanle arruntena baino okerragoa dela, eta osasun txarra edo oso txarra duten herritarren prebalentzia 2,3 altuagoa dela etxerik gabekoen artean. Alde horiek gorabehera, etxerik gabeko pertsonen osasuna hobetu egin da 2005 eta 2012 artean; hala, tarte horretan, ia erdira jaitsi da osasun txarra edo oso txarra dutela uste dutenen kopurua (% 16,9 2005ean, eta % 9 2012an). Horren atzean egon daitekeen erantzuna aztertutako aldiaren etxerik gabeko biztanleen adinean egondako beherakada izan daiteke.

Gaur egun etxerik gabeko pertsonen osasuna duela hamar urte zutena baino hobea bada ere, Eustaten etxerik gabeko pertsonen buruzko inkestaren datuek adierazten dute bi talderen osasuna bereziki txarra dela. Emakumeak eta adineko etxerik gabeko herritarrak dira bi talde horiek. Emakumeen % 44k eta 45 urte edo gehiagoko pertsonen % 54k uste dute euren osasuna hala-holakoa, txarra edo oso txarra dela, etxerik gabeko biztanleria osoaren % 34ren aldean.

Beste alde batetik, azpimarratu beharra dago etxerik gabeko biztanle askok osasun-arazo larriak edo kronikoak dituztela. 2016ko gaueko azken zenbaketaren arabera, kontuan hartu ziren pertsonen % 42,7k gaixotasun larri edo kronikoren bat zuten. Etixerik gabeko pertsonen artean ohikoenak diren patologiei dagokienez, eskura ditugun datuek hau erakusten dute: patologia ohikoena buruko gaixotasunak edo nahasmenduak dira (% 15,8); gero, gaixotasun infekzioso edo kutsakorrek, hala nola


hepatitisa edo GIB-hiesa (% 9,3); ondoren, arnas aparatuari loturiko gaitzak (% 9,1), zirkulazio sistemari loturikoak (% 8,4) eta hezur nahiz giltzaduren gaitzak (% 8,1).

Etixerik gabeko pertsonen % 42k oinarrizko gizarte-zerbitzuak jasotzen dituzte

Gizarte-zerbitzuen arloko zein baliabide erabiltzen dituzte gehien etxerik gabeko pertsonak? Inkestari erantzun dioten pertsonak gehien erabiltzen duten baliabidea ostatu-zerbitzua da; azken hiru hilabeteetan 1. 170 pertsonak erabili zituzten, eta horietatik % 92k inkestari erantzun zioten. Pertsona horiek osasun-zentroak (% 68) eta Lanbideren bulegoak (% 61) ere erabiltzen dituzte. Inkestari erantzun dioten erabiltzaileen erdiak baino gutxiagok erabili dituzte gainerako baliabideak azken hiru hilabeteetan; hala ere, nabarmendu behar da pertsona horien ia % 42 gizarte-langile baten bulegora joan direla, % 38 prestakuntza-ikastaroak eskaintzen dituzten zentroetara joan dela eta % 32 eguneko zentro batean egon dela.

Gutxien erabili den baliabidea kaleko hezitzaileen zerbitzua izan da; hamar pertsonatik bat baino ez da haiekin harremanetan egon. Hala ere, kontuan hartu beharra dago udalerrri guztiek ez dutela zerbitzu hori; gainera, zerbitzua une jakin batean kalean bizitzen ari diren etxerik gabeko pertsonak zuzentzen zaie bereziki. Gaueko zenbaketan zehar kalean edo gaueko aterpeetan zeuden pertsonak bakarrik kontuan hartuz gero, zerbitzu hori erabili zutenen ehunekoak % 23,1ekoa izan zen.

6. grafikoa. Etxerik gabeko pertsonen banaketa, azken hiru hilabeteetan erabili dituzten zerbitzuen arabera. 2016ko urriaren 26tik 27rako gaua



Oharra: taula honetan ageri diren datuak kalkulatzeko, galdetegiarri erantzun zioten pertsonak (1. 268) hartu dira oinarri; horiek gaueko zenbaketan zenbatu ziren heldu guztien (1. 816) % 70 dira.

Iturria: EAEko egoitza-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen buruzko III. ikerketa. 2016. Datuen aurrerapena.

Zerbitzuen balorazio positiboa, nahiz eta pertsonen ehuneko nahiko handi bati ukatu egin zaizkion zentro eta prestazio jakin batzuk

Hauetako zentro bakoitzean zerbitzuak jasotzearekin batera inkestak egin zaizkien pertsonen gogobetetze mailari dagokionez, inkestetan agerian geratzen da oro har pertsona gutxi direla gustura gelditu ez direnak; oro har ez dute % 10a gaintzen. Hala ere, ehuneko hori gaintzen duten ase gabeko pertsonen ehunekoak (% 12-15 artean) honako hauetan erregistratu dira: Lanbiden, gizarte-larrialdietarako zerbitzuetan, gizarte-jantokietan eta desintoxikazio-programetan. Honako hauek dira, berriz, modu positiboago batean balioetsi diren zentroak –inkesta egin zaien pertsonen % 70 edo gehiago pozik daude zentrozen funtzionamenduari: laneratzeko tailer edo enpresak, immigranteei laguntzeko zentroak, osasun-zentroak eta prestakuntza ematen duten zentroak.

15. taula. Egoitza-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen banaketa, erabilitako baliabidearekin izandako gogobetetze-mailaren arabera. 2016

	Ez oso pozik	Ez bata ez bestea	Pozik	Erantzunik ez	Guztira	Kop.
Ostatua (aterpetxeak, gaueko zentroak, gizarteratze-pisuak).	% 6,8	% 11,5	% 56,0	% 25,7	% 100	1. 170
Eguneko zentroa	% 8,7	% 12,2	% 69,0	% 10,2	% 100	403
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	% 9,8	% 15,7	% 63,9	% 10,6	% 100	529
Gizarte-larrialdietarako zerbitzua	% 14,2	% 14,6	% 55,8	% 15,3	% 100	274
Desintoxikazio-zentroa edo -programa	% 11,8	% 12,9	% 64,1	% 11,2	% 100	170
Laneratzeko tailerrak edo enpresak	% 9,9	% 12,1	% 70,4	% 7,6	% 100	223
Gizarte-jantokia (edo ogitartekoen zerbitzua)	% 12,3	% 18,0	% 55,0	% 14,7	% 100	300
Dutxa publikoen eta garbitegien zerbitzua	% 5,9	% 8,1	% 65,4	% 20,5	% 100	185
Kaleko hezitzaileak	% 7,3	% 10,6	% 68,3	% 13,8	% 100	123
Immigranteei laguntzeko zentroak	% 7,9	% 11,3	% 70,1	% 10,7	% 100	177
Prestakuntza, ikastaroak etab. ematen dituzten zentroak	% 7,2	% 14,6	% 69,9	% 8,2	% 100	485
Lanbideren bulegoa	% 14,8	% 23,1	% 54,5	% 7,7	% 100	771
Osasun-zentroa (anbulatorioa, ospitalea)	% 8,2	% 13,8	% 70,0	% 8,0	% 100	867
Osasun mentaleko zentroa	% 9,5	% 15,6	% 66,6	% 8,4	% 100	359

Oharra: taula honek ematen dituen datuak inkesta egin aurreko hiru hilabeteetan aipatutako zerbitzuetakoa bat erabili dutela adierazi duten pertsonen dagozkie.

Iturria: EAEn egoitza-bazterkeria larrian dauden pertsonen egoeraren inguruko III. Azterlana. 2016.

Bestalde, garrantzitsua da etxerik gabeko pertsonen % 18,2k adierazi dutela ukatu egin zaizkiela horietako zerbitzu batzuk; % 71,4k, berriz, ez dute zerbitzuren bat ukatu zaienik adierazi. Gehien ukatutako prestazio mota diru-laguntzak izan dira, zehazki, zerbitzuren bat ukatu zaien pertsona guztien % 26k adierazitakoak. Azken horien artean DSBE eta GLL aipatu dira gehien. Horiekin batera, aipatzeakoa da pertsonen % 13,9 ez dagoela pozik Lanbiden jasotako tratuekin eta, bereziki, DSBE ukatu izanarekin. Halaber, nabarmentzekoa da pertsonen % 18,6k bizitokia aipatu dutela ukatutako zerbitzuen barruan, eta batez ere aterpetxeetako egonaldi mugatuarekin lotutako arazoak aipatu dituztela.

Gainera, 2016ko emaitzek erakusten dute, oro har, etxerik gabeko pertsonen nahiko positibotzat jo dutela gizarte-zerbitzuek emandako laguntza. Beren esperientzian zehar gizarte-zerbitzuengandik jasotako laguntzaren eraginkortasunari buruz galdetuta, hamar pertsonatik seik baino gehiagok erantzun dute asko lagundu dietela (% 25) edo dezente lagundu dietela (% 36). % 11k, berriz, adierazi dute gizarte-zerbitzuek ez dietela ezer lagundu, eta ia % 20k laguntza gutxi jaso dutela gizarte-zerbitzuengandik. Oro har, emakumeak gusturago daudela adierazi dute (% 67ren ustez, laguntza nahikoa edo handia jaso dute; gustura dauden gizonak, berriz, % 61 dira). Jasotako laguntzaren pertzepzio negatiboagoa duten pertsonen artean, honako hauek dira nabarmentzekoak: atzerritarak eta, batez ere, kalean edo aterpetxeetan bizi direnak.


Etxerik gabeko hamar pertsonatik hiruk bakarrik ematen dute egunaren zati handiena

Familia-harremanei dagokienez, ezin da esan etxerik gabeko pertsonen erabat hautsi dituztenik beren senideekin zituzten harremanak. Aitzitik, inkestari erantzun dioten hamar pertsonatik zortzik baino gehiagok nolabaiteko harremana dute beren senideren batekin, zehazki % 84,3k, 2016ko gaueko azken zenbaketaren arabera. Denera, % 13,7 dira familia-harremanik ez duten pertsonak.

Aztertutako beste alderdietan bezala, adina eta kokapena dira gehienbat jatorrizko familiarekin harremana izatearekin lotura duten aldagaiak: kaleetan eta aterpetxeetan dauden pertsonak eta adinez nagusienak direnak dira normalean beren jatorrizko familiekin zuten harremana hautsi dutenak; 25 urtetik beherakoen % 93,7k eta egonaldi ertain eta luzeko ostatu-zentro batean duden % 91,1ek, berriz, harremana dute jatorrizko familiekin. Alde horretatik, generoari eta herritartasunari lotutako aldeak ere badaude: gizonezkoen % 15ek eta emakumezkoen % 10ek hautsi dute jatorrizko familiarekin zuten harremana. Era berean, pertsona autoktonoen % 16,5ek eta atzerritarren % 12k jada ez dute harremanik beren jatorrizko familiarekin.

Datuen arabera, etxerik gabeko pertsonen gehien ezartzen dituzten harremanak familia-harremanak (% 81) eta laguntasun-harremanak (% 80) dira. Horien ondoren daude gizarte-zerbitzuetako profesionalekin dituzten harremanak (% 78), lan- eta prestakuntza-arloan dituzten kideekiko harremanak (% 67), auzokideekiko harremanak (% 46) eta bikotearekiko harremana (% 25).

7. grafikoa. Etxerik gabeko pertsonen banaketa, egunean zehar duten konpainiaren eta gizarte-harremanen arabera 2016



Oharra: taula honek ematen dituen datuak inkestari erantzun zioten etxerik gabeko pertsonen dagozkie (1. 268), hau da, gaueko zenbaketak zenbatutako heldu guztien (1. 816) % 70i.
Iturria: EAEEn egoitza-bazterkeria larrian dauden pertsonen egoeraren inguruko III. Azterlana. 2016. Datuen aurrerapena.


Pertsona horiek dituzten gizarte-harremanak eta loturak gorabehera, argi dago bakardadea erabat lotuta dagoela pertsona horien bizi-kalitatearekin. Alde horretatik, ikusi da etxerik gabeko hamar pertsonatik ia hiruk egunaren zati handiena bakarrik ematen duela (% 28,1), eta hamar pertsonatik zazpi beste pertsona batzuen konpainian ematen duela egunaren zati handiena (% 69,3).

Bakartze soziala ohikoagoa da gizonengan; hamar gizonetik ia hiruk bakarrik ematen dute egunaren zati handiena (% 29,9), eta hamar emakumetik bik ematen dute bakarrik eguna (% 21,2). Horrez gain, bakartasun-egoera gehiago daude Estatuko gainerako lekuetan eta atzerrian jaio diren pertsonen artean (% 29) EAEn jaio direnen artean baino (% 25). Halaber, adinari dagokionez, bakartasun-egoera gehiago daude 55 urtetik gorako pertsonen artean; horien artean, hamar pertsonatik lauk baino gehiagok bakarrik ematen dute egunaren zati handiena (% 41). Alabaina, adin-tarte guztiak kontuan hartuta -25 urtetik beherakoak bakarrik salbuetsita-, lau pertsonatik batek bakarrik ematen du egunaren zati handiena. Alde handienak gaua pasatzeko lekuarekin dute lotura: kalean aurkitutako hamar pertsonatik lauk (% 50) eta aterpetxe eta aterpeetan ostatu hartutako pertsonen % 38k (% 42,4) bakarrik ematen dute egunaren zati handiena; egonaldi ertainerako eta luzerako baliabideetan ostatu hartzen dutenen artean, berriz, % 21 dira egunaren zati handiena bakarrik ematen dutenak.

Atzerriko herritartasuna duten etxerik gabeko pertsonen laurdenek ez dute osasun-txartelik.

Osasun-sistamarako sarbideari dagokionez, gaueko azken zenbaketetan jasotako datuen arabera, etxerik gabeko pertsonen ia % 17k ez dute Osasun Txartel Indibiduala (OTI), eta, beraz, ez dute akreditazio nahikoa ohiko osasun-laguntza izateko. Lehen mailako arretatik eta arreta espezializatutik kanpo gehien ikusten diren taldeak hauek dira: gaua kalean ematen aurkitu zirenak (% 34k ez dute txartela), atzerriko herritartasuna dutenak (% 26) eta 30 urtetik beherakoak (% 25).

8. grafikoa. Etxerik gabeko pertsonen banaketa, osasun-txartela izatearen arabera. 2016



Oharra: taula honek ematen dituen datuak inkestari erantzun zioten etxerik gabeko pertsonen dagozkien (1. 268), hau da, gaueko zenbaketak zenbatutako heldu guztien (1. 816) % 70i.

Iturria: EAEn egoitza-bazterkeria larrian dauden pertsonen egoeraren inguruko III. Azterlana. 2016. Datuen aurrerapena.


Gaur egun, EAEn beren egoera arautua ez duten atzeritarrek osasun-laguntza izateko eskaera aurkeztu dezakete, baldin eta gure komunitatean erroldatuta badaude, Estatuan hiru hilabete baino gehiago badaramatzate, baliabide ekonomiko propiorik ez badute eta beste edozein bideren bitartez osasun-babeserako sistema publikoan sartu ezin badute.

Etxerik gabeko hamar pertsonatik ia lau diskriminatuta sentitu dira Euskadin etxerik ez izateagatik

Etxerik gabeko pertsonen gizarteratzea bermatzeko funtsezko alderdietako bat kolektibo honen gaineko estigma soziala gainditzea da; izan ere, estigma horren bitartez etxerik gabeko pertsonak talde homogeneotzat hartzen dira, eta marjinazioarekin, droga-kontsumoarekin eta gaixotasun men-

talekin zerikusia duten ezaugarri negatiboak lotzen zaizkie. Etzerik gabeko pertsonak etxegabetasun-egoeran daudenetik noizbait diskriminatuak sentitu diren aztertu da, eta 2012ko EGPIren datuen arabera, etzerik gabeko pertsonen % 37 baino gehiago diskriminatuak sentitu dira etzerik gabe bizi-tzeagatik. Gehienek adierazi dute sentimendu hori noizbehinka baino ez dutela izan, baina etzerik gabeko pertsonen % 16k adierazi dute diskriminazio hori ohikoa dela eta etengabe gertatzen dela.

9. grafikoa. Etzerik gabeko pertsonen sentitzen duten gizarte-diskriminazioa. EAE 2012



Iturria: Eustat. Etzerik gabeko pertsonen buruzko inkesta. 2012.

Etzerik gabeko pertsonen aurkako delitu eta erasoen intzidentzia altua

Kalteberatasuna eta gizarte-diskriminazioa agerian uzten duten beste alderdietako bat etzerik gabeko pertsonen biktimizazio-tasa altua da. 2016an eginiko gaueko azken zenbaketa-aren datuen arabera, gaur egun zein iraganen kalean gaua eman duten etzerik gabeko pertsonen % 61,3k aitortu dute delituen edo eraso-aren bat jasan dutela. Inkesta egin zaien etzerik gabeko pertsona guztien % 42,2 dira horiek.

16. taula. Erasoak jasandako etterik gabeko pertsona kopurua eta jasandako delituen intzidentzia, kalean gaua emateagatik 2016

	Erasoak jasandako pertsona kopurua	Kalean lo egiten duten edo egin duten pertsonen % Kop.=873	Etterik gabeko pertsonen % Kop.=1. 268
Irainak edo mehatxuak	391	% 44,8	% 30,8
Dirua edo norberaren gauzak lapurtzea	342	% 39,2	% 27,0
Iruzurrak	248	% 28,4	% 19,6
Eraso fisikoak	202	% 23,1	% 15,9
Sexu-erasoak	37	% 4,2	% 2,9
+Delituren bat jasan du	535	% 61,3	% 42,2
+Ez du deliturik jasan	309	% 35,4	% 24,4

Oharra: taula honek ematen dituen datuak galdeketari erantzun zioten eta kaleko esperientziei buruz hitz egin zuten etterik gabeko pertsonen dagozkie. Pertsona horiek inkesta egin zaien pertsona guztien % 69 dira (873 pertsona).
Iturria: EAE n egoitza-bazterkeria larrian dauden pertsonen egoeraren inguruko III. Azterlana. 2016. Datuen aurrerapena.

Jasandako delitu motari dagokionez, irainak eta mehatxuak dira etterik gabeko pertsonen artean biktimizazio-arrazoi nagusia. 2016ko datuen arabera, etterik gabeko hamar pertsonatik ia hiruk jaso zituzten irainak eta mehatxuak beste pertsona batzuegandik. Diruaren eta norberaren gauzen lapurreta da etterik gabeko pertsonen aurkako delituetan bigarren ohikoena (ia % 27), ondoren iruzurrak (% 20) eta eraso fisikoak (% 16). Horrez gain, 2016ko datuek adierazten dute etterik gabeko pertsonen % 2,9k sexu-erasoren bat jasan zutela, eta emakumeen artean intzidentzia askoz ere handiagoa dela (% 20) gizonen artean baino (% 2).

Oro har, eraso eta delitu mota desberdinak batera aztertuta, gaueko azken zenbaketaren emaitzek iradokitzen dute honako hauek direla etterik gabeko pertsonen artean biktimizatuak izateko arrisku handiena dutenak: emakumeak, espainiar herritartasuna duten pertsonak eta adinez nagusienak, ziur aski bazterkeria-ibilbide luzeena dutelako.

Estatuan aztertutakoaren arabera, areagotuz joan dira etterik gabeko pertsonen aurkako erasoak eta delituak; datu horrekin alderatuta, etterik gabeko pertsonen buruz egin den inkestako datuek diote 2005. eta 2012. urte artean Euskadin murriztu egin dela eraso mota horien intzidentzia. Aldi horretan, Euskadin zenbatutako etterik gabeko biztanle kopuruak % 14 egin du gora; hala ere, behera egin du etterik gabe bizi direnetik erasoren bat jasan duten pertsona kopuruak (-% 1,4), lapurretaren bat jasan dutenen kopurua (-% 4,9), edo irainak (-% 8,2) edo iruzurrak (-% 15,1) jasan dituztenen kopurua.

17. taula. Etterik gabeko pertsonen bilakaera, etterik gabe bizi direnetik jasan dituzten delitu moten arabera. EAE 2005-2012

	2005		2012		2005-2012 Δ (%)
	Kop.	Intzidentzia (%)	Kop.	Intzidentzia (%)	
Irainak edo mehatxua	648	35,4	595	28,5	-8,2
Lapurreta	612	33,4	582	27,8	-4,9
Erasoa	419	22,9	413	19,8	-1,4
Iruzurra	304	16,6	258	12,3	-15,1

Iturria: Eustat. Etterik gabeko pertsonen buruzko inkesta. 2005-2012.

EGPIrekin jarraikiz, datuek erakusten dute eraso mota horiek ez direla asko salatzen poliziaren aurrean –delitu edo erasoren bat jasan duten hamar pertsonatik hiruk baino ez dituzte gertaerak salatzen–, eta ez salatzeko arrazoi nagusiak dira, batetik, erakundeenganako konfiantza falta (% 52k uste dute salatzek ez duela ezertarako balio) eta, bestetik, erasotzailearengandik errepresaliaren bat jasateko beldurra (% 13).

Azkenik, justiziarekin duten harremanari dagokionez, nabarmentzekoa da etterik gabeko pertsonen % 36 atxilotu egin dituztela noizbait eta % 27 salatu egin dituztela arrazoiren batengatik. Hala ere, zehaztu beharra dago datuek ez diotela zehazki erreferentzia egiten pertsona etterik gabe egon den aldiari.

4.4. Egoitza-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen ikuspegia

4.4.1. Sarrera eta alde zurreko gogoetak

Sarrerako atalean adierazi den moduan, diagnostiko hau egiteko, datu estatistikoez eta profesionalen iritziaz gain, egoitza-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen ikuspegia jaso da. Horretarako, EAPN Euskadiren eta BesteBi Plataformaren laguntza izan da. Hainbat partaidetza-dinamika egin dituzte beren zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonekin –zehazki egoitza-bazterkeria larria zuzenean ezagutu dutenekin, sufritu izan dutelako edo orain sufritzen dutelako–, haien ekarpenak jasotzeko.

Ekarpen horiek jaso ahal izateko, bi bide erabili dira batez ere:

- Lehenik eta behin, 2016ko apirilaren 18an, Euskadiko Gizarte Partaidetza Topaketa egin zen, EAPN Euskadiko Partaidetza Taldeak antolatuta.
- Horrez gain, lan-dinamika espezifikoa egin ziren BesteBi Plataformako erakundeetan. Dinamika horietan, bi kontu landu ziren bereziki, zuzenean pertsonekin.
 - o Euskadin etxegabetasuna desagerrarazteko Estrategia baterako ekarpena egiteko zein espaziotan egongo lirakeen eroso.
 - o Euskadin etxegabetasuna desagerrarazteko proposamen espezifikoa.

Halaber, garrantzitsua da kontuan izatea prozesu honetan dauden pertsonen eskaera aztertzean kontu handia izan behar dela; izan ere, gizarte-politiken eta eskura dauden baliabideen ezagutzamaila askotarikoa da. Hori dela eta, datu objektiboetan oinarritu beharrean datu zaharkituetan edo pertzepzio pertsonaletan oinarrituta proposamenak aurki ditzakegu.

Epigrafe honetan, ia hitzez hitz jaso da EAPN eta BesteBi erakundeek eginiko dokumentuaren laburpena, zeinetan laburtuta jasotzen baitiren topaketa eta dinamika horietan parte hartu duten pertsonen eginiko proposamenak.

Egin diren dinamiketan jasotako ekarpenak azaltzen hasi aurretik, komeni da egoitza-bazterkeria larria jasaten duten edo jasan duten pertsonen alde aurretik eginiko gogoeta batzuk jasotzea eta kontuan hartzea: hasteko, adierazi beharra dago kontsultatutako pertsonen mesfidantza sentitzen dutela oro har politikaren eta administrazio publikoaren munduarekin zerikusia duen guztiarekin; oro har, kontsultatutako pertsona guztiek mesfidantza eta frustrazio handia adierazi dute gizarte-politikarekin zerikusia duen guztiarekin. Beharrezkoa da elementu hori kontuan izatea konfrontaziorik edo gaizki-ulerturik ez izateko eta, hala gertatuz gero, ondorengo dinamiketan pertzepzio mota horiek lantzeko. Hala ere, kontuan hartu behar da eginiko hainbat dinamikan, tailerretan eta topaketetan kontsultatutako pertsonak pozik eta eskertuta agertu direla horrelako prozesuetan eta eragin politikoko ekintzekin zerikusia duen guztian beren iritzia kontuan hartzeagatik. Horrenbestez, prest daude eztabaidatzeko eta ekarpenak egiteko, betiere inguru babestuetan badaude, hau da, argi eta garbi azaltzen bazaizkie zein diren helburuak, dinamikak, etab.

Bereziki interesgarria iruditu zaie elkarte eta testuinguru desberdinetako (partaidetza-topaketak) pertsonen lan egin ahal izatea; izan ere, beren egoerak azaldu ahal izan dituzte, eta, horrez gain, errealitate desberdinak ezagutu. Halaber, ikusi da segurtasuna ematen diela artatzen dituzten erakundeetan bertan lantzea gaiak. Ikuspuntu metodologikotik, beraz, garrantzitsua da bi ikuspegiak konbinatzea.

Azkenik, kontsultatutako pertsonen ontzat jo dute beren ondorioak eta proposamenak erakunde garrantzitsuren bati aurkeztea. Interesgarria izango litzateke erakunde horietako ordezkari tekniko edo politikoekin eztabaidak egitea, baina garrantzitsutzat jo da espazioak eta pertsonak ez nahastea, dinamikak bereiztea eta argi uztea zein alderdi eta dimentsio landuko diren espazio bakoitzean, zein metodologiarekin eta zein den eragile bakoitzaren funtzioa (hau da, ez litzuke emaitza onak emango bilera oso teknikoak egitea pertsona mota guztiak bilduta, esperientzia- eta ezagutza-mailak oso

desberdinak direlako eta egokitze-mailak oso altua izan beharko lukeelako. Ondorioz, bilerak ez lirateke oso eraginkorrak izango). Alde horretatik, adierazi behar da logiken eta espazioen bereizketa hori dela EAPN Euskadiko Partaidetza taldeak jarraitzen duen oinarritzko gakoetako bat. Ez dituzte espazioak nahasten pertsonen artean nahasmendurik ez eragiteko eta espazio egokituak sortzeko, pertsona guztiak gai izan daitezen beren ezagutzaren arabera ekarpenak egiteko.

4.4.2. Eginiko dinamikak eta ekarpenak

a) Pertsonak eroso sentituko liratekeen partaidetza-espazioak.

Partaidetza-prozesuei dagokienez, hauek dira kontsultatutako pertsonen iritziz egokienak diren espazio eta baldintzak:

- Nolabaiteko egitura formala duten espazioak, eta aurretik antolatutak. Espazio hauetan, parte hartzen duten pertsonen konpromisoak benetakoa izan behar du, eta aldez aurretik ezagutu behar dira topaketaren edo bileraren helburuak. Asanbladez, bilerez, topaketez eta halakoez hitz egiten dute.
- Ez lirateke eroso sentituko ordezkari politikoak edo administrazio publikoetako pertsona garrantzitsuak egongo balira. Nahiago lukete pertsona horiei eztabaidetan ateratako ondorioak aurkeztea (nola funtzionatzen duten aterpetxeek beren ikuspuntutik, kalean bizi diren pertsonen arazoak azaldu, etab.).
- Azken batean, helburua da erakundeak pertsonen errealitate zehatzera hurbildu ahal izatea.
- Etixerik gabeko pertsonekin lan egiten duten profesionalak bertan egotea eskatzen dute. Uste dute bilerak antolatzen eta lanerako gaiak zentratzen lagunduko lukeela.
- Espazio ludikoagoak etxegabetasunari buruz sentsibilizazio-ikuspegi batekin lan egiteko. Kontua ez da soilik martxetan edo elkarretaratzeetan parte hartzea, baizik eta zerbait sortzaileagoa dagoen beste espazio batzuetan ere egon ahal izatea.

- Garrantzi berezia ematen zaio espazio horien kudeaketan ere bertan egoteari, hau da, ekarpenak arlo guztietan egiteari.
- Etxegabetasunaren arazoan emakumeen ikuspegia ezagutzeko beharra ikusten da. Emakumeen taldeak eta talde mistoren bat (emakumeak eta gizonak) sortu litezke, sentsibilizatzeko helburuarekin.
- Garrantzitsua da sortzen diren espazioetan estigmatizazioaren arazoa lantzea, baita estigmatizazioak pertsoneri zer eragiten dien eta zein soluzio izan ditzakeen ere.

b) Euskadin etxegabetasuna desagerrarazteko proposamenak

Aurretik adierazi den moduan, pertsonak egiten dituzten eskaerak ulertzeko, kontuan izan behar da oro har pertsona horien ezagutza egoitza-bazterkeria egoera larrietara bideratutako zerbitzuei eta baliabideei dagokienez izan duten esperientzian eta pertzepzioan oinarrituta dagoela; hortaz, oro har ez dira datu objektiboak. Egindako proposamenak oinarritzko ideia hauetan laburbiltzen dira:

- Hasteko eta behin, pertsonak beren eskubideei eta eskuratu ditzaketen zerbitzuei buruzko informazioa eskatzen dute, baita banakako tratua eta jarraipen pertsonal bat ere. Adierazi dute zerbitzuak egoitza-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonentzat egokitu beharko liratekeela.
- Une batzuetan esan dute landa-lanak egin beharko liratekeela etxerik gabeko pertsonen errealtateari eta erabiltzen dituzten eta erabiltzen ez dituzten baliabideei buruz.
- Prebentzioa: uste dute ez direla nahikoa ekintza egiten arazoa prebenitzeko.
- Larrialdietarako zerbitzuetan estaldura handiagoa eskatu dute (ordutegiak luzatzea), eta administrazio publikoen artean antolakuntza eta lankidetzak handiagoa egotea.
- Eskakizun-maila ezberdinetako egoitza-alternatibak (eskakizun baxuko pisuez ari dira). Alde horretatik, askotan adierazi da aterpetxe bat ezin dela etxetzat jo, baizik eta aldi baterako lekutzat.
- Eskatu dute egoitza-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonentzako egokitutako enplegu gehiago egon dadila. Baita lan egin ezin duten pertsonentzako alternatibak ere, beren autonomiaz eta ongizateaz goza dezaten.
- Arazo garrantzitsu bat erroldatzearekin lotutakoa da; izan ere, baldintza hori eskatzen da zenbait eskubide izateko. Moduren batean izapide hau errazteko eskatzen dute.
- Besteak beste, proposatu dute etxerik gabeko pertsonentzako gertuko zerbitzu espezifiko bat sortzea (kontsumitzailearentzako bulegoa bezalakoa). Beharrezkoa izango litzateke kalera gerturatzen diren zerbitzuak izatea (esaterako kaleko hezitzaileak edo psikiatruk), eta zerbitzu hori etxebizitza bat baduten baina egunerokoari aurre egiteko arazoak dituzten pertsoneri laguntzeko ere zabaltzea.

5. ETXERIK GABEKO PERTSONENTZAKO ARRETA-EREDUA EUSKADIN: INDARGUNEAK ETA AHULGUNEAK

5.1. Euskadin etxerik gabeko pertsonentzako arreta arautzen duen araudi-esparrua

Euskadik eta/edo Espainiako estatuak ez dute etxegabetasunari buruzko edo egoitza-bazterkeria egoeran dauden pertsonen arretari buruzko legedirik; ikusi dugunez, beste herrialde batzuetan bai⁴⁷. Alde horretatik, ez da egokitzat jo –beste kolektibo edo gizarte-behar batzuekin (mendekotasuna⁴⁸, desgaitasuna⁴⁹, haurrak⁵⁰...) gertatu den moduan– araudi espezifikoak aldarrikatzea, egoitza-bazterkeria eta etxegabetasun kontzeptuetan biltzen diren beharrak definitzeko eta egoera horiek bizi dituzten pertsonak eskuratu ditzaketan zerbitzu eta baliabideak eta horiek lortzeko moduak zehazteko. Legedi espezifikorik ez dagoenez, etxerik ez duten eta/edo egoitza-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen arreta arautzen duen araudi-esparrua aztertzeko, lehen esan bezala kolektibo hau definitzen duten arazoei (etxebizitza egonkor bat ez izatea, baliabide ekonomiko nahikoa ez izatea, autonomia pertsonalean mugak izatea, gizarte-laguntzen sareen ahultasuna eta/edo gizarte-bazterkeria) erantzuna emateko diseinatutako sektore-arauak aztertu behar dira.

Alde horretatik, honako lege hauek⁵¹ xedatzen dute EAEn etxerik gabeko pertsonentzako arreta arautzen duen araudi-esparrua:

- 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa, azaroaren 26ko 4/2011 Legeak aldatutakoa.
- 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.

⁴⁷ Esate baterako, 2002ko Britainiako *Homeless Act*.

⁴⁸ 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, pertsonen autonomia sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa.

⁴⁹ 26/2011 Legea, abuztuaren 1ekoa, araudia desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei buruzko nazioarteko konbentzioaren arabera egokitzen duena.

⁵⁰ 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoa.

⁵¹ Jakina, etxerik gabeko pertsonak beste hainbat araudiren mende daude, gainerako herritarrak bezala, eta behar zehatzak dituzte araudi hauek zuzenean estaltzen ez dituzten hainbat arlotan, besteak beste, osasun arloan, prestakuntzan, partaidetza sozialean, atzerriartasunean eta justizian. Azterketa hiru arau horietan zentratzea erabaki da, espezifikioki gizarte-bazterkeria egoerei erantzuna ematera bideratuta dauden bakarrak direlako –lehenengo bien kasuan– eta hirugarrena kolektibo honen bereizgarri nagusizat jotzen denari (etxebizitza falta) erantzuna emateko bideratuta dagoelako, besteak beste. Hau da, arau bakarrak dira EAeko esparruan berariaz etxerik ez duten eta egoitza-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonak definitzen dituzten ezaugarriei erantzuna emateko definitu direnak.

Jarraian, hiru arau hauek ezartzen duten esparrua aztertuko da, etxerik gabe edo egoitza-bazterkeria egoera larrian bizi diren pertsonen aitortzen dizkieten eskubideak eta horietatik eratortzen diren esku hartzeko aukerak adieraziz.

a) 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.

2008ko Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak ez die erreferentzia espezifikoa egiten etxerik gabe edo egoitza-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen, baina bere helburuen artean dago (6. artikulua) bazterkeria-egoerak prebenitzea eta artatzea eta pertsonen, familien eta taldeen integrazio soziala sustatzea. Bestalde, agerikoa dirudi gure testuinguruan protagonismoa gizarte-zerbitzuei ematen dien ikuspegia gailendu dela etxegabetasunaren arazoa jorratzeko orduan. Hortik ondorioztatzen da Euskadin Gizarte Zerbitzuek ematen dietela erantzuna etxegabetasun-egoerei, eta ez, beste eredu batzuetan bezala, etxebizitza eskuratzeko zerbitzuek.

Hona hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak eta berau garatzeko araudiak (batez ere, Gizarte Zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretua eta EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa) proposatzen dutena:

- **Eskubide subjektiboa eta zerbitzuen zorroa.** Gizarte Zerbitzuen Legeak (2. artikulua) Zorroaren Dekretuan aipatzen diren gizarte-zerbitzuetarako eskubide subjektiboa aitortzen die zerbitzu horiek eskuratzeko baldintza orokor eta espezifikokoak betetzen dituzten pertsona guztiei. Bestalde, Zorroaren Dekretuak, legean jasotzen diren prestazioen eta zerbitzuak garatzen dituenean (22. artikulua), zazpi zentro edo zerbitzu espezifikoko mota ezartzen ditu gizarte-bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzat (gizarte- eta hezkuntza-erloto esku-hartze eta esku-hartze psikosozialeko zerbitzua, eguneko arreta zerbitzua bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzat, gaueko harrera-zerbitzua, bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitza, gizarteratze-beharrei erantzuteko eguneko zerbitzu edo zentroa, gizarteratze-beharrei erantzuteko gaueko harrera-zentroa, eta bazterkeria eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroa. Azken horren barruan daude egoera kronifikatuan dauden pertsonentzako egoitza-zentroa, gizarteratzen laguntzeko etxebizitza eta gizarteratzeko egoitza-zentroa).

Gainera, Zorroaren Dekretuak honako hauek ere ezartzen ditu: zentro bakoitzaren oinarrizko ezaugarriak (besteak beste, zentrori sartzeko bete behar diren baldintzak administrazio eta behar aldetik), biztanle hartzailearen profila, eskaini behar diren prestazioak, eskakizun-maila, intentsitate-maila edo egonaldiaren iraupena (ikusi 20. taula).

- **Lehen mailako eta bigarren mailako arretaren arteko aldea.** 12/2008 Legearen zerbitzuen katalogoak, oro har, udalei esleitzen dizkie lehen mailakotzat jotzen diren zerbitzuak, eta foru-aldundiei esleitzen dizkie bigarren mailako arretatzat jotzen direnak. Kasu batzuetan, emandako zerbitzua eskumen-maila bakar bati dagokio, baina kasu askotan, sistema bikoitz bat ezartzen da, eta horren arabera, zerbitzu mota bera (ostatua, eguneko arreta, etab.) bi erakunde-mailari egotzen zaie, biak honako hauen arabera bereizita: arretaren intentsitatea, esku-hartzearen helburuak, eskakizun-maila edo artatu daitezkeen biztanleak. Bi arreta-mailak zehaztean, Legeak adierazten du balorazio diagnostikotik⁵² abiatuta ezartzen den mendekotasun-, babesgabetasun- eta bazterkeria-egoeraren larritasuna hartu behar dela lehenbizi kontuan, baina Zorroaren Dekretuan lehen mailako eta bigarren mailako arretaren oinarrizko hiru irizpide mugatzaile ezartzen dira (zentro eta zerbitzu guztiei aplikatzen zaizkie, eta ez bakarrik gizarteratze-erlotoei):
 - Artatutako egoeren larritasuna. Arriskutsuenak (oro har, baina ez beti) lehen mailako arretako udal-zerbitzuei dagozkie, eta arriskua izan dezaketen kasuak –

⁵² 12/2008 Legearen 27. artikulua araber, lehen mailako arretako zerbitzuek “bide emango diete erabiltzaileei gizarte-zerbitzuen sistema osora iristeko, eta autonomiaren, gizarteratzearen eta larrialdien edo babesgabetasunaren inguruko egoerei erantzuteko diete, eta batez ere arrisku-egoeren prebentzioari erreparatutako diete”. Bigarren mailako arretako zerbitzuei dagokienez, berriz, honako hau dio: “Bazterketaren, mendetasunaren edo babesgabetasunaren inguruko egoerei erantzuna emango diete”.

bazterkeria, mendekotasuna, babesgabetasuna, edozein mailatan- bigarren mailako arretako foru-zerbitzuei.

- Arretaren intentsitatea. Intentsitate baxuko zerbitzuak, ia kasu gehienetan, lehen mailako arretari dagozkio, eta intentsitate ertaineko eta altukoak, bigarren mailako arretari;
- Ostatu-baliabideetan, egonaldia iraupena. Aldi baterako edo iraupen laburreko konponbideak, oro har, lehen mailako arretari dagozkio, eta iraunkorrak eta iraupen luzekoak –salbuespenak salbuespen- bigarren mailako arretari.
- **Lurralde-antolamendua eta Gizarte Zerbitzuen Mapa.** Legean ezarritakoa garatzeko, Gizarte Zerbitzuen Mapak lurralde-antolamendu zehatz bat ezartzen du –gizarte-zerbitzuen oinarritzko guneen, eremuen, eskualdeen eta lurralde historikoen bitartez eratua–, eta gertutasun-maila zehatz bat ematen dio zentro mota bakoitzari. Hortaz, honela sailkatzen dira zerbitzuak gertutasun-mailaren arabera: zentralizatuak, gertutasun baxukoak, ertainekoa, altukoak edo oso altukoak. Horrez gain, gertutasun-maila bakoitza lurralde-eremu jakin bati esleitzen zaio. Hona hemen Mapak ezartzen duen eskema:

18. taula. EAEko gizarte-zerbitzuen antolamendua: gertutasun-maila, biztanle-eremua eta muga geografikoak

Gertutasun-maila	Biztanle-eremua (Biztanleriaren bolumena)		Muga geografikoa
Zentralizatuak	400. 001 biztanletik lurralde historiko edo EAE osoko biztanle kopuru osora		Lurralde historikoa edo EAE
Gertutasun baxua	200. 000 - 400. 000		Sektorea
Gertutasun ertaina	50. 001 - 199. 999		Eskualdea
Gertutasun altua	Gutxienez (15. 001)/Batez beste (30. 001)- 50. 000		Eremua
Gertutasun altua	Oinarritzko hiri-eremua	5. 000 biztanle	Udalerría edo udalerrí multzoa
	Oinarritzko landa-eremua	3. 000 biztanle	

Iturria: Gizarte Zerbitzuen Mapa.

- **Balorazio-tresna eta erabiltzeko baldintzak** Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 20. artikulua honako hau ezartzen du: *“Gizarte-zerbitzuek esku hartu behar duten jakiteko irizpideetan homogeneotasuna bermatzearen, euskal herri-administrazioek baloraziorako eta diagnostikorako tresna komunak erabiliko dituzte”*. Artikulu hori aplikatuz, Gizarte Bazterkeria Balioes- teko Tresna onartzen duen uztailaren 16ko 385/2013 Dekretuak balorazio-sistemaren funtzio- namendua arautzen du, eta aginduzkoa da berau aplikatzea Zorroaren Dekretuan ezartzen diren beharren irizpideak betetzen direla ziurtatzeko. Alde horretatik, zuzeneko sarbidea du- ten zentroen kasuan izan ezik, dagokien zerbitzuek baloratu egin beharko dituzte gizarte- zerbitzuen arloan etxebizitza edo ostatu batera sartu nahi duten etxerik gabeko pertsonak, eta, hala, bazterkeria-egoera baten irizpena ematen denean (arina, moderatua edo larria), Zorroko dagokien zerbitzuetarako eskubide subjektiboa aplikatuko litzateke.

Edonola ere, Zorroaren Dekretuarekin bat etorritik, egoitza-bazterkeria egoeran dagoen eta baliabide bat eskuratzeko eskubidea duen pertsonak baliabide jakin bat aukeratzeko, dago- kion profesionalak horretarako preskripzio teknikoak egin beharko dio; hau da, ez da nahikoa eskubidearen titularrak aukeraketa egitea⁵³. Gainera, preskripzio teknikoaz eta behar diren baldintzak betetzeaz gain, nola Legeak hala Gizarte Zerbitzuen Zorroak hainbat baldintza ezartzen dituzte administrazioaren ikuspegitik –aurretik sei edo hamabi hilabetez errol- duta egotea, kasuen arabera, nahiz eta lehen mailako eguneko arreta-zentroa eta lehen eta bigarren mailako gaueko harrera-zentroak baldintza horretatik salbuetsita egon– eta perso- naren baldintza eta ezaugarrien ikuspegitik. Alde horretatik, zentro jakin batzuetan, bereziki bigarren mailakoetan, eskakizun-maila handia duten baldintzak ezartzen dira, besteak beste, egoerari buruzko kontzientzia izatea eta egoera aldatzeko motibazioa izatea, gizarteratzeko eta lan-mundura txertatzeko ibilbide bat egiteko konpromisoa hartzea, eta zerbitzu hau era- biltzen den bitartean baldintza horiei eustea. Horrez gain, kasu gehienetan, kaltetutako per- sonek izan litzaketen arazo soziosanitarioetatik eratorritako baldintza batzuk ere planteatzen dira⁵⁴.

- **Erabiltzaileen partaidetza ekonomikoa.** Gizarte Zerbitzuen beste arlo batzuetan gertatzen ez den bezala, esate baterako, mendekotasunera bideratutakoetan, Gizarte Zerbitzuen Zo- rroan ezarritakoarekin bat etorritik, egoitza-bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako zen- troetako bakar batek ere ez du prezio publikorik ordaindu behar; hortaz, erabiltzaileek ez dute ordainketa partekaturik egin behar.

⁵³ Hala, 185/2015 Dekretuaren 9. artikularekin bat etorritik, “ezinbestekoa da lortu nahi den zerbitzua edo prestazio ekonomi- koa egokia izatea pertsonaren edo familiaren premiei erantzuteko; horretarako, egokitasun hori erreferentziazko profesiona- laren preskripzio teknikoan egiaztatutako beharko da. Preskripzio hori beharrezko baldintza da Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren prestazio ekonomikoa eta zerbitzuak lortzeko, zuzenean lortzen diren zerbitzuak barne, preskripzioarekin lotutako balioes- pena sartzean edo ondoren egiten den kontuan izan gabe”. Bestalde, 12. artikulua honako hau dio: *“erreferentziazko profesio- nalak, erabiltzailearen (pertsona eta/edo familia) partaidetzarekin, Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren zerbitzuetatik eta/edo prestazio ekonomikoaren artetik, hau da, pertsonen lortzeko eskubidea duten baliabideen artetik, pertsona edo familia hori gizarte- ratzea, bere bizi-proiektuak garatzea eta komunitatearen barruan duen partaidetza aktiboaren, bizimodu independentearen eta autonomia pertsonalaren maila ahalik eta handiena izatea, kasuak kasu, ahalbidetzeko baliabide egokiena edo baliabide- konbinazio egokiena hautatu beharko du”*.

⁵⁴ Hala, aintzat hartutako zentro gehienetara sartzeko baldintza gisa ezarri da gizarte-zerbitzuen sarearen horniduren irismen edo aukeratik kampo dagoen osasun-laguntza espezializaturik eta/edo iraunkorrik behar ez izatea; gaixotasun infekzio- kutsakorren bat eta/edo gaixotasun mentalen bat izanez gero dagokion tratamenduari uko ez egitea; edo jokabide- nahasmendurik ez izatea edo zerbitzuen funtzionamendua edo bertako elkarbizitza larriki asaldatu dezakeen edo pertsona- rentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo profesionalentzat arriskutsuak izan daitezkeen jokabideak ez izatea.

- **Etxebitzaren arloarekin finantzaketa-elkarlana gauzatzeko koordinazioa eta formulak.** Gizarte Zerbitzuen Legearen 45. artikuluan honako hau ezartzen da: *“Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan gizarte-zerbitzuen inguruko eskumenak dituzten organoek eta beste sistema eta politika publiko batzuetako zerbitzuak eskaintzeko eskumena duten organoek koordinaturik jardun beharko dute, eta parametro berberak erabiliz koordinaturik jardun ere. (...) Sistema eta politika horiek direla-eta, batez ere honako hauek hartuko dira kontuan: osasun-sistema, hezkuntzakoak, judiziala, enplegu-politikak, lanbideratze- eta prestakuntza-politikak, etxebizitzakoak, irisgarritasunekoak, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzekoak, berdintasunekoak, eta, orokorrean, esku-hartze sozialeko arlo jakin batzuetan gizarte-zerbitzuekin batera izan daitekeen beste edozein politika publiko”.* Gainera, 56. artikuluan honako hau ezartzen da: *“Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari dagozkion prestazioen izendapena ez duten prestazio teknikoak (...) zerbitzu horrek hornituko ditu, Katalogoan sartutako zerbitzuen esparruan eskaintzen direnean. Aurrekoa gorabehera, zerbitzu horien finantzaketa beste sistema publikoei egokituko zaie –prestazio horiei dagozkien sistemei, hain zuzen ere–, bai eta, sistema horietan hala aurreikusten bada, erabiltzaileari ere; hori dela eta, administrazio eskudunek argituz joan beharko dute arian-arian zeintzuk diren beren finantzaketa-erantzukizunak eskumena duten prestazioetan.”*

Horrez gain, Legearen artikulua berak ezartzen duenez, *“pisuetan edo etxebizitza arruntetan egoitza-alternatibak instalatzeko, foru-aldundiek eta udalek edo udal-elkarteek babes ofizialeko etxebizitzaren erreserba eskuratu ahal izango dute. Etxebizitzaren arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren zuzeneko promozioetan eta udalen promozioetan eta administrazio horiek ezartzen dituzten baldintzetan, erakunde publikoetarako besterentzera bideratzen diren babes ofizialeko etxebizitzaren erreserba hori eskuratu ahal izango dute erakunde horiek, beren eskumenari dagozkion gizarte-zerbitzuetako ekipamenduak sortzeko”.*

Hurrengo koadroan jasotzen dira gizarte-bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako zentroen eta zerbitzuen ezaugarri nagusiak, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean, Gizarte Zerbitzuen Mapan eta/edo Zorroaren Dekretuan ezartzen denaren arabera.

19. taula. Zorroaren Dekretuan dauden gizarte-bazterkeriara bideratutako zerbitzuen ezaugarriak

Zerbitzua	Intentsitatea	Iraupena	Profila	Erroldatzea	Eskakizuna.	Sarbidea	Maila	Gertutasuna	Lurralde-eremua
Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartze zerbitzua eta zerbitzu psikosoziala (1. 3);	-	-	Arriskua	Bai (12 hila-bete)	-	-	Lehen maila	Oso altua	Oinarrizko eremua
Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzua (1. 7).	Baxua	Aldi batera-koa	Bazterkeria	Ez	Baxua	Zuzena	Lehen maila	Ertaina	Eskualdea
Gaueko harrera-zerbitzua (1. 8)	Baxua	Laburra	Bazterkeria	Ez	-	Zuzena	Lehen maila	Ertaina	Eskualdea
Bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxeak (1. 9. 2);	Baxua	Laburra edo ertaina	Arrisku handia	Bai (6 hila-bete)	Ertaina /Altua ⁵⁵	Deribazioa	Lehen maila	Ertaina	Eskualdea
Gizarteratze-beharrei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa (2. 2. 3);	Ertaina / altua	Luzea	Bazterkeria	Bai (6 hila-bete)	Baxua / ertaina / altua	Deribazioa	Bigarren maila	Baxua	Sektorea
Gizarteratze-beharrei erantzuteko gaueko harrera-zentroa (2. 3. 2);	Ertaina / altua	-	Bazterkeria	Ez	Baxua	Zuzena	Bigarren maila	Zentralizatua	LH
Egoera kronifikatuan dauden pertsonentzako egoitza-zentroa (2. 4. 5. 1);	Ertaina / altua	Luzea	Bazterkeria	Bai (6 hila-bete)	Ertaina /Altua ⁵⁶	Deribazioa	Bigarren maila	Zentralizatua	LH
Gizarteratzeko laguntzadun etxebizitza (2. 4. 5. 2. 1)	Ertaina	-	Bazterkeria	Bai (6 hila-bete)	Ertaina /Altua ⁵⁷	Deribazioa	Bigarren maila	Baxua	Sektorea
Gizarteratzeko egoitza-zentroa (2. 4. 5. 2. 2)	Altua	-	Bazterkeria	Bai (6 hila-bete)	Ertaina /Altua ⁵⁸	Deribazioa	Bigarren maila	Baxua	Sektorea

Iturria: geuk egina, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuen Mapa eta 185/2015 Dekretua oinarri hartuta.

⁵⁵ Ez zaio erreferentzia esplizitu bat egiten eskakizunaren kontzeptuari, baina zentrora edo zerbitzura sartzeko baldintza gisa ezartzen dira egoerari buruzko kontzientzia izatea eta egoera aldatzeko motibazioa izatea, gizarteratzeko eta lan-mundura txertatzeko ibilbide bat egiteko konpromisoa hartzea, eta zerbitzu hori erabiltzen den bitartean baldintza horiei eustea.

⁵⁶ Ez zaio erreferentzia esplizitu bat egiten eskakizunaren kontzeptuari, baina zentrora edo zerbitzura sartzeko baldintza gisa ezartzen dira egoerari buruzko kontzientzia izatea eta egoera aldatzeko motibazioa izatea, gizarteratzeko ibilbide bat egiteko konpromisoa hartzea.

⁵⁷ Ez zaio erreferentzia esplizitu bat egiten eskakizunaren kontzeptuari, baina zentrora edo zerbitzura sartzeko baldintza gisa ezartzen dira egoerari buruzko kontzientzia izatea eta egoera aldatzeko motibazioa izatea, gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide bat egiteko konpromisoa hartzea.

⁵⁸ Ez zaio erreferentzia esplizitu bat egiten eskakizunaren kontzeptuari, baina zentrora edo zerbitzura sartzeko baldintza gisa ezartzen dira egoerari buruzko kontzientzia izatea eta egoera aldatzeko motibazioa izatea, gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide bat egiteko konpromisoa hartzea.

- b) 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa, azaroaren 26ko 4/2011 Legeak aldatutakoa.

Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak bezala, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak bazterkeria-egoerei erantzuna ematea du helburu, eta, zehazki, herritar izateak dakartzan eskubide sozialak benetan baliatzeko orduan behar beste baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko ez dutenei laguntzea, bai bazterkeria-arriskuari aurre egiten, bai bazterkeria pertsonala, soziala eta laborala arintzen, bai gizarteratzea errazten. Alde horretatik, legearen helburuen azpimarratzen da (2. artikulua): *“Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren barruan diren prestazio ekonomikoak eta gizarteratzeko eta laneratzeko tresnak eskuratzeko aukera izango dutela bermatzea herritarrei”*.

Hona hemen Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak (azaroaren 26ko 4/2011 Legeak aldatutakoa) eta bere garapen-araudiak (funtsean Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretua) etxerik gabe eta muturreko gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako arretari lotuta planteatzen duten egoera:

- **Eskubide bikoitza.** Printzipio honen arabera, bi eskubide aitortzen zaizkie pertsonari: bizitzako oinarrizko beharrei aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikoa izateko eskubidea eta gizarteratzeko eta laneratzeko laguntza pertsonalizatuaz gozatzeko eskubidea⁵⁹. Hori dela eta, gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemaren funtsezko osagarriak ezartzean (5. artikulua), bereizi egiten dira prestazio ekonomikoak eta gizarteratzen eta laneratzeko laguntzeko tresnak. Tresna horiek definitzean, Legearen 7. artikulua honako hauek adierazten ditu:
 - o Gizarteratze aktiborako hitzarmena. Gizarteratzeko nahiz laneratzeko behar diren era bateko eta besteko ekintzen multzoa antolatzeko oinarrizko tresna izango da, laneratzeko formazioari eta prestaerari garrantzi berezia emanda ekintza horietan.
 - o Esku hartzeko neurri espezifikoak. Gizarte-babeseko hainbat alorretako programa, zerbitzu edo zentroak izan daitezke, bereziki gizarte-zerbitzuek, enplegu-zerbitzuek, osasun-zerbitzuek eta etxebizitza-zerbitzuek antolatutakoak, eta, konbinatuta, gizarteratze aktiborako hitzarmenean aplika daitezkeenak.
- **Gizarteratzeko hitzarmena** Gizarteratzeko eta laneratzeko tresnak eta, zehatzago, gizarteratzeko hitzarmenak arautzean (65-74 artikulua), Legeak ezartzen du honela definituko direla gizarteratze aktiboko hitzarmenak: *“programa-dokumentuak dira, eta, horietan, parte hartzen duten aldeek gizarte- eta/edo lan-arloko ekintza espezifiko batzuk ezartzen dituzte, hain zuzen ere titularra eta bizikidetzaren unitateko gainerako kideak baztertuta geratzeko arriskua edo baztertuta egotea prebenitzeko eta haien gizarteratzea eta laneratzeko errazteko”*. Horrez gain, ezartzen da gizarteratzeko hitzarmenak direla dokumentu batzuk zeinek diseinatzen baitute gizarteratze-prozesu edo -ibilbide pertsonalizatu bat, titularraren edo, hala badagokio, haren bizikidetzaren unitateko beste kide batzuen beharrezanetara egokitua, eta zeinek eragiten baitie parte-hartzaileei konpromiso bat obligazioak dakartzana.

⁵⁹ Legearen zioen azalpenean honako hau ezartzen da: *“Eskubide bikoitzaren printzipioa dela-eta, bi eskubide aitortzen dira: bizitzako oinarrizko premiei aurre egiteko baliabide ekonomikoak izateko eskubidea, lanaren bidez edo babes edo laguntza sozialerako dauden bitartekoen bidez baliabide horiek lortzerik ez dagoenean, eta, horrekin batera, laneratzeko eta gizarteratzeko laguntza pertsonalizatua jasotzeko eskubidea, gizarteratzeko hitzarmen batean derrigorrez parte hartuz. Hala jardunda, Administrazioaren eta bazterkeria jasaten duen herritarraren arteko elkarrekikotasunaren printzipioa gauzatuko da”*. Legearen testuarekin bat etorriz, *“eskubide bikoitzaren ereduak lotura-mota berria ezartzen du prestazio ekonomikoaren eta gizarteratzeko jardueren artean, eta bi logika ezberdin daudela aitortzen da. Bi eskubide horiek bereizteak dakarrena da prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea aitortuko zaiela behar beste baliabide ekonomiko ez dutenei, nahiz eta arazo bakarra hori izan, hau da, beren borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik gutxieneko diru-sarrerak izatera ez iristea; gerta liteke pertsona horiek gizarte-bazterkeriarik ez jasatea eta, horren ondorioz, gizarteratzeko bestelako laguntzen premiarik ez izatea”*.

- **Lanbideren kudeaketa aktibatzearen eta transferitzearen aldeko apustua.** 4/2011 Legearen bitartez eginiko 18/2008 Legearen erreformak hiru alderditan eragin zituen aldaketak:
 - Aktibazioaren paradigmen aldeko apustua⁶⁰, diru-sarrerak bermatzeko sistema enplegu-politika aktiboetara berrorientatuz.
 - Honetan datza, besteak beste paradigma aldaketa: prestazio ekonomikoaren eta gizarteratzeko hitzarmenen kudeaketa udaletako gizarte-zerbitzuetatik Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzura transferitzea.
 - Prozesu honetan, desagertu egiten da 18/2008 Legean jasotzen den aukera hau: diru-sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikorik jasotzen ez duten baina gizarteratzeko eta laneratzeko esku-hartze edo jarduketa espezifiko bat behar duten pertsonekin gizarteratzeko hitzarmenak sinatzea. Hau da, hitzarmen horiek honako hautentzat baino ez dira izango: prestazioaren titular diren pertsonentzat edo bizikidetzaren titularitateentzat eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen ez duten edo horren titular ez diren baina laneratzeko esku-hartze edo jarduketa espezifiko bat behar duten eta hala eskatzen duten pertsonentzat. Horrez gain, lehen, gizarteratzeko hitzarmenek alderdi askotako ikuspegia zuten, bazterkeriak izan litzakeen askotariko kausekin⁶¹ bat etorri, baina erreformaren prozesuan aldatu egiten da hori, eta eredu berrian, *“gizarteratze aktiborako hitzarmenek lanpostu bat lortu ahal izatera edo lan-egoera hobetu ahal izatera bideratutako egintzak jasoko dituzte, erregelamenduz ezarritakoaren arabera; egintza horiek, bereziki, prestakuntza aurrekoak, prestakuntzakoak, lana topatzekoak eta lan bitartekaritzakoak izango dira”*.

Testuinguru horretan, lehen diru-sarrerak bermatzeko sistemari lotzen zitzaizkion gizarteratzeko laguntzak, eskubide bikoitza dela eta, laneratzeko behar diren laguntzak baino ez dira; hau da, gizarteratzeko laguntza pertsonalizatuak Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak definitutako esparrura mugatuko dira.

⁶⁰ Aktibazioa izan da, zalantzarik gabe, paradigma hegemonikoa duela gutxienez 20 urtetatik mendebaldeko herrialdeetako diru-sarrerak bermatzeko politiketan. Prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten langabeak lan-merkatuan sartzen eta haien gizarteratzearen eta integrazio ekonomikoaren mailak hobetzen laguntzeko politikak, neurriak eta tresnak dira; izan ere, enplegu ordaindua gizarteraren edo herritarren eskubideak izateko forma pribilegiatutzat jotzen da. Kontzeptu honen hainbat interpretazio eta aplikazio egin badira ere, oinarritzko bi ezaugarri nabarmendu daitezke: alde batetik, lotura handiagoa dago gizarterate eta enplegu-politiken artean, diru-sarrerak bermatzeko programei ematen zaion gastu soziala murrizteko eta gizarteratzeko oinarritzko mekanismo gisa lanaren etikan eta enpleguaren zentraltasunean oinarritutako gizarterate-politiken kontzeptua berrezartzeko; beste alde batetik, diru-sarrerak bermatzeko prestazioak jasotzen dituzten pertsonen muga, ordain eta baldintza gehiago ezartzeko joera dago (SIIS, 2012).

⁶¹ 18/2008 Legearen 65. artikulua arabera, gizarteratzeko hitzarmenetan honako ekintza hauek jaso daitezke, besteak beste: hezkuntzako eta prestakuntzako ezagupen berriak hartzeko beharrezkoak diren jarrerak eta ohiturak garatzea ahalbidetzen duten ekintzak, behar diren abilezia eta gaitasunak garatzeko ekintzak, bai egonkortasun pertsonala eta bizikidetzaren orekatua lortzeko eta bai gizarterate eta gizarteratean, bereziki ohiko bizikidetzaren giroan, parte hartzea lortzeko, osasun-sistemara iristen laguntzeko ekintzak, batez ere tratamendu mediko espezializatua edo desintoxikatze eta desohitzeko esku-hartze espezifikoak behar direnean eta zerbitzu soziosanitarioen sarera iristen laguntzeko ekintzak.

c) 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.

Epigrafe honetan aztertutako hiru legeetatik berriena eta teorikoki gehien lotzen zaiona egoitza-bazterkeria egoerak gainditzeari, Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legea da. Etxebizitza edo ostatu babestu bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa aitortzen du (6. artikulua). Etxebizitzaren 3/2015 Legearen 9. artikulua araberak, etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubidea bete ahal izango dute horretarako eskumena duten euskal administrazio publikoek, etxebizitza babestu bat alokairuan eskura jarrita, eta etxebizitza edo ostaturik izan ezean, eta izaera subsidiarioarekin, eskubidea prestazio ekonomikoen sistema bat ezarrita bete ahal izango da. Era berean, Lege horretako laugarren xedapen iragankorrek adierazten du –gizarte-alokairu nahikoa ez badago– prestazio ekonomiko baten bitartez egoera hauei egin beharko zaie aurre gradualki:

- Lege hau indarrean sartu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita lehenengo urte naturalean (praktikan, 2016 ekitaldia), hiru kide edo gehiagoko bizikidetz-unitateek izango dute eskubidea, baldin eta urtean 15. 000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak badituzte eta dagokion erregistro ofizialean gutxienez lau urte badaramatzate izena emanda alokairuko etxebizitzaren eskatzaile gisa.
- Lege hau indarrean sartu ondorengo bigarren urte naturalean (2017), aurreko idatzi-zatian aurreikusitakoek ez ezik, bi kideko bizikidetz-unitateek ere izango dute eskubidea, baldin eta urtean 12. 000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak badituzte eta dagokion erregistro ofizialean gutxienez lau urte badaramatzate izena emanda alokairuko etxebizitzaren eskatzaile gisa.
- Lege hau indarrean sartu eta hirugarren urte naturaletik aurrera (2018), xedapen honetako aurreko bi idatzi-zatietan aurreikusitakoek ez ezik, kide bakarreko bizikidetz-unitateek ere izango dute eskubidea, baldin eta urtean 9. 000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak badituzte eta dagokion erregistro ofizialean gutxienez lau urte badaramatzate izena emanda alokairuko etxebizitzaren eskatzaile gisa.

Bestalde, Aurrekontuei buruzko Legearen 7. xedapen gehigarriak ezartzen du behin prestazio horiek indarrean sartzen direnean ez direla Etxebizitzarako Prestazio Osagarriak aitortuko, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legeak ezartzen zuen bezala, lege honen bitartez sortu baitziren prestazio horiek.

Lege honen garapenean, etxebizitza duin bat legez okupatzeko edo Etxebizitzaren Prestazio Ekonomikoa jasotzeko eskubide subjektiboari buruzko dekretu-proiektuak (oraindik egiteko fasean) honako baldintza hauek ezartzen ditu, besteak beste, eskubide hori izateko:

- Etxebizitza edo ostatu egonkor eta egokirik ez izatea.
- Etxebizitza Babestua edo Zuzkidura Bizitokia Eskatzeko Erregistroan izena emanda egotea soilik alokairu-eskatzaile gisa, gutxienez hiru urteko antzinatasunarekin.
- Urtean atalase zehatz batetik beherako diru-sarrera batzuk egiaztatzea. Dekretu-proiektuan ez dira gutxienerako diru-sarrera batzuk ezartzen.

Dekretu-proiektuak ezabatu egiten ditu, gainera, lehen indarrean zegoen araudian jasotzen ziren atzerriko herritartasuna duten pertsonen legeko egoitzari lotutako murrizketak.

5.2. Etixerik gabeko pertsonentzako Euskadiko arreta-sarearen oinarritzko ezaugarriak

Lehen adierazi den moduan, arrazoi historikoak eta arazoaren eta bere kasuen kontzeptualizazioa direla eta, etxegabetasuna gizarte-zerbitzuen arloan landu izan da gure inguruan. Hori dela eta, ez dira gutxi osasun, justizia edo etxebizitzaren arlotik gizarte-zerbitzuen arlora bideratzen diren egitasmo espezifikoak. Epigrafe honetan, beraz, gizarte-zerbitzuen arloko etxerik gabeko pertsonentzako arreta-sarearen oinarritzko ezaugarriak aztertuko dira, indargune eta ahulgune nagusiak nabarmenduz. Epigrafe honetan egin den analisisiaz gain –funtsean, deskriptibo eta kuantitatiboa-, hurrengo puntuan analisi kualitatibo bat egin da, eta hor Euskadiko etxerik gabeko pertsonentzako arreta-ereduaren erronka eta muga nagusiak jarri dira agerian.

Etixerik gabeko pertsonentzako arreta-sareak baliabide-hornidura altua du

Gizarte Zerbitzuek etxegabetasun-fenomenoa lantzeko duten unitatearen elementu nagusia haren hornidura altua da. Eustaten Etixerik Gabeko Pertsonentzako Baliabideei buruzko Inkestaren datuekin bat etorritz, Euskadik 2016an etxerik gabeko pertsonentzako 244 zentro ditu, eta horietan ostatu hartzeko 2. 971 plaza, jantokietako 2. 013 plaza eta eguneko arretarako 2. 210 plaza okupazional eta/edo hezitzaile. Horrek esan nahi du 1. 000 biztanleko 1,36, 0,92 eta 1,01 plaza daudela, hurrenez hurren.

Zentro eta zerbitzuetan lan egiten duten langileei dagokienez, bildutako informazioaren arabera, 2016an etxerik gabeko pertsonentzako arreta-zentroetan lan egiten duten pertsonen kopuruak 2. 112ra egin zuen gora. Lanarekiko zuten loturari dagokionez, % 52,8 soldatapeko langileak ziren, % 40,4 boluntarioak, % 3,6 azpikontratatuak, eta % 3,2k beste lotura mota bat zuten (erlijiosoak, praktiketako pertsonak...). Bestalde, nabarmentzen da zentro hauetan lan egiten duten pertsonen artean gehienak emakumeak direla (% 66), baita lanaldi partziala dutenen gehiengoa ere (59,1)⁶².

⁶² Tasa altu horren arrazoia, hein batean, da boluntario asko daudela. Soldatapeko pertsonak bakarrik hartzen badira kontuan, lanaldi partzialean lan egiten duten pertsonen proportzioa % 44,5era jaitsi da. Hala eta guztiz ere, sektore honi dagokion lanaldi partzialeko enpleguaren tasa EAeko langile kopuru osoaren tasa baino askoz ere altuagoa da oraindik (% 17,7) eta, baita emakumeei bakarrik dagokiena baino altuagoa ere (% 29,5), EPAren 2016ko azken hiruhilekoko datuek adierazten duten moduan.

20. taula. Zentro eta plaza kopurua eta etxerik gabeko pertsonentzako arreta-zentro eta -zerbitzuetan artatzen diren pertsona kopurua. EAE 2016

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Hiriburuak bakarrik	Guztira
Zentro kopurua	28	131	85	148	244
-Ostatua duten zentroak	25	101	75	114	201
+Eskakizun-maila baxuko aterpetxeak eta zentroak	3	10	5	12	18
+Ostatu kolektiboak eta etxebizitzak	22	91	70	102	183
-Eguneko zentroak	1	21	7	24	29
-Gizarte-jantokiak	1	5	2	5	8
-Kaleko esku-hartzea	1	4	1	5	6
Plaza kopurua					
Ostatu-plazak	474	1.395	1102	2.064	2.971
--Eskakizun-maila baxuko aterpetxeak eta zentroak	68	271	128	daturik ez.	467
-Ostatu kolektiboak eta etxebizitzak	406	1.124	974	daturik ez	2.504
Jantoki-plazak	285	1.207	521	1.486	2.013
Eguneko plazak	215	1365	630	1.811	2.210
Artatutako pertsona kopurua					
Ostatu hartutako pertsona kopurua	406	1.126	869	1.788	2.401
--Eskakizun-maila baxuko aterpetxeak eta zentroak	64	242	120	daturik ez	426
-Ostatu kolektiboak eta etxebizitzak	342	884	749	daturik ez	1.975
Eguneko zentroetan artatutako pertsonak	137	1211	540	1.590	1.888
Langileak, guztira	211	1.170	731	1.786	2.112
Langileak, sexuaren arabera					
- Gizonak	70	361	292	622	723
- Emakumeak	141	809	439	1.164	1.389
- Emakumeak (%)	% 67	% 69	% 60	% 65	% 66
Langileak, loturaren arabera					
- Soldatapeko langileak	165	639	312	869	1.116
+Kontratu mugagabea	146	518	219	daturik ez	883
+Aldi baterako kontratua	19	121	93	daturik ez	233
+Aldi baterako kontratua (%)	% 12	% 19	% 30	daturik ez	% 21
- Langile azpikontratuak	12	52	11	57	75
- Langile boluntarioak	28	421	404	797	853
- Beste langile batzuk	6	58	4	63	68

Oharra: Zentro, plaza eta artatutako pertsona kopuruei buruzko datuak 2016ko abenduaren 15ekoak dira.
Iturria: Eustat. Etxerik gabeko pertsonentzako baliabideei buruzko inkesta. 2016

Soldatapeko langileei soilik dagokienez (1.116), nabarmenezkoa da pertsona gehienek kontratu mugagabea dutela⁶³ (% 79), eta kasu honetan ere, emakumeak dira gehienak, zehazki soldatapeko hamar langiletatik zazpi (% 69). Termino erlatiboetan, etxerik gabeko pertsonentzako arreta-zentroetako langile soldatapekoak EAEko gizarte-zerbitzuetako langileen % 6,1 dira. Era berean, dimentsio hori –pertsona kopurua bakarrik kontuan hartuta, eta ez lanaldiko orduak– EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzu publikoek dituzten langile-horniduraren baliokidetzat jo daiteke⁶⁴.

⁶³ Tasa hori, adibidez, EAEko soldatapeko biztanleen artekoa (% 76,6) baino zertxobait altuagoa da, eta soldatapeko emakumei dagokiena (% 73,9) baino nabarmen handiagoa, EPAREN 2016ko azken hiru hilabeteetako datuek adierazten duten moduan.


⁶⁴ 2015eko Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistikaren arabera, gizarte-zerbitzuen nukleo zentralizat har daitezkeen urteko batez besteko langile kopurua 18.254 izan zen. Bestalde, horrek esan nahi du 2015ean EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuen urteko batez besteko langile kopuruak 1.070era egin zuela gora.

Ostatu-plazen estaldurari dagokionez, Estatuaren buruan

Zehazki ostatua duten zentroi dagokionez, Euskadik 201 zentro zituen, eta denera 2. 971 ostatu-plaza eskaintzen zituzten, edo bestela esanda, 1. 000 biztanleko 1,36 ostatu-plazen hornidura. Horietatik guztietatik, 18 eskakizun baxuko aterpetxeak eta zentroak ziren, eta 467 ostatu-plaza eskaintzen zituzten⁶⁵, hau da, eskaintzen ziren plaza guztien ia %16. Gainerako zentroek (denera, 183) – hainbat ostatu kolektibo eta etxebizitza modalitatez osatutakoak– denera 2. 504 plaza eskaini zituzten, eta aldi baterako etxebizitza bat utzi zieten 1. 975 pertsonari.

Lurraldearen ikuspuntutik, nabarmentzekoa da Gipuzkoako eta Arabako estaldura pixka bat handiagoa dela eta Bizkaikoarekin alderatua: Gipuzkoan 1,54 plaza daude 1. 000 biztanleko; Araban, 1,36; eta Bizkaian 1,22. Bestalde, Euskadiko datuak Estatuako gainerakoekin konparatuz gero, ikus daiteke Euskadiko estaldurak (1,36 plaza 1. 000 biztanleko) nabarmen gainditzen duela gainerako autonomia-estatuena eta Estatu osoari dagokiona (0,43) baino 3,1 aldiz handiagoa dela. Euskadin Estatuako biztanleen % 4,7 baino ez dira bizi, eta Euskadin dauden plazek etxerik gabeko pertsonentzako dauden goitza-eskaintzaren % 14,8 osatzen zuten 2016an.

10. grafikoa. Etxerik gabeko pertsonentzako ostatua ematen duten zentroyen estaldura, autonomia-erkidegoen arabera. 2016
(1. 000 biztanleko plaza kopurua)



Oharra: grafikoa ez dira sartu Ceuta eta Melillako estaldurak (7,3 eta 13,6 hurrenez hurren), baina guztizkoan zenbatu dira.

Iturria: Eustat. Etxerik gabeko pertsonentzako baliabideei buruzko inkesta. 2016.

Eustaten EGPBERen bilakaeraren datuak 2012-2016koak badira ere –tarte horretan ostatu-plazek % 9,1 egin zuten gora–, beste iturri batzuen arabera (esate baterako, Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekin-

⁶⁵ Datu hauek 2016ko abenduaren 15ekoak dira, eta une horretan aktibatuta zeuden hotzaren aurka neguko eskaintza indartzen duten zentroak.

tzaren Estatistika), azken hamar urteotan gizarte-bazterkerian dauden pertsonentzako egoitza-eskaintzek % 67 egin du gora⁶⁶.

Etixerik gabeko pertsonentzako zentroi dagokienez, Euskadik eguneko arreta okupazional eta/edo gizarte-hezitzailea ematen duten 29 zentro ditu, eta denera 1.084 plaza eskaintzen dira horietan. Plaza horiei beste zentro batzuek ematen duten eguneko plazak gehitzen badizkiegu (batez ere ostalua ematen duten zentroak, baina gizarte-jantoki batzuk ere bai), emaitza 2.210 plaza dira (ikus 6. taula). Egoitza-plazen hornidurarekin gertatzen ez den moduan, kasu honetan Bizkaiko estaldura (1,19 plaza 1.000 biztanleko) handiagoa da beste bi lurraldeetako baino (Gipuzkoan 0,88 eta Araban 0,66). Eguneko zentroz gain, EAEk 8 gizarte-jantoki ere baditu, 1 Araban, 5 Bizkaian eta 2 Gipuzkoan, eta 2.013 plaza eskaintzen dituzte. Horrez gain, kalean esku hartzeko zerbitzua ematen duten 6 zentro daude aterperik gabeko pertsonentzat; horietatik 4 Bizkaian daude eta gainerako biak Gipuzkoan eta Araban.

Etixerik gabeko pertsonentzako arretak 47 milioi euroko gastua eragiten du urtean

Baliabide horiei eusteko egiten den ahalegin ekonomikoari dagokionez, EAEko gizarte-zerbitzuen sareko etxerik gabeko pertsonentzako arretak ia 47,5 milioi euroko gastua ekarri zuen 2016an, eta administrazio publikoek finantzatu zuten gehienbat (40,2 milioi euro).

Eginiko gastu publikoa bakarrik kontuan hartuz, etxerik gabeko pertsonentzako arreta-sareak gizarteratzeko gizarte-zerbitzuen gastu publiko osoaren % 46 inguru hartzen du (prestazio eta laguntza ekonomikoak alde batera utzita), eta EAEko gizarte-zerbitzuen gastu publikoaren % 2,2⁶⁷.

21. taula. EAEko eta Espainiako etxerik gabeko pertsonentzako zentrozen gastua eta finantzaketa. 2016

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Hiriburuak bakarrik	EAE, guztira	Espainia
Gastua (milaka euro)	6.731	25.644	15.079	38.354	47.455	314.146
Finantzaketa publikoa (%)	98,1	81,4	84,3	84,9	84,7	-
Gastua biztanleko (euro)	20,8	22,3	21,0	49,4	21,7	6,7

Iturriak: Eustat. Etxerik gabeko pertsonentzako baliabideei buruzko inkesta. 2016; INE. Encuesta sobre centros y servicios de atención a personas sin hogar. 2016.

Espainian eginiko gastuaren eta EAEn eginikoaren arteko konparazioak eta EAE osoan eta hiru hiriburuetan eginikoaren arteko konparazioak hiru datu interesgarri jartzen ditu agerian: kontsultatutako estatistika-datuekin bat etorritik, hiru lurraldeetako gastua antzekoa da (pertsonako 20 euro inguru), eta Espainiakoa baino hiru aldiz handiagoa da. Hiriburuetan dauden zentroetan egindako gastuak, ordea, bikoiztu baino gehiago egiten du EAE osoan egiten dena, eta Estatuan egiten dena baino sei aldiz handiagoa da.

⁶⁶ Estatistika honen arabera (Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikokoak egin zuen 2005. eta 2015. urteen artean), egoitza-bazterkeriaren arloan eskaintzen ziren egoitza-plazek ia % 100 egin zuten gora: 1.638 plazatik 2.733 plazara.

⁶⁷ Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikokoak eginiko Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistikaren arabera, gizarte-bazterkeria arlora bideratutako gastu publikoak (prestazio eta/edo laguntza publikoak zenbatu gabe) ia 104,2 milioira egin zuen gora 2015ean, eta gizarte-zerbitzuetako gastu publiko arruntak guztira, 1.791,8 milioi eurora.

Hiriburuetan pilatzen da batez ere arreta-sarea

Ettxegabetasuna eta, zehazki, kalean lo egiten duten eta bizi diren pertsonen jasaten duten egoitza-bazterkeria egoera hiri-fenomenotzat hartu da bakarrik, bereziki hiri handiei lotutakoa. Hala eta guztiz ere, nahiz eta ukazina den hiriek dutela egoitza-bazterkeria egoeran dauden pertsonak erakartzeko gaitasunik handiena, azpimarratu beharra dago hiriburuetan daudela ettxerik gabeko pertsonentzako eguneko baliabide gehienak eta ostatua eskaintzen duten baliabide gehienak. Alde horretatik, ettxerik gabeko pertsonentzako baliabideei buruzko 2016ko Inkestaren datuek adierazten dute EAEko ettxerik gabeko pertsonentzako baliabideen gastu osoaren % 81 hiru hiriburuetan dauden baliabideetan zentratzen dela, nahiz eta hirietan EAEko biztanleen heren bat pixka bat gehiago baino ez den bizi.

Horniduren ikuspegitik, inkesta horrek adierazten dute osatua ematen duten zentroen % 57, eguneko zentroen % 83 eta gizarte-jantokien % 63 EAEko hiru hiriburuetakoa batean daudela. Zentroei erreparatu beharrean plazen banaketari erreparatu bazaio, proportzio horiek handiagoak dira, hau da, 2016an EAEko hiru hiriburuetan (urte horretan EAEko biztanleen % 35 biltzen zituzten) ostatua zuten zentroen ia % 70, eguneko zentroen % 82 eta gizarte-jantokien % 74 biltzen ziren⁶⁸.

22. taula. Ettxerik gabeko pertsonentzako plaza kopurua plaza motaren arabera, hiriburu eta lurralde historikoa 2016

		Ostatua		Eguneko arreta		Jantokiak	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Araba	Gasteiz	456	96,2	215	100,0	285	100,0
	Arabako gainerako udalerrriak	18	3,8	0	0,0	0	0,0
	Guztira	474	100,0	215	100,0	285	100,0
Bizkaia	Bilbo	1.060	76,0	1.201	88,0	964	79,9
	Bizkaiko gainerako udalerrriak	335	24,0	164	12,0	243	20,1
	Guztira	1.395	100,0	1.365	100,0	1.207	100,0
Gipuzkoa	Donostia	548	49,7	395	62,7	237	45,5
	Gipuzkoako gainerako udalerrriak	554	50,3	235	37,3	284	54,5
	Guztira	1.102	100,0	630	100,0	521	100,0
Euskadi	Hiriburuak	2.064	69,5	1.811	81,9	1.486	73,8
	EAEko gainerako udalerrriak	907	30,5	399	18,1	527	26,2
	Guztira	2.971	100,0	2.210	100,0	2.013	100,0

Iturria: EUSTAT. Ettxerik gabeko pertsonentzako baliabideei buruzko inkesta, 2016.

Hiriburuetan baliabide gehiago egoteak, ordea, alde handiak eragiten ditu lurraldeen artean. Araban, baliabide guztiak hiriburuan daude, hau da, Gasteizen; Bizkaian, ostatua duten zentroen % 66 eta eguneko zentroen % 81 Bilbon daude, eta Gipuzkoa da, gutxienez ostatua duten baliabideei dagokierik, hiriburuan baliabide gutxi duen lurralde historikoa; izan ere, baliabideen herena baino ez dago Donostian.

⁶⁸ 2014. eta 2016. urteen artean, murriztu egin da pixka bat hiriburuetakoa kontzentrazio hori, bai ostatua duten plazen kasuan (2014an hiru hiriburuetakoa batean biltzen ziren plaza horien % 71,1 eta 2016an % 69,5), bai eguneko arretaren plazetan (2014an % 84,7 eta 2016an % 81,9) eta jan-edanetan (2014an % 82 eta 2016an % 73,8).

Era berean, begi-bistakoa da eskualde eta udalerrri batzuetan baliabide gutxi daudela edo, are gehiago, baliabideak falta direla. 2016ko datuen arabera, hiru hiriburuetan dauden eskualdeak kontuan hartu gabe, hiruk bakarrik zituzten negurako aterpetxe edo unitateak: Durangaldeak, Tolosaldeak eta Urola Kostak.

Bigarren mailako arretako egoitza-zentroek, pisu handiagoa

Etixerik gabeko pertsonentzako gaur egungo egoitza-arreta sarearen ezaugarrietako bat da protagonismoa handiagoa dutela bigarren mailako zerbitzuek, lehenengo mailakoek baino. Lehen adierazi dugun bezala, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen katalogoak, oro har, udalei esleitzen dizkie lehen mailakotzat jotzen diren zerbitzuak, eta foru-aldundiei esleitzen dizkie bigarren mailako arretatzat jotzen direnak. Gaur egungo araudi-esparruaren arabera, lehen mailako arretari dagozkio gaueko harrerako zerbitzua (1. 8) eta bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitza (1. 9. 2); bigarren mailako arretan, berriz, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuak (urriaren 6ko 185/2015), gizarte-bazterkeriari lotutako beharrei erantzuteko gaueko harrera-zentroaz gain, bazterkeria- eta marjinalizazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak (hainbat modalitatekoak) aurreikusten ditu.

Etixerik gabeko pertsonentzako baliabideei buruzko Inkestatik abiatuta⁶⁹ ezin da baliokidetasun bat ezarri eragiketa honek sartzan duen egoitza-zerbitzuen tipologiaren eta 12/2008 Legearen Katalogoan aurreikusten diren ostatu-modalitateen artean, baina argi ikus daiteke bigarren mailako arretak protagonismoa duela; izan ere, aterpetxeetan plaza guztien % 12 baino ez daude, eta, jakina den moduan, tutoretzapeko etxebizitza oso gutxi ezarri dira oraindik. Hala ere, zehaztu behar da EGPBEk zenbatutako 2. 513 plazen barruan sartzan direla orain arte polibalenteak izan diren udalen harrera-pisu batzuk; izan ere, herritar guztien larrialdi-egoerei ez ezik bazterkeria-egoeran dauden pertsonen beharrei ere erantzuten diete.

23. taula. Etixerik gabeko pertsonentzako ostatu-plaza kopuruaren banaketa, zentro motaren arabera. EAE 2014

	Kopurua*	Banaketa bertikala (%)
Gaueko harrera-zerbitzua	549	21,8
Harrera-zentroa	170	6,8
Berehalako harrerarako pisua, apartamentua (larrialdia)	284	11,3
Aldi baterako egonaldi edo harrerarako pisua, apartamentua	642	25,5
Gizarteratzeko pisua, apartamentua (egonaldi mugagabea)	596	23,7
Egonaldia.	272	10,8
Guztira	2. 513	100,0

* Taula honetan ez dira sartzan indarkeria matxistaren emakume biktimenzako zentro espezifikoei dagozkien plazak.
Iturria: Eustat. Etixerik gabeko pertsonentzako baliabideei buruzko inkesta, 2014.

⁶⁹ 2014ko datuak ematen dira, taula hau betetzeko balio duten 2016ko datuak ez direlako Eustaten webgunean argitaratu, eta *ad hoc* ustiapen estatistiko bat beharko lukete.

Bazterkeriarako gizarte-zerbitzuetako gastu kopuruaren eta egituraren arteko aldeak

Beste ikuspegi batetik, bigarren mailako arretaren gailentasuna argi ikus daiteke, era berean, administrazio publiko desberdinek gizarteratzeko gizarte-zerbitzuetan egiten duten gastuan. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistikaren arabera, 2015ean gizarteratzeko zentroetako eta gizarte-zerbitzuetako gastu publikoa 37,9 milioi eurora igo zen⁷⁰. Zenbateko horren %56,6 foru-aldundiek finantzatu zuten, eta % 31,2 udalek.

24. taula. Gizarteratzeko zentro eta gizarte-zerbitzuetako gastua, finantza-erakundeen eta lurralde historikoen arabera. 2015


	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
	Euroak	%	Euroak	%	Euroak	%	Euroak	%
Udalak	4.820.069	70,1	4.034.343	23,7	2.963.348	21,1	11.817.760	31,2
Foru-aldundiak	1.371.960	20,0	10.475.884	61,6	9.624.089	68,6	21.471.933	56,6
Eusko Jaurlaritza	635.037	9,2	2.294.722	13,5	1.439.160	10,3	4.368.919	11,5
Administrazio zentrala	44.295	0,6	214.564	1,3	0	0,0	258.859	0,7
Guztira	6.871.361	100,0	17.019.513	100,0	14.026.597	100,0	37.917.471	100,0
<i>Per capita</i> gastua	21,2		14,8		19,6		17,3	

Iturria: Organo Estatistiko Espezifikoa. Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika. 2015.

Hala eta guztiz ere, alde handiak daude lurraldeen artean foru-aldundiek zerbitzu horiek finantzatzeko egindako ahaleginean. Aipatutako estatistikaren arabera, Bizkaian eta Gipuzkoan foru-gastua udal-gastua baino handiagoa da, baina Araban ez; izan ere, gastu publikoaren % 70 udalei dagokie. Bizkaia eta Gipuzkoa ez bezala, Araba da lurralde bakarra udalek aldundiek baino finantzaketa handiagoa egin dutena (kasu honetan, Gasteizko Udalak, Araban hiriburuan baitaude zerbitzu horien ia guztiak), eta ez soilik aterpetxeetan, gizarte-jantokietan eta eguneko zentroetan, baita ostatua duten gainerako zentroetan ere. Hurrengo grafikoan ikus daiteke zenbateraino bereizten den Arabako ereduak Gipuzkoakoarekin eta Bizkaikoarekin konparatuta: Araban, hiriburuko udalak du protagonismoa, eta beste bi lurraldeetan, berriz, foru-aldundiek.

⁷⁰ Datu hauetan sartzen da zentro mota hauetara bideratutako gastu publikoa: bazterkeria/marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako ostatua eta egoitza-zentroak; beste ostatu-zerbitzu batzuk edo aldi baterako laguntza-zerbitzu batzuk; gizarteratzeko beharrei erantzuteko gaueko harrera-zentroak; gizarteratzeko beharrei erantzuteko eguneko zentroak; eta gizarte-jantokiak. Ez dira sartzen gizarteratzeko beste zentro mota batzuk, besteak beste, bazterkeria-egoeran dauden taldeentzako gizarteratze-zentroak, eta laneratzeko zentroak.

11. grafikoa. Pertsona bakoitzeko udal- eta foru-gastua gizarteratzeko zentro eta gizarte-zerbitzuetan, zerbitzu motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2015



Iturria: Organo Estatistiko Espezifikoa. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika. 2015

Ostata-sareak, espezializazio altua

Aurrekoarekin lotuta, nabarmentzekoa da Euskadiko etxerik gabeko pertsonentzako ostata-sareak duen espezializazio altua; esate baterako, baliabide berezituak dituzte hartzaileen behar espezifikoerantzuteko. 2014ko EGPBERen arabera⁷¹, Euskadiko etxerik gabeko pertsonentzako 195 egoitzazentzuen % 62,6 egoera edo arazo zehatz batera dago zuzenduta espezifikoki. Gainerakoak, zentro guztien herena baino gehiago (plaza guztien % 47,1), ez dago talde edo arazo espezifiko batera zuzenduta. Arreta maiztasun handienarekin jasotzen duten lehentasunezko arloen artean, honako hauek nabarmentzen dira: immigrazioa (plaza guztien % 13,1), genero-indarkeria (% 11,6) eta hainbat substantziarekiko adikzioa (% 8,6). Eta buru-nahasmendua duten pertsonentzako arreta espezifiko da maiztasun gutxienarekin ematen dena (% 3,3).

⁷¹ 2014ko datuak ematen dira, taula hau betetzeko balio duten 2016ko datuak ez direlako Eustaten webgunean argitaratu, eta ad hoc ustiapen estatistiko bat beharko lukete.

25. taula. Ostatu-plazen eta -zentroen banaketa, lehenetsuneko biztanle motaren arabera.

EAE 2014

	Zentroak		Plazak	
	Kop.	Guztizkoaren %	Kop.	Guztizkoaren %
Lehenetsuneko biztanleriarekin	122	62,6	1.467	52,9
Espetxetik ateratzea	10	5,1	101	3,6
Drogekiko eta alkoholarekiko adikzioa	22	11,3	239	8,6
Immigrazioa	22	11,3	363	13,1
Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak	29	14,9	321	11,6
Harrera-zentroetako adingabeak adinez nagusi bihurtzea	18	9,2	188	6,8
Buru-nahasmendua	4	2,1	91	3,3
Beste batzuk	17	8,7	164	5,9
+ GIB-hiesa duten gaixoak	4	2,1	(--)	(--)
+ Emakume kalteberak	9	4,6	(--)	(--)
+ Prostituzioa	2	1,0	(--)	(--)
+ Beste egoera batzuk	2	1,0	(--)	(--)
Lehenetsuneko biztanleriarik ez	73	37,4	1.304	47,1
Guztira	195	100,0	2.771	100,0

(--) Estatistikako sekretupeko datuak.

Iturria: Eustat. Etixerik gabeko pertsonentzako baliabideei buruzko inkesta, 2014.

Hirugarren gizarte-sektoreak pisu handia du baliabideen kudeaketan

Historikoki hirugarren gizarte-sareko erakundeek garrantzi berezia izan dute etxerik gabeko pertsonentzako arreta-sarea eraikitzen, batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan, eta pixka bat gutxiago Araban. Gaur egun, etxerik gabeko pertsonentzako hamar zentrotatik seik baino gehiagok (% 61,5) hirugarren sektoreko erakunde bat dute titular gisa. Gainera, ostatu-plazen % 56 eta eguneko arreta-zentroetako eta jantokietako plazen % 70etik gora (% 79 eta % 74, hurrenez hurren) titulartasun pribatuko zentroetan daude.

26. taula. Zentro, plaza, erabiltzaile eta langile kopurua eta kopuruaren banaketa, zentroen titulartasunaren arabera. EAE 2016

	Kopurua			Banaketa horizontala (%)		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Zentroak	94	150	244	38,5	61,5	100,0
Plazak						
- Ostatuak	1.323	1.648	2.971	44,5	55,5	100,0
- Jantokiak	529	1.484	2.013	26,3	73,7	100,0
- Eguneko zentroak	470	1.740	2.210	21,3	78,7	100,0
Ostatu hartutako pertsona kopurua	935	1.466	2.401	38,9	61,1	100,0
Langileak, guztira	412	1.700	2.112	19,5	80,5	100,0
Langileak, sexuaren arabera						
- Gizonak	128	595	723	17,7	82,3	100,0
- Emakumeak	284	1.105	1.389	20,4	79,6	100,0
Langileak, loturaren arabera						
- Soldatapeko langileak	344	772	1.116	30,8	69,2	100,0
- Langile boluntarioak	24	829	853	2,8	97,2	100,0
- Langile azpikontratatuak	40	35	75	53,3	46,7	100,0
- Beste langile batzuk	4	64	68	5,9	94,1	100,0
Gastuak (milaka euro)	14.382	33.073	47.455	30,3	69,7	100,0
Finantzaketa publikoa (%)	100	78	85	--	--	--

Iturria: Eustat. Etixerik gabeko pertsonentzako baliabideei buruzko inkesta, 2016.

5.3. Etixerik gabeko pertsonentzako Euskadiko gaur egungo arreta-eredua: ahulgune nagusiak eta hobetzeko arloak

Aurreko kapituluetan, EAEko etxegabetasunaren intzidentziari buruzko datuak eta horien bilakaera, etxerik gabeko pertsonen profila eta haien beharrak eta kolektibo horri arreta emateko sarearen ezaugarri nagusiak aztertu dira. Epigrafe honetan, berriz, etxerik gabeko pertsonentzako Euskadiko arreta-ereduaren elementu nagusiak aztertuko dira –ikuspegi kualitatiboago batetik–, eta eredu horren ahulguneak eta hobetzeko arloak nabarmenduko dira. Sarreran adierazi den moduan, orrialde hauetan jasotzen den diagnostikoa egiteko, gaiari buruzko dokumentazioa kontsultatu da, elkarriketak egin dira eta aurreko orrialdeetan deskribatutako datuak aztertu dira.

Estrategia bat definitu aurreko edozein diagnostikotan bezala, atal hau ereduaren ahulguneetan zentratuko da batez ere, baina lehenik eta behin, komeni da adieraztea zein diren ereduaren indarguneak ere. Navarrok eginiko analisiarekin bat etorritz (2013), hona hemen ereduaren indarguneak:

- Gizarte-bazterkeriaren kontrako eta gizarteratze-planei buruzko askotariko legeak. Lege horien bitartez, gaiari buruzko corpus teoriko eta praktikoa bat sortu da, eta horiei esker, aurre-rapen garrantzitsuak egin dira azken hamarkadetan.
- Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea (12/2008), talde politiko guztiek adostutakoa. Lege horretako esku-hartze eta arreta eredu komunitarioa da, eta oinarrizko gizarte-zerbitzuak sistemarako sarbide gisa kokatzeaz gain, babes-, autonomia- eta gizarteratze-beharrei erantzuteko ardura ematen die. Egia da legeak ez dituela bere tresna nagusiak garatuta (Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroa eta Gizarte Zerbitzuen Mapa), baina horrek aukera emango du etorkizunean legea zehaztean etxerik gabeko pertsonentzako arreta eraginkorra kontuan hartzeko⁷².
- Gizarte-erakundearen sare sendoa. Esperientzia handia du gaian, eta gero eta koordinazio handiagoa dute beren artean. Horiei egitasmo interesgarri batzuk batzen zaizkie, esate baterako, etxerik gabeko pertsonen eskubideak aldarrikatzen dituzten plataformak sortzea; izan ere, eztabaida maila politiko batean kokatzeko aukera ematen dute, arreta asistentzialista hutsaz harago⁷³.
- Gutxieneko errenten politikak, (diru-sarrerak bermatzeko errenta, adibidez) eta gizarteratze laguntza bereziak. Nolabaiteko ibilbide historikoa eta onarpen sozial eta instituzionala dute. Azken urteotan atzera egin duten arren (mugak jarri dira horiek eskuratzeko eta murrizketak egin dira prestazioetan), funtsezko tresna dira oraindik ere gizarte-bazterkeriaren aurka egiteko.
- Etxebizitzaren zerbitzu publikoa (Etxebide). Etxebizitza publiko ugari daude eraikita, eta esperientzia du alokairuko merkatu libreko bitartekaritzan (Bizigune programa).
- Erakunde-egitura konplexua, baina nolabaiteko autonomia duena –baita legegilea ere– Gobernu zentralarekiko. Hori lagungarria da Euskadiko errealitate sozial zehatzarekin bat datozen politikak abiarazteko.
- Ezagutza sortzeko eta bertan aurrera egiteko unitateak, besteak beste honako hauek: SIIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa, *Zerbitzuan* aldizkaria, Arabako Gizarte Zerbitzuen Behatokia, Gipuzkoako Gizarte Behatokia, eta Eusko Jaurlaritzako hainbat behatoki (etxebizitzarena, haur eta nerabeena, familiarena, gizarte-zerbitzuena, immigrazioarena, gazteriarena, droga-mendekotasunena).

⁷² Navarroaren analisia (hitzez hitz jasotzen da), 2013an egin zen.

⁷³ Horren adibide bat da Bilboko BesteBi Plataforma (<<http://www.bestebi.net/>>).

- Kalitatezko osasun-zerbitzu publikoa (Osakidetza), kualifikazio handiko profesionalak dituen.

Nolanahi ere, aurreko diagnostikoa eguneratze aldera, **hiru lege autonomiko aipatu behar dira indargune nagusi gisa: etxebizitzarena, gizarte-zerbitzuena eta diru-sarrerak bermatzekoa. Izan ere, etxebizitza bat eta gizarteratzeko laguntza ekonomiko eta sozialak izateko eskubide subjektiboa ezartzen dute, horiek lortzeko baldintzak betetzen dituztenentzat.** Zalantzarik gabe, hiru lege horiek oinarri solido bat dira Euskadin etxegabetasuna desagerrarazteko edozein estrategiatan aurrera egiteko. Hala ere, indargune horiek adierazi ondoren, ahulguneak aztertuko dira, lehenik eta behin sistema osoarenak eta, gero, zehatzago, gizarte-zerbitzuen sistemari lotutakoak.

Funtsean gizarte-zerbitzuen bitartez eusten da eredua

Dokumentu honen hasierako kapituluan adierazi da bi modu nahiko kontrajarri daudela etxegabetasuna ulertzeko, eta, ondorioz, berau prebenitzeko edo desagerrarazteko politikak diseinatzeko. Lehenengoa da agian tradizionalena, eta horren arabera, etxegabetasuna hainbat kausaren konbinazio baten ondorioa da, eta kausa horiek lotuago daude pertsonen gabezia ekonomiko, erlazional edo psikosozialei etxebizitza faltari baino, zorrotz esanda. Ikuspegi horretatik, egoitza-bazterkeria larria eta gizarte-bazterkeria parekatu egiten dira, eta horren ondorioz, gizarte-bazterkeria egoerarako unitateen bitartez esku-hartzen da etxegabetasunaren aurrean, hau da, Gizarte Zerbitzuen bitartez, unitate horri eman baitzaio tradizioz eginkizun hori. Bigarren planteamenduaren abiapuntua da etxegabetasuna etxebizitza bat lortu ezin izatearen ondorioz sortzen dela, eta lehen adierazitako etxebizitzan oinarritutako politiken bitartez (*housing led policies*) artikulatzen da –askotan egoera horien jatorrian dauden arazo indibidualak alde batera utzi gabe–.

Tradizioan Euskadin, etxegabetasunaren arazoari aurre egiteko, arazoaren bi interpretazio hauetako lehenengoan oinarritutako erantzuna eman da; horrenbestez, gizarte-zerbitzuen sistemak egin du ahalegin handiena eta zerbitzu honen baliabideekin egin zaie aurre egoera horiei. Euskadin etxegabetasuna gizarte-zerbitzuen bitartez baino ez tratatzeak zenbait zailtasun dakartza:

- Alde batetik, etxerik gabeko pertsonenganako arretak mendekotasun handiegia du Gizarte Zerbitzuen eta, zehatzago, gizarte-bazterkeria artatzeko gizarte-zerbitzuen ekintza-gaitasunarekiko, baliabide materialekiko eta antolakuntza-formulekiko. Azken urteotan nabarmen hazi den arren, gizarte-zerbitzuen sistemak eta, zehatzago, egoitza-bazterkeriara bideratutako gizarte-zerbitzuek hainbat muga dituzte, eta beste babes-sistema batzuek baino garapen-maila askoz ere baxuagoa dute (osasuna, hezkuntza eta mendekotasuna eta mendekotasunerako arretaren gizarte-zerbitzuan).

- Bestalde, kontu hau gizarte-zerbitzuen arloan kokatzeak etxegabetasuna, egoitza-bazterkeria eta gizarte-bazterkeria parekatu egiten ditu, nahiz eta berez hiru kontzeptu desberdin diren. Nahasketa horren ondorio praktikoa da egoitza-bazterkeria jorratzean gizarte-bazterkeriaren kontrako sistemen helburu eta balioek eragina izaten dutela: kasu horietan, eta arlo horretako paradigma berriak aztertzean adierazi den moduan, gizarteratzeko helburu orokorra gailendu egiten da, oro har, etxebizitza bat beren baliabideekin eskuratu ezin duten pertsonen aldi baterako edo behin betiko etxebizitza bat emateko helburuaren gainean.
- Gainera, gero azaltzen den moduan, Gizarte Zerbitzuek etxegabetasunari ematen dioten erantzuna gehiegi oinarritzen da larrialdietako baliabideetan eta egonaldi laburreko edo er-taineko egoitza-ostatueta, eta ez hainbeste ohiko etxebizitzetarako behin betiko sarbidea ematean.

Etxebizitza-politiken zailtasunak etxerik gabeko pertsonen beharrei erantzuna emateko

Hala ere, aurreko horrek ez du esan nahi Gizarte Zerbitzuetatik bakarrik eman zaiela erantzuna etxerik gabeko pertsonen beharrei, bereziki fokua prebentzio-neurrietara zabaltzen bada. Etxebizitzarako eta diru-sarrerak bermatzeko politiken bitartez funtsezko jarduketak egin izan dira etxegabetasuna prebenitzeko, eta nabarmen lagundu dute EAEn fenomeno honen intzidentzia murrizten. Alde horretatik, erreferentzia egin behar zaie gizarte-zerbitzuen eta diru-sarreraren bermearen arloan kudeatzen diren Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzaren prebentzio-funtzioari, edo etxebizitzaren araudiak babes ofizialeko etxebizitzak gizarte-bazterkeria arrisku handiena duten kolektiboek esleitzeko dituen xedapenei.

Alde horretatik, gizarte-bazterkeriaren arloan eragina duten etxebizitza-politiken esparruan dauden neurriak aztertuta, agerian geratu da hainbat programa, neurri eta laguntza-ildo daudela, nola autonomia-erkidego mailan hala udal-mailan. Horri dagokionez, zenbait egitasmo interesgarri aipa daitezke: besteak beste, babes ofizialeko edo errentamendu-araubideko etxebizitza bat etxebizitza izateko behar berezia duten bizikidetzak-unitateei⁷⁴ zuzenean esleitzeko neurriak; sustapen publikoko etxebizitza bat eskuratzeko eskaeretan profil jakin batzuk⁷⁵; etxebizitza eskuratzeko baldintzetatik salbuestea; familien gainzorpetzeari laguntzeko zerbitzua, Justizia Sailak garatutakoa; 35 urtetik beherako gazteen eta gizarte- eta ekonomia-desabantaila egoeran dauden pertsonen artean pisua konpartitzeko programa pilotua; eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren, Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Euskal Udalerrien Elkartearen artean sinatutako Lankidetzak Hitzarmena, familia-etxebizitza bat ateratzean kalteberatasun-kasuak hautemateari buruzkoa, neurri sozialak hartu ahal izateko. Azpimarratu beharrekoak dira, logikoki, alokairu sozialeko parke publikoa areagotzeko egin diren ahaleginak, Bizigune alokairu sozialaren programaren kudeaketa eta Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa programa (ASAP). Neurri horiek guztiak eraginkorrak izan dira Euskadin etxegabetasunaren fenomenoaren prebenitzeko.

Halere, ezin da aipatu gabe utzi etxebizitzaren arloko politika publikoak ez direla nahikoa erabili etxerik gabeko pertsonen egoerari erantzuna emateko (ETHOS tipologiaren arabera definitutakoak); izan ere, urte askoan gutxieneko diru-sarrera maila bat duten pertsonen baina ez zaie eman aukera jabetzako sustapen publikoko etxebizitzak eskuratzeko. Hori dela eta, pentsa daiteke, lehen esan den moduan, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015eko Legea onartu izanak aldaketa ekar dezake-

⁷⁴ Etxebizitza galtzea, hipoteka betearazteko prozesu batean; etxegabetzea errentamendua ez ordaintzeagatik; genero-indarkeria; terrorismoa, ordezko bizitokia ematea, etab.

⁷⁵ Gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzen ez dituzten etxebizitzetan bizi diren bizikidetzak-unitateak; banantze- edo dibortzio-prozesu baten ondoren edo izateko bikotea iraungi ondoren etxebizitza ezkontideari edo izateko bikotekideari egokitu zaiola-eta etxea galdu duten pertsonak; hipoteka betearazteko prozedura baten ondorioz etxebizitza galdu duten pertsonak; etxebizitza irisgarria ez duten 70 urtetik gorako pertsonak; pertsonako 15 metro koadrotik beherako azalera erabilgarria duten etxebizitzak; etxebizitza irisgarria ez duten eta mugikortasun urri iraunkorreko pertsonak, etab.

ela kontu honi dagokionez⁷⁶, baina azpimarratu beharra dago zailtasunak daudela etxebizitzaren politika publikoak etxegabetasunaren ikuspegitik diseinatzeko eta gauzatzeko orduan.

Edonola ere, lehen adierazi den moduan, Etxebizitza duin bat legez okupatzeko edo etxebizitzaren prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubide subjektiboa arautzen duen dekretu-proiektuak (oraindik amaitu gabe dago) hobekuntza batzuk sartu ditu lehendik hasitako garapen batzuetan, prestazioa eskuratzeko irizpideei dagokienez. Hala, lehen indarrean zegoen araudian jasotako zenbait baldintza aldatu dira: Etxebizitza Babestuen edo Zuzkidura Bizitokien Eskatzaileen Erregistroan izena emateko hiru urteko gutxieneko epe bat ezarri da, gutxieneko diru-sarrera batzuk izateko baldintza kendu da eta, gainera, atzerriko herritartasuna duten pertsonen legezko egoitzari lotutako mugak kendu dira.

Bestalde, apenas garatu diren Euskadin Gizarte Zerbitzuen Legean jasotako aukerak, foru-aldundiek eta udalek erakunde publikoei besterentzeko diren babes ofizialeko etxebizitzak erreserbatu ahal izan ditzaten eta, hala, beren eskumeneko gizarte-zerbitzuetako ekipamenduak sor ditzaten. Egia da Etxebidek etxebizitzak laga izan dizkiela beste erakunde publiko eta pribatuei gizarteratzeko egoitza-programak egin ditzaten, baina ez dira esku-hartze mistoko eredu nahikoa garatu, non etxebizitza arloko administrazio-eskudunek beren gain hartzen duten etxerik gabeko pertsonen etxebizitza bat bermatzeko betebeharra; gizarte-zerbitzuen arloko administrazio eskudunek, berriz, beren gain hartzen dute bizitza autonomo bat izateko behar diren gizarte-laguntzak eskaintzeko ardura (gizarte-laguntza ibiltariak, lehen ikusi dugun moduan).

Ez da garatu Gizarte Zerbitzuen Legearen 56. artikulua ere, honako hau dioena: *“Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari dagozkion prestazioen izendapena ez duten prestazio teknikoak zerbitzu horrek hornituko ditu, Katalogoan sartutako zerbitzuen esparruan eskaintzen direnean, baina zerbitzu horien finantzaketa beste sistema publikoei egokituko zaie –prestazio horiei dagozkien sistemei, hain zuzen ere–, bai eta, sistema horietan hala aurreikusten bada, erabiltzaileari ere”*. Xedapen hori funtsezkoa izan daiteke aintzat ematen den heinean etxerik gabeko pertsonen bi behar desberdin dituztela – etxebizitza beharra, lehenik, eta gizarte- eta hezkuntza-laguntza eta laguntza psikosoziala, bigarrenik– eta bi beharrak ez dituztela zertan, kasu guztietan, gizarte-zerbitzuen sistemak bete behar.

Azken batean, azpimarratzekoa da EAEko etxebizitzaren arloko araudi berria garrantzitsua izan daiteke ere etxegabetasuna prebenitzeko –alokairu sozialaren alde egiten baitu eta etxebizitza izateko eskubide subjektiboa aitortzen baitio biztanleriaren sektore garrantzitsu bati–, oraindik garatu beharra dagoela etxegabetasuna desagerraraztera bideratuta dagoen etxebizitza ardatz duen sistema bat eraikitzeko, aurreko orrietan deskribatutakoaren antzekoa.

Osasun-arloan etxerik gabeko pertsonen beharrei erantzun egoki bat emateko zailtasunak

Aurreko orrietan adierazitako datuek argi utzi dute etxerik gabeko pertsonen gaixotasun gehiago eta larriagoak jasaten dituztela. Edozein motatako osasun-arazoak izan daitezke, baina bereziki honako hauek izan ohi dira: osasun mentalarekin lotutakoak, hepatitis eta GIB, zirkulazio-sistemako gaixotasunak eta traumatismoak eta gaixotasun osteoartikularrak). Osasun-arazoei eta osasun-unitatek etxerik gabeko pertsonen behar espezifikoetara egokitzeari dagokionez, elkarriketetan arazo edo behar handi hauek adierazi dira:

⁷⁶ Alde horretatik, adierazi behar da Legeak zuzkidura-bizitokiaren figura indartzen duela, zeina interes-bide bat baiten etxegabetasuna desagerrarazteko politikak egiteko. Zuzkidura-bizitokiaren helburua da “aldi baterako konpontzea, errenta edo kanona ordainduz, pertsonen edo bizikidetzaren unitateen logela-beharra”, eta, ahal dela, babes berezia behar duten kolektiboetara bideratzen dira, besteak beste, honako hauetara: genero-indarkeriaren biktime diren emakumeak, adineko pertsonak, etxebizitzarik gabeko pertsonak, desgaitasun fisiko, psikiko eta intelektuala dutenak eta antzeko egoeraren batean daudenak”. Hala ere, Legeak ere ezartzen du ostatu horiek aldi baterako direla, eta horrek zaildu egiten du, lehen adierazi den moduan, ostatu horiek etxebizitza modu iraunkor batean eskuratzeko oinarritutako etxegabetasunaren prebentzio-politika baterako aprobetxatzea.

- Oro har, adierazi da osasun-sistema osoak gai izan behar duela bere laguntza, antolakuntza eta profesionalak etxerik ez duten eta, askotan, tratamendu bat jarraitzeko edo bizi-osa-suntsu bateko ohiturak izateko baliabide pertsonalik ez duten pertsonen egoerara egokitzeko. Ikuspuntu horretatik, pentsamolde-aldaketa baten falta sumatzen da –gutxienez gizarte-zerbitzuen arloan lan egiten duten pertsonen– osasun-sistema osoan, hau da, gaitasun handiagoa egon beharko litzateke osasunaren gizarte-mugak aitortzeko eta, kasu honetan zehazki, etxerik gabeko pertsonen beren osasun-arazoak tratatzeko eta beste kolektibo batzuetan aintzat ematen diren bizi-ohitura batzuk hartzeko dituzten zailtasun espezifikoak aitortzeko.
- Ikuspegi zehatzago batetik, eta zerbitzu soziosanitarioan zorro bat gauzatzeko beharra kontuan hartu gabe, adierazi da gutxienez bi programa soziosanitario finkatu beharko liratekeela, kontuan hartuta artatzen dituzten arazoak larriak direla eta orain arte ildo horretan egin diren esperientziek emaitza ona eman dutela: alde batetik, kontsultatutako pertsona gehienek defendatu dute patologia mentala duten etxerik gabeko pertsonentzako arreta psikiatriko anbulatorioko programak hiru hiriburuetara eta gainerako biztanleria-nukleo handietara zabaldu beharko liratekeela⁷⁷; beste alde batetik, adierazi da etxerik gabeko pertsonen gaixondo-egoerak behar bezala estaltzeko aukera ematen duten egoitza-baliabideak sortu beharko liratekeela eta ospitaletako baliabideetatik alta emateko prozedurak hobetu.

Etixerik gabeko pertsonen gutxieneko errentak izateko dituzten zailtasunak, besteak beste erroldatzeko zailtasunen ondorioz

Euskadin etxerik gabeko pertsonen dituzten beharrak aztertzea, adierazi da etxerik gabeko pertsonen % 20k ez duela inongo diru-sarrerarik, lau pertsonatik hiru pobrezia-egoeran daudela diru-sarrerarik kontuan hartuta eta pertsona horien % 42k baino ez dutela prestazio ekonomiko publikoren bat jasotzen. Horrez gain, adierazi da pertsona horien % 82k ez dutela DSBE jasotzen, arrazoi hauengatik: ez duelako prestazioaren berririk (bazterkeria-egoeran dauden inkestatutakoen % 25), ez dutelako prestazioa jasotzeko baldintzak betetzen, batez ere gutxieneko erroldatzea dela-eta, edo beste diru-sarrera batzuk jasotzen dituztelako (inkestatutako pertsonen % 45).

Datu horiek agerian uzten dute diru-sarrerarik bermatzeko euskal sistemak zenbait neurri jarri beharko lituzketela martxan DSBE jasotzeko baldintzak betetzen ez dituzten pertsona guztiek DSBE jasotzeko erraztasunak izan ditzaten. Horrez gain, hausnartu beharra dago Euskal Enplegu Zerbitzuak zein gaitasun duen askotan enplegutik hain urrun dagoen kolektibo batekin esku hartzeko⁷⁸.

Nolanahi ere, DSBE jasotzeko baldintzak beteta ere DSBE jasotzen ez duten etxerik gabeko pertsonen arazoak harago, fokua DSBE objektiboki behar duten baina baldintzak betetzen ez dituztelako edo udal-erroldan izena emateko dauden zailtasunengatik⁷⁹ DSBE jaso ezin duten horiengan jarri behar da. Ikuspegi horretatik, etxegabetasunari aurre egiteko edozein estrategia etxerik gabeko

⁷⁷ 2016. urtetik, Bilbo udalerririk gaixotasun mental larriak dituzten etxerik gabeko pertsonentzako arreta psikiatrikoko programa du, udalerririk honetan bizi diren eta osasun mentaleko sare publiko estandarrik artatzen ez dituzten etxerik gabeko pertsonen artean osasun mental larriak artatzeko. Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareak, Bilboko Udaleko Gizarte Ekintza Arloak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak garatzen dute programa elkarlanean, eta honi esker, osasun mentaleko laguntzetarako egiturak malgutu eta egokitu egiten dira, esku-hartzeak nola zentrotan hala kalean egiteko. Diziplina anitzeko talde batek garatzen du programa, eta Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareak ematen du osasun-prestazioa –osasun-taldeak bi psikiatra, erizain bat eta gizarte-langile bat ditu, denak lanaldi partzialean– eta prestazio soziala Bilboko Udaleko Gizarteratzeko eta Gizarte Premietarako Sekzio programetako eta zerbitzuetako gizarte-langile eta hezitzaile talde batek.

⁷⁸ Egiaz, gizarte-zerbitzuen sistema ez zen erabat gai izan etxerik gabeko pertsonen erantzun egokia emateko –ez diru-sarrerarik bermatzearen ikuspuntutik, ez gizarteratzen laguntzeko ikuspuntutik– Diru Sarrerarik Bermatzeko Errenta unitate hark kudeatzen zuen garaian. Hala ere, DSBEren kudeaketa Lanbideri transferitu izanak eta 2011ko erreformaren ondoren lan-aktibazioari eman zaien enfasiak eta gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzuen artean gertatzen diren koordinazio-arazoak areagotu egin dituzte zailtasunak etxerik gabeko pertsonen diru-sarrerarik bermatzeko euskal sistemaren esparruan arreta egoki bat emateko.

⁷⁹ Lehen adierazi den moduan, kalean lo egiten duten pertsonen % 55 ez daude erroldatuta.

pertsonei erroldatzea errazteko neurriak jaso behar lituzke, bai erroldatze sozialeko programen bitartez, bai –hobe hau– pertsona hauei bizitzeko aukeraz gain erroldatzeko aukera emango dieten etxebizitza eta egoitza-zentroak eskura jarritz.

Azken urteotan murriztu egin da bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko baliabideen eskaintza, eta eskuragarri dauden baliabideen eskakizun-mailak altuak dira

Laneratzen laguntzeko zerbitzu eta programei dagokienez, pixkanaka murriztu egin da horrelako baliabideen eskaintza eta, bereziki, pixkanaka ahuldu egin dira bazterkeria-egoeran dauden pertsonei zuzendutako gizarte-enplegurako formulak (gizarteratzeko enpresak, Auzolan, etab.); horrez gain, gizarte-klausula gutxiago egiten dira, nahiz eta duela gutxi onartu zen Apirilaren 7ko 3/2016 Legea, Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzekoa.

Halaber, diagnostiko hau egiteko kontsultatu diren pertsonetako batzuek nabarmendu dute laneratzeko baliabideek mugak dituztela etxerik gabeko pertsonekin eta, oro har, gizarte-bazterkeria larrian dauden pertsonekin lan egiteko. Alde horretatik, azaldu dute okupazio-baliabideek eta lan egin aurreko baliabideek enplegu normalizatuarengandik gertuegi dauden arauak jarraitzen dituztela eta ez direla egokiak gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsona batzuentzat, bereziki buru-nahasmendu bat ere baduten horientzat edo gizarte-bazterkeria oso larrian daudenentzat. Hori dela eta, uste da profil horretako erabiltzaileentzat eguneko zentroen eta okupazio-zentroen erdibideko baliabide mota bat sortu beharko litzatekeela, eta horietan oinarritzko beharrak landu, besteak beste, ohiturak, gaitasun sozialak eta lanerako gaitasunak (berr)eraiki. Zentzu horretan, planteatu da lan-erloko edukia duten baliabideak indartu beharra dagoela baina, era berean, ohiko enplegu babestuko enpresetan eta okupazio zentroetan aplikatu ohi diren baino eskakizun-maila laxoagoa eta malguagoak aplikatu beharko liratekeela.

Bestalde, inkestatutako pertsona batzuek adierazi dute desgaitasunaren arloan dagoen enplegu babestuaren sarea ez dela gai gizarte-bazterkeria egoera larrian dauden eta, gainera, buru-nahasmenduak dituzten pertsonak hartzeko, nola eskariaren bolumenagatik hala eskakizun-mailagatik. Ikuspuntu horretatik, enplegu babestuaren sistema osatzen duten enpresen funtzionamendu-arauak zorrotzegitza jotzen dira gizarte-bazterkeriaren arloko zerbitzuen erabiltzaileen profil jakin batzuentzat.

Genero-ikuspegiak presentzia gutxi du

Etixerik gabeko pertsonen artean emakumeen presentzia gutxienekoa da, eta bereziki kaleko egoeretan eta gaua igarotzeko aterpetxeetan. Era berean, oso informazio gutxi bildu da emakumeengan dagoen etxegabetasunari buruz, –nahiz eta fenomeno honek ezaugarri espezifikoak dituen ez soilik kausei dagokienez, baizik eta baita hartzen dituen formei dagokienez ere–, eta horrek ondorio zuzena izan du; izan ere, ez dago genero-ikuspeirik ez zerbitzuen plangintzan, diseinuan eta kudeaketan, ez, oro har, etxerik gabeko pertsonen esku-hartze eremuan.

Are gehiago, etxegabetasuna genero-ikuspegi batetik jorratu denean, aurkikuntza garrantzitsuenetako bat izan da egiaztatzea emakumeen artean fenomenoak ezkutua izan ohi dela. Hortik ondorioztatuta da emakumeek, hein handi batean beren generoagatik, etxea galtzeko arriskuan egon arren edo etxea galdu arren gizonek baino lehenago jotzen dutela bereziki arriskutsutzat jotzen diren espazioetatik (kalea edo gaueko harrera-unitate jakin batzuk) “urrunduko” dituzten beste formula batzuetara. Alde horretatik, nola eskuragarri dagoen literaturak hala kontsultatu diren profesionalak adierazi dute emakumeek gizonek baino gehiago joko luketela aldi baterako senideen edo lagunaren etxetara edo, bestela, prest egongo liratekeela akordio erdi-espizituen bitartez bizitokiaren truke kon-

painia edo zaintza emateko edo etxean tratu txarrak edo abusuak denbora luzeagoz jasateko. Kanean bizitzeko egoeran egon ez arren eta etxerik gabeko pertsonentzako arreta-sareetatik urrun mantendu arren, emakume hauen prekaritatea eta kalteberatasuna muturrekoa izan daiteke batzuetan; hortaz, egoera horiek erronka handiak dira gizarte-zerbitzuentzat kasu hauek identifikatzeari, prebenitzeari eta aurre egiteari dagokionez.

Halaber, etxerik gabeko pertsonen arretan ez denez genero-ikuspegia landu, litekeena da gaur egun dauden zentroen sarean zenbait gauza kontuan hartu ez izana edo behar bezala tratatu ez izana. Esate baterako, ostatua ematen duten zentro batzuetan pribatutasun- eta intimitate-arazoak daude espazioari dagokionez, eta horrez gain, zenbait arazo lantzeko moduak gehiago eragiten diete edo bereziki eragiten diete emakumei. Nabarmentzekoa da, besteak beste, genero-indarkeria kasu ugari gertatzen direla eta, oro har, etxerik gabeko emakumeek biktimizazio-arrisku handiagoa dutela; horrez gain, emakume gehienek seme-alaba adingabeak dituzte, eta horrek zailtasunak dakartza; eta, azkenik, kanean amaitzen duten emakume batzuen profil zehatz batek behar konplexuak izan ohi ditu arreta jasotzeko, fisikoki eta mentalki egoera larrian egoten direlako eta askotariko arazoak izan ohi dituztelako pilatuta.

Prebentzioko esku-hartzeen garapen urria

Gure inguruko herrialdeetan etxegabetasuna desagerrarazteko garatzen diren estrategiak aztertuta, agerian jarri da garrantzi berezia ematen zaiela prebentzio-neurriei, bai espezifikoei eta bai orokorrei. Etxegabetasuna tratatzeko Euskadiko ereduak, ordea, erreaktiboa da, hau da, larrialdi-egoeren eta/edo muturreko beharren aurrean erreaktionatzen da, behin geratu direnean, eta ez da ia bitartekorik jartzen etxegabetasunaren arriskuak murriztu eta arrisku-egoera batzuk egoitza-bazterkeria oso larri bihurtzea saihestu dezaketen prebentzio-neurriak edo -politikak egiteko.

Egoitza-bazterkeriaren kausak askotarikoak direnez, egoitza-bazterkeriaren prebentzio-mekanismoak ere hainbat arlotatik egin daitezke, noski, askotan arazotik oso urrun dauden arloetatik. Beste ikuspuntu batetik, argi dago etxebizitzaren, enpleguaren eta diru-sarrerak bermatzearen arloko politika orokorrak ahalik eta gehien garatzeak eragin zuzena izan beharko lukeela fenomeno honen prebentzian, nahiz eta luzera begira izan. Alde horretatik, kontsultatutako pertsona askok adierazi dute DSBE/GLL/EPO sistemak eginkizun prebentiboa izan duela Euskadin etxegabetzeak hedatzea saihesteari dagokionez⁸⁰, eta, horrez gain, esan dute etxebizitza publikoaren arloan alokairu-araubidean hartu diren neurri espezifikoei eragin izan dutela.

Hala ere, kontsultatutako pertsonak esan dute prebentzio-neurri espezifikoagoak hartu beharko lirakeela eta etxebizitza bat galtzarekin lotura zuzena duten egoeretan zentratuagoak. Ikuspuntu honetatik, adierazi da honako hauek indartu beharko lirakeela:

- Laguntza ekonomikoak, ohikoak edo larrialdietakoak, zailtasun ekonomikoko egoeretan etxebizitza baten jabetzari edo alokairuari eutsi ahal izateko. Kasu horretan, logikoa izango litzateke Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) finkatzeko eta finantzaketa hobetzeko aurrera egitea. Laguntza horiek indartuz, erantzuna eman ahal izango zaie etxebizitza-arloan gabeziak dituztenei, bereziki DSBE jasotzeko zehazten diren diru-sarrerak baino handiagoak izan arren etxebizitzaren kostuagatik errenta pobrezia-aren atalasetik behera murrizten den kasuetan.
- Erakunde itxietako (espetxeak eta erreforma-zentroak, babesik gabe dauden adingabeentzako zentroak, immigranteen zentroak eta ospitaleak) alta-prozesuen plangintza eta jarrai-

⁸⁰ 2014an, etxebizitzaren hipoteka betearazteko tasa EAEn 3,4koa da 10. 000 etxeko, eta Espainian, 28,4koa. Euskaditik kanpo, gutxieneko zenbatekoa Asturiasen dago: 10,1. Madrilgo zenbatekoa 12,8 da, eta Kataluniakoa 36,8.

pen egoki bat egiteko aukera ematen duten sistemak ezartzea. Datuek agerian utzi dute egoitza-bazterkeriako egoera asko erraz aurreikus daitezkeela eta funtsezkoa izan daitekeela desinstituzionalizazioaren aurreko uneetan behar diren laguntzak artikulatzea.

- Familientzako bitartekaritza-sistemak sustatzea, bereziki ezkontideen arteko hausturen ondorioz ezkontideetako batek etxebizitza galtzen duen kasuetan.

Eredu finalista bat, errehabilitaziora bideratutako esku-hartzeetan gehiegi oinarritua eta oraindik merezimenduaren ideian oinarritua, ez baititu ia kontuan hartzen eskakizun-maila baxuko baliabideak

Orain arte adierazitako erronkak eta mugak etxerik gabeko pertsonen arreta-eredu osoari buruzkoak dira. Hurrengo orrietan, zehaztasun handiagoarekin aztertuko dira zehazki egoitza-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen eta, hedaduraz, etxerik gabeko pertsonen zuzendutako gizarte-zerbitzuei espezifiko eragiten dieten hutsuneetako batzuk. Jarraian adierazten diren zailtasunetako batzuk ez dira soilik gizarte-zerbitzuenak, ezta gizarteratzeko gizarte-zerbitzuenak soilik ere, baina esan liteke eragin bereziki handia dutela zerbitzu horietan; hortaz, zehatz-mehatz aztertuko dira.

Zailtasunetako lehenengoa kontzeptuala da. Gure inguruko herrialdeetako etxerik gabeko pertsonak artatzeko eredua aztertzean, ikusi da etxebizitzan oinarritutako politiken bereizgarrietako bat dela hainbat eskakizun-maila ezartzen direla eta helburua dela erabiltzaileei jasotzen duten laguntzekiko ahalik eta autodeterminazio eta kontrol handiena ematea. Ikuspegi horri esker, ikuspegi indibidualizatuak orokortu egiten dira; horiek kalteak murriztean oinarritzen dira, eta aitortzen da eskakizun-maila jaitea eraginkorra izan daitekeela ez bakarrik erabiltzaileen bizi-kalitatea bermatzeko, baizik eta baita, paradoxikoki, berreskurapen pertsonalari lotutako anbizio handiagoko prozesuetan esku hartzea errazteko ere. Adituek diotenez, ebidentzia zientifikoak frogatu du etxegabetasuna ezin dela, kasu gehienetan, jokabide indibiduala aldatzeari lehentasuna ematen dioten zerbitzuen bitartez tratatu eta beste hurbilketa bat behar duela, funtsean oinarrituko segurtasuneko eta bizi-kalitateko maila batzuk bermatzera bideratutakoa.

Gure inguruan ere, gizarte-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonentzako arretak dituen mugak aztertzean, agerian jarri da gaur egun indarrean dagoen arreta-ereduaren oinarri kontzeptualak berrikusi beharra dagoela. Alde horretatik, hainbat lanetan adierazi da (Emaus, 2015; SIIS, 2015) gure inguruan gauzatzen diren inklusio-politikak bereziki “errehabilitatzaileak” direnez zailtasunak dakartzatela eta kalteak murriztean eta eskakizun-maila baxuan oinarritutako etxebizitza-ereduen hedapena oso urria dela⁸¹. Ikuspegi errehabilitatzaile eta finalista dela eta, Gizarte Zerbitzuen Zorroan laguntzak jasotzeko baldintzak ezartzen dira, edo arazoaren kontzientzia eta aldaketarako borondatea saritzen dira, edota baldintza murriztaileak ezartzen dira arazo indibidual jakin batzuen arabera, normalean osasun-baldintzekin lotutakoak. Ikuspegi horretatik, Zorroaren Dekretuaren logikaren ondorioz, lehen adierazitako etxebizitzan oinarritutako ereduak erakundeen aukerako edo borondatezko egitasmo gisa bakarrik egon daitezke, baina ez denentzako eta derrigor bete beharreko Gizarte Zerbitzuen Zorro baten barruan⁸².

⁸¹ Alde horretatik, aurreko lanetan (SIIS, 2015) adierazi da gure inguruan gizarte-bazterkeria larriaren esparruan esku hartzeko oinarrituko ereduaren bereizgarrietako bat dela “bereziki finalista dela, eta arazoaren kontzientzia eta aldaketarako motibazioa funtsezko irizpideak direla baliabideak lortzeko”. Eredu hori berrikusteko beharra planteatzen dutenek uste dute, askorentzat begi-bistakoa den arren ikuspegi hori dela egokiena, ohiko bizitzan nahiko azkar integratzeko aukera ematen dieten babes, laguntza edo errehabilitazio psikosozialen prozesu labur edo luzeetan parte hartu dezaketen edo behar duten heinean, ikuspegi hori ez dela egokitzen bazterkeria-egoera larrietan dauden, berriz erortzen diren, eta ohiko bizitza-eredu edo bizitza-eredu konbentzional batera integratzeko zailtasuna duen pertsonetara. Ikuspegi finalista horren aurrean (era berean, desgaitasunaren eredu mediko eta errehabilitatzailearekin ere badu lotura), pertsona horiek kalteak murriztera eta gutxieneko bizi-kalitateko maila batzuk bermatzera bideratuago dagoen ikuspegi bat aplikatzea defendatzen dute –gutxienez sarean artatu diren pertsona batzuek–. Alde horretatik, antolakuntza-eredu eta praktika profesional malguagoen eta ez hain zurrunen alde egiten da; araudiei hainbeste jarraitzen ez dieten ereduak, gizarte- eta hezkuntza-zama txikiagoa izan dezaketenak eta orain arte gizarteratzearen arloan gutxi balioetsi diren kontzeptuak jasotzen dituztenak –hala nola kronikotasuna edo laguntza.

⁸² 20. taulan adierazi den moduan, Zorroan gizarte-bazterkeriara bideratutako hiru baliabidetan –bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako eguneko arreta, gizarteratze-beharrei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa eta gizarteratze-beharrei

Horrek ez du esan nahi ezin direnik etxebizitzan oinarritutako ereduak garatu –Zorroaren Dekretuak erakunde eskudunek derrigor bete beharreko gutxieneko baldintzak ezartzen dituzte, baina ez du eragozten beste mota batzuetako eta beste kolektibo batzuentzako zerbitzuak garatzea–, baina komenigarria da, Zorroaren Dekretuaren hurrengo berrikuspenean⁸³, etxebizitza ardatz duen arreta-ereduaren antzekoagoa den gizarte-zerbitzuen eredu bat planteatzea gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonen arreta emateko.

Komunitateko etxebizitza egonkor batera baino gehiago aldi baterako bizitoki batera bideratuago dagoen ereduak

Etixerik gabeko pertsonentzako arreta-eredua eta etxebizitza ardatz duen arreta-eredua urruntzen dituen beste ezaugarrietako bat da, lehen adierazi den moduan, gizarte-zerbitzuen mapan aldi baterako eta larrialdietarako ostatuak eta kongregatu motako egoitza-alternatibek duten pisua komunitateko ohiko etxebizitzekin konparatuta.

Hain zuzen ere, gizarte-zerbitzuek etxerik gabeko pertsonen ematen dieten arreta-eredua aztertu duten pertsonen adierazi dute ereduak funtsean gehiago dagoela bideratua aldi baterako bizitoki (gaueko harrera-zentroetara eta egonaldi labur eta ertainetarako egoitza-etxebizitza edo -zentroetara) eta ez hainbeste luzera begirako gizarte- eta egoitza-laguntzak ematera. Etixerik gabeko pertsonentzako baliabideei buruzko 2014ko Estatistikaren arabera, etxerik gabeko pertsonentzako ostatu-plaza guztien laurdena egonaldi mugagabeko gizarteratzeko pisuetan dago. Nolanahi ere, plaza gehienak mugatuagoak dira esku-hartzearen denborari dagokionez: % 40 larrialdiko plazak dira (aterpetxeak, harrera-zentroak edo -pisuak) eta % 25 aldi baterako harrera-plazak.

Arauen definizioaren ikuspuntutik, Zorroan ezarrita dauden zentron ezaugarriak aztertzen badira, egoera kronifikatua dauden pertsonentzako egoitza-zentroak bakarrik planteatzen du egonaldi luze bat; gainerako guztietan, aurreikusitako egonaldia laburra edo ertaina da.

Edozein kasutan, aipagarriena da etxebizitza-sistemaren bitartez eredu gutxi garatu direla etxebizitza egonkor baterako sarbidea luzera begira bermatzen dutenak, eta gizarte-zerbitzuen sistemak, berriz, luzera begira ere ematen du etxebizitzarako laguntza ibiltaria. Eredu horiek etxebizitzaren eta gizarte-zerbitzuen arloko politiken artean lankidetzan garatuko balira, luzera begirako eredu bat hedatu ahal izango litzateke, etxebizitzarako eskubidearen bermean oinarritutako esku-hartze sozial indibidualizatu bat bermatu, sistema bakoitzak berezkoak zaizkion eskumenei eta funtzioei erantzun eta etxebizitza-politikak batik bat etxebizitza bat lortzeko arazo gehien dituzten pertsonen zuzendu.

Lehen eta bigarren mailako arretaren arteko koordinazio-arazoak eta arretari jarraipena emateko zailtasunak

Gizarteratzeko gizarte-zerbitzuen sarearen arazoak edo mugak aztertzean, lehenengo eta bigarren mailako arretaren arteko koordinazio-arazoak ere aipatu behar dira, Gizarte Zerbitzuei buruzko Le-

erantzuteko gaueko harrera-zentroa– baino ez dira esplizituki planteatzen eskakizun-maila baxuko baldintzak. Lehen mailako zein bigarren mailako arretako egoitza-baliabideek, berriz, beren baldintzen artean ezartzen dituzte bazterkeria-egoeraren kontzientzia eta aldatzeko motibazioa izatea, kasuaren arabera gizarteratzeko edo laneratzeko ibilbide bat egiteko konpromisoa hartzea eta gaixotasun infekzio-kutsakor bat edo gaixotasun mental bat izanez gero dagokion tratamendu medikoa ez ukatzea.

2006.

⁸³ Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 24. artikulua honako hau ezartzen du: “Lau urtez behin, Eusko Jaurlaritzak, gainerako euskal herri-administrazioekiko koordinazioa egiteko bere eskumenaz baliaturik eta lankidetzan eta Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren ebaluaketaren esparruan, Prestazioen eta Zerbitzuen Karteraren halako ebaluazio orokor bat egin beharko du, nola aplikatu eta garatu den neurtzeko eta gizartearen aldaketetara behar bezain ondo egokitu ote den jakiteko, eta, hala ez bada, egin beharreko eguneratzeak egiteko”.

geak funtzioak eta eskumenak argitu dituen arren. Arazo horietako batzuk hurrengo puntuetan aztertzen diren arren, nabarmendu behar da hiru zailtasun mota daudela gutxienez:

- Batetik, lehen eta bigarren mailako arreta-funtzioak mugatzeko zailtasuna. Ildo horretan, pentsa daiteke Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean eta Zorroaren Dekretuan ezarritako irizpide mugatzaileek ez dutela beti aukera ematen zentro mota bakoitzak bete behar dituen funtzioak bereizteko arreta eskaintzearen espektro koherente batean, eta administrazio-maila desberdinei erantzukizun argiak izendatzea zailtzen dute⁸⁴. Nolanahi ere, eta horri dagokionez batasuna dagoela esan daitekeen arren⁸⁵, joera nagusia da pentsatzea, Legearen eta Zorroaren Dekretuaren arabera, esku-hartze profesionalaren intentsitatea dela (eta ez beste elementu batzuk, hala nola eskakizuna, programaren iraupena edo arreta eskaintzen zaion pertsonaren profila) lehen mailako arreta-zerbitzuak bigarren mailako arreta-zerbitzuetatik bereizi behar dituen kontzeptua; lehen mailakoan intentsitate baxua izanez eta bigarren mailakoan, berriz, tartekoa edo altua.
- Bestetik, Gizarte Zerbitzuetako lurralde-mapak egiteko zailtasunak; bi oinarrizko kausa dituzte: bata, hain zuzen ere existitzen diren zentro askok Zorroaren fitxa jakin batean kokatzeko duten zailtasuna, oso zehaztugabeak izateagatik eta zentro batzuen izaeragatik (besteak beste, finantzaketa-iturri bat baino gehiago dituztelako). Bestea, hamarkadetan zehar beste gako batzuetan eraikitako zerbitzuen mapa bat berrantolatzeak dakarren zailtasuna: horren harira, zaila da (antolakuntzaren, ekonomiaren eta eskumenen arloko arrazoiengatik) zentro askoren titulartasuna eta finantzaketa birdoitzeko prozesu bat egitea; izan ere, administrazio-maila batek finantzatuta egon arren, esparru berriaren arabera beste bati dagozkion zerbitzuak eskaintzen dituzte.
- Azkenik, zailtasunak daude baita ere arretaren jarraipena bermatzeko, bereziki pertsona bat lehenengo mailako arretatik bigarrenez edo alderantziz igaro behar bada. Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak nahiz Zorroaren Dekretuak arretaren jarraipena arrazionalagoa eta errazagoa egiteko mekanismoak ezartzen dituzten arren, ezin dira baztertu arlo horretan dauden arazoak. Arazo horietako batzuk, gainera, zentroei orokorrean ezaugarri jakin batzuk esleitzearekin lotuta daude (arretaren intentsitatea, prestazio profesionalak, eskakizun-maila...), baina egokiena izango litzateke, lehen aipatutako arretaren indibidualizazioaren ikuspegitik, ezaugarri horiek plazei edo zerbitzuen erabiltzaileei esleitzea.

Horren harira, arretaren jarraipena ondoen bermatuko lukeen eta erakunde arteko koordinazio zailaren ondoriozko arazoak ondoen saihestuko litzatekeen eredu hau izango litzateke: erabilera gehiago edo gutxiagoko zentro bakar batean intentsitate- eta eskakizun-maila aldagarriak egituratzeko aukera egotea, edo prestazio teknikoaren konbinazio desberdinak eskaintzeko aukera izatea, pertsona bakoitzaren premia zehatzen arabera.

Bigarren mailako arretaren barruko koordinazio-zailtasunak

Lehenengo eta bigarren mailako gizarte-zerbitzuen arteko koordinazioarekin lotutako zailtasuneharago, zailtasunak daude, halaber, bigarren mailako arretako bertako koordinazioan, bereziki gizarte-bazterkerian dagoen pertsona bat gizarte-zerbitzuetako erabiltzaileak diren beste kolektibo

⁸⁴ Arestian aipatutako moduan, 12/2008 Legeak zerbitzuen katalogo bat ezartzen du eta, oro har, lehen mailako arreta gisa hartutakoak esleitzen dizkie udalei eta bigarren mailako arreta gisa hartutakoak foru-aldundiei. Kasu batzuetan eskaintako zerbitzua eskumen-maila bakar bati badagokio ere (adibidez, ez dago foru-eskumeneko etxeko laguntza-zerbitzurik edo udal-eskumeneko adopzioa babesteko zerbitzurik), kasu askotan sistema bikoitza ezartzen da, eta horren arabera zerbitzu bera bi erakunde-mailari dagokio, zerbitzuan honako hauek bereiziz: arretaren intentsitatea, esku-hartzearen helburuak, eskakizun-maila edo arreta eskaini dakiekeen herritarrak.

⁸⁵ Arlo horretan lan egiten duten pertsona batzuen arabera, indarrean dagoen legediarekin bat etorrita, lehen mailako arreta-zerbitzuak gizarteratzeko aldaketa-prozesuetan inplikatu nahi ez duten edo ezin dutenentzako eskakizun baxuko zerbitzuez arduratu behar dira; bigarren mailako arreta-zerbitzuak, aldiz, prozesu horietan parte hartu nahi duten edo parte har dezaketen pertsonentzako eskakizun altuko arduratu behar dira lehentasunez.

batzuetako parte denean:adinekoak, babesgabetasun-egoeran dauden familia seme-alabadunak, buruko gaixotasuna edo mendekotasuna duten pertsonak... Kasu horietan, bigarren mailako arretaren barruko arlo desberdinen arteko koordinazioa ez da beti arina, eta zailtasunak sortzen dira, kasu bakoitzean erabakigarrienden arazo motaren ondorioz.

Lehen mailako arretako baliabideen eta esku-hartze indibidualizatuko programen garapen eskasa

Baliabide-sarearen azterketak agerian utzi du etxerik gabeko pertsonen arreta eskaintzeko baliabide gehienak zer neurritan kokatzen diren bigarren mailako arretaren arloan (Arabaren izan ezik), edo, gutxienez, foru-administrazioak zer neurritan finantzatzen dituen. Gainera, adierazi da baliabideak zer neurritan (bereziki Bizkaian eta Araban) dauden pilatuta erakunde edo udalerrri jakin batzuetan.

Lehen eta bigarren mailako arretaren arteko desoreka (edo, gutxienez, udal- eta foru-mailaren artekoa) argi eta garbi ikusten da gastuaren ikuspuntutik: EAEko udalek 5,2 euro bideratzen dituzte biztanleko etxerik gabeko pertsonen modu zuzenagoan zuzendutako gizarte-zerbitzuetara (bazterkeria/marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako ostalua eta egoitza-zentroak, gizarteratzeko premiei erantzuteko gaueko harrera-zentroak, gizarteratzeko premiei erantzuteko eguneko zentroak eta gizarte-jantokiak); foru-aldundiek, berriz, ia 20 euro bideratzen dituzte, eta zerbitzu mota horretan egiten den gastuaren % 27 hartzen dute udalerriek (arestian aipatu bezala, Arabaren kasuan izan ezik; Araban, udalek gastu horren % 66 hartzen dute beren gain).

Gizarte-bazterkeria larria lantzeko lehen mailako arreta-zerbitzuek duten ahultasunari (hiriburuetan izan ezik, ziur asko) gehitu egin behar zaio funtsean prestazio ekonomikoetan (DSBE, GLL eta EPO) oinarritutako eta, nolabait ere, egoitza-zentroetan eta eguneko arretako zentroetan oinarritutako gizarte-bazterkeriari arreta eskaintzeko eredu bat eraiki izana. Alabaina, askoz ere garapen txikiagoa izan dute gizarte-laguntzako eta gizarteraren eta hezkuntzaren esku-hartzeko eta esku-hartze psikosozialeko ereduak, indibidualizatuek eta ibiltariak, pertsonen arreta eskaintzeko aukera ematen duten egoitza-zentroetan edo eguneko arreta-zentroetan sartzeaz harago. Udalak nahiz foru-aldundiak intentsitate desberdineko laguntza indibidualizatuko programak garatzen ari dira. Hala ere, egiazki zor, litekeena da hori EAEn indarrean dagoen egungo eredu eta arestian aipatutako etxebizitza ardatz duen ikuspegia bereizten dituen elementu beste elementu bat izatea.

Pentsatzekoa da Zorroaren Dekretuak ezarritako esparruak gauzei egungo egoeran eusten diela; izan ere, ez dira laguntza indibidualizatuko zerbitzuen eskaintza bultzatzen duten xedapenak ezartzen, geroago aipatuko den erreferentearen figuraz harago, bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzat. Hain zuzen ere, Zorroaren Dekretuak ez du ezartzen gizarteraren eta hezkuntzaren arloan esku-hartzeko programarik (lehen mailako arretari dagokionez) edo esku-hartze psikosozialeko programarik (bigarren mailako arretari dagokionez) gizarte-bazterkeria arineko, moderatuko edo larriko egoeran dauden pertsonentzat:

- Lehen mailako arretaren kasuan, gizarteraren eta hezkuntzaren arloan esku-hartzeko programak babesgabetasun-egoeretara edo gizarte-bazterkeriako arriskuko egoeretara bideratzen dira, eta udalak (horien tamaina gorabehera) ez daude behartuta ingurune irekian bazterkeria-egoeran dauden etxerik gabeko pertsonentzako esku-hartze programak eskaintzera edo pertsona horiei intentsitate baxuko gizarteraren eta hezkuntzaren arloan esku-hartze programak eskaintzera. Udal handiangoek esku-hartze mota horiek garatzen dituztela egiazki izan arren, Zorroko prestazioetako zati ez izateak zaildu egiten du udal ertainetara zabaltea, eta esku-hartze mota horiek arestian aipatutako iritzi tekniko eta politikora lotuta egoten jarraitzea eragiten du.
- Bigarren mailako arretaren kasuan ere ez dira aurreikusten gizarte-bazterkeria arineko, moderatuko edo larriko egoeran dauden pertsonentzako familiaren arloan esku-hartzeko programak eta esku-hartze psikosozialeko programak. Hartara, foru-aldundiek ez dute zertan laguntza edo esku-hartze indibidualizatuko zerbitzuak eskaini pertsona mota horiei, eta da-

goeneko mota horretako programak garatzen diren arren, aurreko kasuan bezala, foru-aldundien iritzi tekniko eta politikora lotuta geratzen dira.

- Era berean, ez da zerbitzurik bideratzen gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen bizimodu independentea izaten laguntzeko; hori jaso dezakete soilik buruko gaixotasuna edo desgaitasuna duten pertsonen. Zerbitzu horren definizioa⁸⁶ bat dator, hein handian, arestian aipatutako gizartearen eta hezkuntzaren arloko babes-zerbitzuenekin eta babes-zerbitzu psikosozialenekin, eta horrek aukera emango luke etxerik gabeko pertsonen behar duten laguntza emateko etxebizitza independente batean sartzeko eta bertan mantentzeko.

Laburbilduz, gizarte-zerbitzuen arlotik, etxebizitza ardatz duen etxegabetasuna ezabatzeko eredu bat aplikatzea, zeinetan gizarte-zerbitzuek intentsitate eta eskakizun aldagarriko gizartearen eta hezkuntzaren arloko babes edo babes psikosozial ibiltaria eskaintzeko erantzukizuna beren gain hartzen baituten, administrazio bakoitzaren iritziaren menpe geratzen da; beren autonomia baliatuz programa mota horiek gara ditzaketen arren, ez dute horretarako betebeharririk. Halaber, gizarte-bazterkeriako edo egoitza-bazterkeriako egoera larrian dauden pertsonen ere ez dute aukerarik laguntza mota horiek jasotzeko duen eskubidea aldarrikatzeko. Ildo horretan, Zorroaren Dekretuak ezartzen dituen gizarteratzeko baliabideak eskuratzeko betebeharrei buruzko xedapenak aztertzean aipatu den moduan, Zorroaren hurrengo eguneraketan aintzat hartu beharko lirakeke programa mota horiek gizarte-bazterkeria eta/edo egoitza-bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonen zabalteko premia.

Oinarrizko gizarte-funtzioen ahultasuna kasuen kudeaketan eta etxerik gabeko pertsonen gizarte-zerbitzuen sisteman sartzeko duen moduan

Gizarte-zerbitzuen sistemaren ahultasuna planteatzeko orduan, eta azken urteetan aurrerapenak egin diren arren, oinarrizko gizarte-zerbitzuetan dauden zailtasunak ere aipatu behar dira etxerik gabeko pertsona batzuen kasu intentsiboak kudeatzeko lanak egiteko.

Euskal udalerrietako gizarte-zerbitzuek informatzeko, orientatzeko, baloratzeko eta diagnostikoa egiteko dituzten zailtasunak eta Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak esku hartzeko prozeduren arloan ezartzen dien zeregina egiteko zailtasunak hertsiki lotuta daude bigarren mailako arretaren koordinazioarekin, eta berriki aztertu dira zerbitzu-sarearen beste ebaluazio-lan batzuetan⁸⁷. Nolanahi ere, aipatu behar da Zorroaren Dekretuaren 1. 1 fitxan jasotzen diren funtzioak ez daudela

⁸⁶Zorroaren Dekretuaren arabera, bizimodu independentea babesteko zerbitzua erabiltzaileentzako tutoretza- eta laguntza-ekintza antolatu eta koordinatu batzuk eskaintzean datza, erabiltzaile horiek independenteki bizi direnean edo bakarrik, bikoitean edo buruko gaixotasunak eta/edo desgaitasunak dituzten beste pertsona batzuekin bizi nahi dutenean. Helburu hauek ditu:a) erabiltzaileak etxean moldatzea erraztea, ikaskuntza erabilgarrien bitartez; b) komunitate-ingurunean gizarteratzea erraztea, familia, lagun, kide, bizilagun eta abarrek pertsonen arteko harremanen sarea sustatuz; c) segurtasun-sentimendua eta autoestimua areagotzea; d) behar diren laguntzeekin beren etxebizitzan bizimodu independentea egin dezaketen pertsonak ostatu- edo egoitza-zerbitzu batean sartzeko saihestea; e) eskubideak osorik balia ditzaten erraztea, gainerako pertsonen kiko aukera-berdintasunean; f) nor bere bizimodua aukeratzeko, bizimodu independenterako bidea ahalbidetuz; g) bizitzako eremu guztietan komunitate-ingurunean aktiboki parte hartzea erraztea.

⁸⁷Arestian aipatutako Gipuzkoan gizarteratzeko zerbitzuen berrantolamenduari buruzko lanak adierazte du "praktikan, ez dela lortu oinarrizko gizarte-zerbitzuak sisteman sartzeko bide eraginkorra izatea". Kasuak kudeatzeko prozesuekin lotuta, eginiko elkarrizketa eta eztabaida-taldeen abiatuta, txostenak hau nabarmentzen du:"Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak ezarritako profesional arduradunaren, erreferentearen edo kasuen kudeaketakoaren sistemak zailtasun handiekin funtzionatzen du bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen dagokienez, eta, ondorioz, arretaren jarraipena ez dago behar bezala bermatuta. Horri dagokionez, oraindik ere nahasmen handia dago kontzeptu edo prestazioen artean (kasuko erreferentea, kasuko arduraduna, lagun egite indibidualizatua) eta ez dago, praktikan, prestazio horien definizio orok har onartuta. Halaber, azpimarratu da baliabideetara sartzeko ate bat baino gehiago dauden moduan, ez dagoela beti argi nor bere behar duen erreferentearen funtzioa, eta batzuetan, bikoizketak sortzen direla (pertsona bat baino gehiago funtzio bera betetz) edo hutsuneak daudela. Bestalde, kontsultatutako pertsona batzuek adierazi dute oinarrizko gizarte-zerbitzuek ez dituztela nahikoa baliabide pertsonal eta antolakuntza-bitarteko kasuen arduradun edo erreferentearen egiteko behar bezala betetzeko, baita arlo horretako funtzio eta erantzukizunak zuzen mugatuta daudenean ere. Batzuek, gainera, aipatu dute bigarren mailako arreta-zerbitzuetan oinarrizko gizarte-zerbitzuetan eginiko diagnostiko eta balorazioekiko begirune eskasa dutela eta horrek, oro har, sistemaren eraginkortasunari kalte egiten diola eta, zehazki, esku-hartzeen jarraipenaren eta erreferentzialtasunaren ideari".

nahikoa garatuta, eta, funtsean, oinarrizko gizarte-zerbitzuek zailtasunak dituztela etxegabetasun-egoeran dauden pertsonekin esku hartzeko.

Zailtasun hori konpondu bada ere, udalerrri txikiagoetan, bederen, gizarte-urgentzietako udal-zerbitzuei esleituz etxerik gabeko pertsonentzako oinarrizko gizarte-zerbitzuen egitekoa, abian jarri behar dira, zalantzarik gabe, etxerik gabeko pertsonak (baita gizarte-bazterkeria handieneko kasuetan ere) oinarrizko gizarte-zerbitzuen sarera errazago sartzea eta horietatik garatzen den kasuen kudeaketaren lana erraztea ahalbidetzen duten estrategiak.

Fenomenoa ezagutzearen eta esku-hartzeen ebaluazioaren arloan eginiko aurrerapenak, oraindik ere eskasak

Ereduaren indarguneak adierazterakoan aipatu den moduan, azken urteetan aurrerapen garrantzitsuak egin dira EAEn ezagutzaren kudeaketari dagokionez etxegabetasunarekin lotuta eta, zehatz-mehatz, kolektibo horren kuantifikazioarekin eta ezaugarritzearekin lotuta. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzak eta EAEn udal nagusiek bultzatutako gaueko zenbaketak nahiz Eustatek egiten dituen etxerik gabeko pertsonen estatistikak (Eusko Jaurlaritzak egiten duen gizarte-zerbitzuen estatistikarekin batera) oinarri irmoa dira fenomenoa hobeto ezagutzeko. Horrez gain, gizarte-bazterkeria larriari buruz erkidego-mailan bi urtez behin egiten den jardunaldi bat egiteko ekimena azpimarratu behar da. Nolanahi ere, gabezia handiak daude oraindik ere gai horrekin lotuta sortzen den ezagutza sistematizatzerakoan eta, batik bat, ebidentzian oinarritutako esku-hartze bat ahalbidetzerakoan.

Ildo horretan, Duque-k (2014) adierazten duen moduan, egungo tresnei eusteaz eta horiek finkatzeaz gain, esku-hartzeen ebaluazioan eta baliabide mota desberdinen eraginkortasuna aztertzean aurrera egin behar da. Era berean, komeni da gizarte-bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonen luzetarako jarraipena egitea ahalbidetzen duten sistemak ezartzea, honako hauek identifikatzeko aukera ematen dutenak: arrisku- eta babes-faktoreak, etxegabetasun-egoerak eragiten dituzten elementuak eta horiek gainditzea bizkortzen edo errazten duten elementuak...⁸⁸.

⁸⁸ Hain zuzen, Duque-k (2014) aipatzen duen moduan, "ebaluazioan defizit handia dugu. Egiteke dagoen zeregin handietako bat dela esan dezakegu. Bazterkerian prebentzioa ebaluatzea zaila da, baina egiten duguna identifikatzen, aitortzen eta aztertzen aurrera egin dezakegu gutxienez. Arreta zehatza ebaluatu, lortu nahi ditugun helburuak (hainbat gradu) identifikatuta izan: zer gertatzen da arreta jaso ondoren? Prozesuek arrakasta izaten jarraitzen al dute? Unean uneko esku-hartzeak al dira (beraien baitan balioa dutenak)? Geure buruari galdetu diezaiokegu zer neurritan gauden ate birakari baten aurrean. Ebaluazioa ere gizarte-zerbitzuen sentsibilizazio eta legitimazio sozialarekin lotuta dago. Egiten dugunaren, lorpenen, zailtasunen eta gastuaren berri izan behar dute herritarrek. Beste sistema batzuetan (osasuna, justizia, polizia) aurrezte handia ekartzen duen prebentzioaren eta arretaren arloko inbertsio bat izateari buruzko mezua landu behar da. Errealitate bat ezagutzeko, izendatu egin behar da".

6. EGOITZA-BAZTERKERIA LARRIKO EGOERAK PREBENITZEKO ETA MURRIZTEKO EUSKAL ESTRATEGIA BATERAKO PROPOSAMENA

6.1. Sarrera

Aurreko ataletan gure inguruko herrialdeetan egoitza-bazterkerian aurrean eginiko esku-hartzea aldatzen ari diren elementuak, Euskadiko etxerik gabeko pertsonen ezaugarriak eta premiak, eta gure erkidegoan ezarritako arreta-sistemaren indarrak eta ahultasunak jaso ondoren, atal honetan Egoitza Bazterkeria Larriko Egoerak Prebenitzeko eta Murrizteko Euskal Estrategia hau zehazten duten oinarrizko elementuak jasotzen dira.

Aurreko orrietan jasotako diagnostikoaz gain, Estrategia hiru elementuren arabera egituratzen da. Hain zuzen, honako hauen arabera:

- Hasteko, Estrategiaren oinarrizko ezaugarriak jasotzen dira, erakunde arteko plangintza-elementu gisa, eta ezaugarri horien arabera, baita berau garatzeko ezarri behar diren koordinazio-, jarraipen- eta ebaluazio-elementuak ere. Sarreran aipatu den moduan, oinarrizko elementu horiek 2016ko irailaren 13an eta 2017ko martxoaren 29an eginiko erakunde arteko bileretan adostu ziren.
- Gero, aurrez eginiko premia, ahultasun eta indarguneen azterketatik abiatuta, strategiaren oinarriak eta oinarrizko helburuak planteatzen dira.
- Azkenik, esku-hartzea egokitzen jo den jarduketa-ardatz bakoitzerako, eta irizpide eta helburu horietatik abiatuta, Strategiari atxikitako erakundeen ekintzak bideratu beharko dituzten gidalerroak jaso dira.

6.2. Estrategiaren oinarritzko ezaugarriak eta jarraipen-tresnak

Estrategia honen oinarritzko ezaugarriak –egoitza-bazterkeria larriaren arloko erakunde-ekintzaren plangintza-tresna gisa–hauek dira:

- **Orientatzailea izatea.** Gizarte Zerbitzuen Sektoreko Plan edo Plan Berezi⁸⁹ baten bitartez estrategia hau gauzatzeko aukeraren aurrean, horrek izaera arautzailea eta loteslea emango liokeenez, Estrategia funtsean orientatzailea izatea aukeratu da, tartean dauden erakundeentzako jarduna ildo jakin batean bideratzeko eginda. Asmoa da, horrela, jarraitu beharreko bidea markatuko duen estrategia bat egitea adostutako hainbat oinarri, helburu eta gidalerroen bitartez. Horiek jarduera espezifikotik zehaztuko ditu gero erakunde bakoitzak. Aukera hori egitea izana justifikatzeko hiru arrazoi daude:
 - Batetik, estrategia bera erakunde artekoa izatea eta arazo horri erantzun dimentsioaniztuna emateko premia egotea. Hain zuzen ere, ez luke zentzurik izango Gizarte Zerbitzuetako plan berezi bat egiteak arreta-ereduan aldaketa bat planifikatzeko, hain zuzen, horren helburua arazo horretan tartean dauden administrazio guztiak berdintasun-baldintzetan inplikatzeko erraztea izanik, egoera horiek lantzean gizarte-zerbitzuen egungo zentraltasuna gaindituz.
 - Bestetik, tartean dauden erakunde guztien autonomia eta jarduteko tartea errespetatu behar izatea. Ildo horretan, Estrategiaren egiteko zenbait oinarri eta gidalerro planteatzea izan behar dela uste da –alde guztien artean adostuta eta ahalik eta zehatzen ezarrita–, erakundeek eurek erabakitzeko gero, dituzten lehentasun eta premien arabera, nola gauzatu horiek jarduera zehaztuz. Ikuspuntu horretatik begiraturik, datozen orrietan aurkeztutako gidalerroak orientazio estrategikoak dira, estrategia honetan zehaztutako helburuak betetzeko eta erronkei erantzuteko. Gidalerro horiek jasotzeko ez du esan nahi gaur egun horiek ezarritako ildotan jarduerak egiten ari ez direnik.
 - Azkenik, plangintza-tresnei dagokienez garatutako jarduera-ildoari eustea komeni da, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailerik eginiko estrategia gehienak ere orientatzaileak izan direlako⁹⁰.
- **Borondatezko atxikipena eta, aldi berean, loteslea.** Gainera, beharrezkotzat jo da orientatzailea izateaz gain, Estrategia borondatezkoa ere izatea, komenigarritzat jotzen duten erakundeak strategiara atxiki ahal izateko (Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzak eta erakundeak, foru-aldundiak eta udalak), haien eskumen eta lehentasunekin bat etorriz. Bestalde, Estrategia loteslea izateko premia planteatu da, strategiara boluntarioki atxikitzea erabakitzen duten erakunde guztietarako. Aurrerago adieraziko den moduan, loteslea izateak ekarriko du Strategiara atxikitako erakunde guztiek jarduera zehatzak garatzea adostutako gidalerroak gauzatzeko eta jarduera horien jarraipenari buruzko adierazleak jasotzea eta komunikatzea.
- **Garapena hiru fasetan.** Aurrekotik ondorioztatzen da Estrategia hiru fase hauetan egituratuko dela:

⁸⁹Bi aukera horiek Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 37. eta 38. artikuluetan ezarrita daude.

⁹⁰Orientazio horren adibide dira, esate baterako, Enpleguaren Euskal Estrategia 2020 edo Zahartze Aktiboaren Euskal Estrategia 2015-2020.

- Lehenengo fasea, dokumentu honetan jasotzen dena, Euskadiko egoitza-bazterkeriaren arazoarekin lotuta adostutako diagnostiko bat egitean datza, bai eta zenbait oinarri, helburu eta gidalerro zehaztean ere. Azken horiek Estrategia egitean parte hartu dute erakundeek onartu dituzte.
 - Bigarren fasea orientabide orokorreko esparru hori onartu eta hurrengo hamabi hilabetetan egingo da. Estrategiari atxikitako erakunde guztiek Plan propio bat diseinatzean datza, jarduera zehatzekin, adostutako gidalerroak gauzatzeko. Jarduera horiek parte hartzen duten erakundeek banaka egin ahal izango dituzte, nahiz erakunde baten edo gehiagoren arteko lankidetzaz hitzarmenen bitartez egin; hartara, jarduerak garatu ahal izango dira gizarte, osasun, enplegu, etxebizitza edo diru-sarrerak bermatzeko zerbitzuen arteko lankidetzatik abiatuta. Jarduera horiekin lotuta, adierazi behar da, gainera, batzuetan ekimen sortu berriak martxan jarri behar direla, eta beste batzuetan, parte hartzen duten erakundeek dagoeneko garatzen ari diren baina zuzenean Estrategian ezarritako gidalerroei erantzuten dieten jarduerak edo neurriak izan daitezkeela.
 - Estrategiaren hirugarren fasean, azkenik, plan horiek garatu, jarraitu eta ebaluatuko dira.
- **Indarraldia.** Planteatutako Estrategiaren elementu batzuek paradigma-aldaketa dakartela eta, aurreikusitako jarduerak gauzatzeko moduko nahikoa epe zabala ezartzeko premia ikusirik eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren gainerako plangintza-elementuekin bat, estrategia praktikan jartzeko lau urteko aldi bat planteatu da, hain zuzen ere, 2018tik 2021era.
 - **Estrategian aurreikusitako jardueren finantzaketa.** Erakunde bakoitzak estrategia honen esparruan eginiko jarduera bakoitza bere aurrekontuen kargura finantzatuko du, edo ohiko mekanismoen bitartez lortu daitekeen kanpo-finantzaketarekin. Nolanahi ere, baztertu egingo da finantzaketa-mekanismo bereziak sortzea Estrategian jasotako jarduerak egiteko. Ildo horretan, jarduerak tartean dauden erakunde bakoitzaren eskumenen arloaren baitakotzat joko dira –eta batzuetan, legez egitera behartuta dauden jardueren barruan–; hortaz, ez du zentzurik finantzaketa-sistema gehigarrietara jotzea dagoeneko badaudenez gain.
 - **Jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak.** Arestian aipatutako moduan, estrategia hau egituratzen den moduak –adostutako gidalerroak, gero tartean dauden alderdi guztiek garatutako jarduera zehatzen bitartez gauzatu direnak– honako hauetarako bide emango duen jarraipen- eta ebaluazio-sistema bat egotea eskatzen du:
 - Erakunde bakoitzak garatutako jarduera zehatz guztiak eta Estrategiaren ardatz edo gidalerro bakoitzarekin lotutako jarduera guztiak identifikatzea.
 - Jarduera horietako bakoitzerako, prozesuaren eta emaitzen adierazleak identifikatzea (onuradunak, eginiko gastua edo eskuratutako emaitzak).
 - Estrategia osoak egoitza-bazterkeria larriaren arazoa prebenitzeko eta lantzeko izan zezakeen eragina balioestea.

Horretarako, Idazkaritza tekniko bati aginduko zaizkio Estrategia modu egokian abian jartzeko koordinazioko, lidertzako, jarraipeneko eta sustapeneko lanak. Idazkaritza tekniko horren erantzukizuna –Estrategiaren erakunde sustatzaile gisa– Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzak izango du. Idazkaritza tekniko hori Gizarte Zerbitzuetako Zu-

zendaritzatik zuzenean garatu ahal izango da, edo kanpo-erakunde bati aginduta, eta honako funtzio hauek izango ditu, besteak beste:

- Tartean dauden erakundeek aldizka emandako informaziotik abiatuta, estrategia honen esparruan garatutako ekintza guztiak identifikatzea eta erakunde bakoitzak garatzea hitzematen duen jarduera-planekin lotuta dagoen informazio guztia zentralizatzea.
- Prozesu eta emaitzen adierazleen taula bat egitea eta osatzea; besteak beste, honako hauei buruzko informazioa jasoko du: jarduera bakoitzaren edukia, artatutako pertsonak, eginiko gastua eta eskuratutako emaitzak.
- Bi ebaluazio-txosten egitea. Lehena tartekoa izango da, eta 2018. urtearen amaieran egingo da. Funtsean, erakunde bakoitzak eginiko jarduerak aztertzea izango du helburu, prozesu-adierazleetan eta behar bezala garatzen ari ez diren ardatz edo gidalerroak identifikatzean arreta jarrita. Bigarrena, Planaren indarraldia amaitutakoan egingo da –2020ko egoitza-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen gaueko zenbaketa egin ondoren–. Helburu izango du Planaren inpaktua aztertzea, bai egoitza-bazterkeriari dagokionez esku hartzeko eredu aldatu izanaren ikuspegitik, bai etxegabetasunaren fenomeno zabaltzearen eta kaltetutako pertsonen egoeraren ikuspegitik.

Idazkaritza tekniko horrek, gainera, beharrezkotzat joz gero, Estrategian aurreikusitako jarduera batzuk garatu ahal izango ditu, bereziki ikerketaren eta ezagutzaren kudeaketaren arlokoak.

Idazkaritza teknikoak erakunde arteko lantalde bat ezarriko du –komenigarritzat joz gero, Gizarteratzeko Euskal Kontseiluaren esparruan–, Estrategiaren abian jartzea gainbegiratzeko eta egitasmoko gidalerro guztiak aplikatzen direla bermatzeko.

6.3. Oinarri orokorrak eta helburuak

Aurreko orrietan eginiko diagnostikotik abiatuta, eta bat etorrita aipatu berri diren oinarritzko elementuekin, Egoitza Bazterkeria Larria Prebenitzeko eta Murrizteko Euskal Estrategiarako honako oinarri eta helburu orokor hauek proposatzen dira⁹¹:

- **Etxegabetasuna murrizteko estrategia.** Helmuga errealista eta pragmatikoak ezartzeko premia eta komenigarritasuna aintzat hartuta, zentzurik ez duen arren etxegabetasunaren fenomenoak guztiz ezabatzea xede duen estrategia baten alde egitea, planteatutako strategiaren helburu izan behar da, fenomenoaren ezabatze hori zerumugan dugula, Euskadin kalean lo egitera behartuta dauden pertsonen kopurua nabarmen murriztea. Oinarri horrek hiru elementu hauek hartzen ditu barnean:
 - o Helburu esplizitu bat ezartzeko premia, kalean lo egiten duten pertsonen kopurua murriztea ardatz duena denbora-epe jakin batean;
 - o Estrategia ETHOS tipologian ezarritako etxegabetasun-egoeretan zentratzeko aukera, hau da, aterperik⁹² eta etxerik⁹³ gabeko egoeretan, eta ez egoitza-bazterkeriaren kontinuuma osatzen duten gainerako kategorietan.
 - o Etxegabetasunaprebenitzeko eta murrizteko estrategia bat egitearen aldeko hautuak, gainera, estrategia hori beste hurbilketa batzuetatik bereizteko premia dakar (hortaz, ez da gizarte-bazterkeriaren kontrako estrategia bat, ezta etxebizitza-plan bat ere, espezifikoki egoitza-bazterkeria larria ardatz duen plan bat baizik).
- **Eskubideen ikuspegi oinarritutako estrategia, eta, zehazki, eskubide bikoitzaren kontzeptuan.** Proposatutako estrategia eskubideen ikuspegi batetik abiatzen da, bestalde. EAEn, ikuspuntu hori helburu argi bihurtu behar da ezinbestean:gaur egungo oztopoak ezabatzea, etxerik gabeko pertsonak indarrean dagoen legediak aitortzen dituen etxebizitza, osasun, diru-sarrerak bermatze eta gizarte-zerbitzuetarako eskubide subjektiboa eskuratu ahal izateko; zehazki, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2018 Legeak, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legeak eta Etxebizitzari buruzko 5/2015 Legeak aitortzen dituztenak. Diru-sarrerak bermatzearen arloan eskubide bikoitzaren kontzeptua sendotu den moduan (diru-sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikora eta gizarteratzeko beharrezkoak diren babesetara), estrategia honen abiapuntua etxerik gabeko pertsonen eskubide bikoitza bermatzeko premia da:etxebizitza independente baterako eskubidea eta autonomia, bizi-kalitate eta gizarteratzerako beharrezkoak diren babesak jasotzeko eskubidea⁹⁴. Etxebizitzako eskubidea asetzea, esparru honetan, etxebizitza-sistemari dagokio funtsean; aldiz, gizarteratzeko babesak gizarte-zerbitzuen sistemari dagokio.
- **Pertsonak eta etxebizitza ardatz dituen estrategia.** Ikuspuntu estrategikotik begiratuta, estrategia honen aldaketa handiena etxegabetasunaren kudeaketa-eredu batetik (gizarte-zerbitzuetan oinarrituta eta, bereziki, aldi baterako ostatu-zerbitzuetan oinarritua), etxebizitzan

⁹¹Aipatu behar da funtsezko oinarrietan estrategia-proposamen hau bat datorrela Etixerik gabeko Pertsonentzako Estrategia Nazional Integralarekin (2015-2020). Estrategia hori gobernu zentralak onartu zuen 2015eko azaroan.

⁹²Arestian aipatutako moduan, espazio publiko batean (aire zabalean) bizi diren edo gaueko aterpe batean lo egiten duten eta/edo espazio publiko batean eguneko hainbat ordu igaro behar dituzten pertsonak.

⁹³Etixerik gabekoentzako/aldi baterako ostatu hartzeko aterpetxe eta zentroetan bizi diren pertsonak, emakumeentzako aterpetxeetako pertsonak, asilo-eskatzaileentzako eta immigranteentzako ostatu-zentroetako pertsonak, epe jakin batean egoitza- edo barneratze-erakundeetatik botako dituzten pertsonak, eta etxerik gabeko pertsonak izateagatik laguntza sostengatuko ostatua jasotzen duten pertsonak.

⁹⁴Egia esan, eskubide hirukoitza da, eskema honek pertsona horiek bizitza autonomo bat izateko behar izan ditzaketen diru-sarrerak bermatzea eskatzen duen heinean, diru-sarrera propiorik ez duten bitartean.

eta pertsonetan aldi berean arreta jartzen duen ikuspegi batera igarotzea da. Ikuspegi hori hartzeak honako hau dakar:

- Etxebizitza ardatz duen ikuspegia hartzea, Europako erakundeek gomendatzen duten moduan, oinarri hartuta etxebizitzetarako sarbidea giza eskubide gisa planteatzen duten zerbitzuak direla etxegabetasuna ezabatzeko tresna eraginkorrenak. Ikuspegi hori hartzeak errotik aldatzen du etxegabetasunean esku hartzeko modua, beharrezkotzat hartzen den heinean etxebizitza-sistematik etxerik gabeko pertsoneri ohiko etxebizitzetan, komunitatean errotutakoetan, ostatu bat ematen zaien eredu bat: gizarte-zerbitzuen sistematik, bestalde, pertsona horiei gizartearen eta hezkuntzaren arloko babesa eta laguntza psikosoziala eskaintzen zaie, modu ibiltarian, etxebizitza horietan modu egonkor eta autonomoan egoteko behar dituzten beharrezko intentsitateko kasuen kudeaketa-zerbitzuaz gain. Horretarako, gizarte-zerbitzuen sistemaren gaitasuna indartu behar da Zorroaren Dekretuko 1. 1, 1. 3, 2. 7. 2. 1 eta 2. 7. 3. 1 zerbitzuak hornitzeko, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonetara zabalduz eta banakako laguntzako eta ingurune irekietako esku hartzeetako programak bultzatuz.
 - Pertsonetan arreta jartzen duen ikuspegia hartzeak, gainera, berarekin dakar bizikalitateko, indibidualizazioko, autodeterminazioko eta programen diseinua eta gauzatzea kontrolatzeko irizpideak modu erabakigarriagoan sartzea, horietan intentsitate- eta eskakizun-mailak ezarriz.
- **Estrategia integrala, egoitza-bazterkeria larrian dauden pertsoneri eragiten dieten arazoak lantzeko.** Estrategia honetan etxebizitza- eta gizarte-zerbitzuetako politikari ematen zaie zentraltasunak ez du eragozten aitortzea beste arlo batzuetan ere neurriak hartu behar direla, hala nola enpleguan, osasunean, justizian, gizarteko partaidetzan edo diru-sarrerak bermatzean. Horrez gain, estrategian beste arlo batzuetako jarduerak ere sartzen dira; hauek, besteak beste: etxerik gabeko pertsonen gizartearen eta kulturaren parte hartzea, hezkuntza-baliabideetarako sarbidea, arazo horrekin lotuta herritarrek duten hautematea edo komunitate osoak egoera horiek prebenitzea eta lantzea.
 - **Aldi baterako ostatu-zerbitzuetan eta eguneko eta gaueko harrera-zerbitzuetan eskaintzen den zerbitzuaren kalitatea nahiz ingurune irekiko esku-hartzea hobetzeko estrategia, Zorroa eta Gizarte Zerbitzuen Mapa zuzen garatzea bermatuz.** Etxebizitza ardatz duen eredu bat garatzeko aukera ez da eragozpena Estrategian zerbitzuaren kalitatea bermatzeko beharrezko neurriak jasotzeko eta lurraldean behar bezala zabaltzeko Zorroan eta Gizarte Zerbitzuen Mapan jasotako gaueko harrerarako, ostaturako eta eguneko harretarako zentroak. Hain zuzen ere, pentsarazten du sare horrek arreta-ereduaren oinarriko elementua izaten jarraituko duela, bai beste baliabide batzuetara jotzen ez duten pertsonen bizi-kalitate hobetzeko, bai etxerik gabeko pertsonen etxebizitza independente bat eskura dezaten sustatzeko.
 - **Prebentzio-politikak azpimarratuko dituen estrategia, bereziki etxegabetasun-arrisku handieneko egoerekin lotuta.** Planteatzen den strategiaketxegabetasunaren prebentzio-politikak garatzeko premia ere abiapuntu du, bereziki honako elementu hauei dagokienez: alokairua ordaintzeko eta/edo etxegabetze-arriskuko egoeretan prestazio ekonomikoak bultzatzea; orientatze- eta bitartekaritza-zerbitzuak garatzea, Nafarroako Foru Erkidegoan garatutako Etxebizitzen arloan Gizarteratzeko Taldeen (EISOVI) ildoan; emantzipazio-prozesuen plangintzarako protokoloak garatzea; eta egoitza- edo barneratze-zentroetatik bereiztea. Horren haritik, strategiaren abiapuntua hasierako faseetan etxegabetasun-egoera bihur daitezkeen egoitza-bazterkeriako arriskuko egoerak antzemateko premia da, eta kalean kronifikazioa saihesteko esku-hartze goiztiarreko programak ezartzea.
 - **Behar konplexuagoak dituzten pertsonentzako estrategia, etxerik gabeko emakumeen berriazko arazoetan arreta berezia jarrita.** Planteatutako strategiaren abiapuntuan dago, baita

ere, behar konplexuagoak dituzten pertsoneri babes espezifikoa eskaintzeko premia, horien adinagatik, osasun-mugengatik erlazioetarako zailtasunengatik, administrazio-egoeragatik... Horrenbestez, zerbitzuetara sartzeko betebeharrak berezitasun horietara egokitu behar dira. Estrategia, halaber, genero-ikuspegi bat hartzeko premiatik abiatuta egin da, etxerik gabeko emakumeen premia espezifikoa kontuan hartzen dituen.

- **Ezagutzaren kudeaketan eta ebidentzian oinarritutako praktikan arreta jartzen duen estrategia.** Planteatutako estrategiak, azkenik, ezagutzaren kudeaketan, esku-hartzeen ebaluazioan eta, azken finean, ebidentzia zientifikoan hartu behar du oinarri.

Oinarri horietatik abiatuta, hauek dira Estrategiaren helburu nagusiak:

- Etxegabetasunaren prebentziora bideratutako politikak indartzea.
- Euskadiko etxerik gabeko pertsonentzako egungo arreta-eredua birbideratzea, pertsonan arreta jarritako eta etxebizitzara bideratutako arreta-eredu bat sortzeko asmoz.
- EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa hedatzen amaitzea, baliabideen lurralde-banaketa egokia bermatzea eta gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak bereziki indartzea, bai kasuen kudeaketa-funtzioei eta gizartearen eta hezkuntzaren arloko esku-hartzearen eta esku-hartze psikosozialari dagokienez, bai ostatu-zerbitzuei eta eguneko eta gaueko harrera-zerbitzuei dagokienez.
- Etxerik gabeko pertsonen osasunaren, diru-sarreraren bermearen eta laneko aktibazioaren arloan dituzten eskubideetarako sarbidea bermatzea, horien bizilekua edozein delarik ere.
- Premia bereziak dituzten etxerik gabeko pertsoneri eskaintzen zaien arreta hobetzea, bereziki, egoitza-bazterkeria larriko egoeran dauden emakumei eskaintzen zaiena.
- Etxerik gabeko pertsonen arazoekin lotutako ezagutza koordinatzeko, ebaluatzeko eta kudeatzeko tresnak hobetzea.
- Gizarteak fenomeno horren inguruan duen hautematean eragina izatea, egoera horiek lantzeko komunitate-eragileen inplikazioa indartzea eta pertsona horiek dituzten biktimizazio-egoerak prebenitzea.

Helburu horiek lortzean, jomuga edo helburu kuantitatibo neurgarri hau lortuko da: 2020. urteari begira, EAEko udalerrri handietako kaleetan lo egiten duten pertsonen kopurua nabarmen murriztea (% 20 gutxienez).

6.4. Oinarrizko jarduketa-ardatzak

Helburu orokor horietatik abiatuta, Estrategiak 69 gidalerro zehatz proposatzen ditu, honako lehentasunezko bederatzi ekintza-ardatz hauen inguruan:

1. Egoitza-bazterkeria larriari aurre hartzea.
2. Etxebizitzan oinarrituriko ikuspegia garatzea.
3. Gizarte-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonentzako gizarte-zerbitzuetako baliabideak eta programak hobetzea.
4. Genero-ikuspegia indartzea egoitza-bazterkeriari aurre hartzeko eta arazo hori lantzeko politikan.
5. Etixerik gabeko pertsonen herritarren eskubideak dituztela bermatzea, euren administrazio-egoera erregulatuta.
6. Sektorekako hobekuntzak egitea osasunean, diru-sarreraren bermean eta enplegua eskuratzeko orduan.
7. Etixerik gabeko pertsonen aisialdia eta hezkuntza izan dezaketela eta gizartean nahiz politikan parte har dezaketela bermatzea.
8. Komunitatearen sensibilizazioa eta inplikazioa hobetzea egoitza-bazterkeriari aurre hartzeko eta arazo hori lantzeko.
9. Koordinazio, jarraipen, ebaluazio eta ezagutzen kudeaketa-neurriak.

6.5. Gidalerroak

Arestian aipatutako moduan, jarraian agertzen diren gidalerroek osatzen dute Estrategiaren oinarritzko egitura, eta erronkei erantzuteko eta zehaztutako helburuak eskuratzeko orientazio estrategiko gisa hartzen dira. Estrategia garatzearen oinarrian, hortaz, strategiara atxikitako erakunde guztiek gidalerro horiek betetzeko jarduketa zehatzak martxan jartzea dago. Gidalerroekin lotuta, honako alderdi hauek azpimarratu behar dira:

- Estrategia honetan sartu arren, baliteke ildo horretan jarduera horiek dagoeneko egiten ari izatea edo beste plan batzuetako zati izatea. Erakundeek gidalerro horiek garatzeko beren plan-gintza egiteko unean, bakoitzak zehaztu du zer neurritan jotzen duen garabidean dauden neurrietara edo orain arte garatu gabe dauden neurrietara.
- Logikoki, gidalerro guztiek ez diete era berean eragiten tartean dauden erakunde guztiei, edo tartean dauden erakundeek ez dute eskumen bera arlo horietan. Gidalerro batzuk Strategiara atxikitako edozein erakundek egin baditzake ere, beste batzuk soilik erakunde horietako bati dagozkio. Agiri honetan ez da ezartzen gidalerro baten eta hura garatzeko egokiena den erakundearen arteko bat-etortzea. Dena dela, arestian aipatutako erakunde arteko lantaldeak jarraipena egingo du erakunde bakoitza abian jartzen ari den neurriak zein diren aztertzeko; hartara, ez da hutsunerik edo bikoizketarik sortuko. Erakunde arteko lantalde horren egitekoa izango da, baita ere, erakunde baten baino gehiagoren arteko adostasuna behar duten jardue-

ren garapenerako eta/edo hainbat administrazioen artean ekintza hitzartzeko beharrezkoak diren akordioak bultzatzea.

- Oro har, gidalerroak osagarriak izan arren, kasu batzuetan gidalerro bat baino gehiago planteatzen da helburu bererako, hau da, helburu bera lortzeko formula bat baino gehiago planteatzen dira.
- Agirihonetan ez dira aipatzen gidalerro bakoitza zer mailatan abian jarrita dagoen neurtzea baloratzeko aintzat hartu behar diren prozesu-adierazleak. Adierazle horiek arestian aipatutako idazkaritza teknikoak egingo ditu, Estrategia behin betiko onartutakoan eta hura garatzeari ekitean.

1. ardatzaren gidalerroak. Egoitza-bazterkeria larriari aurre hartzea.	
a)	Etxebizitzaren merkatura sartzeko edo beren etxebizitzan modu autonomoan mantentzeko zailtasunak dituzten pertsonentzako informazio-, orientazio- eta bitartekaritza-zerbitzuak abian jartzea; besteak beste, hala maizterren eta errentatzaileen arteko (alokairuen kasuan), nola banku-erakundeen eta hipoteken kostuari aurre egin ezin dioten pertsonen arteko (etxebizitza jabetzan izanez gero) bitartekaritza-zerbitzuak eskaintzean.
b)	Bitartekaritza- eta aholkularitza-zerbitzuak bultzatzea, honako honetarako: <ul style="list-style-type: none">• Babes publikoko etxebizitzetan sartzan diren pertsonen jabe, bizilagun, errentatzaile edo maizter gisa dituzten eskubide eta betebeharrak jakinaraztea.• Etxebizitza baten jabe nahiz maizterrek beren eskubide edo betebeharrak buruz dituzten zalantzak argitzea.• Komunitate bateko bizilagunen artean edo jabe eta maizterren artean bitartekari izatea, sor daitezkeen eta protagonisten artean zuzenean konpondu ezin diren gatazka konpontzeko.
c)	Etxebizitza Zerbitzuak eginiko prebentzio-balorazioko eta gizartearen arloko esku-hartzeko zerbitzuak indartzea, bai tokiko mailan bai erkidego-mailan, kontratu-betebeharrak betetzeko laguntza behar izan dezaketen etxebizitzaren esleipendunekin lotuta.
d)	Etzegabetzeak prebenitzeko plan espezifiko bat egitea, bai jabetzako etxebizitzetan bai alokairuko etxebizitzetan, izan sustapen publikoak izan jabetza pribatukoak. Plan horretan, une bakoitzean aplikatu daitezkeen araudiaren esparruan, sartu hala izango da alerta goiztiarreko sistemak abian jartzea, kolektibo batzuei eta/edo egoera jakinetan luzamenduak ezartzea (neguko hilabeteetan etzegabetzeak debekatzea, kasurako), ostatu-alternatibak eskaintzea eta ordainean emateko borondatezko formulak bultzatzea.
e)	Eusko Jaurlaritzak eta/edo EAEko gainerako administrazioek garatutako familia-gainzorpetzerako laguntza-zerbitzuak bultzatzea.
f)	Diru-sarreraren bermerako eta/edo etxebizitzara sartzeko prestazio ekonomikoen arloko eragile araudia berrikustea , honako hau bermatzeko: <ul style="list-style-type: none">• Etxebizitza autonomo batera sartzeko laguntza ekonomikoko premiak estaltzea.• Ohiko etxebizitzetan autonomoki mantentzeko nahikoa intentsitateko laguntza ekonomikoa.
g)	Gizarte-alokairuko parke publikoa areagotzea , bereziki etxebizitza hutsak aktibatzekeo programak indartzearen bitartez, hala nola Bizigune edo ASAP.
h)	Etxebizitza partekatuko programak tokiko mailan abian jartzea eta erkidego-mailan bultzatzea, programan eskuragarri dauden etxebizitza kopurua areagotuz eta gaur egun ezarritako sarbide-baldintzak berrikusiz.
i)	Alta-protokoloak diseinatzea eta aplikatzea , erregimen itxiko zentro edo zerbitzuak (ospitaleak, espetxeak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako ostatu-zerbitzuak, adingabeen barneratze-zentroak...) uzten dituzten pertsonen etxebizitza-alternatiba zehatz bat dutela bermatzeko horietatik irteten direnean.
j)	Esku-hartze azkarreko zerbitzuak garatzea; horiek gai izango dira kalean edo espazio publikoetan lo egiten ari direla identifikatutako eta etzegabetasuneko historiarik gabeko pertsonak identifikatzeko, eta horiek baliabide egokietara bideratzeko.
k)	Familia-bitartekaritzako programak sustatzea, etzegabetasun-egoera ekar dezaketen familia-unitateen haustura-egoerak saihesteko eta/edo horiek gertatzen badira, egoitza-bazterkeriako egoera bihurtzen ez direla bermatzeko.

2. ardatzaren gidalerroak. Etxebizitzan oinarrituriko ikuspegia garatzea	
a)	Etxebizitza baten legezko okupaziorako edo etxebizitzarako prestazio ekonomikorako sarbidearen eskubide subjektiboa arautzen duen Dekretua onartzea.
b)	Autonomia-erkidegoko administrazioaren eta udalen arteko hitzarmenak sinatzea, udalez gaindiko sare bat eratzeko pixkanaka sektore behartsuenetarako , Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.
c)	Lankidetzak-akordioak ezartzea gizarte-zerbitzuetako udal-sailen eta etxebizitzako udal-sailen artean egoitza-bazterkeriako egoeran dauden pertsonak etxebizitzaz hornitzeko , tutoretzapeko etxebizitzaren zerbitzuaren hornidura nahikoa izateko bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzat (1. 9. 2).
d)	Autonomia-erkidegoko gizarte-zerbitzuen eskualde guztietan EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan ezarritako hornidurak garatzea bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitzetarako (1. 9. 2).
e)	EAEko gizarte-zerbitzuen sektore guztietan EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan ezarritako hornidurak garatzea gizarteratzeko laguntzadun etxebizitzetarako , bazterkeria- eta marjinalizazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroen esparruan (2. 4. 5).
f)	Gizarteratze-ibilbide batekin konprometitu ezin duten edo nahi ez duten pertsonen eta/edo arazoaren jakitun ez diren eta egoera aldatzeko motibaziorik ez duten pertsonen zabaltzea Zorroaren Dekretuan ezarritako bigarren mailako ostatu-baliabideak gizarte-bazterkerian dauden pertsonentzat.
g)	Gizarte-bazterkeria moderatu eta larrian dauden pertsonen zabaltzea gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua (1. 3) ; hartara, zerbitzu horietatik intentsitate baxuko gizarte- eta hezkuntza-arloko arreta ibiltaria eskaini ahal izango zaie titulartasun publiko edo pribatuetako etxebizitzetan ostatu hartu duten pertsonen, intentsitate horretako arreta behar dutenean.
h)	Gizarte-bazterkeria moderatu eta larrian dauden pertsonen zabaltzea bizimodu independentea babesteko zerbitzua (2. 7. 2. 1) eta familiekin gizarte- eta hezkuntza-arloan eta/edo arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuak (2. 7. 3. 1) ; hartara, zerbitzu horietatik intentsitate ertain eta altuko gizarte- eta hezkuntza-arloko arreta ibiltaria eskaini ahal izango zaie titulartasun publiko edo pribatuetako etxebizitzetan ostatu hartu duten pertsonen, intentsitate horretako arreta behar dutenean.

3. ardatzaren gidalerroak. Gizarte-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonentzako gizarte-zerbitzuetako baliabideak eta programak hobetzea.	
a)	Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik gizarte-bazterkeria larrian dauden eta/edo egoitza-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen kasuak kudeatzeko baterako esku-hartze eredu bat egitea.
b)	Gizarte-zerbitzuen sistemaren zati diren eguneko eta gaueko ostatu- eta harrera-zentroetan baterako esku-hartze eredu bat egitea , bizi-kalitatea, pertsonalizazioa eta autodeterminazioa oinarri dituzten esku-hartzeak bermatzeko.
c)	Modu esperimentalean eta Zerbitzuarekin lotutako prestazioaren figurara joz "aurrekontu indibidualak" garatzea etxerik ez duten eta gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonentzat.
d)	Ingurune irekian esku hartzeko programak bultzatzea , gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuen esparruan (1. 3), kalean lo egiten duten etxerik gabeko pertsonentzat eta/edo gizarte-bazterkeriako egoera larrian dauden pertsonentzat.
e)	Autonomia-erkidegoko gizarte-zerbitzuen eskualde guztietan EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan ezarritako hornidurak garatzea, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden eguneko arretarako zerbitzuen arloan (1. 7) .
f)	Autonomia-erkidegoko gizarte-zerbitzuen eskualde guztietan EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan ezarritako hornidurak garatzea, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden gaueko harrera-zerbitzuen arloan (1. 8) .
g)	Autonomia-erkidegoko gizarte-zerbitzuen sektore guztietan EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan ezarritako hornidurak garatzea, gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroen arloan (2. 2. 3)
h)	EAEko hiru lurralde historikoetan garatzea egoera kronifikatuan dauden pertsonentzako egoitza-zentroak (2. 4. 5. 1) eta gizarteratze-premiei erantzuteko gaueko harrera-zentroak (2. 3. 2) .
i)	Esku hartzeko plan indibidualak eta protokoloak garatzea Zorroaren Dekretuan aurreikusitako harrera- eta ostatu-zentroen erabiltzaileak ahalik eta lasterren etxebizitza independenteetara sar daitezten errazteko , gizarte-zerbitzuek eskainitako intentsitate aldagarriko laguntza ibiltariarekin.
j)	EAEko lurralde guztietan emantzipaziorako prestatzeko zentroen eta emantzipatzeko pisuen behar besteko eskaintza garatzea, Zorroaren Dekretuko adingabeentzako egoitza-zentroen esparruan (2. 4. 4), eta lehen edo bigarren mailan gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko programetako zentroak uzten dituzten pertsona guztiei zabaltzea.
k)	Zorroaren Dekretuaren parte diren bazterketa-egoera arin, moderatu edo larrian dauden pertsonentzako zentro eta zerbitzuetako betebehar material eta funtzionalak arautzea .
l)	Gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonentzako eguneko eta gaueko ostatu- eta harrera-zentroak ebaluatzeko eta zentro horietako kalitatea bermatzeko (eta, hala badagokio, berregokitzeko) berariazko kanpaina bat abian jartzea.

4. ardatzaren gidalerroak. Genero-ikuspegia indartzea egoitza-bazterkeriari aurre hartzeko eta arazo hori lantzeko politiketan

- a) Lurralde historiko bakoitzeko Gizarte Zerbitzuen Mapak egiterakoan, Zorroaren Dekretuan ezarritako ostatu-zentroetako tokien zenbateko jakin bat gordetzea **egoitza-bazterkeriako egoeran dauden emakumeek bakarrik erabil ditzaten**. Zentro horietara atxikitako langileek (baita segurtasuneko langileak ere), gainera, emakumeak izan beharko lukete batik bat.
- b) **Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuetako profesionalak espezializa daitezen** sustatzea, **bai eta oinarrizko gizarte-zerbitzuetako kasuen kudeaketako funtzioen ardura duten profesionalak ere**, egoitza-bazterkeria larriko egoeran dauden emakumeak orientatzeko eta laguntzeko prozesuetan.
- c) **Genero-ikuspegia sartzeko jardunbide egokien gidaliburuak edo eskuliburuak** egitea egoitza-bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonentzako zentroetan, zentro mistoak gai izan daitezen emakumeen premia espezifikoer erantzuteko.
- d) -Egoitza-bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonen arretaren arloan lan egiten duten erakundeetan **berdintasun-planak** egin daitezen sustatzea, profesionalen artean nahiz erabiltzaileen artean berdintasuna bermatzeko.
- e) Egoitza-bazterkeria larriko egoeran dauden edo egon diren **emakumeen arteko elkarrekiko laguntza-taldeak** gara daitezen sustatzea.

5. ardatzaren gidalerroak. Etixerik gabeko pertsonen herritarren eskubideak dituztela bermatzea, euren administrazio-egoera erregulatuta.

- a) **EAEko udalek jarduera espezifikoak** garatzea **lurraldean bizi ohi diren etxerik gabeko pertsona guztiak erroldatzea errazteko**, lotarako lekua gorabehera, Udal-errolda kudeatzeari buruz udalei emandako jarraibide teknikoari buruzko Ebazpenaren (Presidentetza Ministerioaren 2015eko martxoaren 16koa) 3. 3 atalean ezarritako baldintzetan.
- b) Desgaitasuna izan dezaketen edo mendekotasun-egoeran egon daitezkeen egoitza-bazterkerian dauden pertsonen **desgaitasun- eta/edo mendekotasun-egoerak aitortzea errazteko neurri zehatzak** abian jartzea.
- c) EAEn modu iraunkorrean bizi diren eta egoitza-bazterkeria larriko egoeran dauden pertsona guztiak **Osasun Txartel Indibiduala izatea bermatzeko neurri zehatzak** garatzea, baldin eta horrelakorik ez badute.
- d) **Fiskaltzekin jarduera-protokoloak** ezartzea **muturreko narriadura duten etxerik gabeko pertsonekin esku hartzeko irizpideak zehazteko**, horien tutoretza judizial eraginkorra bermatzeko.

6. ardatzaren gidalerroak. Sektorekako hobekuntzak egitea osasunean, diru-sarreraren bermean eta enplegua eskuratzeko orduan.

- a) EAEko hiru lurraldeetan **tratamendu asertibo komunitarioko (TAK) programak** garatzea buruko nahasmendu larria duten etxerik gabeko pertsonentzat.
- b) **EAEko hiru lurraldeetan suspertzeko programa edo zentro soziosanitarioak sortzea** ospitale-zentro batean alta emandako eta/edo gaixotasun edo mediku-tratamendu batetik sendatzen ari diren etxerik gabeko pertsonentzat, sare soziosanitarioko zentroetan plazak erreserbatuz eta/edo gizarte-zerbitzuetako egoitza-zentroetako plaza jakin batzuk aldi baterako erabiliz.
- c) **Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Osasun Sistema Nazionalaren osasun-prestazioak emateko araubideari buruzko Dekretua berrikustea (ekainaren 26ko 114/2012)**, osasun-arreta publikoan errolatuta ez dauden etxerik gabeko pertsonak sartzeko diraute-noztopoak ezabatzeke.
- d) Sistema horretan modu autonomoan maneiatzeko zailtasun gehien dituzten pertsonen besteak beste **osasun-zerbitzuetara laguntzeko eta haiekin bitartekari-funtzioak** egiteko programak antolatzea bultzatzea.
- e) **Diru-sarrerak bermatzeko errentara sartzeko betebeharrak betetzen dituzten etxerik gabeko pertsonen sarbidea errazteko programa edo unitate espezifikoak** ezartzea, bai eta jaso ditzaketen gainerako prestazio ekonomikoetarako ere (kotizatu gabekoen pentsioa...).
- f) **Enplegurako orientazioko programa zehatzak ezartzea** egoitza-bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonentzat.
- g) **Egoitza-bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonak zentro okupazionaletan, enplegu-zentro berezietan, laneratzeko enpresetan eta laguntzadun enplegu-programetan sartzeko errazteko neurriak** bultzatzea.
- h) **Etxerik gabeko pertsonak enplegu-politiketako "premia bereziko" kolektiboen artean sartzeko**, kontratazio-pizgarrietan kalitate-irizpideak txertatuz kontratuen kalitatearen eta egonkortasunaren arabera.

7. ardatzaren gidalerroak. Etixerik gabeko pertsonen aisialdia eta hezkuntza izan dezaketela eta gizartearen nahiz politikan parte har dezaketela bermatzea.

- a) **Etixerik gabeko pertsonen elkarteetan parte har dezatela bultzatzea eta arazo horien eragina jasaten duten pertsonen zuzenean eragiten dieten politika publikoekin lotutako diagnostikoak egitean eta erabakiak hartzean parte har dezatela sustatzea.**
- b) **Erabiltzaile adituaren figuran oinarritutako programak** gara daitezela sustatzea, egoitza-bazterkeria larriko egoeran dauden edo egon diren pertsonen esperientzia eta ezagutza aprobetxatze aldera.
- c) **Jardunbide egokien eskuliburu eta gidaliburuak** egitea **erabiltzaileek erabiltzen dituzten zentro eta programen kudeaketan parte har dezatela bultzatzeko.**
- d) Egoitza-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen **kultura- eta kirol-ekipamenduak erabiltzea errazteko programa zehatzak** garatzea.
- e) **Gizarte-bazterkeria egoera larrian dauden pertsonak sare sozialak eta teknologia berriak erabiltzen trebatzeko eta gaitzeko** programak garatzea.
- f) Bereziki etxerik gabeko pertsonen parte hartzeko **Helduen Etengabeko Ikaskuntzako jarduerak bultzatzea.**

8. ardatzaren gidalerroak. Komunitatearen sensibilizazioa eta inplikazioa hobetzea egoitza-bazterkeriari aurre hartzeko eta arazo hori lantzeko.

- a) **Gizarte-zerbitzuetako sailen, hirugarren sektoreko erakundeen eta udaletako eta autonomia-erkidegoko segurtasun-taldeen arteko lankidetzak-protokoloak** ezartzea etxerik gabeko pertsonen biktimizazio-egoerei aurre hartzeko neurriak eta gerta daitezkeen kasuen ikerketa eta ebazpena abian jartzeko.
- b) **Etxerik gabeko pertsonen aurkako gorroto-krimenekin lotutako sensibilizazio-gidak** egitea herritarrentzat oro har, bai eta gizarte-zerbitzuen, osasunaren, justiziaren eta segurtasunaren arloko profesionalentzat ere.
- c) **Alerta azkarreko eta datuak jasotzeko sistema** bat garatzea bazterkeria-egoeran dauden pertsonen aurka eginiko gorroto-delitu eta -krimenekin lotuta.
- d) **Estilo-eskuliburu bat** egitea eta **komunikabideetako profesionalekin prestakuntza-jarduerak egitea** egoitza-bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonekin lotutako estereotipoak ezabatzen laguntzeko.
- e) Laguntza ekonomikoak emanez eta/edo laguntza tekniko eta gainbegiratzeak eskainiz, **auto-antolakuntza komunitarioa eta bizilagunak antolatzeke sareak** sustatzea **egoitza-bazterkeriako egoeran dauden pertsonak babesteko zerbitzuak eskaintzeko.**
- f) **Jardunbide egokien gidaliburuak, protokoloak edo eskuliburuak** garatzea **bizilagunen onarpena eratzeko** etxerik gabeko pertsonentzako arreta-zentroak eta -programak ezartzeari eta zentro horien eta eremu bakoitzeko bizilagunen eta komunitateen elkarrekin ar-terko lankidetzak egituratzeari dagokionez.

9. ardatzaren gidalerroak. Koordinazio, jarraipen, ebaluazio eta ezagutzen kudeaketa- neurriak

- a) **Gizarte-zerbitzuetako eskualde guztien mailan hirugarren sektoreak eta gizarte-zerbitzu, enplegu, etxebizitza eta diru-sarreraren bermearen arloan lan egiten duten erakunde guztiek parte hartzen duten koordinazio-mahaia ezartzea**, jarduerak koordinatzeko eta lurraldean oinarritutako estrategia integralak ezartzeko.
- b) **Esku hartzeko eredu komunak egitea Zorroaren Dekretuan ezarritako gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonentzako zentro eta zerbitzuetarako**, arauak eta erregelamenduak, sartzeko baldintzak, eskaintako prestazioak eta esku hartzeko estrategiak bateratzeko.
- c) Eusko Jurlaritzaren, foru-aldundien eta Bilbo, Donostia eta Vitoria-Gasteizko Udalen artean ezarritako hitzarmena bultzatzea **gizarte-bazterkeria larriaren arloan ezagutza kudeatzeko jarduerak egiteko**.
- d) Gizarte Zerbitzuetako eta Etxebizitzako Behatokiaren bitartez, **datuak argitaratzea eta ikerketa espezifikoa egitea** sustatzea **egoitza-bazterkeria larriarekin eta horiei erantzuteko garatutako politika publikoekin lotuta**.
- e) **Prestakuntza-jarduerak** garatzea egoitza-bazterkeria larriaren arloan, bai arlo desberdinetako profesionalentzat (etxebizitza, enplegua, gizarte-zerbitzuak, osasuna, justizia, garraioak, segurtasun-taldeak...), bai herritarrentzat oro har, boluntarioentzat, komunikabideentzat eta erantzukizun politiko edo instituzionalak dituztenentzat.
- f) **Metodologia komun bitartez ebaluazioak egitea** bultzatzea, gizarte- eta/edo egoitza-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen arreta eskaintzearen arloan gaur egun esku hartzen duten zentro eta programetako kalitateari eta emaitzei buruz.
- g) **Ettxerik gabeko pertsonen egoerari** eta egoitza-bazterkeriaren aurkako politika publikoari buruz **herritarrek duten hautemateari buruzko inkesta zehatzak** egitea bultzatzea.
- h) **Mintegiak eta ikerketa- eta azterketa-jarduerak batzuk antolatzea** bultzatzea, **egoitza-bazterkeria larriko alderdi guztietan jardunbide egokiak hedatzeko, aztertze eta trukatze**ko.
- i) **Prestakuntzako, graduako eta graduondoko plan zehatzak** garatzea egoitza-bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonekin lan egiteko gizartearen arloan esku hartzeko profesionalak espezifikoki gaitzeko.

7. BIBLIOGRAFIA

Área de Gobierno de Familia, Servicios Sociales y Participación Ciudadana. *LARES. Estrategia Municipal para la Prevención y Atención al Sinhogarismo, 2015-2020*. Madril, Madrilgo Udala, 2015, 22. or.

Arza, J. *II Plan de Lucha contra la Exclusión Social en Navarra. Diagnóstico de la exclusión social en Navarra. Personas sin hogar*. Iruñea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 2008, 78. or.

Asociación Zubietxeeta Fundación EDE. Proyecto piloto para el acompañamiento social personalizado como fórmula innovadora de respuesta a personas con trastorno mental y en exclusión social. Bilbo, Zubietxe Elkartea, 2013, 159. or.

Blanco, J., et al. (coords.), Modelo Inclúe. La apuesta por una atención de calidad en el ámbito de la inclusión social. Vigo, Emaús Gizarte Fundazioa, 2015, 141. or.

Busch-Geertsema, V. The Finnish National Programme to Reduce Long-Term Homelessness. Synthesis report. Brusela, European Commission, 2010, 29. or.

Calgary Homeless Foundation. *System planning framework*. Calgary, Calgary Homeless Foundation, 2014, 33. or.

Bilboko Elizbarritiko Cáritas eta Munduko Medikak. Manual de buenas prácticas para la creación de alternativas de intervención dirigidas a la población drogodependiente en situación de exclusión social: un nuevo paradigma de intervención. Bilbo, Bilboko Elizbarritiko Cáritas, Munduko Medikak, 2013, 130. or.

Carr, S. . Personalisation: a rough guide. Serie: Adults' Services Scie Guide, nº 47. Londres, Social Care Institute for Excellence, 2012, 107. or.

Department for Communities and Local Government. *Addressing complex needs. Improving services for vulnerable homeless people*. Londres, Department for Communities and Local Government, 2015, 22. or.

Department for Communities and Local Government. *Making every contact count. A joint approach to preventing homelessness*. Londres, Department for Communities and Local Government, 2012, 36. or.

Department for Communities and Local Government. *Vision to end rough sleeping: no second night out nationwide*. Londres, HM Government, 2011, 32. or..

Duque, J. M. "Políticas de servicios sociales para la atención a personas en situación de exclusión residencial grave. Elementos para un diagnóstico y propuestas estratégicas". Zerbitzuan, 55. zk., 2014, 35.-46. or.

Estrategia Nacional Integral para Personas sin Hogar 2015-2020. Madril, Espainiako Gobernua, 2015, 54. or.

Estratégia Nacional para a Integração de Pessoas sem-abrigo. Prevenção, intervenção e acompanhamento, 2009-2015. Lisboa, Ministério do Trabalho e da Solidariedade Social, 2009, 58. or.

European Federation of National Organisations Working with the Homeless. *Ending homelessness: a handbook for policy makers*. Brusela, European Federation of National Organisations Working with the Homeless, 2010, 28. or.

European Federation of National Organisations Working with the Homeless. *On the way home?. FEANTSA monitoring report on homelessness and homeless policies in Europe*. Brusela, European Federation of National Organisations Working with the Homeless, 2012, 92. or.

European Federation of National Organisations Working with the Homeless. *Toolkit for developing an integrated strategy to tackle homelessness*. Brusela, European Federation of National Organisations Working with the Homeless, 2015.

Federación de Asociaciones de Centros para la Integración y Ayuda de Marginados (koord.). *100 Propuestas para una estrategia de erradicación del Sinhogarismo*. Madril, 2015, 12. or.

Grupo de Alojamiento de EAPN Madrid. *El modelo HousingFirst, una oportunidad para la erradicación del sinhogarismo en la Comunidad de Madrid*. Madril, Red Madrileña de Lucha contra la Pobreza y la Exclusión Social, 2013, 39. or.

Hidalgo, A. (ed.) et al. *Pacte parisien de lutte contre la grande exclusion 2015-2020: les engagements*. Paris, Paris.fr, 2015, 88. or.

Housing Strategy and Services. *Ten Year Homelessness Plan for Wales 2009-2019*. MerthyrTydfil, Welsh Assembly Government, 2009, 38. or.

Johnsen, S. eta Teixeira, L. *Staircases, elevators and cycles of change. 'Housing first' and other housing models for homeless people with complex support needs*. Londres, Crisis, 2010, 40. or.

Mansell, J. et al. *Desinstitucionalización y vida en la comunidad. Declaración del Grupo de Investigación sobre Política y Práctica Comparativas, de la Asociación Internacional para el Estudio Científico de las Discapacidades Intelectuales (IASSID)*. Zerbitzuan, 49. zk., 2011, 137.-146. or.

Martínez, T. et al. Modelo de atención centrada en la persona. Cuadernos prácticos. 1. La atención centrada en la persona. ¿En qué consiste este modelo de atención?/ Pertsonarenganoinarritutakoarreta-eredua. Koadernopraktikoak. 1. Pertsonarenganoinarritutakoarreta. Zertandatzaarreta-ereduhau?EuskoJaurlaritza-Gobierno Vasco, Fundación Matía, 24, 24.or., 2014.

Martínez, T. La atención centrada en la persona. Algunas claves para avanzar en los servicios gerontológicos. *Actas de la Dependencia*, 8. zk., 25.-47. or., 2013.

Osasun, GizartePolitika eta BerdintasunekoMinisterioa. *Configuración de una red local de atención a personas sin hogar integrada en el Sistema Público de Servicios Sociales. 100 argumentos y propuestas*. Serie: Informes, Estudios e Investigación 2011, Madril, Osasun, GizartePolitika eta BerdintasunekoMinisterioa, 2011, 63. or.

Navarro, M. A. "El fin del sinhogarismo en Euskadi ¿mito o realidad?". Zerbitzuan, 54. zk., 2013, 111.-125. or.

Opening doors. Federal Strategic Plan to Prevent and End Homelessness. Washington, US Interagency Council on Homelessness, 2010, 74. or.

Pauly, B. et al. *Housing and harm reduction: what is the role of harm reduction in addressing homelessness?* *International Journal of Drug Policy*, 24. bol., 4. zk., 284.-290. or., 2013.

Pleace, N. et al. *The Finnish homelessness strategy. An International Review*. Helsinki, Ministry of the Environment, 2015, 107. or.

Pleace, N. eta Bretherton, J. *Finding the Way Home. Housing-led responses and the homelessness strategy in Ireland*. York, Centre for Housing Policy, 2013, 36. or.

Ruiz, P. eta Beteta, P. "Reflexionado sobre la baja exigencia: una aproximación al trabajo con personas en exclusión residencial grave". *Zerbitzuan*, 61. zk., 2016, 43.-62.or.

Sahlin, I. "Searching for a homeless strategy in Sweden". *European Journal of Homelessness*, 9. bol., 2. zk., 2015, 161.-186. or.

Sales, A. "El sinhogarismo es un problema de vivienda". *Agenda Pública*, 2016ko ekainaren 3a.

SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa. Activación y derecho a la inclusión en el marco de las políticas de empleo y de garantía de ingresos en la CAPV/ Aktibazioa eta gizarteratzakoeskubidea, EAEko enpleguko eta diru-sarrerak bermatzeko politiken esparruan. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzako Gobernu Vasco, 119, 115. or. 2012.

SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa. II Estudio sobre la situación de las personas en situación de exclusión residencial grave en la CAPV 2014, 2015.

SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa. Reordenación de la red de recursos y programas para la inclusión social de Gipuzkoa. *Zerbitzuan* 59. zk., 2015.

Soulet, M. H. La reconnaissance du travail social palliatif. *Dépendances*, 33. zk., 2007, 14.-18. or.

Vandenbroucke, F. et al. European Consensus Conference on Homelessness (9-10 December 2010, Brussels): policy recommendations of the jury. Bruselas, European Federation of National Organisations Working with the Homeless, 2010, 28. or.

Verdugo, M. A. (dir.) et al. Model qualitat de vida. Informes sobre els perfils de serveis basats en el model de qualitat de vida per als serveis socials especialitzats de Catalunya. Barcelona, Departament de Benestar Social i Família, Generalitat de Catalunya, 2013, 88. or.